

JOSE BASTERRETXEA “OSKILLASO”
Euskaldunak Madrilen

JOSE BASTERRETXEA “OSKILLASO”

Euskaldunak Madrilen

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2003

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© *Obrarena*: Jose Basterretxearen oinordekoak
© *Sarrera-azterketarena*: Adolfo Arejita
© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: A. G. Rontegui, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-2967-03
ISBN: 84-89816-45-X

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabetaren alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

AURKIBIDEA

JOSE BASTERRETxea “OSKILLASO” (Madril 1911-Iruñea 1996)
BIOGRAFIA ETA LANAK. *Adolfo Arejita*

1. BIOGRAFIA-ZERTZELADAK	15
1.1. Umezaroa Gernikan	16
1.2. Valladolid eta Madrilén	19
1.3. Pariseko aldia eta Espainiako gerra	22
1.4. Iruñea, Lleida eta Madrilén	27
1.5. Iruñera	31
1.6. Euskaltzetasuna eta hizkuntzak	33
1.7. Harremanak	37
1.8. Euskara eta euskal literaturgintza	40
1.9. Pintura	46
2. OSKILLASOREN LANAK	47
2.1. Elaberriak	47
2.1.1. <i>Kurloiak</i> (1962)	51
2.1.2. <i>Euskaldunak Madril'en</i> (1963? / 1983?)	54
2.1.3. <i>Los gemelos de Iturriondo</i> (1986-87)	55
2.1.4. <i>Gabeko atorra</i> (1983/1988)	56
2.2. Narrazio laburra: Ipuinak	59
2.2.1. “Mikel eta erdaldunak” (1962)	59
2.2.2. “Nylonezko euritakoa” (1964)	59
2.2.3. “Nykatsbako gizonaren heriotza” (1967)	59
2.2.4. “Zerura joan eta atzera etorri” (1964)	60
2.2.5. “Hizkuntzalari handi bat” (1965)	60

2.2.6. “Euskalerriko baserrietan baño abadezaletasun gehiago Madrilen” (1967)	61
2.2.7. Beste ipuin edo istorio labur batzuk	61
2.3. Itzulpen literarioa	62
2.3.1. Elaberrien itzulpenak	62
2.3.2. Ipuin edo testu laburren itzulpenak	63
2.3.3. Itzulpenaren inguruko gogoeta	64
2.4. Hizkuntzaren didaktika eta gramatika	65
2.4.1. <i>El vasco de hoy</i> lana	65
2.4.2. Beste gramatika edo hizkuntza lanak	67
2.5. Euskararen gaineko saioak	68
2.5.1. Saio laburrak batasunaren gainean	68
2.5.2. <i>El libro negro del euskera</i> (1984)	69
2.6. Kazetaritza eta osterantzeko idazkiak	70
3. OSKILLASOREN EUSKARAREN EZAUGARRI BATZUK	70
3.1. Puntuazioa	70
3.2. Grafia	70
3.3. Morfologia ezaugarri batzuk	72
3.4. Lexikoa	73
4. EUSKARA BATURAKO EKARRIA: “EUSKARA OSOTUA”	73
4.1. Ereduaren ezaugarri gain-gaineko batzuk	76
4.2. Erdialdeko euskalkien ekarria	77
4.3. Lapurteraren ekarria	78
4.4. Bizkaieraren ekarria	79
4.5. Euskalkien lekua	81
5. <i>EUSKALDUNAK MADRILEN</i> ELABERRIA	81
5.1. Ahozko erregistroez zerbait	82
5.2. Gure edizioa	83
5.2.1. Aldaketak	83
6. BIBLIOGRAFIA	88
6.1. Idazlearen lanak	88
6.2. Idazleari eta bere lanari buruzko aipu batzuk	89

EUSKALDUNAK MADRILEN. *Oskillaso*

Hitzaurrea	93
Irakurleari	95
Hiri handi baterako sarreraa	99
I	99
II	100
III	104
IV	107
V	113
VI	114
Igande bat Madrilen	119
I	119
II	122
III	125
IV	128
V	132
VI	134
VII	140
VIII	142
Irakasleen autobusa	143
I	143
II	149
Instituto Nacional de Electrónica delakoan	151
I	151
II	154
III	156
Ostirale baten	159
I	159
II	161
III	162
IV	162
V	163

Biharamonean	165
I	165
II	166
III	169
Iziartxuren senargeia	173
I	173
II	175
Koreako gudua	179
I	179
II	180
Gudutokiko berriak	185
I	185
II	186
III	190
IV	192
V	194
Senar-emaztegeiak	197
I	197
II	199
Adiskide mamiak	203
I	203
II	205
III	206
Ezkongai-aldi baten azkena	209
I	209
II	212
III	213
Misioak ematen	215
I	215
II	218

Zerua goibeltzen hasten da	219
I	219
II	220
III	221
Fernando bakarrik gelditzen da	223
I	223
II	224
III	226
IV	228
V	231
VI	232
VII	234
VIII	236
Amaia	239
I	239
II	241
III	242
IV	246

JOSE BASTERRETxea “OSKILLASO”
(Madril 1911-Iruña 1996)

BIOGRAFIA ETA LANAK

Adolfo Arejita

1. BIOGRAFIA-ZERTZELADAK

Gure idazlearen bizi-zertzeladok atontzeko iturri diferenteak erabili ditut. Lehenengo eta behin, familiaren lekukotasun zuzena: modu zuzenean, idazlearen emazte alargun M^a Dolores eta euren seme-alaba Juan Pedro eta Mirenegandik jasoriko informazioa, eta zeharka, idazlearen neba-arrebengandik. Bigarrenez, J. A. Arana Martija jaunak Euskaltzaindirako, idazlea hil zen urtean (1996) atondu zuen biografia-kronika laburra, eta azkenik, idazleak bere elaberrietan eta saio-lanetan han-hor-hemen idatzi dituen zehetasun eta datuak, uste baino ugariagoak.

Jose Basterretxea, ezizenez ‘Oskillaso’, euskal idazle, ikertzaile eta kritiko ezaguna XX. mendearen hasieratik hamaika urtera jaio zen Madrilen; 1911eko abenduaren 9an, garbi esateko. Madrilen jaiotze hori suertezko jazoera izan zen. Aita, Juan Pedro Basterretxea Iraurgi, barku-kapitaina zen, jaiotzaz Amorebieta-koa, eta haren aita Abadiñokoa. Ama, Pilar Matoni Parra, Nafarroako Corella-n jaioa zen, lehen abizena italiarra zuela. Hala bada, “Oskillaso”k aita euskalduna zuen baina ama ez, ez baitzekien euskara.

1.1. Umezaroa Gernikan

Aita Madrilen zegoen baten, amak estatuko hiriburura bidaiia egin zuen seindun zegoela eta han suertatu zen jaiotzea Jose, seme zaharrena. Hura jaio eta gutxira Gernikara itzuli ziren, eta Bizkaiko uritxo horretan biziko da aurrerantzean familia. Han jaioko dira beste hiru seme-alabak: Itziar, Karmen eta Jon, gazteena, orain Madrilen bizi direnak. Oskillasok Gernikan emango ditu umetako eta mutikotako urteak, harik eta hamazazpi urte bete arte. Han ikasiko du euskara ere, baina etxean barik, kalean, mutiko-lagunekin batez ere. Beraren arre-bek, ostera, ez dute euskara askorik ikasiko. Orduko garaian ez ei zen dotorea neskatilek euskara egitea eta seguruenik inguruko gizartean mutilek baino harreman gutxiago izango zuten, aldi hartan emakumezkoek gutxiago irteten baitzuten. Anaia gazteenak, Jonek ere, ez zuen euskara ikasi, zeren artean umea baitzen Gernikatik Gaztela aldera etxez aldatu zirenean. Hala bada, aita Juan Pedro eta Jose seme zaharrena izango dira etxeko euskaldun bakarrak. Aitak, bestalde, egotaldi luzeak itsasoan egiten zituenez, harreman bakanak baino ez zitukeen seme-alabekin izango.

Saraspe auzoan bizi izan ziren, Asilo Calzada kalean. Aurrez aurre zuten Onaindia familiaren okindegia eta umetako lagun handiak izan ei zituen Dioni, Antonio eta Juanito Onaindia, geroago pelotari handi bihurtuko zirenak. Onaindia anaiok dira, besteak beste, *Kurloiak* elaberrian, zati handi baten autobiografikoa den horretan, azaltzen diren txikitako okerreria-lagunak, idazleak bere burua Patxi protagonistaren izenpean izkututzen duela. Idazle honen elaberririk, eta obrarik, esanguratsuen izango den horretan bere umetako Gernika islatzen du. Izan ere, bere bizitzako urterik gehienak, lehenengo Madrilen eta gero Iruñean emango baditu ere, Oskillasok gernikartzat edukiko du bere burua. Eta gernikartasun hori, geroago ikusiko dugunez, sarriro eta harrotasunez erakutsiko du han-hor-hemen, era duen guz-

tian. Ezizena hautatzean ere bai, ‘Oskillaso’ ezizena hautatzean. *Eskilaso* txori-izenari, gazt. ‘abubilla’, hala deritzo Bizkai erdialdean. Aitari omen egiten dio ezizen horren bidez, ezen, *Kurloiak* elaberriko Patxi protagonistari, idazlearen *alter ego* den horri, beraren aitak hala deritzo: “Hemen dator gure oskillaso”. Arana Martijak zehazten duenez, idazleak berari 1967an idatziriko gutun baten argitu ei zion ezizen-kontu hori: “Neure aitak alan esaten eustan erderazko ‘ganso’ esan gura ebanian. ‘Oskillasadak’ egitea erderazko ‘hacer gansadas’ zan gure etxean” (1996, 433).

Gernikar izate horretara bihurturik, idazleak bere elaberrietako protagonistari dialogoetan jalkiarazten dion berbeto-modua ere handikoa da. Askoz beranduago euskal entonazioaz



Ikasle-taldea Agustinoen ikastetxean. Gernika, 1917. Oskillaso, irakaslearen eskumatare hiruugarrena.

gerora egingo dituen ikerketek ere bere jaioterriko hizkera dute ardatz.

Agustinoen ikastetxera joan zen eskolara eta han egongo zen hamasei urtegaz batxiller amaitu arte. Ikastetxeak ateratzen zuen *Guernica* aldizkaritxoan ere erakutsi omen zituen gerora izango zituen trebetasun handi biak: arte- eta idaz-zaletasuna. Arana Martijak dioskunez, 1926an, oraindino 14 urteko zela, Don Kixote Mantxakoren lehen edizioaren azalaren irudi bat egin ei zuen eta aldizkarian atera; eta hurrengo urtean, 15 urtegaz, honako izenburudun idazlantxoan argitara omen zioten: “Caso de conciencia. Cuento que oí contar a mi abuelo”. Dena dela, ez ei zuen eduki agustinoen gomuta onik; belarrondoko galantak ere hartu zituen, antza, eta handik etorri zitzaioala esaten zuen, gerora kasurik egin ezta edo, bizitza guztian jasango zuen gorreria.

Gaztetxotatik, hamaika urterik edo, asma gaixoak jota zegoen Jose, eta arnasestuak, larrialdi estuak ematen ei zizkion Gernikako eguraldi umelak. Osasun arazo hori izan zen, itxuraz, klima lehorragoko paraje batera, Valladolid-era familia bizitzaz aldatzeko arrazoiak. 1928an joan ziren Gaztelako hiri horretara, Jose 17 urteko zela. Jose eta beraren familia ez ziren gehiago Gernikara bizitzen etorriko, baina udetan sarri. Valladolid-en aldikada bat eman ondoren —ez dakigu ziur zenbat urte, bi-edo agian?— Madrila aldatuko dira bizitzen eta hura izango dute euren bigarren eta aurrerantzeko aberria, Joserentzat izan ezik, ze hau gerra ostean Euskal Herrira itzuliko da berriz, nafar erreinu zaharreko hiriburura.

Gernikarekiko lokarria familiak ez du hautsiko: han utzi zituzten lagun eta senitartekoekiko harremanari sendo eutsiko diote eta urtean behin gutxienez, udetan, Gernikara itzuliko dira, lehenengo gurasoekin eta gero seme-alabak eurak osteko aldi luzeetan ere. Senitartekoei dagokienez, euren aitak, Juan Pedrok, bazuen Gernikan anaia bat, Benito, hiru seme-alaba zituena: Gurutz, Kepa eta Iziar. Juan Pedro itsasgizonaren lagunaren artean

han zegoen Castor Uriarte ere, esaterako. Jose, ostera, ez ei zen familiarekin Gernikara etortzen, asma gaixoa zela-ta.¹ Ezkondu ondoren, erraztasun gehiago izango du hurbiltasunagatik eta sarriago itzuliko da, dena dela, bere jaioterrira, seme-alabek ondo gogoratzen dutenez. Hauek diotenez, Benito osabaren seme-alabak, Gurutzi eta Kepa, izan dira euren lokarri nagusia Gernikan luzaroko denboran, eurok oraindik txikiak zirela batez ere.

Baina Oskillasok bere sorterriagazko atxikimendua bere elaberri eta narrazio luzeetan hilezkortuko du, batipat. *Kurloiak* (Kur), *Akatsbako gizonaren heriotza* (Akats) eta *Euskaldunak Madril'en* (EuskM) obretako protagonista “Arrigorrieta” deritzan herri edo hirikoa izango da —salbuespenez *Gabeko Atorra* (GabAt) elaberrian Gernikakoa dela diosku Mariño—, eta beronen konplexu bako edo nortasun sendoko hizkeratik da ezagun gernikarra dena. Ez hori bakarrik, gauza jakina da, elaberrietako protagonistek euren buruak Arrigorrietakotzat dituzten bezala, idazleak ere bere burua gernikartzat izan zuela bere bizi guztian. Gernikagazko barne atxikimendu hori sendoa izan dena gauza ageria da, beraz; are gehiago, dakigula bizi izan zen larogetik gora urteetan lehenengo hamasei-hamazazpi urteak baino ez zituela bizi jaioterrian, eta harik aurrera uriarekiko lokarria aldiari aldiango ikustaldien bidez baino ez zuela jagongo.

1.2. Valladolid eta Madrilen

Baina itzul gaitezen berriz biografia-harira. Valladolid-era joate horretan ere bazen familia arrazoi bat: amaren parteko amaren nebak-edo bizi ei ziren han. Gaztelako hiri horretan hasi-

¹ Anekdotak gisa M^a Dolores emazteak kontatu digu, gerra ostean, ezkondu eta ostetxoan, itzelezko gogoia etorri omen zitzaion Gernikara itzultzeko, eta emaztearekin hara joan zenean, gauera ezkerreko arnasarik hartu ezinik geratu omen zen eta gau osoa loak hartu barik igaro ei zuen. Hurrengo egunean ostera ere Iruñera itzuli behar.

ko da, hamazazpi urteko zela, orduan “Ciencias fisico-matemáticas” zeritzan karrera ikasten —gaurko Zientzia Zehatzen antzekoa—, geroago Madrilén segituko zuena.

GabAt elaberrian kontatzen dizkigu handi-handika Valladolid-go unibertsitari-bizimodu eta giroaren zertzeladak, nahiz obrako pasadizu eta zehaztasun batzuk beharbada asmatuak edo elaberrirako begitanduak izan daitezkeen. Elaberrian, Mariño Ategorrietakoa Valladolid-go Unibertsitatean dago medikuntza ikasten, odontologia adarrean. Nahiz idazleak medikuntzarik ikasi ez zuen, Juan Pedro beraren semeak dioskunez, gaztetan aitak medikuntzarako zaletasun handia eduki omen zuen eta espezialitate hori ikasi gura izan ei zuen, baina irakasle eta etxekoen artean bideratu ei zuten zientzietaruntz, matematiketarako erraztasun ikaragarria zuelako. *GabAt* elaberrian ospitale barruko mundua erakusten luze joko du idazleak: bigarren atala osorik (19-27). Mariño protagonista, auto ezbehar baten ondorioz izterra hautsi zuela-ta, ospitalera altxatuko dute eta han egin beharko du egotalditxo bat mediku eta erizainen artean. Atxakia ederra hango atzera-aurrera guztiak zertzelatzeko: tratamendu, botika eta beste. Orain argitara dakargun *EuskM* honetan ere autoreak berak aitortuko digu berriz, Txomin protagonistaren ahoz, bere borondatez baino gehiago ingurukoek beharturik zuzendu zela matematikak eta fisika ikastera:

“Eta zergatikán estudiatu zendun ba karrera hori?” esan zion Garmendia’k, sudurzilo handietatik zeihar bi kee xirrista boteaz.

“Zegaitik?” esan zuan Txomin’ek, “ba estudixetan hasi nintzanién gazte gixá nintzalako jakiteko. Matematikak ikaste-ko erreztasuna nekala ta, fisikie be gustetan jatela ta, gerokorari begiratu gabe, hamazazpi urte gaz hautatu biherrien, enuekan esperientzirik eta horregaitik.”

Oraingo elaberrian, Txomin protagonistak duen adiskide euskaldun bat, Etxeberria doktorea, medikua da eta berak lan egiten

duen klinikako kirofanora gonbidatuko du gure protagonista, egin behar duen ebakuntza bat bera aurrean dela ikustera. Ebakuntza horren zertzelada eta inguru-minguruak zehatz kontatuko dizkigu idazle jakingurakoak.

GabAt elaberrian, beste ikasle euskaldun batzuekiko harremanak ere garantzen dizkigu; hizkeraz giputzak dira unibertsitari-lagunok, eta segurtasun apur batez pentsa daiteke, idazlearen unibertsitari garaiko benetako bizipen eta gertaerekin lotura estua dutela. Geroago bere idazlanetan, besteak beste *El libro negro del euskara* (LibNeg) saioan behin eta berriro gogoratuko digu, euskaldunek, nork bere euskara egin ezker, erraz elkar aditzen dutela eta erraz, baita, besteena ikasi. Eta euskararentzat berbeta-modu natural hori erreibindikatu du bere bizi guztian. Halakoxe euskal harremana islatzen da *GabAt* eta ondoko beste obra guztietan.

Valladolid-en urte bi-edo egin eta ostean, Jose 19 urteko zela —1930ean-edo izango zen—, aita, itsasgizona zenez, “Cuerpo general de Servicios Marítimos” erakunde ofizialerako oposizioetara aurkeztu zen, itsasoratzeari utzi eta lehorrean familiarekin gelditzeko usteaz, eta oposaketok atera ondoren, familia Madrila aldatu zen bizitzera, aitak lan berria han zuen ezker, eta Madrilén segituko du ikasketekin Josek. Unibertsitate-ikasketak noiz amaitu zituen ez dakigu zehatz; agian 1933an², baina ez da gauza segurua. Lizentziatura gerra osterara atera ez zuelako susmoa dugu, beste datu batzuen arabera. Gerra hasten denean ere Unibertsitateari atxikirik dago moduren baten; beharbada, postgrado-kurtsoren bat edo luzapen-ikasketaren batzuk egiten egongo zen. Aldi horretan, Vazquez Montalbán idazleak Galindez-en biografian esaten duen bezala, Madrilén Eusko Ikasle Batzako buru izendatu zuten. Gudu aurretxoan izango zen hori.

² Hala dio Arana Martijak bere kronikan —eta honi datuak biografiatuak berak eman bide zizkion—, eta egia izan daiteke.

Uste barik hain saltsa handian sartu zen ezen, ardura berri horrek ikasketa-kurtso oso bat galdu eragin ei zion³. Horregatik bada, badirudi gudu aurrean ez zituela unibertitate-ikasketak burutu. Garai horretan ezagutu bide zuen Madrilen Jon Bilbao, gero gudari-kapitaina izango zena. Oskillasok berak ez zuen soldadutzarik egin; belarriko gorragatik libratu zen. Familiako inor ere ez zen soldadutzara joan, ez aita, ez bere anaiak. Familiak Madrilen segitu zuen aitak lana han zuen bitartean, hau da, hiriburua frankotarren mendean jausi aurretik (1939), zeren orduan hango funtzionari-talde osoa Bartzelonara aldatu baitzen, Oskillasoren familia ere barru zela.

1.3. Pariseko aldia eta Espainiako gerra

Baina hori gertatu baino ia urte bi lehenagorik Parisen zen Jose Basterretxea. Guduak leher egin zuenean 1936an, Jose Madrilen zen bere familiarekin, semeak dioskunez. Harik lasterrera hasiko zuen, Frantziako hiribururaino eramango zuen erbestealdia. 1937an igaro zen Frantziara, azkenean Parisen amaitzeko.⁴ Espainian guduak leher egin ondoren beraz, eta Francoren atzaparretatik ihes egiteko, itxura baten.

Aldi horretako zertzeladak bere seme Juan Pedrok zehaztasun gehiagoz kontatu dizkigu. Madrilen Eusko Ikasle Batzako buru zenez, Eusko Jaurlaritza osatu zenean gudu garai gordinean, mandatari edo ordezkari antzeko izendatu ei zuten Madrilen. Hori 1936ko udagoien-negu inguruan izango zen. Anekdota modura diosku, berau arduratu ei zen Galindez euskal politikariari Madrilen babesa emateko, bera jagoteko bizkarzain bat zuzenduaz. Euskal Herrian egoera lastu zenean, 1937an Bilbora etorri omen zen mobilizaturik, baina hemen ez diote ardura zehatz bat izendatuko. Bilbo jausteko zorioan dago. Uri honetan ezagupide onen

³ Hala kontatu digu Juan Pedro beraren semeak, aitak berari aitortuta.

⁴ Data horretan bat dator Arana Martija ere.

bat egiten du, eta gasolino baten lekua egiten diote, eta gauez lor-
tzen dute itsasoratzea Cervera gudu-itsasontziari burla eginez, eta
orduko beste politika arduradun batzuekin batera, Donibane
Lohitzunera heltzea lortuko du. Ondoko hileak, 1937ko bigarren
parte gutxi gorabehera, Ifarralde horretan igaro ei zituen, Doni-
banen eta Biarritzen, ahal zuen moduan bizitzen. Nahiko egoera
latzean, nolana ere, orduan erbestetu ziren beste askoren antze-
an, ez diru ez bizibide barik. Orduan izan zuen, hurrean, frantses
ikasteko era ona.⁵ Eztasun-egoera hau aldatu ei zitzaion, orduko
Eusko Jaurlaritzak atzerriko gobernua Parisen eratu zuenean, edo
bulegoa han ireki. Lana eskaini omen zioten han eta horregatik
joan ei zen Frantziako hiriburura bizitzera. Harik aurrera eroso-
ago bizi ahal izango zen, soldata baten segurtasunaz.⁶ Ziur daki-
guna, Parisa bakarrik joan zela, itxura baten harreman onak bazi-
tuen ere. Egoera erosoago horretan, Sorbonako unibertsitatean
matrikulatu zen zientzia adarrean; zientzia zehatzak, matematika
eta fisika ikasten zuen denbora berean frantses hizkuntza ere
sakontzen zuela.⁷ Sorbonan Cambridge-eko antzeko ikasketa-sis-
tema ei zegoen, ikasketa gidatua eta nork bere kabuz lan egin
beharrekoa. Horrek asko lagundu ei zion, gero atzera Madrila
bihurtu zenean Espainian lizentziatura abantailaz atera ahal iza-

⁵ Baliteke frantses ikasten Gernikako agustinoen ikastetxean hasi izana.

⁶ Alabak, beharbada zehaztasunok ondo ez zekizkiela, bertsio desberdina eman zigun hasieran. Urte zehatzik ez dakiela baina, 36 inguruan edo joango zela Parisa, baina guduak eztanda egin baino lehen, nolana ere. Parisa joan zela Sorbonan zientzia zehatzak ikastera, edo arlo horretako bere ikasketak hedatze-ko asmoz. Madrilgo Complutensean ikasketak burutu ondoren edo. Eta familiak diruz laguntzen omen zuen, harik eta gudua etorri arte. Ordutik aurrera bere kon-
tura bizi behar izan zuela, umeei eskolak-eta emanez.

⁷ Urte asko geroago, emazte eta seme-alaba txikiekin berriro Parisa itzuli zenean —oraingoan umeei udaldian frantses ikasteko egitasmoaz—, oraindik erbestealdiko Parisen gauza asko gogoratzen omen zituen. Gudu-aurrean ilun edo kolore beltzeska zuten eraikinak garbitzen ari omen ziren orduan. Artean berak beltz ezagaturiko etxe eder askok orain kolore argia omen zuten.

teko. Sorbonan ezagutuko ditu Aldanondo eta beste euskaldun batzuk.

Kanpo hizkuntzetarako gerora erakutsiko zuen zaletasuna Parisgo egotaldian bizitu zela pentsa daiteke. Jatorriz euskalduna izan eta hainbat urte Gaztelan igaro ondoren, hizkuntzetarako sentiberatasun berezia zuen gaztetarik. Nolanahi ere, frantsesa izan zen ikasi zuen lehen kanpo-hizkuntza, nahiz gerora ingeles hizkuntza eta zibilizazioaren mirespena askoz handiagoa gertatu-ko zaion. Frantziako egotaldiari esker frantses hizkuntza ondo jabetzera heldu zen. Ingelesarekin handik luze barik hasi zelako susmoa dugu. Hizkuntza-ikasketen gai honek berebiziko garrantzia izango du gure biografiatuaren bizitzan, zeren gure idazleak, nahiz zientzia eta matematiketan eduki unibertsitate-formazioa, hizkuntza-irakaskuntza izango du bere bizitzako lanbide nagusia, ingelesarena zehazki, baina euskararen irakaste metodologia lantzen ere asko lagunduko diona. Izan ere, ikusiko dugunez, hizkuntzen irakaskuntza izango du iker eremu kutunenatariko bat. Ingelesa lanbide izango badu ere, euskara —eta batez ere euskarazko literaturgintza eta ikerkuntza— izango da barruak aginduko dion zaletasun nagusia, astialdirik asko horretan emango ditu eta hori berori izango da poz-nahigabe nagusiak ekarriko dizkiona. Orduko garaian eta orduko Iruñeko gizarte-giroan pentsaezina zen euskara lanbide bihurtzea.

Gatozen berriro Parisgo aldikada horretara. Lasaialdi baten ondoren, gauzak berriro okertu zitzaizkion, eta diru-eztasunez berriro ere gorriak ikusi zituen. Etxez aldatuko da eta umeei eskolak emanez aterako du bizimodua. Egoera eramanezina gertatu zitzaionean, Paris utzi eta norabait joatea pentsatzen hasi zen.

Bazuen adiskide euskaldun-amerikar bat, Mendieta izenekoa, gudu aurretik ezagutzen zuena, beharbada Madrilgo denboretatik -edo, eta Espainiako gerrak eztanda egin zuenean Filipinetan bizi zena. Harremanak zituzten gutunez. Eta hark bazekien Oskillasoren egoeraren berri. Eta handik ahaleginak egin zizkion, antza, Filipinetara joan zedin. Lana bilatu omen zion familia aberats

baten, instruktore modura edo.⁸ Ordurako gudu-hotsak ere gero eta hurbilago zetozen, eta arriskuak ere nolanhikoak ez baitziren, bien artean egin zuten plana Frantziatik Filipinetara joateko. Asmoa zen Marseilla-n itsasontzi bat hartu, polizoi modura bertan sartuta, eta gero itsasoan bere burua agertu eta itsasontzian lan eginez bidaia ordaintzea. Ideia horrekin joan ei zen Basterretxea Marseillara. Eta han, itsas portu askotan itsasgizon euskaldunak egoten zirela zekienez —aitari sarri entzuna zion, antza, nonahi zela ere itsas portu guztietan topatzen zituela euskaldunak—, han ere bilatuko zituelako ustea zuen eta, haietariko batzuekin topo egin ei zuen. Markinako euskaran —edo markinartzat zeukan berbakeran— berbetan entzun ei zituen batzuk, eta haiekin berba eginez, atzeratu eragin ei zioten bere asmo arriskutsu horretatik, erokeria garbia zela-ta. Haiek esan ei zioten polizoiak itsas handian uretara jaurtikitzen zituela tripulazioak. Eta horrek beldurturik ez ei zen ontziratu, hain suerte handiz ezen itsasontzi hori bere itsasbidean zihoala japoniarrek bonbardatu eta hondoratua gertatu omen zen. Horregatik beharbada, Oskillasoren plan horren berri izan zuten bere adiskide bakanek, Mendietak eta Jon Bilbaok, hiltzat eduki zuten luzaroan, eta beronek ere bai haiek.

1939garren urtea zen. Zer egin orduan? Planez aldatzea erabaki zuen. Marseillatik Bartzelonara bihurtzea, oraindik hau Errepublikaren eskuetan zegoen aldian, han zeukan familia osoa eta. Bilbora edota Bizkaira etortzeak ez zuen arrazoirik: etxeko ez seniderik ez zeukan han, eta gainera errazago identifika zezaketen. Bartzelonan ez, ordea. Han ez zuen inork ezagutzen. Bestetik, asko ziren gorrien bandokoen artean, Frantziatik Espainiara

⁸ Mendieta horrek, amerikar herritartasuna baitzuen, amerikarrekin gudua egingo zuen gero mundu-gerratean; telekomunikazio-talde baten buru izango zen, haiek euskaldunak eta indio nabajoak erabiltzen baitzituzten zeregin horretarako, japoniarrek euren mezuak atzeman ez zituzten. Pazifikoko isla askotako desenbarkoetan, eta Normandiakoan ere, parte hartu zuen, eta gudu-heroetzat izendatua izan zen geroago, bere irudia *Live* aldizkariaren azalean agertzen zela.

Kataluniako mugatik sartzen zirenak. Erbestetu multzo horren erdian nor zen inork jakin gabe igaro zitekeela uste zuen. Eta estatu barruan gertatzen bazen, erbestealdia saihestu ahal izango zue-la. Ez dakigu garbi, egia esan, mugatik edo barkuz etorri zen, bai-na Bartzelonara ailegatu zen edozelan ere. Han ere ba ei zituen kontaktuak (lagunak edo ezagunak) eta haietakoren batek utzita-ko portu inguruko etxe baten egon omen zen, baina ez gurasoak bizi ziren etxean. Soldadu izateko izena eman zuen, seguruago baitzen. Bartzelonako azken gudaldia Kataluniako hiriburuan bizi izan zuen, hori ziur dakigu.

Frankotarrak sartzean Oskillasoren aita preso hartu zuten. Giltzapetu zuten, ez euskalduna edo abertzalea izateagatik, erre-publika denboran itsas armadako funtzionario izateagatik baizik, itxura denez. Familiak ez zuen berez inplikazio politikorik. Bera bezala beste asko ei zeuden giltzapeturik. Kartzelaratzeak fami-liaren egoera asko laztu zuen. Jatekoa eroan behar izaten ei zioten kartzelara. Aita horrek hainbat denbora eman zuen kartzelan, eta irteteko presa gabe, antza. Hala behintzat bizirik irteteko aukera gehiago ei zeukan. Izan ere, kartzelatik arin ateratzen zituztenak fusilatze-ko errotan ei zituzten; horren zurrumurrua bazuten atxi-lo zeudenek ere.⁹ Jon seme gazteenak “División Azul”-en izena eman zuen. Batetik aita kartzelatik libratzeko. Bestetik, soldata doblea ematen ziotelako. Zauritu ere omen zuten Errusiako fron-tean. Lehenengo gudari izana zen, Durangoko frontean. Kartze-laldia amaitu eta laster, Bartzelonatik Madrilera itzuliko da berriz familia. 1940. urtean izan behar zuen.

Bide batez esan dezadan, idazleak bere literatura-emaiztan ez duela atzerrialdiaz eta Espainiako guduaz edota gudu-osteaz aipu modurik egiten. Itxura baten kilikagarria izan zitekeen, bizi izan zuen ikuspegitik aldikada larri hori literatura-gai bihurtzea. Bai-

⁹ Historiagileek ondo frogatu dutenez, asko eta asko izan ziren Errepublikarekin kolaboratu zutenen artean, edo gudian edo administrazio-lanetan, giltzapetuak izan ondoren mendekuz fusilatu izan zituztenak.

na idazlea ez da gudu eta politika-gaiak literaturara eroan zalea.¹⁰ Asko sufriarazten ziolako, beharbada.

1.4. Iruñea, Lleida eta Madrilén

Oskillaso Iruñera lehenengoz 1940an etorri zen, gerra amaitu ostetxoan beraz. Pachero Esparza nafar adiskidearen bidez etorri zen, antza. Orduan ezagutu zuen Cabasés aita, gero luzaroan lagun handi izango zuena. Ingeleseko eskolak ematen aurkituko du lana, “Vínculo” plazan zegoen Principe de Viana institutuan. Artean Jose Agerre izan zen ingeles irakasle, eta nazionalista izateagatik kendu zuten kargutik. Haren ordeztatu zen Oskillaso —bizitzaren ironia zer den: abertzale berri bat abertzale zaharren lekuan—. Mutilek goizetan ikasten zuten eta neskatilek arratsaldetan, eta han ezagutu zuen, geroago emazte egingo zuen M^a Dolores.

Ingeles hizkuntza frantsesaren ostean ikasi zuen, etxekoek dioskutenez, baina segitu-segituan izan behar zuen. Beste gauza askotan bezala autodidakta sinetsia eta ekina zenez —artean, literaturgintzan, euskal gramatikan, eskulanetan... eta igeri egiten—, Frantziako egotaldian edo gudu denboran bertan hasiko zen ingelesarekin, geroago alemanarekin egin zuen bezala. Haren hainbat liburu gordetzen dira Iruñeko etxean, frantsesez, ingelesez eta italiaraz, matematikari buruz. Ingelesa bihurtuko zen aurrerago, batez ere 1954an oposizioak atera ondoren, bere irakaskuntza-espezialitatea, eta horretan jardungo zuen zaharsaridun izatera heldu arte.

Ingelesa ez zen Oskillasorentzat hizkuntza soil bat; burutik behatzen maite zuen eta atsegin zuen kultura, pentsamolde eta

¹⁰ *EuskMad* elaberri honen “Irakurleari” sarreratxoan berak elaberri honean egindako akats legez agertzen digu ideologiaren gainean hitz egitea: “Akats bat aurkitzen diot nik eleberri honi nere gustorako. Politikan sartzen dala. Gaiaren indarrak berak eraman ninduan ni, jakin barik, atsegin ezitzaizkidan bideetatik.”

zibilizazio baten ezaugarria zen. Eta gehiago esan daiteke: ingeles-zaletasuna aitatatik zetorkion. Itsasgizonen artean bereziki, lehenagotik ere ingelesa hizkuntza garrantzitsua zen, ez frantsesa, kultura eta gizarte gune askotan bezala. Bere aita Juan Pedrok bazekien ingeles: itsasgizon kualifikatua izanik, ezinbestekoa zuen, nautikan lizentziatua baitzen. Bigarren mundu gerratean britainiarren aldekoa izan zen, ardatzekoen kontrakoa. Hori normala zen itsastarren artean. Eta joera hori euskaltzaleen artean ere bazegoen. Gogora ditzagun, 1914-18ko Gerrate Nagusian Kirikiñok-eta izan zuten jarrera anglofiloa. Juan Pedro aitak, Espainiako guduaren ostean ere kolaboratu zuen ingelesekin, isilpeko korrespontsal gisa Londongo BBC-ra Madrildik albisteak eta kronikak bidaliz.

Jose Basterretxearen Iruñeko egotaldira itzuliz, urte t'erdi inguru egon ei zen han eta gero ostera ere Madrila joan ei zen matematika irakasle moduan (1941ean?). Han ikasteari ekingo dio berriz, gudu aurrean hasi eta Sorbonan jarraiera eman zien ikasketen lizentziatura oraindino ateratzeko zeukalako.¹¹ Fisikak ikasten ere ekin omen zion Complutense-an ondoko urteetan —1943gn urtetik aurrera izango zen, beharbada—, behin Zientzia Zehatzak amaiturik zituenez, asignatura asko baliokidetzen baitzizkioten.

Aldi-bitarte horretan artegintza ere landuko du, Oskillaso gaztearen aspaldiko zaletasunetariko bat pintura baitzen. Hiriburuko “Escuela de Bellas Artes de San Fernando” delakoan izena eman eta margolaritza lantzen saiatu ei zen. Ordukoa edo gero-txoagokoa izan behar du aitari egin zion erretratuak, 45eko data duena. Sariren bat ere jaso zuen erretratu horrekin eta orduko prentsan erreproduziturik azaldu zen.¹² Baina ez ei zen luzaro

¹¹ Hala ziurtatu digu Juan Pedro beraren semeak.

¹² Aitaren erretratua Madrilgo egunkari baten 1945-XII-13ko alean agertu zen erreproduziturik, honako izenburu eta azpi-testuarekin: “Obra de Basterrechea. Magnífico retrato del notable pintor José de Basterrechea, que obtiene un gran éxito en el Salón de Otoño del Palacio de Exposiciones del Retiro.”

egon eskola horretan, izan ere autodidakta izateko bokazioa indartsuagoa zuen, horretan zein beste edozein zeregin edo zaletasunetan, inoren esanera egoteko baino.¹³ Aldi horretan Madril en egin zen erakusketa kolektibo baten ere partaide izan zen.

Ondoren Lleidan sei edo zazpi urte eman zituen hango institutuan ingeles irakasten. 1944-1950 bitartean izan behar zuen, eta ez, Arana Martijak dioen bezala, 1946-1952 bitartean. Emazte M^a Doloresek ziurtzat jotzen du Lleidara 1944an joan zelakoa, izan ere 1944. urte horretan sendotu zen Jose eta M^a Dolore sen arteko harremana. Han zazpi urte igaro ei zituen. Beraz 1950era arte.

Lleidako egotaldi luze horren gomuta ona izan zuen, baina denbora alferrik galdu izanaren sentsasioa ere utzi omen zion. Ba ei ziren han euskal pelotariak eta haiekin harreman handia eduki ei zuen. Ordukoa dugu pintatu zuen pelotarien koa-droa. Haiekin euskara egiteko era ona izango zuen seguru-erik. Baina katalana ere ikasi bide zuen, zeren urte asko geroago semea lagun zuela Lleidako institutura



Lleida, 1945. Oskillaso, ezkerrean, lagun batekin.

¹³ Billboko Mikeldi galerian 1969an, martxoaren 25etik apirilaren 7ra egin zuen erakusketarako argitaratu zen orri biko egitarauan hau idazten zuen —eta euskaraturik emango dugu—: “Sekula ez dut eduki irakaslerik. Ezer ikasi izan badut, izan da Europako museo nagusietako maisurik handienen obra ikusi eta aztertu eta ostean, neure kabuz ikertu dudalako.”

agiriren baten bila bihurtu zenean, hau harriturik geratu omen zen aita hangoekein katalanez berbetan entzunda. Argitara dakargun elaberriko datak ere bat datoz guk eman ditugunekin. *EuskM* elaberriko protagonista, Txomin, 1950ean dator Madrilerara, eta hango “Instituto Nacional de Electrónica” delakoan hasten da lanean. Posible da, berez, idazleak beren-beregi urteak aldatu izatea ere eta egiazko gertaerak urte bi atzerago izatea, baina elaberriko gertaerak errealitatetik hurbilegi daude hori sinesteko. Ziur dakiguna da, 1952an irakasle-laguntzaile gisa lanean hasten dela Unibertsitate Zentraleko Zientzia Fakultatean.

Bizitza errealean, Lleidatik Madrilerara bihurtzeko arrazoia, hango “Instituto Nacional de Electrónica”n lan-plaza bat ateratzeko zuen aukera izan zen. Fisikari batentzako plaza bat ei zegoen eta han lan egiten zuen bere lagun batek, Dominguez zeritzanak, plaza hori eskaini ei zion. Bekario modura-edo egon zen aldi baten, baina ez luzaro itxura denez, ze azkenean militar baten semea sartu zuten plaza hartan. Argitara dakargun elaberri honek idazleak ikertegi horretan lan egiten zuen aldia hartzen du, eta hango data errealitateari dagokion ala ez zintzilik utzirik —1950. urtea, elaberrian bezala, edo berandutxoago—. Elaberriko zehaztasun nagusiak autobiografikoak izatekotan, Lleidako egotaldi luzetik Madrilerara itzultzen deneko aldian kokatu behar da elaberria.

Madrilgo Universidad Central-eko “Facultad de Ciencias”ek luzatutako agirian ziurtatzen da hiru kurtso eman zituela Basterretxeak irakasle laguntzaile gisa fakultate horretan: 1952-53, 53-54 eta 54-55, beraz azken urte horretako ekain-uztail ingururara arte.¹⁴

¹⁴ Agiriak dio: “... prestó sus servicios en esta Facultad como Ayudante de clases prácticas, durante el Curso 1952-53, en las asignaturas de *Física Experimental y Matemáticas Especiales*; durante el Curso 1953-54 en las de *Física General y Matemáticas Generales* y durante el Curso 1954-55 en la de *Física General*.”

EuskM elaberrian ematen dituen datuei jaramoten badiegu, hango protagonistak, Txominek —eta Domingo Arregi edo “Txomin” Arrigorrietakoa ez dira besterik Jose Basterretxea idazle genikarraren ispilua baino, anekdotak aparte lagata—, Koreako gerraren hasieretan (1950) institutu horretan lan egiten zuela esanez gainera, aurretik eginiko ikasketen nonzeberriak ere ematen dizkigu, ez dakigu idazleari guztiz egokitzen zaizkion baina. Unibertsitatean karrera ikasten bost urte eman zituela dio. Eta hara baino lehenagoko ikasketez ere diosku: “Eskolako denporie kontetan bada, ni hiru urte egon nintzen eskolan eta gero zazpi kolejixoan. Dana konteu ezkerro hamabost urte” ikasketak egiten. Beste pertsonaia baten buruan ere, bere ikasketen zertzelada autobiografikoak ematen dizkigula susma daiteke: “José López, hoge’ta zortzi urteko mutila, zazpi urte egon zan unibersidadien, eta oindino Paris’a joan da ikasten.”¹⁵ Eta ikaste-zaletasun horren atzean dagoen arrazoia ere ematen digu: “Hil arte ibili biher ikasten holako carrera bategaz hasi ezkerro, atzeratuta gelditutie gure eztabenak”.

1.5. Iruñera

Madrilgo egotaldia 1955era arte luzatu zen. Urte horretan Iruñera dator. Ezer ere barik etorri ei zen, diosku emazteak. “Aldean daukanagaz” edo “aldekoakaz”, gure euskaran esaten den legez. Iruñeko institutuan matematikak irakasten hasiko da. Artean, han irakasten zegoen Jose Maria Urmeneta Algortara dator eta haren gomendioz sartuko da Basterretxea plaza horretan. Handik urte bira ezkonduko da, 1957an, Maria Dolores Moreno Zenoz Atarrabiako alabarekin, gaur bere alarguna dena. Hamazazpi urte lehenago elkar ezagutu zutenetik harremana beti zaindu izan zuten, batzuetan sarriago, beste batzuetan mehatza-

¹⁵ Jose Basterretxeak 1939. urtean, Parisetik Marseillara eta handik Bartzeilonara etorri zenean, 28 urte zituen. Horregatik eta Parisa ikastera joan zela dioelako pentsa daiteke bere buruaz ari dela.



Maria Dolores Moreno emaztearekin, ezkonberritan. Donostia, 1957.

go. Urte horretan sartu zen lanean Nafarroako Unibertsitatean ere, fisika irakasten eta laboratoriorik praktiken arduradun modura.

Handik urte bira, 1959an, Madrilén ingeles oposizioetara aurkeztuko da eta, zerrendan goiko postuetan zegoenez, Iruñea hautatuko du. Hango Principe de Viana institutuan segituko du ingeles katedraren jabe, harik eta 1981ean zaharsaridun bihurtu arte. 1959ko urte horretan izango dute lehenengo semea, Juan Pedro, eta handik urte bira alaba, Mirentxu.

Euskaltzaindiak 1963an izendatu zuen laguntzaile.

Nafarroako Unibertsitatean 1970eko urrian hasiko da lanean Euskara Irakasle gisa —irakasle asoziatu statusaz— eta han zaharsaridun egin eta geroago ere luzaro ekingo dio irakasten, gutxienez 1986ra arte.¹⁶

¹⁶ Geroago ere agian bai. Nafarroako Unibertsitateak gutun bat bialdu zion 1994an, 94-95 kurtsoan euskara irakasle gisa kontratua berritzea eskainiz.

1969an arte-erakusketa bi egingo ditu, Bilbon lehenengo eta Donostian ondoren. Gure idazle eta ertilariak aurreragoko urteetan eginiko olio-pinturak erakusten ditu saio horietan.

1995ean Euskal Idazleen Elkarteak omenaldia egin zion, beste idazle batzuekin batera.

1996. urtean EIZIE, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak ohorezko bazkide izendatu zuen, euskal itzulpengintzan burua goian erakutsi zuten beste idazle batzuekin batera.

1.6. Euskalzaletasuna eta hizkuntzak

Iruñera etorri osteko urteak euskarari eskainirik badaude ere neurri handi baten —eta alderdi hori da guri hemen gehien ardurara diguna—, Oskillasoren euskalzaletasuna askoz lehenagotik zetorren. Txikitarik gehiago gorde, zaindu eta landu duen barne-sentipen bat izan dela esango genuke. Gaztezarohan sendotu eta mardulduko den sentipena, eta gudu aurrean zein gudu ondoren, girorik atzerrikoienean ere bizirik eutsi eta jagongo duena: irakurketa bidez batetik, baina nonnahi dagoela topez egiten duen euskaldun guztiekin mintzatuz eta harremana izanez bestetik. Emazte alargunari behin eta berriro entzun diogu, senarra, nonnahi ibili dela ere, lagun euskaldunak bilatzen saiatu izan dela. Berberak aitortuko digu *EuskM* elaberri honen hitzaurrean:

“Haurtzaroa lagunekin euskaraz igaro duena, Euskal Herritik kanpora joaten bada, gehien gehienetan herri mina sentiduko du (...) eta herri min honek beste euskaldunen tratua billatzera eramango du.”

Idatzirik utzi zituen elaberriok dira haren euskalzaletasunaren eboluzioaren lekukorik onena. Hiru euskal elaberrietan eta beste narrazio laburretan idoro ditzakegu umetatik gora izan zuen euskalzaletasunaren zidurriak: *Kurl* obran haurtzaroa, Gernikan bizi zenekoa; *GabAt* obran unibertsitari garaia, Valladolid-en bizi zenekoa; eta *EuskM* obran heldutasunekoa, Madrilen bizi zenekoa.

Euskara-zaletasuna, txikitatik zekarren dudatzeko. Euskararen mundu afektiboa, zati handi baten, Gernikarekin loturik zegoen, elaberrietako Arrigorrietaekin. Bizitza errealera joanda, Gernikako mutiko-lagunekin ikasi eta sendotu zuen gehienbat bere euskara. Familian aitarekin baino ez zuen egiten; eta egin ahal zuenean, jakina: hura itsasotik zetorrenean, zeren itsasoan ematen baitzuen denborarik gehiena. Familian, bai Gernikan, eta gero askoz gehiago Gaztelerrian, giro erdalduna zuen. Amak, Nafarroako Erriberakoa izanik, erdara egiten zuen, eta bere hurrengo arreba biek, lehenago esanik dugunez, euskara gutxi baino ez zuten ikasi Gernikan bizi izan ziren denboran, eta anaia gaztea artean oso txikia zen Gernikatik Valladolid-era bizitzen joan zirenean. Madrilen bizi ziren denboran ere, gerra aurrean zein gerra ostean, pentsatzekoa da aitarekin euskara egingo zuela. Horregatik eta beste arrazoiren batzuekatik, aita-semeok euren artean harreman berezia izan ei zuten bizitza guztian. Nondik datorkio, bestela, Oskillasori hizkuntza-zaletasuna, eta batipat ingeles hizkuntza eta kulturarekiko atxikimendua, aitatatik ez bada? Ingelesa zen orduan ere itsas merkatalgoko hizkuntza, eta mundu gerratean ere aliatuen aldeko sutsua izan zen Juan Pedro, semea izango zen bezala.

Gure hizkuntzari dagokionez, emazteak garbiri aitortu digun bezala, ezkondu baino askoz lehenagotik ei zuen euskararekin harreman estua eta, hizkuntzazalea izanik, euskara lantzen ere lehenagotik ekingo ziola pentsa daiteke, Iruñera bizitzen etortzearekin indartuko den joera.

Hizkuntza kontuetan, eta euskara kontuan berdin, guztiz autodidakta izan zen Oskillaso, bizitzako beste arlo askotan bezala. Bere bizitza guztian, eta ezkondu aurretik ere, abertzale eta euskaldun giroetan mugitzen zen batez ere, politika-militantzia aktiboan sartu barik ordea. Iruñean euskal giro handia ei zegoen urte haietan. Institutuan ere bere ikasleak zirikatzen zituen euskara ikas zezaten.

Hizkuntzekiko zaletasun horrekin etxeoak ere kutsatu zituen, eta buru-belarri murgildu seme-alabei kanpo-hizkuntzak

irakasten. Andre eta gizon, bost eta hiru urteko umeekin hasi ziren Frantzia eta Ingalaterrara udetan joaten, haiek frantses eta ingeles ikas zezaten. Hala egon ziren, hurrengorik hurrengo, Bordele, Cambridge, Paris, London eta beste leku batzuetan. Labur esateko, berak ondo zekizkien bi atzerri-hizkuntzak, ingelesa eta frantsesa, bere seme-alabei ia igarri barik transmititu zizkien berak hain gogoko zuen transmisio naturalaren bidez, edo “murgiltze sistemaz”, nahi bada. Hizkuntzazaletasun eta hizkuntza-aniztasun hori, etxe barruan eta lanean ezeze, bere literaturgintzan ere ezagun da. Ingelesera behin eta berriz joko du, batez ere hartatiko itzulpenak euskarara moldatzeko. Allan Poe-ren “The Cask of Amontillado” (1963) aspaldikoaren atzetik, Mark Twain-en *Erregegaia eta eskekoa* eta Charles Dickens-en *David Copper-*



Udako ingeles-ikastaroa. Iruñea, 1958. Oskillaso, beheko ilaran, eskuman lehenengoa, eta ondoan emaztea.

field bertsio laburtua etorriko dira. Itzulpenok eginez, euskal irakurleek ingeles literatura hurbilagotik ezagutu zezaten nahi zuen.

Basterretxea guztiz etxezalea zenez, goizetako lanaldiaren ondoren, arratsaldetan astitsu ohi zegoen bere hobbyetarako: pintura, musika, irakurketa eta idaztea, batez ere. Telebistarik etxera ez sartzea erabaki zuten, eta liburuek edota irakurgaiak betetzen zuten han haren lekua eta denbora. Irakurle handia zen, denetarik irakurtzen zuen eta denetarik zekien: zientzia gaiak, filosofia, eta batez ere ingelesezko literatura. Musikazale ikeragarria zen, berariaz musika klasikoarena: Bach, Mozart, Beethoven... Arteaz esan dugu zerbait: koadro mordoia pintatu zuen, eta ondare horren zati on bat familiakoen esku dago.¹⁷ Pintura bezain ondo menderatzen zuen eskultura ere, nahiz honetan produkzio apalagoa izan, eta margoztu, berdin egingo zuen oleoz zein akua-relaz edota marrazkiz.¹⁸

Izaeraz oso-osokoa zen, konbentzimendu eta eritzi sendoetakoa, ez erraz tolestekoa. Zuzen edo arteztat bazeukan zerbait, ez zuen behingoan amore emango. Halakoa zen arlo guztietan: irakaskuntzan eta azterketetan, euskara esparruko eritzi eta gorabeheretan, gizarte gaitan edo osterantzekoetan.

Gizon polifazetikoa zen, etxeko zein kanpoko lanetan. Ikasketak zientzia adarretik egin bazituen ere, matematikak irakasten bezain ondo moldatuko da hizkuntzak irakasten. Euskara arloan bazen, berdin saiatuko zen narrazioak sortzen, luze nahiz laburrak, eta itzulpen literarioak moldatzen, edota fonologia zein morfosintaxi azterketak egiten edo irakaspide bat atontzen. Etxeko

¹⁷ Anekdotak gisa esan dezagun, hogeitabi koadro *La Gran Enciclopedia Vasca*-ren zuzendariaren esku gelditu zirela irarkola-gastuen ordainez edo, harrezkerore euren nondik norakoa alden duela.

¹⁸ Bide batez gogora dezagun, aurrerago aipatuko ditugun *Kurloiak* eta *El vasco de hoy* liburuetako marrazki guztiak —eta ugariak dira batez ere bigarren honetan— bere-bereak dituela.

lanetan ere berdin moldatzen zela adierazi digu alargunak, denetarik baitzekien egiten. Eta ez zekiena bere kabuz ikasten zuen. Autodidakta peto-pettoa, beraz. Atzerri-hizkuntzak ere halaxe ikasi zituela esana dugu: ez frantsesa eta ingelesa bakarrik; maila apalagoan, irakurteko lain gutxienez, italianoa eta alemana ere ezagunak zituen. Euskara ere bere kontura landu zuelako dudarik ez dugu —aldi hartan bestetara ezin zitekeen, komentuetan edo ez bazen—, eta nora ginoko maila jaritsiaz, gainera! Igeri egiten ikas-teko ere ikas metodo bat irakurri omen zuen lehenengo eta ondoren inoren laguntza barik praktikaratu, eta halaxe ikasi igerian.

1.7. Harremanak

Zerbait esan beharko dugu lagun onak edo berarekin harreman estua izan zuten euskalzale eta adiskideen inguruan. Aipatu ditugu jada baten batzuk: Mendieta eta Jon Bilbao, Madrilgo gasetasunetik ezagutzen zuen lagun zaharra.

Garaiko euskalarien artean izan zituen harremanen artean, bat edo beste aipatuko dugu. Anjel Irigarai nafar idazle eta iker-tzailearekin harreman estua izan zuen, elkar asko estimatzen zutela. Hizkuntza ikuspuntuetan hurbil sentitzen ziren, Irigaraik orohar begi onez ikusten baitzuen Basterretxeak *Kurl* obran hartutako jokabidea. Bestalde, gerratearen ondorenak biek jasan zituztenez —Irigaraik alde egin behar izan baitzuen Iruñetik—, sentipen hurbila zuten. Ingelesa eta kanpo-hizkuntzak ezagutzeak halako ikuspegi zabalagoa ematen zien kultura aldetik, horretan ere sintonia handia zutelarik.¹⁹

Jose Migel Barandiaran ere lagun handia zuen. Nafarroako Unibertsitatean, honek utzi zuenean euskal antropologiako katedra, Oskillasori eskaini zioten, ez arlo bera, baina bai haren orde-zkoak egiten zituen euskal hizkuntza eta kultura katedra. Baina

¹⁹ Jose Anjel Irigarai idazle eta kultura-eragileari, haren semeari, zor dizkiot zehetasunok.

arterago, Oskillasoren aitaren, Juan Pedroren laguna ere izan eizzen Barandiaran. Basterretxea, Ataungo haren etxean sarri egona zen.

Rudolf P. G. de Rijk holandar hizkuntzalariarekin izan zuen harremanak aipu berezia merezi du: honekin eta honen emazte Virginiarekin, berak eta emazteak ezeze, alabak ere harreman estua izan baitzuten. Harreman horren garrantzia datza, holandar hizkuntzalariak Oskillaso izan zuela luzaroan euskara kontuan konfidantzazko aholkulari eta testu-zuzentzaile.²⁰

Mitxelenarekiko harremana ere aspaldikoa da, hau *Egan* aldizkariaren arduradun zegoen denborakoa. Begirune handia zioten elkarri, nahiz Arantzazuko Batzarretik aintzina bien jarre-rak aski urrundu ziren bata besteagandik. Euskara baturako ereduaren auziak handitu zituen euren arteko diferentziak, denborarekin mingostasun bide bihurtuko zirenak Oskillasoren kasuan. *Kurl* plazaratzeaz batera agertu zuen Mitxelenak, Villasantek bezala, haren ereduarekiko desadostasuna.

Txillardegi izan zen gure idazlea asko estimatzen zutenetari-ko bat, eta honen eraginez Udako Euskal Unibertsitateak omenaldia eskaini zion Oskillasori Iruñean 1992ko uztailaren 28an. Fonetika eta fonologia aldetik honek egindako ekarriak zituen besteak beste txalogarritzat Txillardegi hizkuntzalariak. Piarres Charritton idazle euskaltzain hazpandarrarekin ere harreman ona zuen.

Politika giroko lagunak ere izan zituen, besteak beste lehen aipatu dugun Cabasés zaharra, oraintsuko politikariaren aita.

Elizgizonen artean ere lagun minak izan zituen, bera eta familia elizkoiak izanik.²¹ Aita Yurre kaputxinoa, Altsasuko komentuan bizi zena, zen horietariko bat, behe-rago ikusiko dugu-

²⁰ Sarrera hau amaitu-hurren dudala hil da aurtengo (2003) uda aurretxo-an Rudolf P. G. de Rijk euskalari handia. (G.B.)

²¹ Hutsik barik joaten omen ziren euskarazko meza entzutera Iruñean, emazte alargunak dioskunez.

nez, *Los gemelos de Iturriondo* (*GemItur*) elaberria idazteko erabili zuen iturri oparoa. Aita Aginagalde jesuita ere lagun mina zuen, Iruñeko Dama Apostolikoetan euskarazko meza ipini zuena, hara joaten baitziren asteoro Basterretxea eta emaztea meza entzutera. Baita haren ostean euskarazko mezkok ematen segitzen duen Xabier Irigarai jesuita ere. Bestalde, Aita Arostegi karmeldarrarekin ere harreman handia zuen, Zornotzako Larrako komentuan era zuen guztian bisitatzen zuelarik.

Azken aldion Aita Fermin Iraolagoitia editore eta euskara-eragilearekin ere izan zuen harremana. Hark Eubara euskararen gaineko hitzaldiak ematera eramán izan zuen, eta batez ere hiru liburu bikain argitaratu zizkion, bata sorkuntzazkoa eta bi itzulpenak. Argitaraldi horiek askatu zuten gure idazle beteranoa luzaroan hesitua zuen ilosamendu egoeratik zahartzaro betean.

Pelotarien artean ere lagun handiak izan zituen, Jauregi, Aberasturi, Onaindia, Etxabe eta beste batzuk. Hauetariko batzuk informazio paregabea eskaini zioten munduan zehar zebiltzan euskal pelotarien gainean. Aipatu berri dugun elaberri luze horretako hainbat pasadizu hauen eskutik jaso zituen, bereziki Jauregi horrengandik, zeren honek jestionatu baitzituen luzaroan munduko euskal pelota frontoi asko, Asiakoak, Madril eta Bartzelonakoak besteak beste. Ondo ezagutzen zuen beraz, ez pelota mundua bakarrik, pelotari mundua ere bai. Pelotarien aipuak *GemItur* elaberrian ezeze, *EuskM* elaberri honetan ere egiten dira, ia atal osoa eskaintzen diola Recoletos-eko frontoian egiten den pelota-partiduari.²² Esana dugu bere pinturagintzako motiboetariko bat ere euskal pilota dela.

²² Txomin Arregi protagonistari Madrilera datorrenean bilatzen dioten ostatuan, Gernikaldeko euskaldun andre-gizonak zuzentzen duten horretan, pelotariak egoten direla diosku Etxeberria doktoreak.

1.8. Euskara eta euskal literaturgintza

Hirurogeiko hamarkadaren hasiera ingurutik ekingo dio gutxi gorabehera euskal literaturgintzari. Esan dugu askoz lehenagotik euskalzaletu zela eta euskara lantzen hasi. *EuskM* elaberrian Txomin protagonista 1950. urtean Lizardiren *Itz-lauz* (Euskaltzaleak 1934) eta Baionako *Herria* kazetaren ale bat irakurtzen azaltzen da. Baina gatozen Iruñeko aldira. Berez 1955etik hiri horretan bizi bazen ere, zazpi urte geroagora arte ez du ezer argitaratuko, guk dakigula. Ezagutzen zukeen agian *Egan* garai horretan, zeren 1948tik argitaratzen baitzen, lehen urteetan aldizkari elebidun modura eta urte batzuek garrenera euskarazko literatura-aldizkari gisa, apurka-apurka euskal literatura berpiztuaren Euskal Herri barruko plaza nagusi bihurtuko zena. Artean bazen *Euzko Gogoa* ere, 50gnetik Jokin Zaitegik Guatemala-tik zuzentzen zuen aldizkaria, baina Oskillasok ez dirudi harreman zuzenik izan zuenik aldizkari horrekin. Ezta *Jakin* aldizkariarekin ere.

Idazle honek, dena dela, literatura giro edo talde jakin baten inguruan baino gehiago, berekautan diharduela esan daiteke euskararen aldeko lanean, eta berekabuzko lanaren fruitu izango da *Kurl* elaberria, euskal literaturaren plazan beraren aurkezpen-agiri nagusi bihurtuko dena, eta gerora ere bere literaturgintzaren erreferentzia nagusi izango dena. Lan goiztiarra, edozelan ere, gerraosteko giro agor hartan, nahiz euskara batuaren inguruko gaurdainoko ikerketa, memoria eta kroniketan beronen aipu handiegirik egiten ez den eta sarritan, izan ez balitz bezala, albotik saihestu, jakinezaz edo jakinaren gainean. Oskillasok 1962an azalduko du plazara lehenengo liburu hau. Urte berean “Mikel eta erdeldunak” izeneko ipuintxoia plazaratuko du *Egan* aldizkarian.²³ Hamarkada horretan aldizkari hori bihurtuko da Oskilla-

²³ Ipuin honek “Kirikiño Saria” irabazi zuen, Euskaltzaindiak eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak antolatua, Gerediaga Elkartearen artean zela. Ipuin hau, bestalde, Oskillasoren euskara-pentsamoldea dela-ta esanguratsuenetarikoa da, beraren umorearen erakusle onenetarikoa izanaz bestalde.

soren eta beste euskal idazle itzaltsu askoren topagune eta literatura-erreferentzia. Ondoko urteetan ere (1963-1965) *Egan* aldizkarian sortzapenezko edota itzulpenezko kontaera laburrak argitarako ditu; bai eta han idatziko ditu batasunaren inguruko saio laburrak eta berean izango ditu gai horrezako eztabaida dialektikoak Mitxelena eta Villasanterekin. *Euskera* aldizkarian ere idatziko du zeozer.

Oskillasoren hamarkada horretako literaturgintza eta euskalgintza *Kurl* elaberria argitaratzeak irekitzen badu, aldikada hori Euskaltzaindiaren Arantzazuko kongresuak (1968) zarratzen duela esan dezakegu. Orain argitara dakargun *Euskaldunak Madrilen* elaberria ere, nahiz hurrengo hamarkadan lehiaketa batera bidaltzeko egiten dion sarreran dionetik —1983an edo 1984an aurkeztu zuelakoa dugu, agiriaren faltaz buruz kalkulatu behar dugu eta—, hirurogeiko hamarkadakoa delako susmoa dugu, zein urtetakoa den zehatz esaterik ez dago baina.²⁴ Lehiaketarako alean “Irakurleari” egiten dion sarrera-idatzian, bizkaiera eta batua nahaste darabiltzala, beren-beregi diosku: “Urte asko dira novela hau idatzi nebala”.

²⁴ Etxekoek ere, emazte eta seme-alabek, ez digute jakin noiz idatzia den zehatz esaten, baina segurua da *GabAt* baino lehenagokoa dela eta segurutzat eman daiteke *Kurl*-en ostekoa izango dela.



Kurloiak nobelaren azala, egileak berak egin. 1962.

Gatozen berriro bizitza-zertzeladetara. Arantzazuko Batzar zalapartatsu eta zurrunbilotsu hartan parte hartu zuen. Eta esango nuke, euskara batuaren eredia dela-ta Mitxelenarekin eta belaunaldi gaztearekin zituen diferentziak are handiagotu zirela han hartu ziren norabideen ondorenez. Oraindik ez zen zaharra, inolaz ere, Oskillaso, baina honen aurka ere joan zen, antza, Arantzazun oihukatu zen “Zaharrak etxera!” aldarria. Edozelan dela ere, literatura-sorkuntzaren alorrean halako mutualdi baten murgilduko da urte batzuetarako gure idazlea, eta larogeiko hamarkadan ondo sartu arte ez du berriro bururik agertuko. Mutualdi edo gogailte horrek gerraosteko belaunaldiko beste idazle gehiago ere hartu zituen, batez ere Bizkaikoak: E. Erkiaga lekeitiarra eta A. Zubikarai ondarrutarra, esaterako. Arantzazuko Batzar horrek, hala ere, pozkariak ere izango zituen Oskillasorentzat. Han elkartu zen aspaldiko lagun zahar Jon Bilbaorekin. Honek luzaroan uste izan baitzuen Basterretxea gaztea Manilara bidean hil zela bigarren mundu gerratearen hasieran.

Arantzazuko Batzarraren osteko urte batzuetan Arantzazura udetan euskara ikasten etortzen ziren amerikar ikasleen euskara-irakasle ere izan zen, Jon Bilbaoren eskariz, izan ere haiei ingelesez irakatsi beharra zegoen, eta gutxi ziren orduan hortarako gai zirenak.²⁵ Aldi berean, esan behar da, Ameriketatik Euskal Herri-
ra Jon Bilbaoren bitartez zetozen askok Oskillasoren etxea izan zutela aterbe. Amerikar euskalzaleen Arantzazuko udako ikastaro horietariko baten ezagutuko du Rudolf P. G. de Rijk hizkuntzala-

²⁵ Udako Euskara eta euskal kultura ikastarook Reno-ko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Katedrak eraturik martxan jarri ziren 1967 (?) inguruan Ustaritzgo Udako Unibertsitatearen barruan, eta handik urte bira Ustaritzen eta Arantzazun. Arantzazun 1969an egin zen ikastaroa, adibidez, uztailaren 8tik abuztuaren 4ra luzatu zen, eta berean Jose Basterretxea eta Jon Oñatibia izan ziren euskara maila oinarritzkoan irakasten zutenak. Hizkuntza ikastaroarekin batera, literatura eta historia ikastaroak ere izan ziren. Eta linguistika mintegi bat ere bai, Rudolph de Rijk irakasleak zuzendurik, eta Mitxelenak ere irakasle gonbidatu gisa parte hartzen zuela.

ri holandarra ere. Lagun handi egin ziren eta ordurik aurrera Oskillaso bihurtu zen haren euskara-testuen zuzentzaile eta aholkulari, Iruñeko etxera bisita ugariak egiten zizkiola. Euskal Herri-
ra zetorrenean, Bilbora ere sarri etorri izan da geroago, Mirentxu haren alabaren etxera. Orduko urteetan bertsolari-txapelketetan epaimahaiko ere ibili zen.²⁶

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, batez ere 74tik aurrera osasun-arazoez asko mugatuko diote bere bizitza, eta beraz euskal langintza ere. Ebakuntza gaizki egindako baten erruz apur bat gutxiendurik geratu zen. Hala ere, literatura-sorkuntza ez hainbeste baina, euskararen inguruko beste esparru batzuk landuko ditu: irakaskuntza eta ikerkuntza, batipat. Institutuko bere ingeles katedraren betebeharrunten gainera, Nafarroako Unibertsitatean euskara irakasten jardungo du 1971tik 1983ra bitartean. Esana dugu, lehenagoko denboran ere izan zuela harremana unibertsitate horrekin.²⁷ Baina bigarren txandan euskara izango du jardungai. Beraren aurretik Jose Migel Barandiaran-ek han euskal antropologia irakatsiaz bete zuen euskal kulturaren katedraren ardurua hartu zuen, baina hizkuntzaren arlotik jorratuaz. Astean hiru biderrez joaten zen euskara eskolak, edo hobeto esanda, hiztaldiak ematera. Entzule ugari izaten ei zituen.

Aldi horretan ikerketari ere gogotik helduko dio, berariaz berak hain maite eta gogoko zuen fonetika-fonologiaren esparruan. Lehenagotik ere euskal hitzun jatorren hizkera, eta bereziki entonazioa aztertzeko, zaharretxe eta jubilatutako klubetara joaten ei zen.²⁸ Gai horrezaz, lehenengo Gernikako bere hizkeran oina-

²⁶ Agian Alfonso Irigoienek eratzen zituen bertsolari-txapelketak ziren horiek, bilbotar hizkuntzalariarekin ere harremanean baitzegoen.

²⁷ 1959-60 inguruan, hango Fisika laboratorioran lanean jarduna zen.

²⁸ Literatura-lanetako dialogoetarako ere egoki etorriko zaizkio kanpolanok, pertsonaien dialogoetako erregistroak finkatzeko orduan. Bizkaiko berba-kerak hurkoago zitzaizkion jatorriz, eta giputz hizkerekiko kontakto ugariak zituen, baina nafar hizkeretakoak bere ahaleginez biltzen saiatu zen. Hala, Sakanako azpieuskalkia baliatuko du bere narrazio laburretan behin edo behin.

rrituko fonologia-ikerlan bi (1974 eta 1975) atera zituen, eta “Hizkera-soinua dela ta” (1976) hirugarren lan batez osatu aurreko biak. Nafarroako *FLV* aldizkarian argitarako ditu lanok. Fonologia-ikerketok direla-ta, Euskaltzaindiak ere gonbidatu zuen beranduago bere jardunaldi batzuetara, eta hala aurkeztu zituen entonazioari buruzko bi lan, bata Azkoitiko jardunaldietan (1982) eta bestea Durangokoetan (1986). Nafarroako Unibertsitatearekiko lankidetzaren eskerronez, hogeita bost urteango lankidetzadomina eman zioten irakaste-jardunari utzi zionean.

Hirugarren arlo nagusi bati ere ekin zion hirurogeita hamarreko hamarkadan, gutxienez hamar urte luzatuko zen lana: euskara ikasteko metodo bat egitea. Ingeles-irakasle izanik eta bera ere kanpo-hizkuntzak ikasten saiatua, iker-esparru bitxiatarikoa zuen bigarren hizkuntzaren irakaskuntza, edo ezagutzen ez den hizkuntzaren ikaskuntza. Luzaroko lan geldo baina gogoetatsu baten emaitza izan da *El vasco de hoy* (VascH) obra erraldoi eta zehatza. 1974an, ebakuntza egin ziotenean, ia amaiturik zuen, nahiz 1981era arte argitaratuko ez zen. Eroapenez beteriko ibilbide luzean —osasan-egoera kontuan harturik, gurutzbidea esan genezake—, berak asmatu zuen euskara irakasteko metodoa goitik behera: gramatika-egituren azalpen pausukakoa, irudiak, ariketak, gramatika-azalpenak, entonazio-markak eta abar. Nekeak eta pozak eman zizkion lana. Nekeak, zeren, hiru tomotan atera ahal izateko, autoreak berak ordaindu behar izan zion dirutan eta koadrotan *La Gran Enciclopedia Vasca*-ri. Obra hau dela-ta asko nahigabetu zen, zeren argi ez dauden interesakatik liburuen zabalkuntza blokeatu egin baitzuten.

Larogeiko hamarkadan, aipaturiko *EuskM* elaberria, hainbat denbora lehenagotik eginda ei zeukan hura, Bilboko “R. M. Azkue” literatura-lehiaketara aurkeztuko du, baina saririk jaso barik. Susmoa dugu, idazleak, lehenengo bertsioa barik, idazkera zertxobait gaurkoturik edo aldi berrietako sentsibilitatera apur bat egokiturik berriatzi zuela testua. Elaberri honek nekez argirik ikusiko zuen orain, sarrera hau idazten duen hau ere harako

lehiaketa hartan obra honen lekuko, irakurle eta epaile —orduan agian gazteegia edo sendotasun gutxiagokoa barruan zeukan eritziaren alde gogorrago indar egiteko— izan ez balitz eta susmoa hartu *Kurl* obraren luma berbera zegokeela testu haren atzean.

Hamarkada horretakoa dugu *Los gemelos de Iturriondo* gaztelaniaz idatzirikoa nobela erraldoi argitaragabea ere, euskaraz idazten hasi zena, baina gaztelaniaz jarraitu eta burutu zuena. Duda barik, galera handi bat euskal literaturarentzat! Elaberri hau hasikinetan zela, aurrekoarekin gertatu zitzaion antzeko bigarren estropezu bat suertatu zitzaion idazleari. Eginbidean zuen nobelaren lehen kapitulu biak Eusko Jaurlaritzako beka-deialdi batera bialdu zituen, non epai-mahaiak erabaki zuen beka F. Krutwig-i ematea. Erabaki horrek asko nahigabetu zuen gure biografiatua eta, bere euskarazko literaturgintzari berak uste zuen estimaziorik ematen ez zitzaiole-ta, bidean zeukan elaberri luzeori gaztelaniaz garatzea erabaki zuen. Haserre hori, azalekoa barik, sakonekoa zen agian: euskaraz literatura idazten zuten euskaldunberriei buruz berak zuen eritzia eta aldiko erakunde, administrazio eta euskalzale askok zutena bat ez zetozen inolaz ere, eta horrek eragina izan zukeen hartu zuen erabakian.

Hamarkada horren azken aldera (1988) *Gabeko atorra* izeneko elaberriaz harritu gintuen. Baina elaberri hau 1982 ostetxokoa da, zeren senar-emazteek urte horretan egin baitzuten Oslo-ra bidaia, ezkontzako 25. urteurrena ospatzeko.²⁹ Bizkaieraz argitaratu bazen ere, lehenengo idazlearen euskara osotu ereduan erredaktatua.

Sortzapenezko lanokin bateratsu, literatura eremuan beste hobby ederretariko baten emaitza bikainak utzi zizkigun, itzulpen literarioarenak. Hamarkada honen azken aldian Fermin Iraola-goitia, Ibaizabal argitaletxearen zuzendaria bihurtu zen Oskillaso-

²⁹ Elaberrian bidaia hori zeharbidez aipatua da.

ren editore. Eta aipatu azken liburuotan bizkaiera literarioa landu zuen —agian argialetxeak zuen merkatuari eta zituen bezeruei, Bizkaikoei, hobeto erantzuteko—, nahiz eta dialogoetan gaztelania zein euskalki desberdinetako ahozko antzeko erregistroak darabiltzan, gainerakoetan ohi duenez.

Hamarkada horretan landuko du gehienbat saio linguistikoa ere. Euskaltzaindiak urte batzuk lehenago argitaratu zuen saio elebidun bat: *El libro blanco del euskara* (1977) / *Euskararen liburu zuria* (1978), eta haren erantzunez atondu zuen *El libro negro del euskara* eta bere kabuz eta diruz argitaratu (1984).

Osasunez gero eta txarrago doa, batez ere ebakuntzaren ondoren. Hala ere, ebakuntza txar horren ostean ere lan egitera behartu zuten Institutuan. Urte horiek oso latzak izan ziren berarentzat, osasun txarraz eta irakaste-jardunari erantzun beharrez.

Azken urteetan familiari eskainiago egon zen. Kultura zabaleko eta jakintza ezberdinetan aditua izanik, Errenazimenduko gizon antzera denetariko gaietan aditua, solasaldi luzeak izaten zituen etxeko, ezagun eta lagunekin.

Azken urteotan, zaharra ere baitzen, ez da hain eraginkor agertuko euskalgintzan, etxean familiarekin ematen zuela bere denbora. 1996an hil zen, apirilaren 25ean.

1.9. Pintura

Gutxi esan eta hitz egin da Oskillasoren pintura-lanaz. Astibitarteetan lantzen zuen zaletasuna zen, baina haren emaitza ikusirik ia benetako profesional baten lana egin zuela ikus dezakegu. Gorago esan dugunez, erakusketak ere egin zituen, Bilbon (1969) eta Donostian (1969) lehenengo, eta Londonen ere bai dirudienez. New York-en egitekoa ere izan zen.

Askotariko gaiak landu zituen margogintzan: bodegoiak, erretratuak, natura paisajeak, hiri paisajeak, etnografi irudiak, euskal pelotariak (zestalariak)... Erretratugintzan aipagarriak dira beraren aitari eta emazteari egin zizkionak. Paisajeetan

erbestera egin zituen ibilaldien oihartzun sakona ageri da, batez ere Ingalaterrako lurraldeena. Euskal Herrikoetan, Nafarroakoak dira nagusi, baina Donostia eta bere jaioterri ingurukoak ere (Urdaibai) ahaztu ezinekoak dira.

Pinturagintzaren alderdi bikainenetariko bat, koloreena da. Darabiltzan koloreak, artistak berak aitor zuenez, fauvismoaren girokoak dira. Koloreen aberastasun eta menderatze hori fisikaren ezaguera onari zor omen zion.³⁰

Gaztetarik zekarren zaletasuna bazen ere, gurasoei kontra ez egitegatik edo, ez zen ausartu barruko bokazio horri bidea askatzen, eta askoz beranduago, ezkondata eta umeekin dagoela, era hobea aurkituko du barne bokaziotzat zeukan pinturagintzari buru-belarri ekiteko. Halaxe bada, 1969an egingo du Bilbon lehen erakusketa, eta handik gutxira Londonen. Bilboko Mikeldi artegelan berrogei koadro azalduz plazaratu zen.

2. OSKILLASOREN LANAK

Genero eta gaien arabera sailkatuko ditugu euskara, euskal literatura edota euskal jakintzarekin zerikusia duten lanak, luze nahiz laburrak.

2.1. Elaberriak

Oskillasoren emaitza, bere aldirako —Francoren diktadura garaia eta osteko urteak— nahiko ugaria dela aitortu behar da: hiru euskarazko eta gaztelaniazko bat. Hala ere, *Kurloiak* izan da, batasunaren kezka gero eta biziago zetorren garaian argitaratu izanagatik besteak beste, hotsik gehien eragin duena. Gerora ere

³⁰ Hala aitortzen zuen Bilboko *Hierro* egunkarian (1969-IV-09) egin zioten elkarrizketa baten.

obra horrexegatik ezagutu izan da gehienbat Oskillaso euskal literatura zelaian. Haraz ostean, *Gabeko Atorra* da idazlea bizi zela argia ikusi duen bakarra, idazlearen zahartzaroan, obra bien edizioen artean 26 urteko tartea zela. Argia ikusten duen hirugarren elaberria oraingo hau da, *Euskaldunak Madril'en*.

Elaberrigintza horren —eta narraziogintza osoaren, bidena-bar— ezaugarri gainetiko batzuk zertzelatuko ditut lehenengo.

a) Autobiografismoa da euskarazko hiru elaberrien barneharietariko bat. Gorago esan dugun bezala, idazleak umetako mundua (*Kurl*), gazte unibertsitari Valladoliden zeneko aldia (*GabAt*) eta gerraostean Madrilen bizi zenekoa —*EuskM* nobela honetako— nobelatzen dizkigu hurrengorik hurrengo trilogia horretan, nahiz ezaugarri hau beti ere handi-handika hartu behar den, literatura sortzailearen eremuko edozein gairi dagokion bezala.

Baina huts handi barik esan daiteke hiru elaberriotako protagonistak —Patxi (*Kurl*), Mariño (*GabAt*) eta Txomin (*EuskM*)— idazlearen bikia edo bestalderdia direla gutxi gorabehera. Sarritan narratzaile orojakileaz ere bat egiten du protagonista, beronen burutazio, gogoeta eta intenzioak azaldu nahi dituenen.

Obretako beste pertsonaia asko, protagonistaren inguruko edo adiskide direnak batipat, benetako bizitzatik atera eta “egokituak” dira. *GabAt* elaberriko senar-emazteei oporretan doazela gertaturiko pasadizu zelebrea, emazteak aitortu digunez, Tuterako beraren ezagun edo lagun harrosko bati gertatua omen da, elaberrirako atondurik. *EuskM* honetako adiskide komunismozaleari jazotako istorio tristea, “Irakurleari” zuzenduriko idatzian iragarten duenez, Madrilen bizi zen bere adiskide euskaldun bati gertatu omen zitzaion. Eta *Kurl* delakoan ere, Patxiren mutiko-lagunak Gernikan gaztetxotan izan zituenak dira apurra gorabehera.

Beste hainbeste esan daiteke pertsonaion ahoz jalgitzen diren eritzi-esaerez: asko behintzat, idazlearen pentsaera-munduarekin bat datoz guztiz, eta euren inguruko pasadizurik asko ere, berari ez bada, ezagutzen zuen norbaiti gertatuak dira.

Espazio eta denbora erreferentziaz ere beste hainbeste esan daiteke. Elaberrietan azaltzen diren hiri, lurralde, kale eta tokiak idazleak bere begiz ikusi eta ezagutuak dira gehienbat. Denborari dagokionez ere, elaberriak ez duela anakronismo agirikorik pentsa daiteke. Idazlearen bizitzako aldi edo zaro jakinak dira narrazioaren ardatz.

b) Deskripzio miniaturista dei dezakeguna da beste ezaugarrietariko bat. Pintorea dela ondo antzematen da deskribatzeko duen eran. Espazioen, gauzen eta gertaeren deskripzio zehe eta zehatza egiten digu, bere begiak zinema-kamara baten ordeko egiten balitu bezala. Idazlea dena jakin gurakoa eta begi zolien jabe da: denagatik du interesa, zertzeladarik txikienetarainokoak begitantzen zaizkio kontagarri, eta kontalariaren dohaien jabe da: begi aurretik igarotzen zaion guztia josten du bizi-bizi oroimenean. Bizimodu normaleko zertzelada txikiak honetarikoak izan daitezke: gaixo baten ospitaleko egotaldia, bazkaria, menu-osagai guztien zehaztasunekin, euritako bat,...

c) Narratzaile orojakilea da, apuntatu baino egingo ez dugun arren, bere kontagintzaren bereizgarri iraunkorretarikoak.

d) Umorea. Idazleari bere literatura osoan darion umorea da haren sorkuntza literarioaren ezaugarri tinkoetariko bat eta kritikoek goretsi izan dutena. Umore eutsia, fina. Batzuetan bizitzako gauzarik ebidenteenak azaltzean darion umore hori. Pasadizu zelebreak kontatzean beste batzuetan. Kontrastea bilatzean beste batzuetan. J. Artetxek, *Kurl* obrari eginiko erreseina laburrean hau dio: “Las ilustraciones y la misma portada, a tono con el sano humor del texto —un humorismo de raigambre inglesa— son del mismo autor.”³¹

³¹ BAP, 1963, XIX, 109.

Agian *EuskM* hauxe dugu umoreari lekurik gutxien uzten dion elaberria, baina bertan ere ez da horren faltarik. *GabAt* umore-pasadizuz beterik dago. Baina guztietan lehenengoa, *Kurl*, da umore-puntua txitean-pitean dariona. Hartu bedi pasarte hau adigarritzat:

Oraindik etzekian ongi irakurten. Fraileek, gaizki irakurten zuten muttikoak ongi zekitenean ondoan ipiñten zituzten. Sudur hunen arpegia, zuri zuria, goibela, ta tristea, Erramonena zan. Erramoni besteeak “Belarri” erraiten zioten. Behin, Belarri’rean ondoan irakurten zegoala, harrituta khonturatu zan lehenbizik, zelako belarriak zituan Erramonek. Zabal zabalak, handi handiak, izugarriak! ia arpegi osoa estaltzen zioten. (64-5)

Teknika literario berarizkoak ohi darabiltza batzuetan umore giroa jaristeko. Errepikapena da horietariko bat, elaberri honetan froga daitekeen bezala.

e) Espazio nagusi bat: Arrigorrieta.

Euskarazko narrazio nagusi guztietan erreferentzia-gune bat dugu, Arrigorrieta. Hala gertatzen da *Kurl*, *EusM*, *Akats* obretan. Azkenengo euskarazko elaberrian, ostera, *GabAt* delakoan, Gernika aipatzen digu Mariño protagonistaren jaioterrizat, eta bere izenez aipatzen ditu albo-herri batzuk ere, Forua eta Ajangiz. Oskillaso, Gernikan, Saraspe auzokoa zen, eta handik hurbil dago Lurgorri auzoa. Gure eritzian hortik atera zukeelakoa dugu Arrigorrieta hiri-izen literarioa. Idazlearen jaioterriagazko atxikimendua aipatua dugunez, ez gara honetan gehiago luzatuko.

f) Dialogoen bizitasuna, entretenigarritasuna, ugaritasuna eta sinesgarritasuna da beste ezaugarri argi bat, hemen horrezaz luzatuko ez bagara ere.

Ezaugarri honi lotutzat aipatuko dugu dialogoetan egiten duen hizkuntza diferentean txertaketa ere. Euskarazko narrazioan erraz txertatzen ditu gaztelania zein ingelesa, batez ere dialogoetan, narrazioari sinesgarritasuna emateko; hau da, pertsonaia

(edo komunikabideak) hala mintzo direla erakutsi gura denean. *EuskM* honetan hori ageri-agerikoa da, ekintza guztia Madrilen gertatzen denez, ezinbestekoa baita gaztelania erabiltzea non edo han. Pertsonaiak erdaldunak direnean, beti edo ia beti makurtzen da idazlea errealitate horretara. Beste batzuetan euskaratu egiten ditu autuak, baina irakurlea ohartaraziz.

g) Gai batzuekiko zaletasuna da beste ezaugarri bat. Askotarikoa gaiak darabiltza idazleak, eta zehetasun handiz deskribatu edo azaldurik. Baina bitxiak begitandu zaizkigun bat edo beste garanduko ditugu hemen.

Emakumeen, eta bereziki emakume gazteen, izaera, joera, burutazio eta gogoak oso ondo deskribatzen daki. Ez dago irakurri besterik, adibidez, *Akatsbako gizonaren heriotza* narrazioko Nati, Blanquita eta Triniren arteko autuak.

Umeen mundua, euren gogo, asmo, esakera eta egikerak ere barrutik ezagutzen ditu. *Kurl* izan daiteke eredu argia, baina ipuin laburretan ere maisutasun bera erakutsiko du.

Neska-mutil gazteen arteko harremanak, batez ere flirteatze girokoak, maiz azaltzen dira narrazioetan. Esaterako, *GabAt* delakoan Mariño eta bere lagunak jaietan direnean, eta neskatilekiko harremana gertatzen denean, emakumeak nola kortejatu, gustuko emakumeagana nola hurreratu, ze solasgai erabili... gustuko gaiak ditu idazleak.

2.1.1. Kurloiak (1962)

Obra didaktiko bat dugu oinarrian, baina batasun literarioarako eredu izan gurakoa, aldi berean. Mogelek *Peru Abarka* edota *Azkuek Ardi galdua* idatzi izan zituzten espiritu antzekoak ondua da sakonean. Generoaren aldetik, elaberria dela esango dugu, baina hein baten didaktikoa, irakaskuntzarako pentsatua ia.

Didaktikotasun hau ezagun da zenbait ezaugarritan. Kapitulu bakoitzari hiztegitxo erantsi dio ondoren, testuan darabiltzan

zenbait hitzen ordezkoak ematen dizkigula, euskaraz hauek ere. Hitz batzuk eredu literariorako hautatu dituenak dira, eta euron esanahiak aldaera edo sinonimo bidez adierazten ditu. Adib.: *erraiten*: esaten; *egin ostein*: egin ta gero; *ostera*: berriz, atzera. Komentatzen dituen beste hitz batzuk dialogoetan darabilen herri-hizkerakoak dira. Hala: *ekixen*: zekiten; *itxi e'ixozu e'in dei-xela*: utz ezaiozu egin dezala.

Idazleak bere eskuz eginiko marrazki bikainak dira liburua-
ren taiukera didaktikoaren beste ezaugarrietariko bat. Arte plas-
tikoetan zuen ezaguera eta trebeziaz baliatu zen, ez bakarrik koa-
droak pintatu edo eskulturak egiteko, baita berak eginiko libu-
ruak ilustratzeko ere. Eta gure artistak, testua sortzerakoan duen
umorea marrazkietan ere berdintsu islatzen daki. Irudiok egiten
dute, besteak beste, arina eta entretenigarria liburua.

Edizioa bera txukuna eta apain diseinatua izateaz gainera,
sarrera luzetxo batez hornitua dator. “Hitzaurrea” delakoan garan-
tzen du idazleak zeintzuk diren euskararen batasunerako gerra
ostean egin diren saioak, eta hauei ikusten dizkien akats eta era-
gozpenak argitu ondoren, berak proposatzen duen “euskara oso-
tua” deritzanaren ardatz nagusiak zehazten ditu. Hitzaurre horrek
eransten dio elaberriari, beraz, testuak duen hizkuntza-saio ezpala.

Gaiari dagokionez, Patxi protagonistaren haurtzaro eta muti-
kotako mundutxoa narratzen digu. Idazlearen mutikotakoa oina-
rrian. Aurreratu dugunez, honetan ezeze, bere obra guzti edo ia
guztietan txertatzen ditu idazleak pintzelkada autobiografikoak,
baina *Kurl* honetan Oskillasoren mutikotako mundua, bere gaz-
tetxotako Gernikan —elaberrian, Arrigorrietan—bizi izandako
mundutxoa islatu nahi digu. Idazlea bera dugu, mutiko zela,
obrako protagonista, eta txikitako Gernikan izan zituen lagunak
pertsonaia-lagunetariko batzuk.

Baina argitzea komeni da, obra hau argitaratu baino lehen-
txoago jaio zirela bere seme-alaba biak (1959, 1961) eta seineki-
ko esperientzia hur-hurrekoa eta fresko zuela. Bere umeekiko bizi-
penen azterrenak hor izatea ere guztiz posiblea da.



Oskillaso seme-alabekin, 1964.

Idazlearen artista-arima liburuaren diseinuan ere ezagun da. Edizio txukuna da, garai hartan egin ohi zen inprimatze pobreaken aldean. Ez bakarrik azaleko beraren pinturagatik edo barruorrietan han-hemen txertatu dituen marrazkiakatik. Liburuaren diseinua bere osoan da ederra. Nonbait egileak, obraren edukiari ematen zion garrantzia, itxuran duintasuna emanaz ere erakutsi gura zuen.

Corago aipatu dugun didaktikotasuna, idaztankeran ere ondo ezagun da: edonork erraz ulertzeko moduan erredaktaturik dago testua, baina batez ere gazte- edota ikasle-mundua gogoan duela, kapitulu osteko glosariotxoak ere on egiten dutenez.

Gure ustez, obra honen destinatarioa, besteak beste, bere Institutuko ikasleak izan zitezkeen —nahiz euskararik nekez irakasten zen irakaskuntza arautuan aldi hartan—, edota irakurle gazte edo heldu zaletuak aldi berean. Hartarikoentzat irakurgai atse-

gin eta egoki bat atonduz batera, une horretan pil-pil zegoen euskara batuaren auzian ere alternatiba bat eskaini nahi zuen, ordu-ra arteko jokabideen aurrean tresna landu eta guztientzako bat eskaini zezakeena. Obraren hitzaurre interesgarrian mintzo da gai honezaz, irudi oso ilustragarria erabiliz. *Kurl* obran proposatzen duen ereduaren zerikusia dute bere bizitzako gertaera bik: jaiotzez bizkaitarra eta bizitzaz nafarra izateak.

Patxiren sein- eta mutikozarora kontatzen zaigu elaberrian. Etxeko giroa, beraren okerreriak, etxeko emakumeak —ama, arreba, neskame... emakumez inguraturik egon ei zen txikitan, aita itsas kapitaina urtean birritan-edo izan ezik beti kanpotik baitzen—, jatorduak... ditu mintzagai. Ospakizun handiek berebiziko gomuta utzi zioten barrenean; hala hitz egingo du jaurnartze-egunaz, nahiz ahogozo onik utzi ez bere oroimenean. Fraileekin ikasi zuen kolegioko denboraz ere luze mintzo da. Etxe oneko semea izanik eta beste eskolomeak baino dotoreago jantzia, neskamez lagundua eta beharbada hiru urtera arte Bilbon bizi izandakoa, “Patxi beste muttikoentzat kanpotarra zan, eta Arrigorrietako muttikoek eztieta abegi onik egiten kanpotarrei” (64).³² Eskolagunetik harremanak ondo gogoan ditu idazleak, eta gogoan ondo josita haiek berari egiten zizkioten barrabaskeriak eta eman zizkioten astinduak. Mutikotako pasadizuak bizi-bizi kontatzen ditu idazleak, oroimen izugarriaz.

2.1.2. Euskaldunak Madril'en (1963? / 1983?)

Sarrera honetan ez dugu gauza handirik aurreratu nahi argitaratu dakargun nobela honezaz. Sarreratxo bi erantsi zizkion idazleak, orduko Bilboko Aurrezki Kutxak eratzen zuen Azkue Saria zeritzan lehiaketara aurkeztu zuenean (1983?), “Hitzaurrea” eta “Irakurleari” izenburupean. Guztiz interesgarriak bitzuk, idazlearen aburu literarioak eta obraren gaiaren sustraiak ulertzeko.

³² Gernikan gaur egun ere hala delakoa sarri entzuten den autua da.

Elaberri honek *Kurl* elaberriaren ostekoa izan behar duelako ustea sendoa da. Hala diote etxekoek ere. Aurreragokoa ere izan daiteke eta argitaratzen ez ausartu izana, Fernando pertsonaiak izkutatzen duen benetako gizona oraindino bizi zelako. Baina seguruenen, haren oste-ostekoa izatea da, 1963-64 ingurukoa. Lehiaketara aurkezteko 1983 aldera berridatzi zukeen testuaren “Irakurleari” eginiko sarreran hala diosku:

“Denbora asko euki dut novela hau argitaratu gabe. Enuan nahi nere adiskideak irakurri zezanik. Bildur nintzan, nik izenak eta zehetasun batzuk aldatuta idatziaz, igerri egingo ote zidan beragaitik idazten nuala, eta bere burua gezurrezko irudi batekin jantzita ikusirik, minduko ote zan, eta beharbada hasarretuko ote zitzaidan.

Orain, zoritxarrez, hilda dago. Laster beteko dira bost urte hil zan egunetik.”

Pertsonaia horren atzean dagoen adiskidea identifikatzeko asmorik ez dugu hemen. Posible da, dena dela, Gernikaldeko edo Markinaldeko aldi hartan Madrilen bizi zen bere lagun pelotariren bat izatea.

Obra hau egileak bultzaturiko euskara osotu horretan idatzirik dago, baina hemengo ereduak ez da *Kurl* testukoa bezain zaindua. Bestalde, bizkaieraren interferentziak askoz ere ugariagoak dira narrazioan ere. Pentsatzekoa da lehen idaztaldetik bigarrenera —artean ez baitziren hogeitau urte alferrik igaro— aldaketa txiki batzuk egingo zituela, morfologia-puntu batzuetan zehazki.

2.1.3. Los gemelos de Iturriondo (1986-87)

Zazpirehun orrialdetik gorako elaberri luzea, gaztelaniaz idatzia. Hau ere 80ko hamarkadakoa da, *EuskM* baino osteragokoa, 86-87 inguruan idatzia. Goian eman ditugu obra erraldoi hau gaztelaniaz idazteko idazleak izan zituen arrazoiak. Idazleak eiho eta ondu duen obrarik luzeena eta handigurakoena, dudatze-

ke, nahiz narrazioaren pasarte batzuk luzeegi garatuak egon eta ondorenez narrazioak desoreka batzuk izan.

Erbeste urrunean bizi diren anaia euskaldun biren istorioa kontatzen digu: Asiako ekialde bazterrean bizi diren anaien, bata misiolari eta bestea pelotari denaren pasadizuak eta euren inguruko gorabeherak. Idazleak asmo handiko obra luze hau idazteko datu asko batu zituen bere ezagun eta adiskideen bitartez, etnografia eta mikrohistoriaren aldetik interes berezia dutenak. Txinako euskal misiolarien gaineko datuak Aita Yurre kaputxinoa-gandik jaso zituen batipat. Fraile hau, zahar eginda, Altsasuan bizi zen eta hara joaten zitzaion Oskillaso berarekin egotera. Txinan luzaroan egona zen misiolari, Jianj Jieshi-en denboran, eta Maoren iraultza guztia bizi izan zuen. Eguneroko zehe bat idatzi zuen hango gorabehera larriak jasotzen zituena, Maoren etorreraz askori gertatu zitzairen erbesteratze mingarria barne. Euskal pelotariak Filipinetan, Australian eta Asiako beste hiri batzuetan zeuden garai hartan, eta Oskillasok haietan jokatzeko ibilitako pelotarien artean lagun onak zituen.

2.1.4. Gabeko atorra (1983?/1988)

Elaberri laburra. Ika-Ibaizabal argitaletxeak publikatu zuen bere euskal literatura bilduman, 143 zenbakiaz, kanpoko azalean egilearen izenik aipatzen ez zela. Barruko azalera jo behar da egilea zein den jakiteko: Jose Basterretxea “Oskillaso”. Orrialde osoko hamabi marrazkiz ilustratua dago, baina ez dira besteetan bezala egileak eginak, argitaletxearentzat lan egiten zuen Jesse-renak baino.

Argitaratutako testuak idazlearen beste euskal elaberrietarik duen diferentziarik aipagarriena narrazioko euskara-eredua da. *Kurl* eta *EuskM* elaberrietako “euskara osotua” barik, bizkaiera literarioa darabil narratzaileak edizio publikatuan. Baina bizkaiera literarioa moldatu bazuen ere argitaratu orduan —hau da, 1988an edo lehentxoago—, jakin behar da lehenengo idaztaldia

bere ohiko ereduari ondu zuela. Dialogoetako hizkera, oster, ez zuen aldatu beharrik izan; lehen idaztaldiko modu-moduan utzi zuen, ezer ikutu gabe. Hau da, besteetan ohi duenez, tokian tokiko berbaokuneei ereduak lantzen ditu elaberriko pertsonaiei ahoan; soiltasunez esanda, Gernikaldeko bizkaiera eta Donostia aldeko gipuzkera, pertsonaiei arabera.

Artean esan dugun bezala, idazleak emaztearekin Oslo-ra 1982an egin zuen turismo bidaiaren ondokoa izan behar du, itsas bidaiaren erreferentzia argiak baitaude kontaktetan. Argumetuaz, dena dela, ez dugu hemen jardungo. Alabaina, bai apuntatu, idazleak bizi izandako esperientzia-munduarekin edo hurretik ezagututako gertaerekin lotura dutela hango zenbait sekuentziak. Beste elaberrietan bezala, narrazioko ia guztiak du lotura estua egileak ezagutu eta bizi izandako esperientziekin.

Mariño, protagonista —oinarrian autorearen biki edo ispilua dirudi alde askotatik— gernikarra da. Eta Valladolid-go unibertsitatean ari da ikasten; han unibertsitari euskaldunekin du harreman hurbila, gatzelauekin baino gehiago. Haien artekoak dira Gallastegi, Onaindia eta beste batzuk. Aita itsas kapitaina du Mariñok eta berau da lau neba-arreben arteko zaharrena. Valladolid-tik gabonak igarotzen etxera datorrenean, zehaztasun handiz kontaktzen dizkigu gazte denborako gabonak, ziurrenik autoreak aita etxean zela bizi izandakoen irudiko edo antzekoak: otorduak, Ajangizerantz aitarekin batera gabon egun iluntzean egindako ibilaldia... Gernikan bizi ziren etxearen kokaera ere ematen digu: “Leihotik begira jarri zan. Teilatuen ganetik Andra Mariko elizea ta Lumo bere elizagaz ikusten ebanan” (38). Umetan emakume artean hazi zela aitortzen du protagonistak, aita itsasgizona zelako: “Ni emakumez inguratuta bizi nintzanien ume bat nintzen” (47); “Oin beste anaije gaztiau bat dekot, baina orduen seme bakarra nintzen. Gure aitte itxasoko kapitana da, oin erretireute dau, baina orduen itsasoan egoten zan, batzuetan hiru urte etxera etorri barik, beste batzuetan urte bi, ta ni amagaz, amumagaz, krijediegaz eta arrebiegaz bizi nintzen...” (48). Uni-

bertsitate-estudiante bizimoduko zertzelada ugari kontatzen ditu: nola egiten dituzten euren parrandatxoak, nola ematen duten goizik gauera ikaste-egun normal bat... Han aipu dituen estudiantelagunek ere benetakoak izan ziren antz osoa dute. Valladolid-tik etxerantz datorrela, Bilbotik Gernikara Atxuriko trenean datorrela, “bide estuko trenean, bere herrirako trenean”, Dionigaz jesartzen da: “Dioni bere edadeko mutil bat da. Askotan jokatu dau beragaz pelotaka ta tropaka” (58). Erratu handi barik susma daiteke Dionisio Onaindia gernikar pelotari famatuaz diharduela.

Gaian aurrerago jota, ezkontzaren inguruko zehaztasun eta errito guztiek ere idazleak hurretik ezagaturikoen antza dute. Ezkontza noiz gertatzen den antzeman genezake: “Konzilio aurreko azkeneko denporak ziran eta abadeak oraindino latinez esaten ebezan otoitzak eta, eta mezea emoten ebenean ez ziran jarten jenteari begira gaur lez.” (69). Ziurrenik ez da ari bere ezkontzaz; bere ezagun edo lagunen batena izan daiteke, edo aldi hartako edozein ezkontza tradizionalen arketipoa. Elaberriko ezkondu-bikoteari dagozkion pasadizu eta gorabeherak ez dute, parte handienez behintzat, autobiografikoak izatearen antzik.

Mariñok literaturaz isurtzen dituen eritziak idazlearenei dagozkie. Gaztelar literaturan dituen zaletasunak, esaterako: Don Quijote eta Pio Baroja. Ingeles, frantses eta gaztelau jendeaz dituen eritziak ere idazlearenekin bat datoz. Euren jarrerak, pentsamoldea eta ezaugarri asko zehatz ematen dira. Autorearentzat bezala, Mariñorentzat ere atzerrira irtetea arnasbide gozatsua gertatuko da, Espainian sendo erroturik zegoen diktadura luze gogai-karriaren giro estu eta lehor hartan.

Elaberrri hau, tamalez, abarrots handi barik atera zen. Egilearen izena ere ia ohartzeko igaro zen euskal irakurleen aurretik, ez baitzuen liburuak kanpo-azalean egilearen izenik aipatzen.³³ Gai

³³ *Idatz & Mintz* aldizkarian erreseina labur bat eskaini genion bere aldian (*Idatz & Mintz*, 21, 46).

eta egitura aldetik soiltasunez eihoa izan arren, asko estimatu genuen, irakurri genuenean, idazlearen estilo fresko eta aurreritzi gabea. Hiztunen usutik hurreko hizkera zerabilen, ia kazetari baten taiukoa. Gure literatura-kritika ahulak jaramon handirik egin ez badio ere, aitortu behar dugu, autore honen estiloak zer ikasi handia eskaintzen diela gaurrengungo euskal literaturgileei ere. Gizarte modernoko kontesturik diferenteenetan euskara ze modu askatu eta freskoan darabilen sinetsi ere ezin daiteke, gaurrengungo idazkera enkorsetatu eta gazbako askoren ondoan.

2.2. Narrazio laburra: Ipuinak

Egan aldizkarian landu zuen batipat narrazio laburra. Gutxi batzuk baino ez zituen idatzi, edo argitaratu behinik behin. Guztiak edo ia denak *Kurl* elaberriaren garaian eta ostetxoan, eta denak “euskara osotu” eredu berean izkiriaturik.

Lehen garai horretakoak direnak aipa ditzagun lehenengo:

2.2.1. “Mikel eta erdeldunak” (1962)

Egan aldizkarian argitaratu zuen (220-224). *Kurl* elaberriaren aldi berekoa da, beraz, eta Oskillasoren lanik goizetikoena, harekin batera. Geroago, bere beste ipuinak bezala, *VascH* ikasliburu mardularen orrietan txertatuko zuen irakurgai modura (II, 440-443) beranduagoko bigarren aldikada horretan, eta metodo horretan erabili ohi zuen euskara-eredura egokiturik.

2.2.2. “Nylonezko euritakoa” (1964)

Egan aldizkarian argitaratu zuen (95-101). Hau ere berriz eman zuen argitara, egokiturik, *VascH* ikasliburuan (II, 370-375).

2.2.3. “Akatsbako gizonaren heriotza” (1964/1967)

Egan aldizkarian (XXVI, 190-239) 1967. urtean argitaratu zen narrazio luzea, 50 orrialde ondo bete hartzen dituen, baina

idazleak azkenean argitzen duenez 1964an idatzia. Beraz *Kurl* eta beste ipuinen aldikoa. Ez dakigu garbi zein arrazoigatik atzeratu zen hiru urtez argitaratzea, baina izan liteke zuen luzeragatik, 50 orrialdeko neurria ez baitzen agian erosogea aldizkariaren tamainurako.

Elaberriaren neurrira heltzen ez bada ere, narrazio luze hau ia genero horren barruan sar daiteke; gainerako ipuinak baino askoz luzeagoa da behintzat. Parte bitan zatitua dago, parte bakoitza hogeai atalez osatua dagoelarik. Polizi-elaberrien tankerakoa. Elaberri honetako dialogoetan, euskara nagusi izan arren, frantsesak ere badu bere lekua, Poirot detektibearen aitzakiaz, eta gaztelaniak ere bai, guardia zibilak bitarte direla. Beste narrazio-lanetatik hastantzen den puntua, dialogoetako eta narrazioko euskara berdina edo berdintsua izatean datza; euskalki edo azpieuskalkiek apenas dute tokirik hemen. Geografia zabala hartzen dute hemengo pasadizuek, halako nazioartekotasun kutsua dario horretan, baina Arrigorrieta izango da ardatza berriz ere.

2.2.4. “Zerura joan eta atzera ethorri” (1964)

Egan aldizkarian argitaratua hau ere (102-106). Nafarroako Barrankan kokatzen duen ipuin horretan, eskualdeko “herri ttiki” bateko euskara-modua islatzen du solas guztietan. Benetako eta irudipenezko gertaera eta solasak bilbatzen ditu, nekazari giroko gizarte baten erroturik. Harrigarria da umetako mundua eta pentsaera zernola erakusten dakien.

2.2.5. “Hizkuntzalari handi bat” (1965)

Egan-en argitaratu zuen (45-52). Narrazio estiloan, edo pasadizu begitandu baten bidez, hizkuntza berrien ikaskuntza du ardatz edo gai nagusi ipuin honek, umorez, ironiaz eta kritika gordinez osaturiko giroan sarturik: ingeles eta euskara gaizki ikasitako gazte baten —ingelesberri eta euskaldunberri baten— gertaera barre-eragikarriak umore handiz eta ironia finez kontatuko

dizkigu, sakonean bere betiko tesia datzala: hizkuntza bat hiztun zahar edo natiboetarik ikasi behar dela nahi eta nahi ez. Umorearen aldetik Oskillasoren ipuinen artean onenatarikoa, gure ustez.

2.2.6. “Euskalerriko baserrietan baño abadezaletasun gehiago Madrillen” (1967)

Ipuin hau, Euskaltzaindiak, Bizkaiko Aurrezki Kutxak 1967an eratu zuten Kirikiño Sarira aurkeztu omen zuen, eta oho-rezko aipamena jaso. Sari horren gomutagarritzat plaka bat gordetzen da etxean, Gerediaga Elkartearen erakunde sari-emaielen artean agertzen dela.

2.2.7. Beste ipuin edo istorio labur batzuk

Horiez gain, baditu beste ipuin batzuk, beharbada hain aspaldikoak ez direnak, edo behinik behin beranduago argitaratuak (1981), gorago aipatua dugun *VascH* euskara ikasbide modularen orrietan barrena sakabanaturik. Hauek idazkera berriagoan onduak daude, *GabAt* elaberriaren inguru edo ostekoak baitira, eta ordurako, euskara batuak bidea aurrera egin-ahala, Oskillasok ere bere ereduarekin aldatu baitzuen morfologia aldetik. Hala, *alabaa* erako itxurak eskainiko ditu, artean hobetsi edo proposatzen zuen *alabea* ereduaren lekuan.

Horien artean aipatzekoak dira: “[Arratiar bi ferira]” (*VascH* I, 112-3), “[Euskaraz ikastea ezta gaitza]” (*VascH* I, 164-5), “[Mikolas eta Kospinasi]” (*VascH* I, 338-340), “[Joxeren kotxe berria]” (*VascH* I, 398-399), “[Bigarrenez ezkonduak emakumea]” (*VascH* II, 179-172), Kirikiñoren *Abarrak* liburutik egokitu edo atondua azkenengo hau. Metodo-liburuko narrazio laburron balio literarioa apala da zinez, zeren idazleak ariketa didaktiko modura erabiltzeko baino ez baititu ondu, ez asmo literarioz.

Aipatutakoei argitaragabe dituen bat edo beste gehitu dakizkieke.

Irakurlea ohartuko denez, Kirikiño kazetariaren geriza behin baino sarriago dakusagu Oskillasoren narratiba laburrean. Ez dago gogorarazi beharrik, mañariar kazetaria benetako idazletzat zuela eta haren estiloa txit gogoko, ez bakarrik zerion umore ederragatik. Batez ere esango nuke beraren hitz-jario naturalagatik.

2.3. Itzulpen literarioa

Itzulpenaz sarri mintzo da bere saio lanetan. Elaberri honi ezarri dion sarrera-idatzietariko baten ere bai. Baina gai honez duen gogoeta eta erakuspenik zabalenerarikoa *LibNeg* saio-bilduman dakarrena da, “La literatura vasca durante el periodo negro. La época actual” saio-lanean (103-123).

Saio-bilduma horretan kritika zorrotza egiten du bere aldiko euskararako itzulpenei buruz, eta erizpide metodologiko zehatzak finkatu ere bai itzulpen literarioetan jagon beharrekotzat. Obra berean *Moby Dick* elaberriko kapitulu bat eskaintzen digu euskaraz itzulpen eredu gisa.

2.3.1. Elaberrien itzulpenak

Beranduan argitaratuak dira, idazlearen zahartzaroan, ondoko elaberri-itzulpen biak, baina askoz lehenago onduak, itxura guztien arabera. Idaztankera berbera dute ondorengo itzulpen-lanok: ingelesetik euskaratu zituen Mark Twain-en *Erregegaia eta eskekoa* eta Charles Dickens-en *David Copperfield* elaberriaren bertsio laburtua.

Bitzuk 1986an argitaratu ziren Ika-Ibaizabal argitaletxearen eskutik. Bizkai euskarari idatzirik atera ziren, baina ziurtasun neurri batez esan daiteke lehenengo bertsioa idazleak ohi zerabilen “euskara osotu” horretan egin zuela lehenengo. *Erregegaia eta eskekoa* ipuinaren eredu horretako bertsio bat bada idazlearen etxeko artxiboan.³⁴

³⁴ *David Copperfield*-ena ez dugu geure begiz ikusi baina, lehen idazketa eredu horretan idatzi zukeela pentsa daiteke.



Familia osoa Parisen, 1970.

2.3.2. *Ipuin edo testu laburren itzulpenak*

2.3.2.1. “The Cask of Amontillado / Upel bethe amontillado” (1963). *Egan* aldizkariaren orrietan argitaratu zuen (123-130). Edgar Allan Poe-ren narrazio laburra, ingelesetik zuzenean euskaratua. Sarrera labur baina interesgarri bat egin zion narrazioaren itzulpenari, non lexiko alderdian zaindu beharreko zenbait erizpide argitzen dizkigun. Gogora dezagun, bidenabar, idazlea ingelesezko literaturaren miresle handia izanik, itzulpen-lan hau —geroago egingo zituen beste batzuk bezala—, ondoko itzultzaileei eredu on bat eskaintzeko asmoaz egin zuela. Beste narrazio labur batzuk bezala, *VascH* ikasliburuan txertatu zuen (II, 248-250, 306-309) irakurgai gisa baliatzeko.

2.3.2.2. “Moby Dick” elaberriaren hiru kapitulu eskaintzen dizkigu euskarara itzulirik *LibNeg* saio-bilduma barruan (112-123), aurretik itzulpen-jardunari buruzko gogoeta eta gaurregun-go itzulpen literarioen kritika zorrotz bat egin ondoren.

2.3.3. Itzulpenaren inguruko gogoeta

Aipatua dugu jada Oskillasoren itzulpen bidezko ekarri literarioa. Ingelesa ohi darabil jatorri-hizkuntza bezala. Urte luzeetan ingeles irakaslea izanik, hizkuntza horrekiko atxikimendu berezia zuen, eta argi zekusen ingelesak hizkuntza gisa duen kontzeptuak adierazteko zehaztasuna eta hizkuntza horretan garaturiko literaturarik onena euskaraz ematea bide emankorrak zirela euskal hizkuntza eta literaturarentzat. Itzulpengintza ugaria eskaini ez arren, bere laburrean lan zehatza eta eredugarri gertatzen dena, bai behintzat. Itzultzaile baino biderakusle nahi zuen izan gehiago Oskillasok. Eta seguruen horregatik sarrera metodologiko laburra egingo dio Edgar Allan Poe-ren *Fantastic Tales* bildumatik euskaratzen duen “The Casck of Amontillado” edota “Upel bethe amontillado” ipuinari. Berean dio:

“Irakurgai huntan ikus diteke zelan komeni dan askotan beste hizkuntzetako hitzak nork bere idazkietan sartzea euren orthographia errespetaturik. Inglesez idatzita egonarren, iphuin huntan *pallazo* hitza italianoz dago (inglesez *palace* idazten da). *Palazzo* idazten duan bakhoitzean Edgar Poe'k Itali'ko aizeak ekarten dizkigu. Guk ere, *jauregi*, gure hitz ederra, iphuin huntan bazterturik, *palazzo* ipini dugu (hau *palatzo* idatzia bailegoan irakurri behar da). *Roquelaire* hitza be ezta arkitzen ingleseko encyclopaedietan, handi handietan izan ezik, eta ezta euskerazko irakurleentzat inglesekoentzat baino arrotzagoa. Igarten da kapusai antzeko zerbait dala, baina aintzineko janzki bat da, eta kapa edo kapusai idatzi bage-nu ezluke hartuko irakurleak orai ezagutzen eztan kapa modutzat. Heraldikaz mintzaten geranean ere, eztugu esan behar urrezko, urdina, gorria, eta abar, *d'or*, *d'azur*, eta *de*

gules baizik, bestela ukuiluetako gauzetaz mintzatzen gerala irudituko baitu. Amontillado, Médoc, De Grève, eta hunelako hitzek ere, danak arrotzak eta euren orthographi bereziekin, aphaintzen dute idazkia, Poe'k batzutan España eta Itali'ko ardoak nahasten baditu be.

Pentsatu othe du irakurleak euskaratu ditekela iphuin hau euskalgi bakhar batetik irten gabe euskara osotuz bezain ongi? Nik ez.” (*Egan* 1963, 123-130)

Aipatu ditugu jadanik 1986an ingelesetik euskarara egin zituen narrazio-itzulpen biak, oraingoan bizkaierara erakarrita. Euskara erraz eta samurrean ume eta gaztetxoentzako literatura-emaizta ederrak eskaintzen dizkigu, beti ere helburu didaktikoa bistatik kendu barik.

2.4. Hizkuntzaren didaktika eta gramatika

Ingelesa irakasten urte luzeetan egon ondoren, hizkuntzaren didaktika zen idazlearen kezka nagusietarikoa. Intuizio handia ei zuen, seme-alabek aitortzen dutenez, atzerri-hizkuntzak irakasteko. Ingelesa eta frantsesa txikitatik eta ondo ikasi zuten bere seme-alaba biek. Hori lortzeko moduetariko bat, udetan hilabete osorako Inglaterrara eta Frantziara familia osoa joatea zen, eta udako eskoletan bertako hizkuntzan murgildurik egon ohi ziren haurrak. Baina etxean ere txikitatik irakatsi zien ingelesa, bere kabuzko ikasbide labur baina atseginak erabilirik. Seme-alabek etxe eskola-saio labur haien gomuta guztiz bikaina dute.

Hizkuntzak ikasten ume eta gaztetxoak kanpora bidaltzea gaur hain normala dena ez zen horrenbeste 60ko hamarkada hasieran. Hizkuntza-ikasbide aurreratu eta goizetikoa izan zuela erakusten du horrek.

2.4.1. El vasco de hoy lana

Halaxe ekingo dio hirurogeita hamarreko hamarkadan, 1981ean *El vasco de hoy* izenburuaz hiru tomo marduletan argi-



Aita-semeak, biak hizkuntzalaritzan jardundakoak. Donostia, 1984.

taratuko duen euskarako ikas metodoa lantzeari. *La Gran Enciclopedia Vasca*-k argitaratu zion, baina bere diruz eta koadroekin ordaindu behar izan zuela inprimatze-kostua.

Guztira hamabost ikasgai ditu metodoak, tomo bitan banaturik. Hirugarren tomoa, osagarrikoa, irudiz hornitua da. Euskararen ikas metodologiaren alde idazleak egin zuen —eta ahalegin eta ekimen handia zela jakitun zegoen— emaitza nagusia dugu *VasH* obra. Hamar bat urte eman ei zituen langintza horretan: batean sintaxi-egitura batzuk nola irakatsi asmatzen, bestean egitura horiek irudietara itzultzen, eta, jakina, ikasgaiak eurak idatziz antolatzen. Artean gaixorik jarri zen, eta osasun-baldintza eskasetan egin behar izaten zuen sarri lana, osasun gutxienduari gaina hartzen ahaleginduz sarritan.

Ikasbide hori burutzen lagunduko zion, jakina, urte luzeetan ingeles irakatsi izanak, katedratikoa baitzen institutuan; baita ere Nafarroako Unibertsitatean euskara irakasle gisa ematen zituen eskolak. Metodoan hizkuntzaren alderdi diferentek elkartzen

ditu: aditza, hitzen ordena, deklinazio-kasuak... eta entonazioa ere bai, beste metodoetan nekez lantzen dena. Euskararen barne-
ezagueratik ondutako metodoa da, ez dakienentzat zailak diren
egiturak modu original eta intuitiboaz konpontzen dakiena.

Euskara irakasteko duen balioaz ostean, berebiziko interesa
du obra horrek gramatika aldetik egiten dituen ohar eta adieraz-
penengatik. Ez da ahaztu behar, Oskillaso, hizkuntzaren gaineko
luzaroko gogoeten ondorioz, euskararen ezaguera sakona eta
zehatza izatera iritsi zela, ez bakarrik entonazio eta fonetika-fono-
logia arloetan, baita sintaxi eta lexikologia eremuetan ere. Alde
horretatik beraren gramatika alderdiko ekarria guztiz interesgar-
ria da hizkuntzalari eta literaturazaleontzat ere.

2.4.2. Beste gramatika edo hizkuntza lanak

2.4.2.1. Fonetikaren eremuan lan mardul bat argitaratu zuen,
artikulu bitan banandurik: “Estudio sobre entonación vasca según
el habla de Guernica”, *FLV* aldizkarian argitaratua (1974, 353-
393; 1975, 289-338).

Euskaltzaindiak eratutako jardunaldi batzuetan ere parte
hartu zuen gai horrezaz, eta *Euskera* aldizkarian publikatu ere
bai.

Jakina da hizkeren doinu eta entonazioaren gaiak jakinmin
eta interes handia zuela. Garrantzia handia ematen zion puntu
horri, ez bakarrik dialektologia mailan, ezpada euskararen ikas-
kuntzan ere bai —nahikoa da bere *VascH* obrako ereduak begiz-
tatzea—, zeren hizkuntza naturalaren ezaugarritzat baitzeukan.
Ezaguna da, bestalde, Nafarroa aldeko herri euskaldunetan ere
ibili zela inkestak egiten (Barranka aldean, besteak beste), hango
euskalki eta azpieuskalkien fonetika eta doinuak ikertzen.

2.4.2.2. Han-hor-hemen argitaraturik lan labur solteak badi-
tu, batean deklinabideaz, bestean determinazioaz eta beste gra-
matika puntu batzuez. Hala, esaterako, berak proposaturiko

“euskara osotu” horren ardatzetarikoa zen *euskerea* edo *euskaräa* morfologia-ereduaren gainean Euskaltzaindian aurkeztu zuen txostena: “A organikoaz amaitutako hitzen deklinazioaz”, *Euskera*-n argitaratua (1977, 735-737).

2.5. Euskararen gaineko saioak

2.5.1. Saio laburrak batasunaren gainean

Euskararen gaineko idatzi laburrak hainbat ditu aldizkari eta egunkarietan barreiaturik. Euskara batuaren auzia dute ardatz *Kurl* liburuaren karietarat Villasante eta Mitxelena jaunei erantzunez *Egan* aldizkarian idatzi zituen biak: “Ihardespen bat aita Villasanteri” (1962) lehenengo, eta “Ihardespen bat Mitxelena jaunari” (1963) gerotxoago³⁵, haiek *Kurl*-en testuari ipinitako erreparuei erantzun eta bere jokabidearen arrazoiak sendotzeko. Zein baino zein argigarriagoak dira saiotxo biok Oskillasoren “euskara osotu” eredu barrutik ulertzeko. Villasanteri eginiko erantzunean alderdi praktikoanari oratzen dio: grafia, maileguak eta hitzen formak, orohar. Mitxelenari eginiko erantzunean maila teorikoagoan ari da.

Mende erdi bat hurbil dela saiook idatzi izan zirenetik, han isuritako ideia asko orduan baino gaur aintzat hartuago izango liratekeela, beldur barik esan daiteke. Hainbat gehiago bizkai euskarako hiztunen kasuan.

Aldi beretsukoa da (1963), euskararen inguruan Arantzazun egin ziren jardunaldi batzuetarako prestatu zuen txostena, euskararen batasunari buruz eman beharreko urratsak zehazten dituen. Izenburua: “Batasunerako urhatsak, euskal-analphabetismua ta kultur-hiztegia”, *Euskera* aldizkarian argitara emana (1963-64, 378-385).

³⁵ *Egan* aldizkarian publikatu zen hau ere: 1963, XXII, 162-181.

Azken aldietan ere, *LibNeg* saio-bildumaren ondoren ere idatzi zituen gogoeta eta gramatika-ohar laburrak. Lan sakabanatu honen adigarritzat, bat dut gogoan berariaz, *Deia* egunkarian (1989-III-19) argitaratu zuena, zeinetan maiz ohi zerabilen gaiaz gogoeta ziharduen: “No polucionemos el euskara”.

2.5.2. El libro negro del euskara (1984)

Liburu hau da euskararen gainean zehazki, eta hizkuntzen gainean eta euren irakaskuntzaren gainean orokorrago, idatzi zuen obrarik gailenena. Aurreko saio laburrak baino askoz beranduagoa da, eta gai aldetik ere zabalagoa, askotariko alderdiak baitarabiltza euskararen gainean.

Liburua bere diruz eta ekimenez argitaratu zuen, egile-argitaratzaile legez, agian beste bide hoberik aurkitu ez zuelako, esan nahi baita, orduko erakunde edo argitaletxeek erraztasunik eskaini ez ziotelako.

Berez saio txorta bat da liburuan bildurik, nahiz trinkotasun itxurako egitura ematen saiatu zen egilea. Hitzaurrea (*prólogo*), sarrera (*introducción*), hiru atal eta eraskina (*apéndice*) ditu obrak. 360 orrialde guztira.

Saio-bildumari ematen dion izenburua —*El libro negro del euskara*— Euskaltzaindiak aurreratxoago atera zuen saio bildumaren eta haren izenburuaren —*El libro blanco del euskara*— iruntzitako alderdia da. Euskaltzaindiaren saio-bildumak ikuspegi baikorra erakusten bazuen euskara dela-ta, Oskillaso arduratu zen haren segitu-segituan, hizkuntzaren errealitate soziolinguistikoaren belztasunak agerian ipintzeko, matematikari bati zegozkion zehaztasun eta kalkuluekin on egiten zituela bere baieztapeak. Euskaltzaindiak erabaki zuen euskara batu eredua hedatzen eta indartzen zihoan aldi berean, euskalkiak endekatzen eta indargetzen zihoazela ikusten zuen idazleak —bazterretako euskalkiak bereziki, eta bizkaiera modurik dramatikoenean—. Euskararen ibilbideko alderdirik latzgarrien hori zuritzearen kontra

zegoen; euskararen etorkizunak euskalkietatik igaro behar zuen berarentzat; edo beste era batera esanda, euskaldun natiboak —euskaldunzahar direlakoak— jagotean zegoen gehiago euskararen bizia, euskaldunberrien protagonismoan baino.

Askotariko gaiak eta alderdiak darabiltza euskara eta euskal literaturaren ardatzean:

a) euskal hizkuntza eta honen gaurrengungo egoerari buruzko gogoetak: elebitasuna, euskararen irakaskuntza, euskaldun zahar eta euskaldunberrien auzia, euskara eta administrazioa, e.a.

b) euskal literatura: literaturaren aldi beltza, literaturaren eta euskaldunzaharren arteko etena, Axularren eredia, e.a.

2.6. Kazetaritza eta osterantzeko idazkiak

Egan, Deia eta beste agerkari batzuetan barreiaturik badira, narrazioaz osteango lan laburrak, gramatikaz, pasadizuez, gizar-te-gaiez, e.a., gutxi-asko euren interesa dutenak. Hala: “Jostailuak, semeak eta gurasoak” (*Egan*, 1965, XXIV, 62-3). Baina gure asmotik kanpo dago lanok bildu eta zehatz ematea, baina aurrerago Oskillasoren lanean sakonago sar dadinak ezinbestekoa izango du hauen bibliografia eta azterketa egitea ere.

3. OSKILLASOREN EUSKARAREN EZAUGARRI BATZUK

3.1. Puntuazioa

Gidoiaren oso zalea da, batez ere konposizio-prozesuetan. Gaurko euskara standarrean baino ugariago darabil. Hala: *burdin-bide, ordu-liburu...* Hitz errepikatueta, ostera, ez du erabiltzen: *argi argi...*

3.2. Grafia

Lehen aldikadako, 60ko hamarkadako lanetakoa da hemen hausnar erabiliko duguna, euskararen trantsizio garaikoa, nolabait

esateko. Euskara baturako proposatzen duen eredu berekabuzko horretan bezala, grafian ere nortasun berezia erakutsiko du.

Grafia batua finkatzeko artezbide nagusi bat ahoskerarena zen Oskillasorentzat. Hitzunek ahoskatzen zituzten fonemek euren ordezkoa eduki behar zuten grafian.

Hala, aspirazioa indarrean bazegoen oraindino Ifarraldean, <h> grafiari eutsi behar zitzaion. Hitz-hasieran edo bokal artean, gaur ohi den baino ugariago zerabilen. Kontsonante aspiratuak ere zainduko ditu, gerokoetan ez bada ere, *Kurl* obran behintzat. Hala: *bakharrik*, *bethe*, *bethi*, *ethorri*, *khendu*, *othe*, *urthe* idatziko du. Baita *Egan*-en urte beretsuetan argitaratzen dituen narrazioetan ere. Geroagoko literaturgintzan amore emango du kontsonante aspiratuen puntu horretan.

Arrazoi beragatik hots bustipalatalak ere grafian islatzearen aldeko zen:

Hala, sudurkari bustia, hegoaldeko euskaran nagusi den ahoskera, <ñ> grafiaz transkribatuko du hitz batzuetan, berariz hegoaldeko joerakoak diren hitzetan (*iñor*, *iñoiz*) eta maileguzko zenbaitetan (*makiña*). Era berean: *baño*. Hasierako lanetan ekialdeko joerari men eginez <in> darabil maizago, eta <ñ> hitz jakinetan. Denboran aurrera egin ahala, ostera, <ñ> ugariago idatziko du, nahiz itxura baten lehenengo “euskara osotu” ereduan ez izan grafema horren aldekoegi. Geroago, euskara batuak guztiz baztertuko zuen <in> ekialdekoaren mesedetan.

<ll> grafema ere, ez haiekin bakarrik, baina nagusiro maileguzko hitzekin ohi darabil: *bachilleratoa*, *banderilla*, *kiskilla*, *mantilla*, *milloi*, *pantalla*, *silla*, *taller*. Euskal sundako hitzen artean aipa daitezke: *pillo*, *espillu*, *katillu*, *lilluragarri*, *makallao* eta beste.

<x> grafema ere onartuko du, beti <is> edo <iz> erabili barik, garaiko euskara batu ereduan gertatzen zen bezala. Honetan ere hitzunen hots bustiak islatzeko interesa babestera egingo du. Hala: *exeri*, *exer-toki*, *gaxo*, *gizagaxo*, *ixil*, *ixtripu*, *pixkat*, *sardexka*, *zurixka*, *goxo*, e.a.

<tt> horzkari bitua dugu beste grafia-irtenbide berezi bat idazleak hautatu duena, ekialdeko *ttiki* eta erdi-sartaldeko *txiki* aldaera bustiak bateratzeko. Holako kontsonante bituak, *Kurl* elaberrian bai, baina gerokoetan ez ditu hain sarri erabiliko. Hemen: *muttiko*, *ttiki* hitz arruntetan, eta Arrigorrietako mutikoren izen hipokoristikoa ere, ahoz *Patxitxu* zatekeena, *Patxittu* transkribatzen du.

Mailegu-hitzetan, hartu den jatorri-hizkuntzako grafia zaintzeko joera du idazleak. Jakina da, kanpotiko hitzak behar diren guztian hartzeko erreparu gutxi duela, nasai jokatzen duela horretan, garaiko eta aurretiko purismo joeren kontra. Baina jatorrizko grafia euskaraz ere mantentzea bere garaian ere kritikatu zioten.³⁶ Erregulartasun handiz, kanpotiko hitzetan jatorrizko grafia jagotera egiten du. Hala: *automovil*, *nylon*, e.a.

3.3. Morfologia ezaugarri batzuk

Isren determinazio-egituran, bitxitzat jo beharrekoa da *edozein* eta *bat* sintagma berean elkartzeko duen joera: “edozein bilbotar baten moduan” (1965, 45).

Deklinabidean *-tiko* atzizkiaren ugaritasuna aipa daiteke: *atzetiko jentearen begiak* (GB 68).

Postposizioen artean, *arte* erabiltzeko modu bitxia du, euskaldunok nagusiro *artean* darabilgun kontestuetan *arte* baitarabil, hots, espazio eremuan. Adib: “biren arte erdibitu behar dan ahalgea”, “beste gauza askoren arte”.

Aditzean, aipagarria da *dan*, *dala*, *zan*, *zala*, *zitan* amaieren alde jokatzen duela, horretan gipuzkera-bizkaieren bidetik, eta ez

³⁶ L. Villasantek, *Kurl* idatzi ostetxoan, hau idatzi zuen hari eginiko kritikan: “Erderatiko itzetan oso iritzi zabaleko da Oskillaso, baiña ez tet ikusten zergatik idatzi bear diran erdal ortografiaz “circoa”, “bachilleratoa”, “descuidoa” ta abar.” (*Arantzazu*, 1963, XLIII, 62).

Euskaltzaindiak Arantzazuko batzarrean hobetsiko zituen *den*, *dela*, *zen*, *zela*, *zituen* ekialdekoen alde.

3.4. Lexikoa

Lexikoaren alderdian, behin baino gehiagotan apuntatu dugun purismoaren kontrako jarrera, edo hobeto esan, maileguhitzak nasaikiro onartzeko joera aipa daiteke batez ere. Ingelesetiko hitzak dauden-daudenean erabiltea maite du. Hala adibidez, futbol eremukoak diren *foot-ball* edo *shoot*.

Lexiko alderdiko bitxikerien artean, esan dezagun, badirela haren testuetan zenbait erabilera bere-bereak dituenak, eta guk ere bere hartan utzi ditugunak. Halakoak dira, besteak beste: *banan bana*, idazleak darabilen errepika-egitura, hiztun zein idazleok ohi darabilgun *banan banan* formaren lekuan. Bestetik, *begitada* ohi darabil *begirada* zabalagoaren ordez.

4. EUSKARA BATURAKO EKARRIA: “EUSKARA OSOTUA”

Hasteko esan behar da Oskillasok ahozko eta idatzizko euskararen gainean hausnarketa sakona eta zehatza egin zuela bere “euskara osotu” rako proposamena eta horretarako urratsak ematen hasi aurretik.

Literatura tradizino idatzia ondo ezagutzera heldu zen, beti ere modu autodidakta batez, seguru antzean gramatika eta literatura testuen irakurketa ohartu bat eginez. Ahalegin horren ondorioz tradizio diferenteetako morfologia, sintaxi eta lexiko berezitasun askoren berri zuen. Horregaz esan gura da, hitz, atzizki edo morfosintaxi-egitura jakin bat darabilenean bere idatzietan, jakinaren gainean eta ondo oharturik egiten duela, hau edo bestea hautatzen duela; eta ez buruak edo gogoak momentuan eman-ahala.

Ahozko hizkeraren, edo hobeto esan, hizkeren ikasketa ohartua egin zuen. Bizkaitar, giputz, nafar, lapurtar, baxenafartar

hiztunei belarri zoliaz entzun izan zizkien euren esapideak, euren erregistroak, berba baten.

Euskara batuaren kezka aspaldirik, gudu aurretik bazetorren ere, eta Azkueren gipuzkera osotuaren erreferentzia begi aurrean bazuten ere gerraosteko belaunaldiko idazleek, hala ere batasun-rako bideak berritzen hasiko dira, batzuk *Euzko Gogoa*-ren inguruan, beste batzuk *Egan*-en inguruan edota *Jakin* Arantzazukoaren inguruan. Belaunaldi zaharrekoek, edo tradiziozaleek, gipuzkera osotu horri eutsiko diote bide seguruen modura, edota euskalki literarioei beste barik.

Baina batasun literarioaren ahalegin sendoago baten aldekoen artean, batzuk lapurtera klasikoaren bidea hartuko dute. Hor-tik abiatuko da Krutwig, eta beronen gerizan, hasieran Villasante bera ere bai —nahiz gero gipuzkera modernotu baten bidera itzuliko den berriz—, eta zein bere berezitasunekin beste asko: Aresti, Kintana, *Anaitasuna* aldizkaria. Joera honen ikutua izango du aldi horretan E. Erkiagak ere, eta geroago, A. Irigoienek.



Euskal Idazleen Elkartearen omenaldia. Zestoa, 1995. Oskillaso zutunik erdi-erdian.

Hala ere, batasun bide horretan idazle multzo nagusiak, erdialdekoak, Mitxelena eta Villasante ageriko maisuak direla, lapurteraz gantzututako gipuzkera edota lapurteraren morfologia-ikutzuz jantzitako gipuzkeraren eredu baterantz joko du. Eredu hori da, luzarora, garaile irtengo dena.

Arantzazuko Batzarraren (1968) aurretik lapurteraren ikutua igarri-igarria zen hegoaldeko idazle batzuetan, eta bizkaitarren artean nabarmenago. Aresti, Villasante eta Erkiaga izan daitezke joera horren erakusgarri. Eta Oskillasok berak ere, batzar horren aurreko lanetan —elaberri, narrazio labur zein saioretan— ageriaro joko du ekialdeko tradizioaren gerizara.

Baina *Kurl* elaberria da, idazleak bere “euskara osotu” eredia plazaratzeko hautatuko duen bitartekoa. Obra hau, elaberri izateaz gain, literatura didaktikoaren azpigeneroan ere sar daitekeelakoan gaude, hizkuntzaren saio literarioa den aldetik; harako *Peru Abarka* bere aldian izan zen antzera. Euskara batua nola egin behar den edo komeni den azaltzeko erakuspen praktikoa antzekoa dugu obra hori. Egileak berak aitortuko du Mitxelenari idatzitako gutun baten, argitaratu aurretik hainbat orraztualdi egin zizkiola testuari. Hala bada, froga eta ahalegin trinko eta astiro hausnartuaren emaitza dugu testua, edo zehatzago esan, testu horren idazkera. Beraren hitzez esanda:³⁷

“Ez nintzan ni hasiko bide berri baten bilha, zuek jarraitzen duzuen zuzen iruditu bazitzaidan. Bost urte saiatu nintzan zazpi ahaleginetan, zuek bost minututan lurrera bota nahi duzuen bide berri horren bilha. Kilo asko paper gastatu nituan eta ordu asko erabili nuan buruan bira ta bira prolema bakhoitza. Detalle bat: bederatzi bider idatzi nuan *Kurloiak* lehenbiziko horritik azkenekoraino, bethi azkenekoa izanen zalakoan.”

Oskillasoren ereduaren ekarri garrantzitsuetariko bat, gero Euskaltzaindiaren eredu batuak jasoko ez duena, bizkaierarena

³⁷ “Ihardespen bat Mitxelena jaunari”, *Egan*, 1963, XXII, 162. orr.

da, beherago ikusiko den bezala. Ikertzaile honek ez zuen nahi batasun kontua gipuztar eta ifartarren arteko arazoa bakarrik izan zedin; hau da, garaiko *Zeruko Argia* eta *Herria* aldizkariaren ereduaren txertakuntza, alboetakoak, berariz bizkaieradunak bertanbehera utzita. Eta besteak beste arrazoi soziolinguistikoetan oinarritzen zuen bere jokabidea.

Denboraren joan-etorrian “euskara osotu” eredu horrek eboluzio txiki bat izango du idazlearen hurrengo elaberrietan. Beranduagoko lanetan, lapurtera eta ekialde-euskalkien eraginak apalagoak izango dira bai morfosintaxi mailan, bai lexiko aldetik, eta gipuzkera-bizkaierenenak ugariagoak. Nahiko da *Kurl* eta argitara dakargun *EuskM* obren testuak konparatzea horrezaz ohartzeko.

Kurl liburuan finkatuko zuen batasun-ereduaz hausnarketa labur bat ere egin zuen 1963ko irail-urrietan Arantzazuko Euskalzaleen Biltzarrera aurkeztu zuen txostenean (*Euskera* 1963-4), non hiru urrats proposatzen zituen batasunera bidean: bata, zabalkunde mailakoa, hau da, *Kurl* elaberriarekin abiarazi nahi zuena; bigarrena, ortografia eta morfologia mailakoa —*izkutu* ala *ezkutu*, adibidez—, eta hirugarrena, giltz-hitz edo giltz-esakeren gramatika erraz bat egitearena.

Baina jo dezagun zehatzago, zein diren Oskillasok aurreratu zuen eredu-zirriborroaren nondik norakoak azaltzera. Lehenengo eta behin ikusiko dugu euskalki nagusietako ekarpena nola mamitzen den testuetan, *Kurl* delakoan batez ere.

4.1. Ereduaren ezaugarri gain-gaineko batzuk

Hitz beraren aldaera edo barianteak direnak sinonimo legez erabiltzen ditu maiz: *erran/esan*, eta idazlearen hizkuntza-filosofian oso erroturik dagoen malgutasun-erizpidea aplikatu. Jokabide nagusi modura, eredu batu horrek euskalkien nortasunari ahalik murrizketa gutxien erakarri behar ziela uste zuen. Eta horretara datorke seguruen hitz batzuetan bitara jokatzea. Horretara, idazlearen ustez, euskara osotuan euskalkienak ziren ezaugarri markatuak ere salbatzen ziren.

Forma bat edo bestea hobetsi edo lehendu behar zen kasuetan, jokaera nagusi modura esan daiteke, euskalki bitan edo gehiagotan bat zetozen formen alde egin zuela. Gauza jakina da, euskalkien arteko kidetasunik gehienak, elkarren ondoan edo elkar ikutzen daudenen artean gertatzen direla, eta horretan horien alde jokatu du.

Halabaina, badira bizkaieran eta ekialdean —eta lapurtera klasikoan— bat datozen formak, eta erdialdean, gipuzkeraz batez ere, forma berezia dutenak. Halakoetan bazterretako formak bermatzera jokatzen du gaurko eredu batuan baino gehiago.

Morfologia mailan, esanguratsua da aditzizenetan *-te/-tze* aldaeren artean egiten duen eremu-banaketa. Tipo arrunteko aditzekin, *-tu* erakoekin, *-tze* ohi darabil, euskara osoan nagusi den joera, bestalde. Baina *-i*, *-o* amaieradunetan *-te* markaren alde egiten du, lapurtera klasikoan eta bizkaieran dagoen joerari atxikirik. Hala idatziko du: *ekarten*, *erabilten*, *erorten*, *ibiltea*, *igartea*, *igaroteko*, *igoten*, *joten*, e.a.

Aipagarria da baita, *-ztu* atzizkidun zenbait aditzen nominalizatzea *-ztutze* erara egiten duela, bizkaiera klasikoko *-ztute* atzizkiaren antzera. Hala: *poztutzen*.

Deklinabide-atzizkien artean sarrera emango dio *-etarik* ablatibo aniztunari, gaur egungo *-etatik* nagusituaren lekuan, ekialdeko euskalkiak eta bizkaiera zaharra bat datozen puntua hau ere: *jokoetarik*. Eta bide beretiko *-etariko* horren adnominalari.

Lexiko mailan ere ezagun da joera hori. Hala, gaurko eremuan *urruti* hitzak duen indarraren ondoan, *urrun* hobetsiko du.

Ezeztapena adizkiei eransterakoan ematen diren ondorio fonetikoak ekarri garrantzitsu bezala sartzen ditu bere eremuan. Hala: *etzan*.

4.2. Erdialdeko euskalkien ekarria

Aipatu beharrik ere ez dago, erdialdeko euskararen ezaugarriak dira azken baten nagusi Oskillasoren “euskara osotu” horre-

tan ere, Azkueren ahaleginean bezala. Morfologia, sintaxi zein lexiko ezaugarrien portzentaiak ateratzera joko bagendu, duda barik erdialdeko ezaugarriak nagusituko lirateke bazterretako guztien gaintetik. Eta horrek arrazoi sinplea du: erdian erabiltzen diren marka edo forma asko, han ezeze, hegaletan ere erabiltzen dira, hegal bietan ez bada, bietariko baten bai maizenik.

Izenordain posesiboen sailean *nere* erako aldaerak darabiltza.

Badira horraitio, gaurko eredu batura igaro ez diren marka batzuk eta Oskillasok hobetsi zituenak. Aditzetan, iraganeko adizkiak eta mendekoak *-an/-ala* atzizkiaz eraikitzen ditu, gorago esan bezala, eta ez gaurko batuan nagusitu den ekialdeko *-en/-ela* atzizkiaz. Aditz jokoan badarabiltza, era berean, gero euskara batura igaro ez diren adizkiak. Hala: *gera* edo *zeramazkin* (eramán).

Lexiko mailan: *ajola, alki, arkitu, beta, iritzi, neskatxa, exeri*.

4.3. Lapurteraren ekarria

Igarria eta ageria da Oskillasok lapurtera eta, orohar, ekialdeko euskalkien aurrean duen aldeko jarrera. Lapurteraren ekarri hori *Kurl*-en eta 60ko hamarkadako narrazioetan da nabar-menagoa, beranduagoko testuetan baino. Horko “hitzaurrea”n berak dirausku, Azkueren gipuzkera osotuaren formula ez zela kontentagarri ez bizkaieradun ez lapurteradunentzat (eta ekialde bazterrekoentzat, jakina). Zimendu-eritzi horretatik abiatutik, bazterreko euskalkiok “euskara osotu” horretan txertatu edo mendatzea izango da beraren ahalegina. Asmo horrek eraginda idatzia da, hizkerari dagokionez behinik behin, *Kurl* obra, eta berdín garai beretsuan eta osteratxoago *Egan*-en atera zituen narrazio labur eta itzulpenak.

Grafia goian aipatu dugun ezkerro, morfologi-ezaugarrietara zuzenduko gara eta lapurterakotzat jo daitezkeen batzuk-batzuk aipatuko.

Aditz jokoan badira ekialde joera garbikoak. Hala *zauden* (egon), *zoalarik* (joan).

Geroko partizipioa eraikitzeko *-en* atzizkia bultzatuko du *-n* amaieradun aditzentzat: *eginen, erranen, izanen, jakinen*. Aditzi-zenetan zenbait aditzekin *-ite* aldaera onartzen du: *erraita*, baina *esaten* ere darabilela.

Erakusleen 1. gradukoen artean hauek hautatzen ditu maiz: sing. *hunek, huntaz, huntan*, pl. *hauiek*, adb. *hunela*. 3. graduko- en artean, pl. *hetan*.

Atzizki eratorle edo graduatzaileen artean *-tto* aipa daiteke. Hau bultzatuko du *-txo* baino gehiago *Kurl* obran: *mutiltto, neskatiltto, gurpiltto*. Bide beretik, lapurteratik hartua da zenbait hitzen zentzu adierazkorra espresatzeko darabilen <tt> kontsonante bitua. Hala idazten du: *ttiki*.

Sintaxi mailan aipagarrietarikoa da aditzizen baten mendeko nor-IS genitibo edutezkoaz markatzea: *janzkienetariko berrienaren zikintzea, janzki zurien latsatzera*.

Lexiko mailan, aipa ditzagun: *ahantzi, aintzinean, aphez, benedikatu, erakaspen, hanitz, haraat-hunatak, huntzitegi, iguriki, kanabera, lanhotsu, lakhet izan, leihor, ohidura, oraindaino, oraino, ttipi, zeihar*.

4.4. Bizkaieraren ekarria

Bizkaiera-ezaugarrien agerrera gaur egungo euskara batuan baino askoz ugariagoa da Oskillasoren eredian. Eta ez da mugatzen, gaurko eredu batuan bezala, lexiko mailako ekarri puntualetara, ezpada morfologia eta sintaxi ezaugarri berezi eta maiztasun handikoak eredu osotuan sartzearen alde jokatzeko du.

Morfologia ezaugarrien artean, garrantzitsuen batzuk aipatuko ditugu. Izenaren morfologian, urrats bat da ausartena, *-a* amaieradun hitzei mugatzailea eranstea *-ea* egitea, geroago *-ä* itxuraz ere proposatuko duena. Hitz-ebakera hori, *-a + -a > -ea* egitearena, ez da berez bizkaierarena bakarrik; gipuzkera mende-

baldea ere (Urola eta Goierriko alderdi batzuk barne) hartzen du, dotrina eta beste testu zahar batzuetan edota gaur egungo euskararen lekukotzen den bezala. *Kurl*-en idatziko du: *arimea*. Gerotxo-ago eritziz aldatu zuen eta *-ea/-a* aukeren artean erdibide bat bilatu nahirik *-ä* grafema asmatu zuen, eta hala idazten saiatu zen ondoko elaberri bietan, baina irregulartasun handiz jokaturik, behin *-ä*, behin *-a*. Lehen soluzioa darabil *Kurl*-en honako hitzetan: *arimea*, *dotrinea*, *neskea*, *osabea*.

Deklinabideko atzizkien artean, *-gaz* soziatibokoari eskubide osoa aitortzen dio *-ekin* zabalagoaren sinonimo legez, eredu batuan. Hala: *beronegaz*, *praka luzeakaz*. Ildo beretik, *-gaitik* sartaldekoa bultzatzen du. Ablatibotik eratorririko partitibo zentzuko *-etariko* atzizkia, erdi-euskalkietan maiz *-etako* aldaera duena, ere onesten du.

Aditz partizipioen morfologian ezaguna da ekialde eta mendebalde bereizten dituen *-ki/-gi* bikoiztasuna: *jaiki/jagi*, *eraiki/eregi*, *eseki/eskegi*... Holakoetan bizkai-etorriko batzuei leku egiten die: *eskegi*.

Adituzen batzuetan *-etan* bizkaiera-atzizkia darabil. Adib.: *bethetan*, *gordetan*.

Aditz jokoan, ostera, bizkaieraren ikutua hutsaren hurrengoa da. Hala ere *dabe* pluralari leku egiten dio.

Izenordain eta erakusleen sailean, bizkaiera kutsukoak dira hauetariko batzuk: 3. graduan *ha* erabiltzea; zenbait egitura bikoitz edo aposiziozko eraikitzea, *hauxe bera* esaterako.

Juntagailu eta lokailuen arloan, aipagarria da *be* eta *ere* aldaeren artean egiten duen erabilera osagarria, *ere* aurreko hitzak atzean *k* duenerako utziaz: *iñork ere*.

Postposizio batzuk eurrez darabiltza: *ostean* esaterako, euskara batuan azken aldion sartu eta lekutu dena, aspaldi txertatu zuen gure idazleak. Baita gaur gutxi irakurtzen den baina bizkai hiztunek sarri darabilten *lako* modala ere.

Atzizki eratorle batzuk, *bako* eztasun zentzuko legezkoak, garrantzizkotzat jotzen ditu: *ganorabako*.

Zenbatzaileen eremuan, *danak* kolektiboa darabil.

Hiztegi aldetikoa da, dena dela, bizkai euskararen ekarpenik sendoena: *arrapaladan, berna-hazur, bider, bildur, eroan, gogaitu, gomutatu, hegaz, idoro, mun, otxin, solo, zelan*.

4.5. Euskalkien lekua

Euskalkien maitale handia zen Oskillaso. Eta bere saio-ida-tzietan —*LibNeg*-en partikulazki— maiz mintzo da euskalkien alde, zeren euskara biziaren gordailu diren eta euskara egiten dutenek euskalkiz mintzo diren. Baina didaktika alde batera utzita, literaturan idoroko du idazleak euskalkiei idatzizko tratametu emateko tresna bikaina. Narrazioan darabilen “euskara oso-tua” hiztunek ohi darabiltzaten hizketa-moduekin osatzen du dialogoetan. Hau da, euskara mintzo diren protagonistak dialektoz mintzo dira, ez dialekto literarioaz hain zuzen, zein bere eskualde edo herrikoaz baino. *EuskalM* elaberri honen “hitzaurrea” irakurtea nahiko da, ohartzeko horren arrazoiak. Horrek sinesgarritasun osoa ematen die pertsonaiei eta haien inguru-baldintzakizunei: nondikoak diren, ze status edo gizarte-egoeratakoak diren, besteak beste. Ingeles literaturan idoroko du bere jokabidea babesteko argumentua.

Euskalkietan bizkaiera da gehien azalduko den hizkera, eta zehatzago, “Arrigorrieta”ko berbeta, hau da, narrazio luzeetako protagonistak hangoak edo handikoak direlako, Oskillaso idazlea bezala. Gipuzkera ere ugari erabilia da, batez ere *GabAt* elaberrian, eta neurri apalagoan *EuskM* honetan. Ipuin batzuetan Sakanako hizkera ere badarabil.

5. EUSKALDUNAK MADRILEN ELABERRIA

Orain lehenengoz argitara dakargun elaberria da, itxuren araber-a, idazleak idatzitako bigarrena.

Kurloiak (1962) obraren ostean —ez dakigu oste-ostetxoan ala urte batzuk geroago— idatzia da *Euskaldunak Madril'en* izenburua daraman elaberri hau. Hirurogeiko hamarkadan bertan seguruenik. Edozelan ere, *GabAt* eta *GemIt* baino lehenago. Lehen idaztaldia baino askozaz geroago —1983 edo 84 inguruan—, idazleak sarreran dioen bezala, kopia edo berridatzi egin zuen, eta agian, hizkera aldetik zerbait gaurkotu.³⁸ Berridazte horren arrazoia, argitaratzeko bidea erraztea izango zen beharbada. Dakiguna da, Bilboko Aurrezki Kutxak aldi hartan eratzen zuen “R.M. Azkue Saria” delakora aurkeztu zuela, baina ez zitziola saririk eman.

5.1. Ahozko erregistroez zerbait

Beste elaberrietan legez, pertsonaiak euren euskera-moduan mintzo dira. Txomin, obrako protagonista nagusia, Gernikako erara. Eta Fernando eta Inasi andre-gizonak ere berbakera beraz. Beste pertsonaia batzuk, Etxeberria osagilea eta Zubiri jauna esaterako, gipuzkeraz. Baiona aldeko pelotari bat ere azaltzen da pasarte baten, haren hitzak lapurtera antzeko hizkeran emanak direla.

Bada beste bizkaitar pertsonaje bat, Gabilondo, komunista eta ateo deklaraturia, Fernandoren lagun handia, bizkaieraz mintzo dena, baina ez Gernikaldekoaz ez ekialdekoaz, ezpada Uribe-kostako edo Mungiakoaren antza hartzen zaion berbaikuneaz. Beraren berbalditik atera daiteke Gatikakoa dela jatorriz, zeren baitio

³⁸ Idatzirik horrezaz ezer ez egokera, eta etxekoek ere ziur ez dakitenez, guztiz da gaitza obrak zehatz datatzea. Hala ere elaberrian —ez dakigu lehenengo ala bigarrenko idaztaldian idatzita—, 1950gn urte inguruko Madril gogoratuz ohar hau egiten du: “Urte asko dira ta oraingo Madrid ezta ordukoa. Gaur bazter guztiak dagoz beti automobileraz eta jendea beti dabil prisekin. Orduan eze-goa ia automobilik kaleetan geldituta eta beti egoten zan prisga gabeko jendea edozertarako.” (107 or.)

bere herriko jaiak San Bartolomeak eta San Markosak direla. Idazleak ahalegin berezia egin behar izan zuen, nolana ere, “Irakurleari” sarreran dioskunez, azpieuskalki hori modu koherente batez transkribatzen, ez baitzen berarena. Berbakera hori zerabilten lekukoak lagundu bide zioten testua egi-antzeko bihurtzen.

5.2. Gure edizioa

Edizio honek, oinarrian, idazlearen hizkuntza joera nagusiak zaintzea nahi du, baina halabeharrez, gaurko irakurlearen eskakizunetara makurtzea ezinbestekoa denez, grafia aldetik zenbait aldaketa egin ditugu.

Jatorrizko testua kontsultatzeko modua ikertzaile interesatuak beti eduki lezakeenez gero, eta idazlea bestalde ia gaur egungoa denez gero, ez diogu inolako eragozpenik ikusten idazkera-gaurkotze honi.

Hara ondoren, labur azalduta, erabili ditugun erizpideak.

5.2.1. Aldaketak

5.2.1.1. PUNTAZIOA

a) Loturik edo banan

Zenbait postposizio eta menderagailu —edo atzizki, ikuspegiaren arabera— banan ipini ditugu gaurko joeraren arabera. Kasurik ageriena *arren* kontzesiboarena da, zein partizipioari loturik idazteko joera duen, bestalde guztiz arrazoizkoa. Hala: *egonarren, eginarren, edukiarren, esanarren, ibiliarren, igaroarren, irudituarren, izanarren, jakinarren, pentsatuarren* > *egon arren, egin arren, eduki arren, esan arren, ibili arren, igaro arren, iruditu arren, izan arren, jakin arren, pentsatu arren*. Berdin *ondoan, ostean: ateondoan* > *ate ondoan, bazkal-ostean* > *bazkal ostean*.

Beste kasu batzuetan idazleak banan dakartzanak batzera egin dugu. Hala gertatu da, batez ere, konposatuetan bigarren

osagai bezala maiztasunez erabili ohi direnekin eraikiak, gaurko usadioaren arabera. Halakoak ohi dira *aldi*, *bide* eta beste batzuk: *busti aldi* > *bustialdi*, *errege bide* > *erregebide*, e.a.

Berdin beste konposatu batzuetan, hala nola: *behar bada*, *bertan bera*, *etxeke andre*, *idaz mahi*, *irri barre* > *beharbada*, *bertanbera*, *etxekeandre*, *idazmahai*, *irribarre*.

b) Gidoien erabilera

Elkartu egin ditugu autoreak gidoiaz darabiltzan zenbait konposatu-eredu.

— Hala bigarren osagaitzat *alde*, *aldi*, *bide*, *gela*, *leku*, *ontzi*, *ordu*, *oste*, *toki*, *zain* duten batzuk, lexikalizazio-maila argikoak direnean: *ego-alde*, *ipar-alde* > *hegoalde*, *iparralde*; *atseden-aldi*, *busti-aldi* > *atsedenaldi*, *bustialdi*; *bila-bide*, *burdin-bide*, *ibil-bide*, *lan-bide*, *sar-bide*, *zuzen-bide* > *bilabide*, *burdinbide*, *ibil-bide*, *lanbide*, *sar-bide*, *zuzenbide*; *ikas-gela*, *itxaron-gela*, *jan-gela*, *lo-gela* > *ikasgela*, *itxarongela*, *jangela*, *logela*; *egon-leku* > *egonleku*; *argi-ontzi*, *garbi-ontzi*, *gatz-ontzi* > *argiontzi*, *garbiontzi*, *gatzontzi*; *apal-ordu*, *bazkal-ordu* > *apalordu*, *bazkalordu*; *bazkal-oste* > *bazkaloste*; *exer-toki*, *gel-toki*, *gudu-toki*, *irten-toki*, *lan-toki*, *pelota-toki* > *exertoki*, *geltoki*, *gudutoki*, *irtentoki*, *lantoki*, *pelotatoki*; *liburu-zain*, *taxi-zain* > *liburuzain*, *taxizain*; *haur-zaro* > *haurzaro*.

Bide beretik *gura* bezalako bigarren osagaia duten batzuk: *jakin-gura* > *jakingura*.

— Era berean, lexikalizazio-maila jakina duten hainbat konposatu: *bizi-modu*, *buru-hauste*, *esku-zabal*, *esku-zapi*, *etxekeandre*, *ezta-baida*, *gora-behera*, *hil-herri*, *ikas-urte*, *irri-barre*, *hartu-eman*, *kafe-tegi*, *mutil-zahar*, *neska-zahar*, *ordu-batak*, *sal-mahai*, *sudur-zilo* > *bizimodu*, *buruhauste*, *eskuzabal*, *esku-zapi*, *etxekeandre*, *eztabaida*, *gorabehera*, *hartueman*, *hilerri*,

ikasurte, irribarre, kafetegi, mutilzahar, neskazahar, ordubatak, salmahai, sudurzilo.

Berdin maileguetan: *foot-ball > football.*

Berdin *arazi* faktitiboaz eraikiriko aditzak: *eror-arazi > eror-rarazi, geldi arazi > geldiarazi.*

Banandu egin ditugu, ostera, beste kontestu batzuetan:

— Postposizioekin darabiltzan kasuan, hala *alde, gaine, oste* eta beste batzuk: *eskuma-alde > eskuma alde; mahai-gainean > mahai gainean; bazkal-ostean > bazkal ostean.*

— Era berean *itsas* bezalako aurre-atala duten konposatuak: *itsas-indar > itsas indar.*

Errepikapen kontestuetan, gaur egun gidoia ohi darabilgunetan eta autoreak ez, ipini egin dugu. Batzuetan adjektiboak dira, beste batzuetan adberbioak halako kasuak, ia beti graduazionalioko hitz errepikapenak. Hala: *adi adi, arin arin, astiro astiro, bakar bakarrik, berdin berdin, bero bero, bizi bizi, blai blai, erdi erdian, gehien gehien, gorri gorri, harro harro, ixil ixilik, kontuz kontuz, lasai lasai, lehenengo lehenengoz, lodi lodi, on on, ondo ondo, ozta oztan, pare parean, soil soilik, trankil trankil, zabal zabal, zuzen zuzen > adi-adi, arin-arin, astiro-astiro, bakar-bakarrik, berdin-berdin, bero-bero, bizi-bizi, blai-blai, erdi-erdian, gehien-gehien, gorri-gorri, harro-harro, ixil-ixilik, kontuz-kontuz, lasai-lasai, lehenengo-lehenengoz, lodi-lodi, on-on, ondo-ondo, ozta-oztan, pare-parean, soil-soilik, trankil-trankil, zabal-zabal, zuzen-zuzen. Berdin hotsitz batzuetan: *txin txin > txin-txin.**

c) Kakotxoen erabilera. Idazleak izen berezi eta kasu-marken artean <'> banaketa-kakotxoa erabiltzeko joera argia du. Guk kendu egin dugu, salbuespeneko kasuetan izan ezik. Pertsona-izenetan: *Etxeberría`rekin, Fernando`ri, Gabilondo`ri, Inasi`ri, Luis`ekin, Martínez`ek, Txomin`ek > Etxeberriarekin, Fernandori, Gabilondori, Inasiri, Luisekin, Martinezek, Txominek.* Toki-izene-

tan: *Canarias'eko, Gaztela'ko, Gran Via'tik, Korea'ko, Madril'en, Moncloa'rantz, Universitaria'ko, Ventas'ko* > *Canariaseko, Gaztelako, Gran Viatik, Koreako, Madrilen, Moncloarantz, Universitariako, Ventasko*. Izen bitxi samarren kasuan utzi egin dugu badaezpada ere.

Dialogoetako tokian tokiko berbetan gertatzen diren laburduretan darabiltzan kakotxoak, ostera, utzi egian ditugu. Hala: *eze'be'z, o'in*.

5.2.1.2. GRAFIA

Aldaketa txiki batzuk egin ditugu.

— Hala <h> ezabatu dugu gaur erabiltzeko ohiturarik ez dagoen hitz bakan batzuetatik, baina Oskillasoren aldikadan *h*-az ere idatzi ohi zirenak. Hala: *hanitz, haurten, hontzi, horri, huntzi, zihur* > *anitz, aurten, ontzi, orri, untzi, ziur*.

Eta kontrara ere bai: <h> txertatu dugu gaur hala erabili ohi den berba batzuetan. Hala: *agin, aize, amaika, ari, asarre, atz, auntz, autatu, auteskunde, auts, autsontzi, ego, esi, il, ilabete, ondamendi, ots, otz, zeatz* > *hagin, haize, hamaika, hari, hasarre, hatz, ahuntz, hautatu, hauteskunde, hauts, hautsontzi, hego, hesi, hil, hilabete, hondamendi, hots, hotz, zehatz*.

— Sibilanteen grafiak ere gaurko eredura erakarri ditugu. Hala, *z>s* egin dugu: *azkatu, azkatasun, ezkerrak, haztun/aztun, garezti* > *askatu, askatasun, astun, eskerrak, garesti*.

Eta alderantziz, *s>z* egin dugu: *eskutatu, mesa, peseta, sentimo* > *ezkutatu, meza, pezeta, zentimo*.

— Afrikarien sailean ere aldaketa antzekoak egin ditugu noiz edo behin: *pentzatu* > *pentsatu*.

— Albokari bustiak *ill* grafiaz idatzi ohi ditu sarritan, baina ez beti, hala ere. Halakoak *il* grafiara ekarri ditugu, gaurko uso-dioari jaramonez. Hala: *artille, billa, billakatu, billatu, illun, espillu/ispillu, botilla, apopillo/apupillo, botilla, erretillo, katillu, korapillo, lilluragarri, Madrillera, milla, mordoillo, muski-*

llak, *pillo* legezkoetan. Berdin gaurkotu dugu: *makallaoa* > *makailaoa*.

Salbuespena egin dugu mailegu-hitzekin: mailegu modernoak diren hitzak jatorrizko grafiaz laga ditugu: *artilleri*, *bachilleratoa*, *banderilla*, *gallego*, *kiskillak*, *montilla*, *muelle*, *pantalla*, *taller*, *zepillo*. Era berean, dialogo barruko hots bustien digramak ere ez ditugu aldatu.

— Sudurkari palatalaren grafia ohizkoa, <ñ>, gutxitan darabil, mailegu-hitzetan batez ere. Ez da grafia horren zalea, espainolez landa ia inon erabilia ez dela-ta. Gehienetan <in> transkribatuko du, eta bustipalatala islatzeko ebatzi sendoa duenean <nn> darabil gutxi batzuetan, baina gehienetan <ñ>. Digrama darabilenean, berak ohartzen du batzuetan. Adibidez: *engannatuko* (*nn* = *ñ*). Guk bigarren itxurara ekarri ditugu lehenengoak, narrazioan batipat. Hala: *banna*, *engannatuko*, *irrinno*, *konno*, *ondinno*, *sennak* > *baña*, *engañatuko*, *irriño*, *koño*, *ondiño*, *señak*. Bat edo beste, dena dela, idazlearen grafia-ereduaren erakusgarritzat utzi ditugu.

— Inoiz <y> idatzi ohi du bokal artean. Hala aldatu ditugu: *sayatu* > *saiatu*. Maileguetan darabilenean bere hartan utzi ditugu.

— Mailegu-hitzetan autoreak idatzitako grafia jagon dugu: *cognac*, *corredore*, *invasio*, *novela*, *novio*, *tranvia*, *ventiladore*, *universidade*, *wagoi*... Izan ere, gaur egun ezeze, lehenago ere holako hitzak euskal grafiaz idazteko joera nagusi izan den arren, autoreak jatorri-hizkuntzako grafia jagotearen aldeko jarrera garbia zuen, eta bereizgarritasun hori gorde behar zela generitzan.

Baina idazleak berak bietara darabiltzanak gaurkora ekarri ditugu. Hala *carrera/karrera* > *karrera*.

5.2.1.3. MORFOLOGIA

Osoan gorde da, salbu mugatzailearekiko puntu berezi horretan, nahiz azken finean grafia kontua gehiago izan morfologiarena baino.

— <aa> / <ää> hitz-amaierako mugatzailea, izan ere erregulartasunez ez baitarabil idazleak berak ere: *ankea*, *maletäa*, *tripäan*, *fitxäa*, *dardaräa*, *korbatäa*, *komunistäa*.

5.2.1.4. Hitzen itxura

Era bitara darabiltzan hitzak gaur ohi den erara ipini ditugu. Hala: *mahi/mahai* > *mahai*.

5.2.1.5. Aldatu barik utzi dira

Gramatika alderdiko erabilerak, badaezpadakoak izanagatik. Hala *oratu* aditzaren bigarren argumentua sarri darabil absolutiboan, datiboan barik: *maletäa oratu*, esaterako. Holakoak ez ditugu aldatu.

6. BIBLIOGRAFIA

6.1. Idazlearen lanak³⁹

- 1962 *Kurloiak (Herri txoriak). Mutiko kaletarrak Bizkaian.* Zarautz, Itxaropena argitaldaria. 220 or.
- 1962 “Mikel eta erdeldunak”, *Egan*, XXI, 220-224.
- 1962 “Ihardespen bat Aita Villasanteri”, *Egan*, XXI, 315-322.
- 1963 “The Cast of Amontillado [E. A. Poe’k] / Upel bethe amontillado”, *Egan*, 4-6, XXII, 123-130.
- 1963 “Ihardespen bat Mitxelena jaunari”, *Egan*, XXII, 162-181.
- 1963-64 “Batasunerako urhatsak. Euskal-analfabetismua ta kultur-hiztegia”, *Euskerä*, VIII-IX, 378-385.

³⁹ Zerrenda honetan ez dira sartu kazeta eta aldizkarietan barreiatutako idazlanak, gehienak eritzi-lanak bestalde.

- 1964 “Nylonezko euritakoa”, *Egan*, XXIII, 95-101.
- 1964 “Zerura joan eta atzera ethorri”, *Egan*, XXIII, 102-106.
- 1965 “Hizkuntzalari handi bat”, *Egan* XXIV, 45-52.
- 1965 “Jostailuak, semeak eta gurasoak”, *Egan*, XXIV, 62-63.
- 1967 “Akatsbako gizonaren heriotza”, *Egan*, XXVI, 190-239.
(1964an idatzia)
- 1974 “Estudio sobre entonación vasca según el habla de Guernica”, *FLV*, VI, 353-393.
- 1975 “Estudio sobre entonación vasca según el habla de Guernica”, *FLV*, VII, 289-338.
- 1977 “A organikoaz amaitutako hitzen deklinazioaz”, *Euskerara*, XXII, 735-737.
- 1981 *El vasco de hoy. Navarro-guipuzcoano y Euskara Batua*. Vol. I-II-III. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca.
- 1984 *El libro negro del euskara*. Bilbao.
- 1986 Mark Twain: *Erregegaia ta eskekoa* (laburtuta). Jose Basterretxea'k (“Oskillaso'k”) inglesetik euskeratua. Euba, Ibaizabal 90.
- 1986 Charles Dickens: *David Copperfield* (laburtuta). Jose Basterretxea'k (“Oskillaso'k”) inglesetik euskeratua. Euba, Ibaizabal.
- 1988 *Gabeko atorra*. Bilbao, Ika-Ibaizabal, 143. 166 or.
- 1989 “No polucionemos el euskara”, *Deia*, 1989-III-19.

6.2. Idazleari eta bere lanari buruzko aipu batzuk

- Arana Martija, Jose Antonio (1966): “Jose Basterretxea Matoni ‘Oskillaso’”, *Euskera*, XLI, 433-436.
- Arejita, Adolfo (1991): “*Gabeko atorra*. ‘Oskillaso’ren nobela barria.”, *Idatz & Mintz*, 21 znb., 46 or.
- Arteche, Jose de (1963): [*Kurloiak* obraren aipua], *BAP*, XIX, 109.
- Mitxelena, Luis (1963): “Irakurri duzuten Ihardespeneraren inguruan itz bi”, *Egan*, XXII, 181-182.

Villasante, Luis (1963): “Oskillasoren ‘Kurloiak’ (1)”, *Aránzazu*, XLIII, 62.

Anonimoa (2001): “José de Basterretxea Matoni “Oskillaso” (1911-1996)”, *Ze berri*, 33 znb., 2001 abendua, 19 or.

Eskerrak ematea

Elaberri hau kaleratzeko eta egilearen gaineko berriak osatzeko, ezinbestekoa izan dugu familiaren laguntza. Maria Dolores emaztea eta Juan Pedro eta Mirentxu seme-alabak harrera ezin hobea egin ezezik guztiz eskuzabalak izan dira Oskillaso zenaren memoria berreskuratzeko.

Horrez gainera, familiarekiko harremanetan eta dokumentazioa lortzen eta osatzen guztiz estimagarria izan dut Segundo Oar-Artetaren laguntza.

Gernika-Lumoko Udalak ere borondate osoa erakutsi du bertako seme baten obra babesteko orduan.

Eskerrik asko guztiei.

Bilbon, 2003ko urriak 20.

EUSKALDUNAK MADRILEN

HITZAURREA

Haurtzaroa lagunekin euskaraz igaro duenak, Euskal Herritik kanpora joaten bada, gehien-gehienetan herrimina sentiduko du (gallegoek morriña esaten diotena) eta herrimin honek beste euskaldunen tratua bilatzera eramango du. Herritik urrun egon arren, euskaraz mintzatzen dala, herrian bezela sentituko da eta eramangarriagoa egingo zaió esandako herrimina. Honegatik euskaldun asko, eleberritxo honen egileari gertatzen zitzaion bezela, Euskal Herritik urrun bizi dirala eztira ibiltzen erdeldunekin nahi-ta-ez izan ezik. Lanak libre uzten dien denbora guztia euskaldunekin eta euskaraz pasatzen dute.

*Zure herrian, danak mintzatzen dira euskaraz modu bakar batez, denek hitzegiten dute zerorrek bezela. Baina herritik urrun ezagutzen dituzun euskaldunek ez. Bakoitzak bere herriko euskara berezia erabiltzen du, eta euskara berezi hau bere nortasunaren zati bat egiten da, bere arpegia, bere abotsa edo bere izake-
raa bezela.*

Hau ezta gertatzen Gaztelako erderarekin eta, azkeneko denboretan izan ezik, etziran agertzen gaztelerazko literaturan eleberritxo hontan agertzen diran bezela, hitzegileen hitz-modu bereziak. Gaur, Camilo José Celak eta beste idazle erdeldun batzuk, batez ere Hego Amerikakoek, eleberrietako hizlarien esakerak hitzez hitz idazten dituzte, baina hau ezta azkeneko urteetako moda bat baizik, inglesezko literaturaren imitazio pobre bat baino. Gutxi irabaz dezake gaztelerazko literaturak bide honta-

tik. Gaztelako erderaren batasuna ezta liburu-batasuna edo eskola-batasuna bakarrik.

Inglesez ordea, euskaraz gertatzen dan bezela, bakoitza bere hizkera-moduz mintzatzen da, eskola ta liburu batasuna eginda egon arren, eta hizkera-modu honek gauza bi adierazten digu: hizlaria nongoa dan eta bere familiaren egokera soziala, ez nongoa dan bakarrik euskaraz bezela. Hau aspalditik eraman da ingelesez literaturara, ezta gaurko moda igeskor bat, Ingalaterra eta Iparramerikako literatura guztian agertzen da egunoro. Hau ezin itzul diteke gaztelara eta ingletetik erderatzen diran liburuetan ezta agertzen. Inglesez irakurtzen eztuenak eztaki hau zer dan ere.

Inglesezko literaturaa munduko literaturarik aberatsena eta ederrena da, eta hizlarien hizkera-modu bereziak ematen dion bizitasuna ta egiaren kutsua izugarria da. Euskaraz ere berdinberdin egin diteke, nik eleberri hontan egin dudan bezela.

Baina nor konturatuko da, gaurko egunean, hau euskaraz egiteak eleberriari ematen dion bizitasunaz? Benetako euskaldun jatorrek eztute irakurtzen euskaraz. Eta hau ondo ulertzeko euskaldun jatorra eta urrun egondakoa izatea beharrezkoa da.

IRAKURLEARI

Urte asko dira novela hau idatzi nebala. Madrilen, *Instituto Nacional de Electrónica* delakoan lan egiten nebala, bizkaitar bat ezagutu neban. Orduan hasten zan Koreako gerratea. Ni lau edo bost bider joaten nintzan hilean bizkaitar harengana, batez ere igande goizetan. Nere adiskidea ezkertarra ta komunismozaletxua zan. Erlijinoen kontra be askotan egiten eban berba. Baina oso oso kontra be ezegoala igerri neuntson nik behin, bar batean protestante bat bere erlijinoaz propagandaa egiten hasi jakunean. Berak aho bete hazurregaz itxi eban.

—Es en balde —esan eutson, —no creo en la religión católica, que es la verdadera, de manera que es inútil que me venga Vd. con cuentos.

Hau, txantxetan eta burlazko irriño batekin esanda egon arren, neretzat barru-barruan eta jakin barik gordetako erlijino apur baten seinale bat izan zan.

Nere adiskidea baserrian jaioa zan, eta igande batean, bisititzen joan nintzaionean, bere baserri ondoko auzo batekin topo egin neban. Hau be bisitatzten joan jakon. Orduan hirurak joan ginean txikitoak edaten eta pasiatzen.

Nere adiskidearen auzoa komunista porrokatua zan. Fraile izandakoa ta erlijinoaren arerio sutsua, emaztea ta semea katolikoak eukozan ta eurengandik separauta bizi zan. Emazteak erlijinoa utzi nahi ez zualako, separatu egin zan beragandik eta semea amagaz biziten joan zan.

Igande hartan nere adiskidearen auzoa sututa zegoan Korea-ko berriekin eta pozaren pozez, besterik ezerez berba egin ezinik egoan. Nere adiskidearengan influentzi handia egiten ebala ikusi neban.

Hurrengo igandetan, nere adiskidea bisitatzen joaten nintzanean, bere auzoarekin aurkitzen nuan gehienetan eta bere auzoaren besteko berotasunaz hasi zan bera be erlijinoaren kontrako eta komunismoaren aldeko gauzak esaten. Orduko Estalinzale itsu ta gorrak eziran gaurko eurokomunisten antzekoak, eta hareik Estalinzale sutsuak ziran.

Eztakit zenbat denbora egon nintzan beregana joan gabe, behin bion adiskide erdeldun batek esan zidanean nola emaztea ta alabaa etxetik joan zitzaizkion bera bakarrik utzirik, eta nola geixorik eta ia hilteko zorian inoren laguntzarik gabe egon ostean, berez osatu zan, eta nola ikusi zuan elizan.

—¿Cómo! ¿Tú en la iglesia? —esan omen zion gu bion adiskide erdeldunak.

—¿Qué voy a hacer? —erantzun omen zion nere adiskideak—. Cuando todo se te hunde, a algo te tienes que agarrar.

Koreako gerrateak bira egin eban, amerikanuek irabazi zuten, eta bere adiskide komunistaa etzizaion gehiago etorten bisitatzera.

Eztakit nik nola edo zegaitik, emaztea ta alabaa atzera berekin bizitzen etorri ziran.

Hemendik atera nuan nik novela hau egiteko asmoa. Esan dizudan guztia egia hutsa da. Gainerako guztia nere burutik aterata dago. Izenak aldatu ta egia ta guzurra ondo nahastatu ostean novelatxu hau sortu zan.

Denbora asko euki dut novela hau argitaratu gabe. Enuan nahi nere adiskideak irakurri zezanik. Bildur nintzan, nik izenak eta zehetasun batzuk aldatuta idatziarren, igerrri egingo ote zidan beragaitik idazten nuala, eta bere burua gezurrezko irudi batekin jantzita ikusirik, minduko ote zan, eta beharbada hasarretuko ote zitzaidan.

Orain, zoritxarrez, hilda dago. Laster beteko dira bost urte hil zan egunetik.

Nere adiskide handia zan. Eluke utziko berak irakurri gabe nik idatzitako liburu bat. Eta biok elkarrekin eta Madrilen ibilitako denborak laster etorriko zitzaizkion burura eta berehalaxe igerriko eukean nondik atara neban nik nere eleberriaren haria.

Orain eztago bildurrik. Bere alargunari etxako otuko nere liburu bat irakurtzerik. Eta bera izan ezik ezin du inork susmatu nortzuk ziran benetako Fernando ta Inasi.

Akats bat aurkitzen diot nik eleberri honi nere gustorako. Politikan sartzen dala. Gaiaren indarrak berak eramanez ninduan ni, jakin barik, atsegin ezitzaizkidan bideetatik.

Eleberria idatzi nuanean, bertan agertzen dan gizon edo emakume bakoitzaren hitzak, herri banako euskaldun batek bere herriko modura ipintzen lagundu zidan. Enaiz oroitzen nortzuk eta nongoak ziran nere orduko laguntzaileak, bestela pozik ipiniko neukezan hemen euren izenak. Danak ziran euskaldun jatorrak eta euri eskerrak, benetako euskaldunak bezela mintzatzen dira liburuan agertzen diran guztiak. Fernando, Inasi ta Itziar nere herrian bezela mintzatzen dira. Euren hitzak idazteko ez tut behar izan inoren laguntzarik.¹

¹ Sarrera moduko honetan, ohar bedi irakurlea, pasarte batzuk bizkaieraz erredaktaturik daudela. Ezagun da igarri barik aldatu dela bere euskara osotu horretatik bizkaierako eredura. Elaberrian zehar beste behin-edo ere gertatuko zaio antzekoa.

Pertsonaien hizkera-erregistroak direla-ta, zenbaiten berbakerak finkatzeko herri horietako lekukoen laguntza izan zuela aitortzen digu idazleak. Gabilondoren berbetak, esaterako, Gatikakoa islatu nahi du. Seme-alabek esanda, badakigu hango lekuko bat lagun izan zuela haren ahoan ipinitako berbakizunak hizkera aldetik finkatzen.

HIRI HANDI BATERAKO SARRERAA

I

Jarri zutik, hartu maletää buru gaineko saretik, utzi exertokian, eta txakea janzteko aitzakiaz, Txominek nagiak atera zituan.

Maletak hartu ta jende asko hasten zan astiro-astiro bera bezela wagoi guztian, batzuk aurreko ateruntz, beste batzuk atzekoari buruz.

Minutu batzutan egon zan zutik, aurreko gizonaren maletaa oin ondoan eta, atzeko gizonaren oina zapaldu gabe, beste oina non ipini etzekiela.

Ilunabarra zan. Noizik behin argiren batzuk ikusten ziran leihoz bestaldetik atzeruntz, arin-arin ondotikoak, astiroago urrutikoak, banan-bana batzuetan, bi edo hiru batera beste batzuetan.

Orduan hasten ziran izarrak zeru urdin garbi-garbian, eta atzeruntz egin beharrean beste argiak bezela, aurrera zoazten trenarekin.

Herri txiki bat igaro zanean, doi-doi erakutsi zituzten geltokiko argiek alde biko erlojua eta herri izena, eta gero, Gaztelako mahaia... ez zugaitzik, ez belarrik, ez etxerik ez mundu...

Ordubete edo zan, herri hura lehenbiziko aldiz igaro zala, eta gero herri berbera berriz, eta gero berriz, eta ostera ere, alde biko erloju berbera, burdina eta kristalezko txabola berbera, betiko

elektrizidade-tresnekin mukurru. Etziran ikusten ondo herrien izenak eta pentsa ziteken lehengoxeak zirala.

Azkeneko zatia luzeena egiten zala ta, jentea aspertzen hasten zalakoan edo, txistuka hasi zan tren, laister helduko zirala ta, mesedez lasai egoteko eskatuko balu bezela.

Agertu ziran urrunean Madrیدهko argiak, eta txistu luzea entzuten zala, ama batek soinekoa lotu ta kapelaa jantzi zion bere alabatxoari.

Orduan jende gehiago barne-bide estura, eta alperrenak ere hartu zuten azkenean maletää.

Orai lurrezko txabola askoren ondotik igarotzen ziran, eta seta txarreko emakumak, izarak eta zapi zuriak gordetzen, edo eskegitzen, edo txabola ondoan exerita, eta ume asko bazterretatik eta praka nahikorik ez danentzako ta ipurdi asko agerian...

Madridera sartzen hasten zala, oraindik geltokira heldu gabe, beste burdinbide askotatik zeihar hasi zan tren. Kron-kron-kron-kron-kron zegiten gurgpilek eta Txominek oinetan sentitzen zuan azpitik wagoiaren dardara.

Beste burdinbidetan tren luze asko hutsik eta geldi-geldi tristetasun berezi batean murgilduak, jenderik eztaukaten etxeak bezela. Eta azkenean, han agertzen da geltokia, bere kristalezko teilatu handia beltz-beltza kearen keaz, eta astirotxoago, poliki-poliki, ia zaratarik gabe, gero ta geldiago, sartzen da tren...

Orain eztirudi batere mugitzen danik eta jendea zutik eta ohargabetuta dago, bainan benetan eta tipuski gelditzen dala, zast! hartzen dute denek bultzada sendo bana aurreruntz, eta segundu batzutan jendea pilo batean nahastatzen da erortzeko zorian, ezezagunen arteko besarkada estu askorekin.

Jatsi dira banan-bana aurreko guztiak eta azkenean Txomin ere atera da wagoitik.

II

Katedralik handienaren barrua, baseliza batena bere ondoan, geltoki izugarria, beste erlijino bateko katedrala, etzan ixila gure

erlijinokoak bezela. Hango gezur-jainkoa, jigante ikaragarria, hizketan ari zan, eta bere abotsa, hots eta zarata guztien gainetik entzuten zan:

“Atención! Atención! El rápido de Galicia entra en estos momentos en el andén tres vía cuatro.”

Eta errespetorik gabe, beste tren bat sartzen zan zarata handiz, eta beste baten makina handi beltzak, geldirik eta gurpil artetik eta goi aldeko tututik zeihar lurrin zuria zeriola, txistua jotzen zuan garraisika, deadarrez, hiltzeko bailegoan.

Mota guztietako mila jendeen harat-hunaten artean, kutxa eta maletakin zamatutako gurdi elektriku ixil bat zuzen-zuzen zoan, jendeari jaramonik ere egin gabe, gizon zaratatsu bat gainean zuala. Zenbat ixilagoa gurdia, hainbat zaratatsuagoa gizona, tutu sendo bat entzunarazten zuala,

“Cuidado! cuidado! dejen paso!” garraisika.

Pelotoi erdiko soldaduak ibiltaldi luzeetan joan ohi diran bezela, Txomin alde guztietatik jendez inguratua ibili zan tren luzearen ondotik, maletaa eskuan zuala, eta makinaren ondora heldu zanean eskumara jo zuan pelotoi guztiarekin, eta gero, pelotoiak irtentokiaren bila berriz eskumara okertzen zuala, berak ezkerrean jo zuan, eta batekin topo egin eta beste bateri tokia utzi ostean, azkenean libre arkitu zan, sarjentoa deskuidatu bailitzan.

Orain mehatsagoa da jendetzea bainan gehienak kontra datorzkio, eta berak inorekin topo ez egiteko, gorputza ostu behar du, zezenketan ari bailitzan². Halaz ere, bati tripäan eta beste bati ipurdian, zartako bana ematen die maletäaz jaun pare bati.

Argi gorritzko letraz *Café-Restaurant-Bar* irakurten da kristalezko ate baten gainean, eta handik sartu da toki argitsu batean maletäa utzi gabe. Jendez bete-beterik dago tokia.

Morroi bati galdetu eta telefonura abiatzen da. Hartu liburu lodia, zabaldu erditik, pasatu atzeruntz eskukada handi bat orri,

² *ostu*: ostondu, ezkutatu.

pasatu aurreruntz beste orri pilo bat, busti hatza txistuz eta zast zast zast orri batzuk, eta izen baten ondoko numerua bilatu ostean hasten da:

—Bi, hogeita bost, larogei, hamazortzi; bi, hogeita bost, larogei, hamazortzi; bi, hogeita bost, larogei, hamazortzi; bi...

Utzi maletäa behean oin bien artean estuturik, oratu belarritresnäa ezkerrez eta markatzeko seinalerik ez... Zer ote du telefonu hunek? Orduan hormara begiratu eta fitxa bat eskatu behar dala irakurtzen du.

Hartu maletäa eta barr'a abiatzen da. Hemen segundu batean deskuidatzen bazera, eztuzu gehiago maletarik ikusiko.

Fitxa eta maletäarekin atzera datorrenean jaun bi arkitzen ditu, bata telefonutik hizketan eta bestea itxaroten. Lehenbizikoa joan eta bigarrena markatzen hasten dala, Txomin,

—Bi, hog... hemeretzi... lar... larogei?... ez —hasten da. Eta berriz bilatu behar du liburuan. Gero lehenago bezela:

—Bi, hogeita bost, larogei, hamazortzi; bi, hogeita bost, larogei, hamazortzi; bi, hogeita bost, larogei, hamazortzi...

Azkenean joan da bigarren jauna ere, eta fitxäa bere tokian kris kras ipini ostean, markatzeko seinalea entzun arte, triki triki tritritritritri... markatzen du.

—*Diga!* —diote beste puntatik.

—¿*Está el doctor Echeverría?* —galdetzen du berak, baina besteak:

—*Diga!* —esaten du berriz.

—¿*El doctor Echeverría por favor?*

—*Diga!!!*

Eta pii... Eskegi egin diote. Zer arraio gertatu da hemen?...

Zer egin etzekiela, prisekin hasi zitzaion atzeko gizona, eta berak maletäa oratu ta tokia utzi zion.³ Urrats batzuk, eta bira

³ *Oratu* aditzaz *nori-zeri* erabili ohi bada ere, idazleak batzuetan bai, baina beste askotan *nor-zer* ohi darabil.

egin zuan, ea besteek zer egiten zuten ikusi nahirik. Gizon honek erresorte bat sakatu zuan markatu ostean. Badoa ba barr'a beste fitxa baten bila.

Berriz datorrenean, fitxää bere tokian ipini, belarritakoa hartu, seinalea entzuten dala markatu, eta klik bultzatzen du erresortea.

—*Diga* —dio berriz lehenbiziko abotsak.

—¿*El doctor Echeverría?*

—*Diga!*

—*Oiga!*

—*Diga*

Eta piiii...

Arraiua! Berriz eskegi diote!...

Telefonicaren agerpen bat ikusten du hormaren kontra eskegia. Irakurri ondo eta eztala sakatu behar erresortea bestearen ahotsa entzun arte.

Maletää berriz oratzen duanean tokia eskatu behar du igaroteko, bost gizon baitauzka atzean zain. Beste fitxa batekin heltzen danean zazpigarrena da bera. Noizik behin,

—Bi, hogeit ta bost, larogei, hamazortzi —esaten du bere kolkorako, eta berari tokatu orduko hogeit minuto igaro dira.

Fitxää behar bezela ipini ostean, belarritakoa hartu eta markatu duanean, lehenagoko abotsak

—*Diga* —erraiten dualarik, klik, erresortea bultzatu, eta

—¿*Está el doctor Echeverría?* —itauntzen du.

—*Se ha equivocado.*

Eta piiii...

Eskegi diote berriz.

Maletää oratu nahi duanean, arraiua! ezta ikusten inun ere!

Atzekoak serio-serio eztutela maletarik ikusi.

Joan barr'a eta han ere ez!

Agur nere bihotzeko maleta maitea!

III

Handik metrora, lur azpiko bidetik.

Txartela erosi ostean, sartu wagoian eta ate ondoan gelditzen da.

Ateak zabalik dagoz eta gero ta jende gehiago sartzen da. Konpresorea kro-kro-kro-kro-kro-kro... hasten da eta minutu batzuz gero txistu zorrotz bat, eta krausk! isten dira ateak.

Badoa metroa aurrera. Txominek kristeletik ikusten du pareta arin-arin, eta noizik behin argi gorriren bat riast! beheko alde-tik.

Wagoi barneko jendea serio eta triste, eztiote elkarri jaramonik ere egiten. Badirudi bakoitzak maleta bat galdu duela.

Opera deritzan geltokira heldu ta danak kanpora. Han jenderik gehienarekin batera *Dirección Sol* delako kairuntz.

Ateak zabalik, zain dago tren gorri zikina, eta Txomin arrapaladan hasten dala, friiiii...!!! egiten du txistuak, eta bera sartu ta batera, kraust! isten dira ateak.

Esku burdina oratu ta kron-kron... kron-kron... kron-kron... kron-kron... aurrera.

Bere alboan lau gizon eta hiru emakume zut-zutik, begiak urrunera so, Aste Santuko prozesietako apostoluak bezela, noizik behin ikaratu egiten dira wagoiaren dardaräaz batera.

Azkenean *Sol* deritzan geltokira heldu ta gehien-gehietak kanpora.

Txominek eztaki nora jo, eta azkenean zurubietatik igon eta kalera ateratzen da.

Puerta del Sol deritzan enparantza utzi eta kale batetik sartzen da. Bar bat aurkitu eta barrura.

Jendez mukurru dago. Jendea baino goratuagoak, bar atzean morroiek berehala ikusten dute han sartzen dana, eta euretako batek garraisika galdetzen dio ea zer nahi duan:

—¿*Qué desea tomar el señor?*

Txominek baso bat ardo zuri eskatzen du.

Eskuak uretan sartuta morroiek arin-arin garbitu eta busti-bustirik uzten dituzte basuak mahai gainean. Hamar ipini ditu zerrendan Txominekin hitz egin duanak eta danak batera betetzen ditu. Gure gizonak besteen buruen gainetik hartzen du berea.

Valdepeñasko ardoak oso ona du gustoa eta nahi duzun beste edan dezakezu mozkortzeko arriskurik gabe. Hauxe zan Madriderk zeukan gauzarik onena.

Hirugarrena eskatzen duanean bokarte bat ematen diote egarria bukatu etzezaion.

Beste gizon batzuk sartzen dirala berriz saiaten dira morroiak danen belarriak urratzeko ahaleginetan garraisika:

—¿*Que desean los señores?* (Ea zer nahi duten)

Eta gero kiskila handiak eskatzen dituztela ardoarekin hartzeko,

—*Una de gambas!!!* —Carusso lotsatzeko moduan beste puntan dagoen morroiari.

Madriderko bar batean lan egiteko abots ona behar zan. Han dana esaten zan garraisika denek entzuteko moduan. Behin Toledotik etorritako gizon lotsati batek bazter batera deitu eta belarriara esan zion honelako bar bateko morroiari Toledotik etorri zala ta han arkitu behar zuala adiskide bat. Artean vermouthe bat emateko. Morroiak orduan jendez betetako teatro handi batean zegoalakoan,

—*Un vermouthe para este señor que ha venido de Toledo!!!*
—esan zuan abots ikaragarritz.

Eta Toledotik etorritako gizona ahalgez gorri-gorri gelditu zan, danak bere begira zaudelakoan.

Fitxa bat eskatu eta Txomin telefonura abiatzen da. Toki guztia jendez bete beterik dago eta hara heltzeko ukondoaz bultzatu behar du.

Hartu belarritakoa gizon baten sorbalda gainetik, ipini fitxäa krausk bere tokian, eta beste gizon baten bizkarra sakaturik numeruak ikusteko, markatzen du berriz lehenago bezela.

—¿*Quién llama?* —galdetzen du orain emakume baten abotsak.

—*Es el dos, veinticinco, cuarenta, dieciocho?*

—*No. Se ha confundido.* (konfundidu egin dala). Eta piiiii...

Ez sinestu bere errua izan danik ez, berak ondo markatu du, bainan telefonuak eztabiltz oso ongi eta askotan ematen dute okerreko numerua.

Utzi belarri-tresnää bere tokian jende askoren buruen gainetik eta kalera.

Tira aurrera beste bar bat ikusi arte. Jendea karrikan arrasugaria, Arrigorrietako jaietan bezela.⁴

Laister beste bar bat eta barrura.

Han ere ardo zuria eskatzen du, eta hiru edo lau baso edan ostean, eskatu fitxa bat eta telefonura abiatzen eta. Oraingoa mostadore edo erakustoki gainean dago, hormaren kontra. Belarri-tresnää hartu baino ez eta morroi batek bendeja handi batekin, kontuz ibiltzeko, bestela zikindu eginen duala ta. (*Cuidado que mancho!*).⁵

Mugitu alde batera tokia uzteko, eta fitxää bere tokian ipintzen du. Markatzen dagoala beso azpitik igarotzen zaio morroia.

Berriz aspaldiko abots ezagunak:

—*Diga!*

—*Es el dos, veinticinco, cuarenta, dieciocho?*

—*Sí, diga.*

Numeru hau Etxeberria jaunaren izenean datorrela ta ea bera etxean ote dagoen, eta eztala bere numerua, aldatu egin dituztela numeruak eta eztirala liburuan datozen bezela. Zero bederatzitari galdetzeko.

⁴ Arrigorrietako (Gernika) jaiak ospe handikoak izan dira, uritarrentzat ezeze, alboerri eta paraje guztikoentzat: Andramari eta Sanrokeak, abuztuaren 15 eta 16an, hurrengo eguna, Sanroketxu ere arrakasta handikoa zelarik, gaztealdrak marro jaztea zela-ta.

⁵ *bendeja*: bandeja. Hala ohi darabil.

—*Pregunte al cero nueve.*

Gizonek asmatutako elkartasun guztien arte, gutxi *Telefónica* delakoa bezain ongi pentsatuak, batez ere diruaren gaindegitik ikusita, pentsatzen zuan Txominek. Soziedade honen diru arazoak arras ongi omen zebiltzen eta gainera diru gehiago nahi zutenean oso erreza izaten zitzaaien bilatzea. Horretarako fitxak iresten zituan aparatu bat asmatu zuten. Fitxa bakoitzagatik pezeta bat eta larogei ta bost xentimo kentzen zizuten. Askotan ematen zituzten telefonuek okerreko numeruak eta fitxa bat irunsi zizularik zuk ezin zenezaketen atzera eskatu. Milaka iresten zituzten honelako fitxak, bainan hau nahikoa etzitzaienean milaka aldatzen zizkizuten numeruak zuk jakin gabe, eta eurek egindako bilabidea ondo zegoelakotan numerua markatzen zenuenean kendu zizuten beste fitxa bat.

Europako toki askotan garestiagoak omen ziran telefonuak, bainan han etzekiten gauzak behar bezela egiten. Hobe zan hemen bezela kentzea, bide batez jendea zapaltzea eta indarra zala nagusi eta ez arrazoia, ta zuk ezer ere ezin zenezakela egin adieraztea soziedadearen oinarriak sendotzeko.

Irten handik eta beste bar batean sartzen da. Edan lau edo bost baso ta telefonura berriz. Zero bederatzia markatu ostean ematen diote Etxeberriaren numerua, bainan fitxää ipini eta berriz markatzen hasi orduko, horra non agertzen dan maletä! Kaletik gora darama eskuan gizon batek.

IV

Irten bat-batean eta arin-arin doa Txomin beregana.

Bere maletää emateko, eta besteak, bai zera! (*Amos anda! ¿No te amuela?*)

Garraisika ari dira eta jende asko biltzen da. Urte asko igaro dira ta oraingo Madrid ezta ordukoa. Gaur bazter guztiak dagoz beti automobilez beteta eta jendea beti dabil prisekin. Orduan ezegoan ia automobilik kaleetan geldituta eta beti egoten zan prisagabeko jendea edozertarako.

Txominek lapur bat dala ta maletää emateko, eta kirtenetik oratu ta bakoitzak beregana tiratzen du. Besteak mozkortuta dagoela (*Vaya tajá!*) eta ohera joateko mozkorra pasatu arte (*Vaya a dormir la mona!*). Berak berriz lapurra deitu eta maletää emateko, eta gizon batzuk, oratu besoetatik eta elkarrengandik bereizi dituzte.

Azkenean polizi bat agertzen da eta jendeari bakoitza bere aldetik joateko esan ostean (*Vamos! Circulen!*) hurbiltzen zaie maleta ondoan dagozenei ta galde egiten die ea zer gertatu dan han.

Txominek: lapur honek (besteagatik) maletää ostu diola. Besteak: mozkorti honek (Txomingatik) lapurra deitu ta maletää kendu nahi diola. Poliziak nahikoa dala, ixilik egoteko, ta *comisariara* etorteko berekin.

Kalerik kale doaz orain hirurak, eta ez Txominek, ez besteak eztute nahi maletää uzterik, eta bion arte kirtenetik oratuta daramatela, badirudi ehun kilo baino astunagoa dala.

Etxe zahar batean sartu dira. Atean polizi bat dago eta atarte barruan beste bi.

Zurubi zahar ilun batzuk igo eta muellekiko ate batetik sartu dira. Alde batean zurezko exertoki luze bat, eta beste aldean mostadore batek jendearrengandik separatua, ofizina bat.

Eurekin etorritako poliziak exertzeko keinua egin eta ñiin ñaan, alde egin zuen muellezko atearen kurrinkada birekin.

Ofizinan, esandako zurezko hesiaz bestaldean, gizon bat eta emakume gazte bat dagoz aurrez aurre exerita mahai bat bitartean dutela.

Kaskamotz distiratsua erakusten duala, gizonak polizien txake iluna darama jantzita, metalezko botoiekin, paparrean lotu gabe. Oso irri-errezekoa eta itxuraz gutziz gizon ona.

Emakumea, ederra, ile ta begi beltz, eta bularrez ta ipurdiz oparoa. Eztio batere errespetorik *comisario* jaunari eta beronek besotik oratzen diola, plast! ematen dio eskuan zartako bat.

Han agintzen duan bakarra bera izan arren, *comisario*ak dana jasaiten du eroapen handiarekin eta irrinoa galdu gabe.

Eskua atzeratu nahi duala paper batzuk erortzen zaizkio eta makurtu ta lurretik hartu ta euren tokian ipintzen ditu berriz, paperez betetako mahai hartan.

Rriiin... rriiin... rriiin... hasten da telefonua, eta mahai gai-netik hartu, ta kopeta iluntzen zaio *comisarioari*.

Ezta entzuten beste puntatik diotena, bainan berak, seta txarrekin, orain lan asko daukala ta ordubete barru deitzeko esaten du.

Belarri-tresnää bere tokian uzten duanean berriz etortzen zaio irrinoa ezpainenara.

Oraindik hamar minutu edo, berriketan, eta azkenean jeiki emakumea eta biak doaz ateruntz. Arraiua! *Comisarioa* oso txikia da! Ozta-oztan heltzen zaio sorbaldaraino emakumeari.

Lagun urkoaren zoriona ta bihotz beratasuna oso iratxekiko-rra da. Irriz dagoz Txomin ta bestea, biak atera begira, bainan *comisarioak* beste gizon bat dirudi berriz agertzen danean. Ezta-kigu zer gertatu ote zaion, bainan oraino parrez zetorren atetik eta tipuski, bat-batean, Txomin ta bestea ikusi bezain laister, irrino-ak bukatu eta arpegi hasarre bat erakusten du. Irrinoa ta bihotz beratasuna emakume ederrentzat bakarrik gordetzen zituan antza.

Biei begira (etzegoan inor gehiago gela hartan) hasi zan gal-detzen ea zer gertatu zitzaien.

Biak batera mintzatzen dirala, Txominek: honek (besteagati-k) maletää kendu diola, eta besteak: honek (Txomingatik) lapur-ra deitu ta maletää kendu nahi diola.

Comisarioak: ez zezatela hitz egin biok batera. Gero besteari, ez Txomini, berak hitz egin zezala lehenbizik ea.

Besteak: maletarekin karrikatik zoala inori kalterik egin gabe, etorri zitzaiola gizon hura (Txomingatik) garraisika maleta hura berea zala ta lapurra deitzen.

Comisarioak: ea egia ote zan gizon hark ziona.

Txominek: nola ez, egia handia zan, maleta hura berea zala ta.

Besteak: gezurra, berea zala.

Comisarioak hasarretuta: ixilik egoteko itaundu arte. Eta segundu batzutan danak ixilik egon ostean: ea zeinek zeuzkan giltzak.

Orain danak dagoz ixilik. Azkenean Txominek hautsi zuan ixiltasuna: aspaldian galdu, ta zerrapoa lotu gabe itxi zuala maletäa, etzala behar giltzik zabaltzeko.

Comisarioak besteari: ea zer zion berak.

Ba egia zala lotu gabe zuala zerrapoa, berak galdu zituala giltzak eta.

Txominek berotuta ez egiteko jaramonik lapur gezurti hari (besteagatik).

Comisarioak: ea zenbat bider esan behar zuan ixilik egoteko galdetu arte. Eta begitada bat botatzen dio maletäari, poliziak mostradore gainean ipinia. Eta gero Txomini: baldin berea bazan, jakinen zuala noski zer zeukan barruan eta esateko.

Txominek: traje urdin bat, lau alkondara zuri, barruko arropa zuriak, eskuzapiak, zapata pare bat, soingaineko bat, eta matematikazko liburu asko.

Besteari ea berak zer zion, eta:

Etzeukala libururik eta bai arropa batzuk, traje beltz bat, hiru alkondara kolorezkoak, bizarrak kentzeko tresna elektrikua, zapata pare bi, eta beste gauza batzuk.

Comisarioak: ea ba, maletäa zabalduko zuala.

Artean beste biak begira dagoz sorbalda gainetik maleta-barne misteriozkoa ikusteko.

Eta... han eztago libururik, ez ta traje urdinik, beltza baizik...

Aski da.

Txomin aho bete haginekin gelditu da.

Besteari, ankäa sartu zuala aitorturik, parkatzeko eskatzen dio, oker egon zala ta.

Bestea harro-harro.

Maletäa itxi ta jabeak hartu ostean, badoaz biak ateruntz. Txomin atzetik.

Bainan *comisarioak* Txomini pixkaten egoteko esan zion.

Orain Txomin ta *comisarioa* dagoz soil-soilik gelan.

Ea nola zuan izena, eta dokumentazioa ateratzeko, eta Txominek *carreta* ematen ziola, ea non galdu zuan maletaa eta:

Iparraldeko geltokian (*En la estación del Norte*).

Ea zer ordutan, eta:

Bederatzietan.

Comisarioak exertzeko apur batean.

Mostradorearen ezkerreko aldeko ohol bat jaso, liburu handi bat edegitzen danean bezela, azpiko ate bat zabaldu eta handik igaro ostean, atetxoa eta gaineko ohola itxi, eta mostradorea lehen bezela utzirik, gainetik izan ezik ezin igaro ziteken hesi baten moduan, bere mahai aurrean exertzen da *comisarioa*. Hartu telefonoko belarritakoa eta numeru bat markatzen du.

Pascasio izeneko bati ea arkitu ote zuten eurek maleta bat geltokian.

Ezta aditzen beste aldetik erantzuten diotena, bainan berak far egiten du, eta:

Paco izugarria zala (Paco nor zan eztakigu) eta esateko bere partez neska bi ekartzeko hurrengo egunean.

Bestearen abotsa urrunegitik dator. Eztakigu zer ote dion.

Ja ja ja ja! (*comisarioak*)

.....

—*No, no.*

.....

—*No! No! Eso no!*

.....

—*Ja! Ja! Ja! Ja!... Sabido!*

.....

Eta Pascasiori: baldin eurek maletarik aurkitu bazuten, begiratzeko ea zerrapoa lotu gabe ote zuan, eta baldin giltzik gabe zabaltzen bazan, ikusteko barnean ea traje urdin bat eta matematikazko liburu batzuk ote zeuzkan.

Utzi belarritakoa bere tokian eta *comisarioa* paper batzukin hasten da.

Hamar minuto edo igaro dira ta:

rrriiin... rriiin...

Comisarioak belarri-tresnäa hartzen du.

.....

—*Sí*

.....

—*Sí*

.....

—*Sí! Sí!*

.....

—*No, nooooo!*

.....

—*Ja ja ja ja!*

.....

—*¿Cuál?... ¿La pequeña?*

.....

Ondo zegoala, bai, ta tira ba, astelehen arte, ta agur, ta gabon pasatzeko.

Gero, klik, belarri-tresnäa bere tokian utzi duanean, bira egin eta:

—*Su maleta...* —hasten da Txomini begira, baina ikusirik berau artean lo gelditu dala, ixildu egiten da.

Bere paperekin ari da minutu batzuetan. Gero zigarrotxo bat atera eta biztu egiten du. Orduan gabeko egunorokoa hartu ta irakurtzen hasten da.

Teilatuko argi txikia ezta nahikoa iluntasuna garaitzeko eta *comisarioaren* eskuak eta ondoko paperak mahai gaineko pantallak ematen duan argi bizian murgilduak biziro nabartzen dira gelako iluntasunaren kontra.

Noizik behin rriiin... rriiin... rriiin... hasten da telefonua, eta mahai gainetik hartu eta hitz batzuk esaten ditu *comisarioak*. Gero, ixiltzen danean, automobilen harat-hunatak eta urruneko arradio baten soinuak entzuten dira, baina hots guzti hauen gainetik Txominen arnas sendoa, konpasa markatzen duala.

Valdepeñasko ardoaren usain ederrak gela guztia betetzen du, baina ez tirudi *comisario*ari atsegin zaionik, sudurra tximurta ta burua eraginik ezetz egiten baitu Txominenganantz begiratu ta.⁶

Gero ahaztu, edo ohitu, eta segi gabeko egunorokoa irakurtzen.

Exertoki luzean etzanda, ohean bezain ongi dago lozorroan Txomin. Exerita zegoan, burua aurreruntz makurtuta, *comisario*-ak Pascasiorekin telefonoz hitz egiten zuanean, baina etzan egin da berez, esnatu gabe, eta inoren laguntzarik gabe.

V

Goizeko zortziretan edo, nagia ateratzen hasten da. Ahoa zabaltzen duanean trenaren geltoki barnea baino handiagoa dirudi. Besoak luzatzen dituanean etzaizkio kabitzen gelan.

Gero bira egiten du erori gabe eta hasten da izaren bila oho-lezko exertoki gogorra hor hemen ukutzen, eta gero buru ondoan burkoaren bila.

Azkenean begiak zabaltzen ditu, eta gela hura ikusten duala eztu ulertzen non ote dagoen. Exeri ta bizkarra igurtzitzen du ezkerrez, begiak eta haginak tinko bizkarrezurreko minaz. Gero, zorritz beterik bailegoan, burua atzaparkatu eta edozelan sakabatatzen ditu ileak. Begiak igurtzi eta gela hura aztertzen hasten da, sekula ikusi ezpalu bezela.

Bakar-bakarrik dago, joan baitzan *comisario*a mahai gaineko argia itzalirik. Biztuta egon arren, goiko argi txikiak eztu argirik ematen, goizeko argiak dana betetzen baitu.

Cogoratu zaizkio azkenean aurreko gabeko gauza guztiak, eta zutik jarririk, berriz nagia atera, eskuaz ileak orraztu, hatzak ileen artetik sarturik, eta atetik zurubietarantz abiatzen da.

Handik jeitxi.

⁶ *burua eraginik* idatzi du eta halaxe utzi dugu, zabalago erabilia den *buruari eraginik* egituraren ordez.

Eta atarteko poliziari *Buenos dias*.

Eta kalera.

Burua albokera eta begiak itxita daramazki eguzkiaren ditz-
ditzarak arpegian jotzen dutela.

Eta kaletik behera rrras entzuten du nola zabaltzen dituzten
dendak, haga luze baten puntako kako batez sakatu eta burdi-
nazko estalki tximurra biraka ate gainean bildurik.

Oraindaino beterik dagoz zikin-untziak kale ertze bazterre-
tan, eta eguzkiak argitutako laino mehatsetik zeihar, bestaldeko
etxeak ikusten ditu gerizpetan murgilduak.

Txominek egunoro-saltzaile bat ikusten du, eta beregana doa-
la, beronek: atzera begiratzeko, norbait zetorkiola deika ta.

—*Eh! Oiga!* —abots batek atzetik garraisika.

Begiratzen du eta hara non datorren polizi bat eguzkiaren
argian murgilduta eta esku bat begien aurrean geriza emateko.

Itxaroten dio geldirik eta:

Ea bera ote zan iparraldeko geltokian maleta bat galdu zua-
na, eta:

Baietz.

Joateko ba geltokiko *comisariara*, han emanen diotela ta.
Joan zan gabeen esan ziola *comisarioak* berari esateko esnatzen
zanean.

Txominek pozik emanen lioke eskupeko bat, bainan ezta
ausartzen. Bildur da ontzat hartuko ez ote luken.

—*Muchas gracias*.

Eta badoa bakoitza bere aldetik.

VI

Jaungoiko maitea! Zein ederra dan eguraldia! Hodeirik ere
ezta ikusten zeru urdinean.

Bihotz alai ta maitekorrez, *Ya* deritzan egunoroko bat eroste-
ko bi pezeta ematen dizkio saltzaileari, polizi hura atzetik zetor-
kiola esan zionari, eta gaur eskuzabal sentitzen da, gehiegizko
berrogei ta hamar xentimoak eskupeko bezela uzten dizkio.

Gizonak:

—*Eh!* —deitzen dio, eta —*Falta una peseta!* —esaten dio latzki.

Eta zeharo ahalgeturik beste pezeta bat ematen dio. Igandetako egunorokoez hiru pezeta balio dute Madrilan.

Karrikatik behera doala egunorokoa zabaltzen du letra lodiak ikusteko.

Koreako gudua, orainan hasi berria orduan, oso gaizki zoan komunismoa maite etzutenentzat. Suwon eta bere aerodromua Hegoaldeko koreatarren eskuetan zauden oraindik. Komunistak Han ibaia igaro eta Swondik hamasei kilometrora arkitzen dira Iparraldetik. Komunisten tribunalek heriotzera bidaldutakoak berehala dira erahilak. Ugolde baten antzera sartu ta komunistek dana zapaltzen dute. Hegoaldeko koreatarrek Kum ibaian ezartzen dituzte euren defentsak, Swon eta Taejonen artean.

Kafe-etxe bat ikusi ta barrura.

Neska gazte politikak otsein bezela. Denek janzki berdinak: soinekoak urdinak, mandarrak eta buruko apaingarriak zuriak.⁷

Tokia estua ta luzea. Horma osoak espiluzkoak eta barruan sartuz gero, estua barik zabal-zabala ematen du espiluakaitik. Jendea birritan, hiru bider... hamaika aldiz ikusten da ispiluetan.

Ikusi bere buruaren irudia, arpegia garbitu gabe eta ileak sakabanaturik eta Txominek, hatzak ileen artetik sartzen ditu, apur bat orrazteko.

Espiluan, letra zuriekin, hamaikak arte ematen dituztela gosariak hogەرleko batean: katilu bat kafe-esne eta *croissant* bat, edo *brioche* bat, edo *suizo* bat, edo *churro* batzuk.

Mostradore guztia jendez beteta eta tokirik ez. Egunorokoa atera eta irakurtzen hasten da.

Gaur jokutzen du Espainak Ingalaterran kontra Brasilen munduko football txapelketaan.

⁷ *mandar*: mantar, amantal.

Bukatu du aurreko gizonak eta dirua sakeletik ateratzen ari da. Heldu da beraz egunorokoa sakelean sartzeko garaia.

Bainan zast! albokoa sartu da Txomin aho bete haginekin utzirik.

Ateratzen du ba berriz egunorokoa.

Koreako guduaren egokeräa oso nahasia eta arrisku handikoa dirudi Tokioko diplomatikoak batzen diran tokietatik ikusita. La Hayan oso txarra deritzate egokera honi. Bildur izateko omen da Korean gertatzen dana ez ote dan izanen USA eta RSSBen arteko gudu baten sar-bidea. (RSSB = Republika Sozialista eta Sovieti-koen Biltzarra)⁸

Ikusi toki bat hutsik ezkerrean eta riast sartzten da Txomin arin-arin, beste batek beretzat hartu baino lehenago. Eskatu gosaria, sartu egunorokoa sakelean eta begira jartzen da.

Nikelezko tramankulu distiratsuak txu egiten du kikereren gainean, kafea tantoka eta bunbuiluka boteaz.

Kikeräa katiluan hustu ta esnea botatzen dionean, oso nekatuta dirudi nesikäak, oraintxe hasi beharrean gau guztian lanean ari izan balitz bezela. Indarrik gabe oratzen du esne-pitxertxoak, bai ta koilaratxoak eta zukera-harritxoak ere plater gainean uzteko.

Gero *croissant* bat ebagi eta azpil txiki batean ematen dio, musturretako papertxo batekin.

Aha! Kafe usainaren ederra! Tripek pozik onartzen dute kafea ta *croissant*a, hainbeste denboran Valdepeñas izan ezik ezer hartu gabe egon ostean.

Ordaintzeko garaian telefonorako fitxa bat eskatzen du.

Zero bederatzia markatu eta ematen diote berriz Etxeberria jaun osagileen numerua.

Numeru hortan emakume baten abotsak

—¿*Quién llama?* (ea nor dan)

⁸ *sar-bidea*. Hitz horrek zentzua duen arren, *sor-bide* (*sorbide*) idatzi nahi izan ote duen susmoa dugu. Hala ere jatorrizkoan datorrena utzi dugu.

—¿Está el señor Echeverría? (ea Etxeberria jauna ote dagoen)

—¿De parte de quién? (esateko zeinek deitzen duan)

—De parte de Domingo Arregui (Txomin Arregik)

—Un momento, que enseguida le llamo (apur batean egoteko, berehala deituko diola ta)

Begiratu erlojuari eta bederatziak laurden gutxiago. Goiz xamarra inori deitzeko Madrilen, batez ere igande batean.

Zain dagoela telefonuaren kordoia aztertzen hasten da. Badi-rudi oratzen duan bakoitzak gutxienez bira bat ematen diola, hain bihurtua dago! Gero, kaleko automobilei begira dagoela: pii...

Zer arraio... Eskegi ote dute?...

Ez, hiru minutu igaroz gero, berez hausten da elkarrizketäa.

Beste fitxa bat eskatu, kris kraus bere tokian ipini eta zaast krikri, zaaaast krikrikrikri, zast krikri... numerua markatu, eta, "Pi pi pi pi pi pi..."

Beste telefonua eskegi gabe!

Ona da telefonua prisik eztaukazunean, bestela hobe da bestearengana joatea.

Ipini belarri-tresnäa bere tokian, hartu berriz, eta piiiii... markatzeko seinalea. Markatu berriz numerua kontuz-kontuz eta, "Pi pi pi pi pi pi..."

Urrun bizi bada ere ezta ajola, joan, joan berehala bila.

Berriz markatu eta berriz,

"Pi pi pi pi pi pi..."

Ezpadaukazu automobilik edo arin joateko zeric ere berdin da. Joan oinez beharbada.

Sakatu ezkeraz belarri-tresnaren seaskatxoa markatzeko seinalea entzuteko eta berriz markatzen du. Ostera ere,

"Pi pi pi pi pi pi..."

Ez denborarik galdu telefonuarekin, berekin hitz eginen duzulakoan.⁹ Baldin elkarrizketäa beharrezkoa bada, azkenean joan egin beharko duzu bere bila ta.

⁹ *berekin*: berarekin, harekin.

Markatu berriz eta,

—*Diga!* —gizonezko abots batek.

—¿*El doctor Echeverría?*

—*Sí, al aparato.* (bera dala)

—Tomas, Txomin naz, Txomin Arregi.

—Konno, Txomin, bizi al zera? Uste nun atzo etortzeko zinala. (nn=ñ)

—Bai, atzo etortekotan gelditu nintzan, banna o'in arte ezin. Da?... Topeu deustazu ostatua?

—Bai, eta ona gainera. Jaime Ostos kalian, hamalagarrenian, metro onduan. Bizkaitarrak dira berak. Etxian bezela egongo zera.

—Ta... zenbat?

—Milla hilian, arropak garbitu ta dana.

—Eta ondo emoten dabe jaten?

—Euskaldunak diran ezker ezta galdetu behar ere. Ostatu hortan egoten diranak pelotariyak izaten dira gehiyenetan, eta ba'kizu nola jaten duten pelotariyak.

—Zelan esan dituzuz señak?... Itxerain lapitza atara arte... Esan ia?

—*Calle Jaime Ostos número catorce, segundo, izquierda.*

—Bueno Tomas, eskarrrik asko. Kafian ikusiko gara bazkalostian. Gero arte.

—Bai, gero arte Txomin.

Jendez bete-beterik dago toki guztia. Bultzatu hemen, sakatu han, bira honen atzetik, igaro beste haren aurretik, eta kalera.

Taxi baten bila orain, eta aurkitu orduko lau edo bost kale igaro behar ditu zeharkatu.

Taxizainak barrutik zabaltzen dio atea eta sartu ta krausk! isten dio gero zartako izugarri batekin.

Berak: Iparraldeko geltokiko *comisariara* eta arin, handik gero kale Jaime Ostosera joan behar zutela ta.

IGANDE BAT MADRILEN

I

Egunaldi ona da eta zabaldua dago leihoa. Patiotik abots zantarreko neskame batek *la raspa* kantatzen du musikarako belarri txarrarekin, eta nahi ezpaduzu ere, derrigor entzun behar duzu, gorra ezpazara.

Bizarrak kenduta, ile bustiak ondo orraztuta, galtzerdi gabe-ko oinetako haragia zurixka, bainutik irtendakoan hartu ohi duan kolorezkoa, etxeke jauna sukaldera dator, oraino alkondararen botoiak bidean lotutzen dituala eta mahai ondoko aulki batean exertzen da. Hartu han dagoen egunorokoa eta mahai gainean zabaltzen du.

Olio errearen usaina dago. Etxeko andreak lukainka zati bat eta arrautz bat dakarzki eta laister sentitzen da lukainka prijituaren usaina.

Emakume ederra, liraina ta galanta. Hogeitahamabost urte pasatu arren ez zenioke botako hogeitahamabost baino gehiago.

—Inasi! —dio etxekejaunak—, hau da bai gauza handia! Jajai! Amerikanuak eta, atzera ta atzera doaz Korean txinoen aurretik iges ta iges! Aufa! Laster botako dabez itxasora!... Hau da bai poza Inasi! Atara'izu ardaa.

Inasik, arrautzak eta lukainka prijituazpil baten mahai gainean bere aintzinean ipini, eta gero untzitegira joan eta aiztoa, ardoa, basu bat, gatza eta ogia ekarri zizkion.

—Zelako poza, Fernando! Oin amerikanu madarikatuak uretara joan bi'ko dabe. (beharko dute) Ala zeuen etxetara! Ez etorri inork deitu ezteutzuen lekuetara!..

—Eztozu hartuko tragotxu bat Inasi?

—Bueno ba... Okasinoak merezi deu ta neu'pe tragotxu bat hartuko't ogi apur bategaz.

—Estalinen osasunera!

Emazteak, basua mahai gainean utzi, eskuzapi txiki bat mahangatik atera, eta ezpainak garbitzen ditu.

Patioko neskameak *la raspa* utzi eta *ai Lili*, *ai Lili*rekin hasten da.

Bat batean Inasik,

—Aiii!... Ederra egin dot! —esaten du harrituta, eskuaz ahoa estaldurik.

—Zer paseu yatzu ba?

—Komulgetan joan bi'nabela (behar nuala) ahaztu ta apurtu e'in ddotela barau!

—Betiko tontekerija ostera be?... Guzurre dirudi beste gauzetarako emakume zoli bat izetie zeu zaran lez, eta halan ta guztiz be, holako tontekerijak sinestutie... Uste dozu zuk, Jesukristorik balego, Jaungoikorik balego, ogi zati baten sartuko litzakela?

Hasi da eztabaida bero bat senar-emazteen artean. Inasik eztu amor ematen eta emeki-emeki Fernandoren hitz guztiak zapaltzen ditu banan-bana dotrinan ikasitako egi zaharrekin. Berak baino dotrina gehiago dakialako edo, Fernando oso hasarre dago, eta gero ta beroago, gero ta beroago, azkenean sututa dabil eta garrasika mintzatzen da.

Patioko leihoetan dauden guztiek entzun dezakete gizonak dion guztia, eta *ai Lili* kantatzen zuan neskamea ere ixildu egin da Fernandoren hitzak entzuteko, bainan alperrik. Edozer emanen lukete zer ote dion jakitearren, bainan inork ere eztu ulertzen hitzik ere, leihoa zabal-zabalik egon arren.

Fernandoren hitz garratz eta gordinekin mindua, Inasi negarez dago sukaldeko baztar batean makurturik. Gero ta negar

gehiago egiten du eta, noizik behin, dardaraz hasten zaio gorpuzta negarraren indarrez.

Fernando amorraturik dabil sukaldeko baztar batetik bestera.

—*Me cago en la leche!* —erraiten du, eta orain bai, eskerrak eman behar dizkiogu patrioko jendearen izenean. Han zauden entzule guztiak honekin konformatu behar izan ziran. Gutxi baino ezpazan ere, orain behinik behin zerbait ulertu dute.

Fernando azkenean,

—Emakumekaz ezin leike! —esan ostean, bere gelara joan zan.

Minutu batzuk eta kanporantz zuzen-zuzen kalerako arropakin jantzita. Zabaldu atea, irten, danba! itxi, eta karrikara.

Segundu batzuk baino ez eta ateko joarea entzuten da.

Inasik begiak eta sudurra eskuzapi txiki txiki az leihortzea nahi du, baina blai-blai dagoz eta eskuzapia etzaio ezertarako gauza. Sudur eta begi gorri-gorriekin doa edegitera.

Iziartxu da.

Hamazapi urteko alaba polita, luzea ama bezela, liraina eta benetan galanta, mantalina eta eliz-liburu beltza dakarzuki eskuan. Mezatatik dator jaunartuta eta gosaria hartu behar du.

Ama negarrez ikusirik,

—Zer dozu ama? —galdetzen dio, musu bat bekokian emanik.

Orduantxe, igo-tramankuluan sartuta goruntz zoala, aita ikusi zuan kristeletik zeihar, zurubietatik behera kopet ilun-ilunekin eta heldu sukaldera amarekin ta lukainka eta arrautza prijiduak mahai gainean ia ikutu gabe ikusi zituanean,

—Betiko gauzak?... Aita ostera be? —itaundu zuan mantalina eta liburua arradio gainean utzi, ta mandarra janzten zuala.

Gero kafea ta esnea nahastatu eta sutan ipintzen ditu.

Artean amak noizik behin xuuup!... xuuup!... hartzen ditu haize zurrutadak sudurretik.

Berriz entzuten da joarea eta Iziartxu doa orain atera, mandarra kendu ostean.

II

Txomin aho zabalik gelditu da. Bere bizitza guztian ikusi duan neskarik politena hauxe da.

—*Perdone, buscaba una casa de huéspedes*—. (Ostatu bila etorri dala) erraiten dio, bihotzak taupada ikaragarriak ematen dizkiola.

—*Sí, aquí tenemos huéspedes*—. (Baietz, badauzkatela apupiloak) esaten dio aingeruaren abotsak. Bainan etzekiala tokirik ote zegoan, eskatuta baitzegoan libratu zan gela bakarra. Halaz ere, etzala etorri eskatu zuana, ta sartzeko mesedez etxeoandreakin hitz egiteko.

Hartu maletää ta barrura.

Txomin bakarrik gelditzen da, eta pintura txiki ta merke batzuk aztertzen dagoela, Inasi sartzen da.

Gorri xamar dauzka sudurra ta begiak. Ezta harritzeko. Madrideko eguraldi onak eztira askok esaten duten bezain osasungarriak. Kontuz ibili ezik hemen ere kostipedu asko harrapatzen dira.

—*Buenos días* —erraiten dio. —¿*Qué deseaba?* (Egun on eta ea zer nahi duan.)

—*Vengo de parte de Tomás Echeverría*. (Tomas Etxeberriaren partez datorrela)

—Aaa!!!... orduan zu Txomin zara? —esaten du orain euskaraz.

—Bai.

—Eneee!!! —barrezka eta abotsa sendoagoturik—, zu Arri-gorrietakoa eta gu Mendiurikoak! —eta hau erraiten diola zartako gogor bat ematen dio sorbaldan, gogotik far egiten duala.¹⁰

¹⁰ *Mendiuri*, Gernikatik hurreko Mendatako herriaren izen mozorrotua izan behar du, *Kurloiak* elaberrian ere *Mendauri* izenaz azaltzen dena. Hangotzat ematen ditu idazleak Madrileratuak diren Fernando eta Inasi senar-emazteak. *Mendiuri/Mendauri* mozorro-izen horiek, bestalde, Mendatako eleizaldea baino goratxoago dagoen Mendaturi (ahoz *Meaturi*) auzo-izenaren egokitzapenak besterik ez dira.

Txomin ere barrezka dago. Min egin dio sorbaldan, baina ezta ajola, berehala kenduko zaio.

Apaina ta ederra, Inasik Madrیدهko andereinorik eleganteena ematen du, baina azala pixkat altxatu ezker, berehala agertzen da barruan daraman baserritarra.

—Zeure etxien za'uz —erraiten dio Inasik Txomini—, hemen etxeko lez trateko yatzu eta ba'kizu, etxekoen arte ezta ibili biher aiko-maikotan. Iziartxu! —deitzen dio alabääri—, erakutsi e'ijozu Txomini bere kuartua. Nik mezetara joan bi'ot (behar dot) eta prise daukat. Gero arte.

Iziartxuk amak bezela egiten du euskaraz. Txominek gorputz bustialdi bat hartzea nahi luke lehenen lehenengoz, baina beste apopiloa dago barruan eta itxita dago garbitokiko atea.

Bakarrik dago orain bere gelan. Oraindaino etzaizkio baketu bihotz taupadak. Zelako zoriona!... Bere ametsetako neskää odol ta haragi eginda! Iziartxu du izena... Izen maitagarria! Eta bere etxean bizitzera etortzea ere!... Hau da bai zoriona!

Maletää zabaldu ta janzkiak arasa barruan ipintzen hasten da. Etzaio tximurtu amak maletaan artoski gordetako traje urdin berria, eta poliki ta kontuz-kontuz eskegitzen du aulkiaren bizkarretakoan. Gero, liburuak mahai gainean ipintzen dagoela, tan! tan! jotzen dute atea, eta munduko abotsik politenak esaten dio libre dagoela bainua eta ea gosaria hartu behar ote duan. Berak baietz. Ikusten da eztiotela kentzen jateko gogoia bihotz taupadek.

Bizarrak ongi kendu, bustialdi eder bat hartu, eta traje urdin berria jantzita bere gelatik irten eta jangelara joan zanean oso dotore agertu zan. Zoritxarrez ez zirudian Iziartxuk ezer ohartu zuenik gosaria ekarri zionean.

—Ama! —esaten dio neskääk Inasiri, handik irten eta sukaldera sartzen dala—, ikusi dozu ze dotore jantzi yakun Txomin?... Beste gizon bat dirudi!

Fernando, artean, jakin ez nora jo eta oso asperturik etxera etorri da, eta jangelan sartu ta Txomin arkitzen duanean;

—Zu Txomin zara, ezta egiya? —esaten dio eskua luzetuaz—. Ondo?

—Ondo, ta zu? —erraiten dio Txominek eskua estuturik.

—Arrigorrietakoa?

—Bai.

—Ze familikoa?

—Eztozu eza'utzen Kakatanplast?

—Bai, asko.

—Ba, haren semie.

—Jooonno jonno jonno! (nn=ñ) Kakatanplasten semie zara zu?... jonno jonno... Urte askorako.

Arregi familikoa zala esan balio eluke ulertuko nortzugatik erraiten zuan. Behin osaba bat hil zitzaion Ameriketara diru asko utzirik, eta ondasun-zaina, administradorea, Arregi familiaren bila etorri zan handik, bainan inundik aurkitu ezinik, atzera joan behar izan zuan Ameriketara oinordekoak topau gabe.

—Lotsatu e'itten naz esaten —erran zion—, banna (nn=ñ) ondino eztot mesarik entzun, eta hamabijak laurden gitxia'u dira.

—Baaa gizona! Edonori pasetan yako hori. Biajian ibiltten danien horrek ezteu inportantzirik! Ganera ondinno meza asko daukazuz.

—Hamabijetakoa entzungo't. Ba ete da'u hemetik elizen bat hamabijetako mezie entzuteko?

—Bai —azaldu zion Fernando'k—, etxetik urten eta ezkerrien. Berihalaxe topeko'zu eliza zuri bat. Eztekozu galtzerik. Hantxe daukazu hamabijetako mezie.

—Bueno... banoa orduan. Eutsi peridikua. Leiduta dekot nik. Barri txar-txarrak dakaraz. Txarto doaz gauzak Korean. Eztakit zer jazoko dan azkenien. Uste dot laster botako dabezela amerikauak itxasora.

—Ez gizona, ez... Ez euki bildurrik, amerikauak indar asko dekoie.

—Mmm... eztakit pa... eztakit pa... Gero arte.

—Bai, gero arte Txomin.

III

Bazkalorduan beste apupiloa ezagutu zuan: Zubiri, elefante baten moduko gizon handikote bat, bi kiloko ogi bana ziruditen eskuekin. Berrogei urte inguruko mutilzahar amerikanu ta euskalduna, sei urte ziran Fernando ta Inasiner a etorri zala. Etzuan lanik egiten eta bere bizimodua azkeneko urteetan beti berdina izaten zan. Egunoro frontoira dirua jokatzera. Asko galtzen zuanean ixilik egun guztian. Egunoro kafera. Egunoro alkondarää aldatu eta korbata apainekin korapiloa egin, egunoro zapata-garbitzaileari oinetakoak ispilua bezela ipinierazo, eta beti jantzirik dotoreenak janzten zituan. Etzan jaten gaizki etxe hartan ez, bainan berak, tripazai handiak, beti ekartzen zuan zerbait bazkariaren osagailu bezela: nahiz oilasko bat, nahiz kilo bat marrubi, nahiz kilo erdi angula, nahiz beste gauzen bat. Egunoro edegiten zuan markazko botila bat ardo bazkalorduan, eta sardinezko edo bokartezko edo zerbaitezko latatxu bat bazkariaren zain zegoela. Bainan ez pasatu inbidiarik, irakurle; egunoro edaten baduzu, markazko ardoa ardo arrunta bilakatuko zaizu eta egunoro jaten badituzu janari garestiak, patatak irudituko zaizkizu.

Iziartxuk etzuan bazkaltzen jangelan besteekin. Janariak ekarri, eta sukaldetiko joan-etorriak egiten ibiltzen zan, azpilak eta enparauak eraman ta ekarririk.

—Ta?... Arrigorrieta?... —galdetu zion Zubirik Txomini—. Denbo'a asko'ako Madrid'e'a?

—Uste dot baietz... hemengo lana gustetan bayat behintzat.

—Lana gusteu? Beste gauze batzuk gusteko zaizkizu zuri, lotsagabe horri —begi bat itxi eta ukondokada bat emanez.

Baten batek lotsagabe bat dala eta lana baino gehiago beste maltzurkeri bat maiteago lukela adierazi ezkeru, badirudi edonor hasarretu egin beharko litzakela, bainan Txomin etzan hasarretu, aitzitik poztu egin zan, eta ezpainetan irrino bat agertzen zitzaio-la, misteriozko aide bat hartu zuan. Bainan kontuz gero... ez ezaziozu esan holakorik benetako lotsagabe bati, hasarretu eginen

zaizu ta. Zubiri mundutik ibilitako gizona da eta badaki gaizki hartuko lukela ergel batek kokolo edo tonto deitzea, erren batek kojo deitzea, neskazahar batek zaharra esatea, eta ezin dakiokela esan ahalgegabe lotsabako bati, edo itsusi emakume itsusi bati, bainan eztagoela arriskurik ergela eztanari kokolo, edo langile zintzoari alper, eta ongi ta bizkor dabilenari erren esateaz, edo oso polita dan neska bati itsusi edo lotsatiari ahalgegabe deitzeaz, edo akats bat eztaukanari akats horren aipatzeaz. Igarri dio Txomini lotsati eta lan-zale gaixo bat dala eta horregatik esan dio lotsagabe, eta horregatik adierazi dio eztala benetako langile bat, atsekabe barik poz emanen diola jakinik.

Bainan hau Txominek txartzat hartu behar dualakoan Inasi bere alde ateratzen da.

—Zuk uste dozu zeurelakoak dirala danak. Txomin fina da, eta biherra egiteko etorri da Madrillera, ez zeuk pentsetan dituzuzen moduko lotsabakokerijetan ibilteko.

Emakume batek esaten duana ezta txartzat hartzen. Emakume batek libre dauka edozein astokeri esatea. Gizonek ixilik entzungo diote dana. Baina Inasi ezta ibili mundutik eta eztaki zer esan diteken eta zer gorde behar dan barruan ixilik. Gizon batek esan balu, orain erran duanak Zubiri mindu eta Txominen poza urtu eginen zukean.

Danak ixilik, koilarakadaka hartzen dute orain zukua, batez ere Zubirik burua makurtuta, astinaldi bat hartu duan txakurrak buztana ankarrean sartzen duan bezela. Azkenean,

—Lana e'itteko ezta'o Madrid'e'a etorri biherrik. Hori Arri-gorrietan bertan e'inn leike —erraiten du Zubiri'k, azkeneko aldiz koilaraa betetzeko azpila alde batetik altxatuaz.

—Ez Txominek e'itten deuen lana —ihardesten dio Inasik—, bomba atomikie edo... ia esan Txomin, zelan deko izena zeure lan horrek?

Iziartxu zain gelditu da Txominek diona entzuteko, zuku-on-tzia hartu ta okelaa utzi ostean. Hau ikusirik Txomin handiarena egiten hasten da, bere burua goratzearren.

—Ez, bonba atomikien ez, *Radaren*, bonba atomikiegaz zer ikusirik pe eztaukan gauza baten.

—*La órdiga, paisano!* —esaten du Zubirik harrituta—. *Radaren?* Eta zer e'inn biher dezu zuk? Kontabilidadadia e'aman?

—Ez, ni kolaboradoria naz —Iziartxurengana albokera begiratuaz.

—Ka... rajo! Kolaboradorie? —berriz Zubirik—. Koño! koño! koño! Orduan asko dakizu zuk! Eta nun ikesi dezu hainbeste Txomin?

—Ez, ez... Nik eztakit asko. Ondiño asko falta jat. Dakittena Madrillen bertan ikesi neban, unibersidadien.

—Eta zem'at urte e'on ze'a estudiatzen?

—Bost urte.

—Bost urte? Ti'e, nahikue da, baino ezta asko. Ni e'e bost urte e'on nitzen eskolan.

—Ah!... Eskolako denporie kontetan bada, ni hiru urte egon nintzen eskolan eta gero zazpi kolejixoan. Dana konteu ezkerro hamabost urte.

—Ha-ma-bost ur-te?... eta o'aindik nahikue eztakizule?... Etze'a ba nik uste nuen bezin listue!

Txomin gorri-gorri jarri da eta Iziartxu sukalderuntz joan da, irriñoa ezpainenetan. Minutu batean, danak ixilik jaten ari dirala, ezta entzuten besterik aizto eta sardexken txin-txina azpilen kontra baino.

—Eztozuz e'in biher holako konparazinoak —esan zion gero Fernandok Zubiriri—, karrerie estudixetan daben guztixei jazoten jake hori. Etxe hontan bertan, seigarren pisuan bizi dan José López, hoge'ta zortzi urteko mutila, zazpi urte egon zan unibersidadien, eta oindino Parisa joan da ikasten.

—Eta noiz bukeuko dute ba hola ikasten dabiltzenak?

—Inoz be'z. Hil arte ibili biher ikesten holako karrera bategaz hasi ezkerro, atzeratuta gelditutie gure eztabenak —erran zuan Txominek.

IV

Bazkal ostean kafera joan da Txomin bere lagunen bila.

Etzetik irten eta eguzkiaren indarraz itsututa, begiak itxita ia, arrakala estu-estu bitik zeihar ikusten zuan.

Metroko estazio batera heldu ta barrura. Kanpoan sargori, barruan freskotxo pozgarria. Argi elektrikua gaberdian bezela.

Kanpora atera zanean zurubietatik eta berriz eguzkiaren argi diztiratsuan murgildu zan.

Semaforu bat argi gorriarekin aurkitu eta eguzki galdatan itxaron behar izan zuan.

Automobiletan brist eginik, eguzkiaren diztitzerak ia itxitako begietatik sartzen zitzaizkion, beste gizon eta emakume batzuen ondoan geldituta argi berdearen zain zegoela.

Gero, horma ondoko kerizpetatik ibili ostean, kafera heldu zan.

Ateak eta leihoak zabalik eta ventiladoreak biraka beroagatik, lodia zan tabako-kearen lainoa eta areto zabala gizonen bete-beterik zegoan. Ia danak txakea kenduta eta alkondaräa agerian mahaien inguruetan exerita. Etzegoan batere emakumerik. Gero etorriko zan emakumeen inbasioa, baina honelako kafe-etxe handiak betiko desagertuko ziran tokia bankuei uzteko.

Abotsen zurrumurru handiaren gainean tik! tak! tiki! taka! entzuten zan domino-zerren zaratäa mahaien gaineko haitz zuria-
ren kontra.¹¹ Zarata honekin kafetegi handiak langilez betetako ola handi bat ematen zuan, eta langileak gelditu gabe ari ziran lanean, han etzegoan opor egiterik.

Han agertzen ziran, betiko bazterrean, Tomas Etxeberria, Jabier Garmendia eta Luis Apalategi, bere aspaldiko adiskideak.

—Kaxo, Txomin. Noiz etorri ze'a? —galdetzen dio Garmendiak eskua luzetuaz.

¹¹ *haitz zuri*: haitzurdin, marmol.

—Atzo.

—Kaixo, Arrigorrieta, zer mu'uz gailtz? —dio Apalategik.

—Betiko moduen. Barrero Madrillen. Ta zuek? Ondo?

—Ikuste'ezu ba... Gu beti bezela, ez ge'a mugittu're Madrildi —ihardesten dio Apalategik.

—Kaxo, Txomin! —esaten du orain Etxeberriak aulkia bazter batera eramanez lekua uzteko—. Tira, hartu silla bat eta exeri. Hara! —hatz batez apuntatzen duala—, hangua dago libre.”

Ekarri aulkia, exeri, eta morroiari deitu ostean, txakea erantzi eta aulkiaren bizkarrekoan uzten du.

Morroia etortzen zaionean kafe beltza, cognaca ta habano bat eskatzen ditu.

—Zer diozu, Txomin? —itauntzen dio Apalategik—, e'un askota'ako eto'i al tze'a?

Itxura oneko gizon ez lodia ez argala, ez luzea ez txikia, Apalategi etzan ohargarria eskuetara so egin ezik. Eskuak ordea lodilodiak, beste gizon handiago batenak ziruditen, hamar hatzen ordeztu hamar odolki eukiko balitu bezela. Hau pelotaka jokatzetik dator eta honegatik eukitzen dituzte atzamarrak handituta euskaldun askok.

—Eztakit... behinipehin hemen topeu dot lana, ta besterik ezpadago, hemen gelditu behar derrigor —ihardesten dio Txominnek, eskuzapia atera eta aurpegiko izerdia txukaturik.

—Zer diozu... hemen gelditu bihar? —galdetzen dio Garmendiak—. Arrigorrietan baino gehiyo gustatzen zaizu zuri Madridenten.

Hogei ta hamar bat urteko gizon hezurtsu ta zaintsua, bizkar zabal-zabalekoa, Garmendia oso argala da arpegiz. Zorrotza du begitartea aurretik ikusita, aitzo baten antzera, sudur eta gangar handi-handiekin. Txistua iresten duen bakoitzean (eta beti dabil txistua iresten) bere gangar izugarriak bost zentimetroko bidea egiten du xiiip! larrupetik gora, gero beste hainbeste ibiltzeko xaap! larrupetik behera. Korbatäaren korapiloa askatuta eta atorra paparrean lotu gabe euki arren, estuegi dirudi oraindano

bidea gangarrari harat-hunatak lasaiki egiten uzteko, eta sartu eri bat ator-lepoan eta ezkereruntz tiratzen du okotza jaso ta beste alderuntz eramanik samäa luzetuaz.

—Bai zera!... —erantzuten dio Txominek—, pozik egongo nintzake ni o'ın Arrigorrietan hemengo berotasuna aguan-teu biher izan barik. Zoritxarrez karreriegaz-hasi nintzani-enintzen kon-turatu etzala egongo zereginik niretzako Arrigorrietan, eta ankia sartu neban, neure burua kanpoan bizitzen kondenau nebanian, jakin barik.

—Eta zergatikan estudiantu zendun ba karrera hori? —esan zion Garmendiak, sudurzilo handietatik zeihar bi kee xirrista boteaz.

—Zegaitik? —esan zuan Txominek—, ba estudixetan hasi nintzani-en gazte-gixa nintzalako jakiteko. Matematikak ikasteko erreztasuna nekala ta, fisikie be gustetan jatela ta, gerokoari begi-ratu gabe, hamazazpi urte-gaz hautatu biherrien, eneukan espe-rienzirik eta horregaitik.

Morroiak habano kutxäa zabalik eskeintzen diola, kafe bero-beroa eta kopa bat hutsik mahai gainean utzi ostean, Txominek zigarro bat hautatzen du, eta besteak botila bat cognac edegiten duala, berak sakel-aizto bat atera, puntäa zilotu eta zigarroa biz-tutzen du.

Morroiak cognaca botatzen duala laurak dagoz ixilik kopari begira.

Joaten danean,

—O'aindio gaztea ze'a, entendittu al dezu? Beste lanbide bat hartu deikezu —erraiten dio Apalategik hatz lodi bat jaso-rik.

—Belu da —esaten du Txominek.

—Belu? —itauntzen du Garmendiak—. Zer da belu?

—Berandu.

—Aaa!... berandu... Hitzegin zazu ba euskeraz —erraiten dio Garmendiak, okotza jaso, eri bat atorrean sartu lepoa oraindik gehiago askatzeko, eta gangarra gora ta behe-ra erabilirik.

—Eztala euskeria belu?... —erraiten du Txominek—. Zuek eztakizuen a ez tala euskeria ta akabo. Zuek giputzok munduko jenterik harroena zarie.

—Gu harruak? Danetan harruenak bizkaitarrak zeratela esaten due toki guzietan. Galdetu edozeini, ikusiko dezu nola ematen dien bizkaitarrei munduko txapela harrokeriyan.

—Bueno, bueno —ebagitzen du Etxeberriak—, utzi zazute hori pakean. Beti zabilzate katua ta zakurra bezela. Eskatu ditzagun kartak eta hasi gaitezen musian. Lau gera eta ‘in dezagun partida txiki bat. Txomin ta ni zuen biyen kontra.

Txominek tripäa bete-beterik dauka eta astiro-astiro edaten du cognaca, zigarroari kea atera eta sudurziloetatik jaurtitzen duala, bainan beste toki batean dauka burua eta eztauka gogorik musean egiteko.

—Ez. Nik eztot gura —erraiten du.

—Ez ha’i izan horrelakua —esaten dio Etxeberriak—, ez hasarretu tontokeri horregatik.

—Ez, enago hasarretuta, baina eztekot gogorik gaur musian e’itteko.

—Tira ba, hirurak jokatuko degu —esaten du Etxeberriak, eta morroia deitzeko eskua jaso ostean, kikerak eta kopak alde batera eramaten ditu.

Morroia datorrenean, kartak eta hamarrekoak ekarteko esaten diote. Beronek kikerak eta kopak bendejan ipini eta trapu zahar bustiaz garbitzen du haitz zuria. Joan eta laister agertzen da berriz oihal berde bat besapean eta kartak eta hamarrekoak eskuetan. Ipin iohala mahaian eta gainean kartak eta hamarrekoak, eta alde egiten du.

Txominek, hodei baten erdian murgilduta habanoaren keaz, bere lagunen hitzak entzuten ditu:

—Mus.

—Mus.

—Eztago.

—Paso.

- Hiru.
- Ez.
- Ez.
- Paso txikira.

.....

Bainan berak eztu jaramonik ere egiten. Itzarturik egon arren ametsetan dago. Habanoaren hodeietatik zeihar gizonen alkandorra zuriak ikusten dira, bainan berak eztu ez atorrik ez gizonik ikusten, neska baten irudia baizik, alegia, Iziartxurena.

Habanoa ia bukatu zaionean, must must ematen dizkio azkeneko edoskaldiak erien puntaz oraturik, kontuz-kontuz ez erre-tzeko, bainan azkenean erre egiten da, eta arin-arin jaurtitzen du kulumino bat bailitzan.¹²

Besteak artean,

—Jokorik ez.

—Ez.

—Ez ta.

—Envido.

—Quiero.

Eta kartak mahaian ipini ostean,

—Haundia bat, eta envite ta pariak beste hiru, lau batekin hamarrekua.

—Txikia niria da.

—Punto ta envite hiru.

.....

V

Asko jeitxi da eguzkia handik atera orduko, bainan eztabil haizerik eta lehen bestekoa da berotasuna.

Frontoira orain, Recoletosa. Garmendia eta Etxeberria aurretik, eta hamar bat urrats atzerago Txomin eta Apalategi.

¹² *kulumino*: kurumino.

Ixilik doaz laurak eta elkarrekin barik, hobeto esan diteke bakoitza bere aldetik dabilela.

Orain giza uholde bat datorkie kontra eta jendeen artean sartzan dira korrienteen kontra, jende asko ateratzen da orduan handik hurbil dagoen zine batetik kalera, eta gure adiskideak atearen parera heltzen diranean ia ibili ere ezin dira. Bainan laurak, bakoitzak ahal duan bezela, arkitzen dute bidea azkenean.

Zinearen atea atzean utzirik, banan bana doaz orain laurak: Etxeberria lehenbizik, bospasei urrats eta Apalategi, beste hamar edo hamabi pausu eta Garmendia, eta azkenez Txomin, metro batzuk atzerago.

Orain neska eder bat datorkie kontra. *Si a Roma fueres haz lo que vieres* dio erderazko atsotitz batek (Erromara joaten bazara, egin ezazu hangoek egiten dutena) eta gure adiskideek Madridenten *madrileñoek* bezela egiten dute.

Ondotik igarotzen zaionean gelditu eta Etxeberriak Madridenteko azentoaren imitazio on bat atera eta,

—*Así se pisa, morena!* —erraiten dio.

Gero Apalategik, ondotik igarotzen zaiola,

—*Ole salero!* —esaten dio. Nahikoa eta beharbada gehiegi ere Apalategik esateko.

Garmendiaren parera heldu ta beronek,

—*Contigo pan y ceboya* —erraiten dionean, Etxeberriak baino madrileñoagoa ateratzen du azentoa.

Azkenean Txominen ondora heltzen danean, beronek, begiratu bai, bainan ezti esaten ezer. Badakizki besteek bezela Madridenten entzundako *piropo* asko, bainan besteak begira eztagozen ezker, orain alperrik izango litzake esatea. Etzaio sartzan ohitura irri-egingarri hau, ezta txantxetan ere, orain bezela.

Haizean igarten da igandea dala. Dendak itxita, jendea dotore jantzita... Lau adiskideek ere arropa ta oinetako berri-berriak daramazkite.

Erditik gora eguzkiaren argian murgilduta dagoz etxeak ezkerreko aldean. Hautsak eta gasolina usainak bazter guztiak bete-

tzen ditu. Automobilen eta jendearen harat-hunatekin bizi-bizirik dago kalea.

VI

Recoletoseko txartel-leiho aurrean lau edo bost gizon arkitzen dira banan banako zerrendan (bata bestearen atzean) itxaroten. Lau adiskideak txartelekin sartzen diranean eta atezainak puntak kentzen dizkienean tiki! taka! pin! pan! entzuten da pelotaren hotsa.

Jendeartetik exertokien bila doazala, ixildu egin da pelotaa eta zurrumurru handi baten gainetik entzuten dira *corredoreen* abotsak. Esku bana jasota, eztarriak leher egiteko moduan garraia-sika.

—*Cien colorao! Cien colorao! Cien colorao!... Doscientos colorao! Doscientos colorao! Doscientos colorao!...* —erraiten dute.

Ixildu dira azkenez, pelotari batek sakea ateratzen duala.

Pasa izan da. Lehengo garraisien antzekoak ostera ere.

Txomin Etxeberriaren ondoan exeri da.

Orain urdinek egin dute tantoa.

—*Cien colorao! Cien colorao! Cien colorao!... Sé tentaaochenta! Sé tentaaochenta! Sé tentaaochenta!... Sé tentaicincoochenta! Sé tentaicincoochenta! Sé tentaicincoochenta!*

Txominek eskua jaso ta *corredoreak*,

—*Va!*

Eta atera block bat sakeletik, hartu lapitza belarritik eta zerbait idatzi ostean orria kendu ta pelota baten barruan sartu ta bota egiten dio. Txominek aidean harturik, atera papera, sartu sakelean, eta atzera botatzen dio pelota hutsa.

—Zer iduritu zaizu ostatua? —galdetzen dio Etxeberriak.

—Asko gustetan jat. Jendie be on-ona dirudi... eta Iziartxu... zelako neskatil ederra... eta euskaldun zintzoa ganera...

—Gustatu zaizu e?... ba noviyua dauka.

Txominen arreta guztia pelotaan dagoela dirudi, taka! tikita-ka! entzuten dala, burua ezkerretik eskumara ta eskumatik ezkerre-rrera okertu ta pelotaren harat-hunatak jarraitzen dituala, bainan Etxeberriak esan diona ur hotzezko bustialdi bat izan da beretzat. Azkenean,

—Novixoa daukala dinozu? —itauntzen dio.

—Bai, medzinako estudiante bat. Bi urte falta omen zaizka bukatzeko. Ezta denbora asko hasi dirala elkarrekin.

Galdu du pelotäak Txominentzat ikusgarritasun guztia, begiekin jokia adi-adi jarraitzen duala iduritzen badu ere. Ixilixilik dago minuto batzutan. Nahi luke gehiago jakitea bainan Etxeberriak bere jakingurea ezertan ohartu gabe. Eta azkenean Txominek,

—Eta hau gurasoak ontzat hartzen dabe? —galdetzen dionean Etxeberria ezta ezertaz ere oroitzen.

—Gurasoak?... Ze gurasoak... Aaa!... Uste det eztiotela ezer esaten etxian eta begiyak itxi egiten dituztela ezer gertatzen ez balitz bezela.

Orain zurrumurru handi batek betetzen du frontoi guztia. Jendea sututa dago. Etxeberriak,

—Muchooo! —esaten du pelotatokira begira, eta Txomini—, ikusi al dezu hori? Izugarriya izan da gero...

Etxeberria berriz jartzen da pelotariei begira, eta ezkerrez pelotäa jotzen balu bezela, laguntzeko edo, berriz jendearen zurrumurrua handitzen dala,

—Hortxe hortxe... jo! jo! jooo!!!... muchoo!!!... —eta tanga!!! burdinaren hotsa entzuten dala—, aiii!!!... lastima izan da!... —eskua burura eramanik.

Txomin behin baino gehiagotan egon da Etxeberriari galdera bat itauntzeko, bainan hitz egiteko prest zegoan bakoitzean berotu egiten zan jokia eta geroko utzi behar izaten zuan. Azkenean, partidua ia bukatzeko zegoala,

—Noztik ezagututen dozuz zuk Fernando ta Inasi? —galdetu zion.

—Fernando aspalditik ezagutzen det. Maiz etortzen da frontoira Zubirirekin. Representantia da. Esan diteke Arrigorrietan egiten diran gauza guztiak saltzen dituela. *Urli Berendi y Compañía* etxeak Gran Vian dauka denda bat, eta Fernando ezarri dute han nagusi bezela.¹³ Askotan egon naiz bere itxean eta Inasi ta Iziartxo ere ezagutzen dittut. Emakume finak, beti lanean, han danak ekartzen dute dirua itxe'a.

Orain urdinei azkeneko tantoa baino etzaie falta ta Etxeberria ta Txomin zutik dagoz barr'a joateko prest.

Etxeberriak alde bietara irabazten du eta bost edo sei paper dauzka eskuetan. Txominek bat bakarrik, eta ezer ere balio ezteula erranen bagendu gezurra erranen genduke, larogei hogerleko ordaindu beharko baitu. Iziartxuren novioaren berria jakin zuanetik etzuen gehiago jarraitu joko. Hain gaizki hartu zuan albiste hau!

—Ez al dezu besterik gorriya baino? —galdetzen dio Etxeberriak—, izan dezu ba okasiyua kubritzeko. Lotan zaude, Txomin, lotan.

—Gorrixagaz hasi ezker, irabazi edo galdu ta kittu! —erantzuten dio Txominek.

Bukatu da partidua. Lau adiskideak eta beste jende asko ere, jeiki ta astiro-astiro, ahal dan moduan, exeritako ikusleen belaunek eta aurreko alkien bizkarrekoak uzten dituzten bitarte estuetatik zeihar, alki-zerrendeen arteko zurubietara, eta gero zurubietatik gora, batzuk barr'a eta beste batzuk komuna joaten dira.

Adiskideak barr'ean dagoz. Berak ardo zuria eskatzen du. Ezta Valdepeñaskoa eta askoz indar gehiago dauka. Hobeto. Berriak nahiz oso onak nahiz oso txarrak diranean, ardo egarri sentidu ohi da beti Txomin. Onak diranean zoriona ospatzeko,

¹³ Hemen, eta beste pasarte batzuetan ere, eta beste elaberrietan berdin, jotzen du *urli* eta *berendi* izen generikoetara. Batzuetan pertsonaia benetakoan anonimotasuna gorde nahi duelako, beste batzuetan, garrantzi handi bakoak izanik, egiantzeko izenik sortzearen beharrik ikusten ez duelako.

txarrak diranean amildutako gogoa jasotzeko. Bainan etzuan inoiz edaten mozkorra arrapatzeko beste.

Han dagoz Sudurrandi ta Besoluze, Txominek aspalditik eza gutzen dituan pelotariak. Basua hustu ta beste bat eskatzen du, eta eskuan beterik daukala Sudurrandirengana doa.

Erderaz hizketan bere ezagun batekin, pelotariak eztu ikusi Txomin. Beronek lepoko bat ematen dio.

—Kaixo Txomin! —erraiten dio berari, bainan segi hizketan erdeldunarekin eta eztio gehiago jaramonik egiten. Txomin elkarriketää entzuten jarten da, noizik behin txurrutada bat harturik.

Orain erdeldunak egiten du berba. Frontoietan tongo asko egiten dirala eta pelotariak nahi dutenean irabazi eta nahi dutenean galdu egiten dutela.

Sudurrandik ezetz. Pelotariak *contrato* bana daukatela etxearekin eta batzuk besteak baino bi bider gehiago eramaten dutela partiduko. Hobetoen jokatzten dutenek gehien noski. *Intendente*-ak gero, partiduak antolatzerakoan, gero ta gogorrangoak ipintzen dizkiotela partiduak irabazten dituztenei. Hunela hartzen zaiola neurria pelotariari, eta gehiago irabaztea nahi duanak, hurrengorako *contrato* hobeia lortzea nahi duanak, ahaleginak egin beharko dituela ez galtzeko.

Halaz ere, dio erdeldunak, apostuetan diru nahikoa irabazi ezkeru, baliteke galtzea komeni izatea.

Sudurrandik orain ere ezetz. Partidu batean diru asko irabazteko, dio berak, eta asko izan beharko da galtzea komeni izateko, diru asko atera beharko da pelotariaren aurka. Eta apropos galtzera doala ezta kitenentzat, batez ere *corredore*entzat eta ohiturazko diru-jokalari purrukatuentzat (*puntos* direlakoentzat) diru hau gaizki jokatu izanen da. Hau ezta ikusten egunoro, ergelak ere diru kontuetan zoliak izaten baitira. Buru guztiak beregana okertuta “nor da hori?” galdetuko dute ohiturazko diru-jokalariak, dirua horrela botatzen duanarengatik. Eta gero, gaizki jokatu arren, *punto* berriak dana irabazten duela ikusten dutenean, berehala ikusiko da tongoa.

Bigarren partidua bukatu eta berriz barr'a doazenean, oster hasten da Txomin ardo zuri sendoa edaten. Diztiratsuak ditu begiak eta kendu zaio lehenago sentitzen zuan urduritasuna eta ezinegona. Eztu erakusten beste ordikeri-ezagupiderik, bainan Etxeberriak,

—Etzazula eran gehiegi gero! —erraiten dio—, mozkorra da Iziartxorentzat munduko gauzarik nazkagarriyena. Gehiegi eranda ikusten bazaittu eztizu gehiyo arpegira begiratuko.

—Ba, baa, baaa!... —ihardesten dio Txominek—, ta neuri zer?... Ze ardura deust neuri Iziartxuk arpegira ez begiratzeagaitik?

Besoluzekin dagoen gazte baten arpegia, euskaldun baten arpegia da dudarik gabe, pentsatzen du Txominek. Hurbiltzen zaie ta justo, euskalduna da, euskaraz ari baitira biak. Mugaz bestaldekoa da. Eztauka adiskiderik Madrident Besoluz, Sudurrandi eta beste pelotari batzuk izan ezik, eta gainera eztaki espainolez. Besoluzek adiskide asko dauzka frontoira etortzen dan jendearen artean eta eztute uzten bakean minuto batean ere. Gehien-gehienak erdeldunak dira. Orain ere erderaz hasi da beregana etorri dan berritsu batekin. Eta Txomin mugaz bestaldeko euskaldunarekin hasten da hizketan.

—Baionako mutil bat ezagutzen dot nik —esaten dio—, Madrillen lan egiten dabena. Jakituri handiko gizona. Nire adiskide bategaz egiten dau lan.

—Adiskide bategaz? Zer da bategaz? —galdetzen dio besteak.

—Adiskide batekin.

—Aaa! ba, zure adiskide batekila.

—Ezagutuko dozu zuk. Uste dot oso ezaguna dala Baionan. *Aviron Baionnaisen* jokutzen ei eban urte batzuk dirala. Zure edadekoa edo da.

—Ene edadekoa? Zer da edadea?

—Zure adinekoa. *Monsieur* Urli dau izena.

—Aa! *Monsieur* Urli? Ba, ezagutzen dut ba.

—*Rugbiko* jokalaria ona ee?

—Horrek eztu nihoiz iokatu *Aviron Baionnais* delakoan.

—Ezteutsut aittuten, adiskide. Zer da nihoiz?

—Nihoiz... behin ere ez, sekulan ez.

—Aa! Bai! nihoiz... inoz esaten dogu guk!... Zer? Eztauela jokatu *Aviron Baionnaisen*? Baietz gizona! Berak esan euskun nire adiskideari ta niri, bere ugazaba da nire adiskidia...

—Emeki-emeki, adiskide! Badantzut erraiten duzun guzia, bainan eztut konprenitzen ahal. Anitz eskuara aditu dut, bainan nihoiz ere eztut entzun *esan euskun ez ta ugazaba*.

—Esan euskun... esan zigun, hitzez adierazi zigun.

—Aa! Ba, erran zeraukun.

—Ugazaba... jabiari, nagusiari esaten deusagu ugazaba Bizkaian. Nire adiskidia da bere nagusia. Berak erran zigun, bere jabiari eta niri, rugbia zala bere afizinoa...

—Afizinoa?

—Bere zaletasunik handiena, eta o'ndino gomutetan jat ondo ondo...

—Zer?

—Parkatu... oraindik oroitzen zait arras ongi nola esplikatzen eusk... nola esplikatzen zigun, sakia ateratzeko pelotia heltzen euts... heltzen zion jokalariari, zelan... nola sartzen eutson burua basatzen.

—Sartzen eutson burua basatzen?... eztakit zer dan hori.

—Basatzen... lokatzean... buztinean... burua sartu... besteari.

—Aaa!... Ba! Konprenitzen dut, adiskide! Urli jaunak anitz gezur erran derauzkizute.

—Guzur asko esan deuskuela?

—Ba! Guzur asko! Urli jauna beti izan da muttiko ahul bat. Luzaz eri izana.

—Eri izana?

—Ba, eri... gaizki... ohean...

—Aaa!... geixorik!

—Eztu horrek nihoiz iokatu ez rugby ez pilotaz ere. Arras ezaguna dugu Baionan. Espainiarat jin ezpalitz...

- Xin ezpalitz?
- Etorri ezpalitz. Espainiarat etorri ezpalitz presondegian sartuko luketen Frantzian.
- Presondegian? Berba hori barrixa da niretzat, adiskide.
- Presondegian... giltz-pean...
- Aaa! Bai!... Presondegian, presoan tegian, kartzelean... Zer egin deu ba?
- Alemanekin kolaboratu. Alemani lagundu.

VII

Hirugarren partidua bukatu zanean, danak hasi ziran kaleruntz.

Aurreko exertokiak hustu ziranean Txomin beheruntz abiatu zan pelotatoki ondora, korredoreen tokira. Handik lasaiago ibiltzen zan, jenderik ezpaitzegoan. Oso ongi argituta egon arren, tristea zan pelotatokia pelotariak joan ostean. Goiko argi bizi-biziak etziran ikusten jendearen lekuetatik, baina bai Txominek hartu zuan bidetik. Ezkerrean goiko aldean jende asko zutik astiro-astiro zuru-bietaruntz. Txomin ia ate ondoan sartu zan jendearen artean.

Laister kanpoan lasai-lasai, ateruntz begira jartzen da. Mila aurpegi hurbildu eta ondotik igarotzen zaizkio. Lodiak eta argalak, gazteak eta zaharrak, ez gazte ez zahar... noizik behin neskak... politik, itsusiak, zaharrak... Sudur handiak, txikiak, zabalak, meheak, biribilak, zorrotzak, motzak, puntaz gorakoak, puntaz beherakoak...

Hara Apalategi eta Piarres, mugaz bestaldeko euskalduna. Hara Etxeberria, Besoluze ta Garmendia...

Paseo de la Castellana deritzan egurastegitik orain ezkerreko aldetik, etxe ta denden ondotik.

Itxaron tranvia zaratatsu bat igaro arte (oraindaino Madrid orduan tranviaz beterik zegoan) eta erdiko pasilekura (*Castellana* erdiko partean pasileku bi dagoz. Erdi-erdian automobilak dabiltz).

—“Non ote dabiltz besteak?” Begiratu atzeruntz eta hara han urrun. Eskuekin keinuak egiten dizkiote elkarri.

Ezkerreko aldean *Biblioteca Nacional* delako harrizko jauregia ikusten da. Han dagoz oso gogaituta igandea igarotzen harrizko irudi handiak, batzuk exerita harrizko zurubi ondoetan, besteak zutik zurubi gainean, aintzineko janzki barregarriekin, betiko egokera ergelean, teatro egiten zaudela gogortuta gelditu bailirean.

Bere adiskideak *Génova* kaletik sartu dira eta Txomin hara doa *Castellanatik* zeihar euren bila. Han dagoz bere zain metro-rako sarbidean. Badatorrela ikusten dutenean beheruntz hasten dira. *Sol* deritzan geltokian ateratzen dira. Handik *Victoria* kale-ra, euskaldunak biltzen diran ardantegietara.

Piarres eta Garmendiaren atzetik, Txomin bar batean sartzen da.

Frontoitik harako bide guztian Piarres eta Garmendia elkarrekin etorri dira euskaraz hizketan, bainan entzun morroi bati:

—*A ver aquí! Esos pinchos morunos!* —garraisika esaten eta Piarresek:

—Zer da *pinchos morunos*? —itauntzen du Txominen ondoan dagoela.

—Ziur-ziur eztaikit nik zer diran, inoz eztozez jan da. Uste dot okela zatiak burdinezko alanbre batetik pasatu ta erreak dirala —ihardesten dio Txominek.

Garmendiak orduan,

—Txomin, —erraiten dio—, nola nahi dezu Piarresek konprenitzia zure euskera zatar hori? Okela ez, haragiya baizik, burdina ez, burnia baizik.

Piarresek Garmendiari:

—Okela ongi dago, guk ere okela erraiten dugu. Eta guk ezтуgu erraiten burnia, burdina baizik —esaten dio.

—Horra geure euskera txarra! Kokolokeri handiagorik ezta-go, zure herrian entzuten ezтана txarto dagoela esatia baino. Bakotxarentzat bere herrian ikasi dauena da onena.

—Arraiua! —dio Garmendiak—. Harrituta utzi nauzute.

Txominek orain seltzekin edaten du gutxika-gutxika ardo zuria.

—Galde ‘in behar degu —dio orain Garmendiak—, ia Brasileko berririk ote dagoen.

—Ez, alperrik da itauntzia —ihardesten dio Txomin’ek—, goizegi da o’indino, hango erlojuak lau ordu atzeratuta dagoz geurien aldien da.

—Zer gertatzen da ba Brasilen? —galdetzen du Piarresek.

—Gaur jokutzen dute han —erantzuten du Garmendiak—, Espaina ta Ingalaterrako ekipoak footballleko munduko kanpeontorako.

Hango ardantegietan apalorduraino ibili ostean, etxera.

VIII

Txominek Iziartxo maite zuana dudatu ezineko egia bat zan eta halaz ere, jateko gogo handiarekin hurbildu zan mahaira apalorduan. Hau harrigarria da benetan, bainan irakurleak sinestuko ezpadigu ere, guk eztugu idatziko hemen egia eztana. Ikusten zan ez liokela kenduko jateko gogo munduko neska batek.

Oherakoan asko kostatu zitzaion lokartzea. Bira ta bira, erdi esnatuta, erdi lo, ezin zuan kendu burutik Iziartxo ta ikaslea.

Azkenean baketu egin zan. Begiak itxita, arnasa sakona ta sendoa egin zitzaion.

Iziartxo ta ikaslea ikusten zituan. Bere aurretik zoazten. Atzetik ikusita ikaslea morrosko handi bat zan. Txomin orduan arinarin joan zitzaian aurrera arpegiz ikusteko ta... ezetz igarri nor zan ikaslea?... Txominen aita!... Iziartxuk Txominen zapatak zeramazkian jantzita eta hau dana Arrigorrietan gertatzen zan, *Paseo de la Castellanan* (paseo hau ere Arrigorrietan zegoan).

Txominek pelotaka jokatzeko txistera eder bat zeraman lotu gabe eskuan eta Iziartxori eman zion. Iziartxok eskerrak eman zizkion. Asko poztu zan halako txistera bat edukitzeaz, aspalditik ibili zan txistera baten bila. Beharrezkoa zuan makailoa ondo preparatzeko ta Txominekin pasiatzen hasi zan.

Artean etzan ikusten aita. Desagertu egin zan...

IRAKASLEEN AUTOBUSA

I

Hamabi egun igaro dira erranikako igandetik. Txomin ezta bizi orain Fernando ta Inasinean. Behin, etxerakoan, apaltzera trankil-trankil zoala, bat batean, Iziartxu ta ikaslea aurkitu zituan atarteko baztar batean txuku-txuku hizketan. Sartu zan igo-tramankuluan, eta bihotza gangarrarekin juntatu zitzaion. Traman-kulu zaratatsuaren gainetik entzuten zituan bere bihotzaren tau-pada izugarriak. Ezin egon eta ausartu zan gero Iziartxuri eskatu-ten ikaslea utzi eta berarekin hasteko, bainan neskäak oso txartzat hartu zuan hau, eta “nortzat hartu nozu?” eta honelako gauzeekin hasi zitzaion. Orduan Txominek aitzaki bat asmatu zuan etxe hartatik alde egiteko. Urrunegi zegoala Jaime Ostos kalea bere lanera joateko, Moncloa deritzan enparantzan hartu behar baitzuan autobusa egunoro-egunoro. Halan ba, Moncloaren inguruetakoko etxe batean sartu zan apupilo eta alde egin zuan, bainan Fernandonekoekin egindako adiskidetasuna hautsi gabe.

Madriden gaur, ia beti bezela, oso ederra da eguraldia eta eguzkiaren argi biziak, batzuetan begiak mintzen baditu ere, baztar guztiak alaitzen ditu, bihotzaren goibeltasunak aienaturik.

Universitariarako autobusean sartuta Txominek egunorokoa irakurtzen du. Goizegi etorri da eta bakar-bakarrik dago bera barruan leiho baten ondoan exerita. Txoferra kanpoan dago zigarrorotxo bat erretzen eguzkitan.

Ipar-amerikanuen atzerakada berri bat Korean. Yankeek Kum ibaiaren zubi guztiak saltarazi dituzte...

Minutu batzuk eta hiru gizon sartzen dira batera autobusean, bainan Txominek, egunorokoan murgilduta, ohartu ere eztu egiten.

Brasilek Espaina garaitu du football jokoan. Sei goal sartu dizkio eta Espainak bat baino ez. Espainako hamaika ostikolariak oso nekatuta agertu dira. Brasilgoek arras ongi jokatu dute...

Orain gazte bat exeri da bere ondoan.

Hasi da Frantziako Itzulia, Le Tour de France. Jean Golds-ek (Luxembourg) irabazi du lehenbiziko bide zatia, Paris-Metz...

Jaso begiak paperetik, eta bere aurrean exerita dagozen bost gizonak aztertzen hasten da. Gaur esan diteke ia-ia bakoitzak bere kotxea daukala, bainan orduan ez, orduan oso gutxi ziran kotxea zeukaten handikiak, eta *Universitariako* fakultadeetara joateko irakasleak eta *Instituto Nacional de Electrónica* eta honelako tokietan lan egiten zutenak, automobiletan joan beharrean, gaur bezela, honelako autobusetan joaten ziran. Sartu dira gutxika-gutxika beste gizon eta emakume batzuk ere bera irakurtzen zegoala, bainan esandako bost gizonen euren ganatzen dute bere arreta guztia.

Euretako bi handikiak dira itxuraz. Batak, hile zuriduna bera, hirurogei bat urte ematen ditu, besteak berrogeita hamar bat. Biek bakarrik hitzegiten dute. Beste hirurak gazteak dira. Bi handikien atzean exerita dagoz, eta bestea aurrean. Aintzinean dagoenak gibelat okertzen du burua handikiei so.

Gazteek ez tute hitzik ere erraiten. Bakarrik entzun eta, batez ere aurrekoek, burukadak eman baietz adierazirik. Atzekoek ez tute burukadarik ematen handikiek ikusten ez tituztelako, bainan adi-adi entzuten dute dana garaian eta handikiek entzuteko moduan far egiteko.

Badaki Txominek ondo-ondo zer gertatzen dan autobus hon-tan. Urtebete dala, bera ere gazte hoiek bezela zebilen.

Zer dago hemen inor harritzeko? Itaunduko du beharbada irakurleak, baldin Madrیدهko ohiturak ezagutzen ez paditu. Den-

bora hartan Euskal Herrian ere hunelako errespetoa erakusten zioten gazteek zaharrei...

Bainan hau etzan Madrident jazotzen zana. Han adina etzan ezer, gaur Euskal Herrian ere eztan bezela. Han edozein gazte batek esaten zion hirurogei urteko gizon bati “*Oye Pepe!*”, eta hau euskaraz hitanoka hitz egitea lakoxea, edo beharbada errespeto gutxiagokoa zan.

Adina ezer ezpazan, pentsatuko du orain beharbada lehenago esandako irakurleak, jakituria zan noski Madrident errespetatzen zana.

Ez, etzan adina, ez ta jakituria ere Madrident errespetatzen zana. Hizketan ari ziran handikiak Unibersidadeko *catedrático*ak ziran, eta ixilik eta bildurrez entzuten zioten gazte gaixoak *profesores ayudantes* baino ez. Alperrik izango litzake beste arrazoirik bilatzea.

Eskerrak ematen dizkio Txominek Jaungoikoari bihotz barne-barnetik, eztuelako egin behar gehiago gazte hoiek egiten dutena...

Esate baterako, orain autobusean (hau baita irakasleen autobusa) adi-adi egon behar dira, *catedrático*ek esaten dutena entzuten, eta noizik behin, bai ta hitz bakan batzuk esan ere. Baldin *catedrático* batek hotz dala esaten badu, “bai bai, hotz handia dago” esan behar du berehalaxe *ayudante*ak, eta baldin bero dala esaten badu, “bai, sargori dago.”

Autobusean eztira mintzatzen *catedrático*ak euren espezialidadez, euren jakintza-adarrez, eta eurek beste, eta askotan gehiago, jakiten dute *ayudante*ek han erabiltzen diran gaiez: Football jokoa, Koreako gerratea, edo honelako gaiak izaten dira autobuseko solasetan erabiltzen diranak. Halan ta guztiz ere dana entzun behar dute adi-adi *ayudante*ek, ajola gutxi *catedrático*ek dioten guztia lehendik irakurrita eduki edo eurek baino hobeto ezagutzen badute gaia, ajola guti kirtenkeririk handienak entzun behar badituzte ere. Baina ez bakarrik adi-adi entzun, hori ezta ezer, noizik behin baietzko burukadak ere eman behar dituzte. Eta

dotrinako umeek ezagutzen duten gauza bat bada ere, “Ooo! ooo! Handia da gero...” eta honelako soinuak atera behar dituzte.

Ayudante baten aita ardo egile ta saltzaile handia zan. Bere mahasti zabaletako biltzaro bakar batean hartutakoa Espainako ayudante guztiek irabazitako diru guztia baino gehiago balio zan, eta bere semea, ur-edalea eta ayudantea izan arren, jakituna zan ardo kontuzko hartu-emanetan. Hain zuzen ere, zentzura etorri zanean, unibersidadea utzi eta aitarekin lan egitera joan zan eta orain aberatsa da. Haurzarotik ardo artean ibilia izanik inork ere etzekian autobusean berak beste gai hontaz, baina honelako *catedrático* bat, ardoz mintzatzen zala, hasi zan tontokeriak esaten eta ayudanteak baietzko burukadak eman eta erranikako soinuak atera zituan.

Behin Txominen aintzinean ere ordu lauren egon zan hizketan *catedrático* bat Euskal Herria eta euskaldunak zirala gaia, eta esan zituan kirtenkeri ta gezurrak erraiteko, unibersidadeko *catedrático* batek izan ezik, hiru ordu gutxienez behar izango lituke edozeinek. Eta Txominek zer egin zuan? Arrisku handia pasatu. Etzuan baietzko burukadarik eman eta etzituan ohiturazko soinuak atera, bainan bai beste ayudanteek, eta bestetan baino berotasun handiagorekin. Orain danak zauden ados *catedrático*arekin Txomin izan ezik. Orduan Franco gaztea zan eta euskalduna izatea pekatu mortala zan.

Bainan ayudante izan dan batentzat hau ezta harritzeko. Ayudantea ezta inor *catedrático*aren ondoan. Astean behin biltzen ziran Txomin eta beste ayudanteak ikasgela batean *catedrático*arekin. Han sartu baino lehen kanpoan egon behar izaten zuten itxaroten, batzutan ordu lauren, askotan ordu erdi, eta behin baino gehiagotan ordubete baino luzarago. Klaustrotik zetorrela ayudanteek zutik jarrita agurtzen zutenean etzan gelditzen *catedrático*a, etzizkien ematen lepoko batzuk, eta danentzako zigarrorxoak atera ta, etzien esaten parkatzeko berandu etorri zalako, eta ayudanteek etzioten ihardesten urrengoan garaian etortzeko, bestela joan egingo zirala ta. Ez, zuzen-zuzen segi bere bidetik eta

ia begiratu gabe ta ozta-oztan errespetoko agurra erantzun eta riast sartzen zan *bedelak* zabaltzen zion atetik.

Eta gero, atea itxita eta ayudanteak kanpoan, beste hogeitau minutu egoten zan problemak atontzen, edo egunorokoa irakurtzen, edo hitz gurutzatuak ateratzen, edo... nahi zuana egiten. Azkenean tinbrea jo eta *bedela* joaten zitzaion. Beronek gero beste ate bat zabaltzen zuan, eta ayudanteak handik sartu ostean, beste lau edo bost minutu egoten ziran ikasgelan, gizon handiaren zain. Agertzen zanean danak zutik, berriz berak, ondo exerita, jesarteko keinua eskuaz egin arte.

Harrigarriagoa dirudi ayudanteen apaltasunak *catedrático*oen harrokeriak baino. Hau dana zan higuingarria Txominentzat. Gaurko gazteek elukete jasango honelako gauza bat, eta arrazoia-rekin. Etzan agertu Moises handiagoa gizon arrunten aurrean, legearen harriak erakutsi zizkienean, Sinai menditik jeitxi ostean.

Arrigorrietan, injenieru bat zapata-konpontzaile baten anaia zan eta, lanetik kanpo, biak ziran berdinak gauza guztietan. Sendagileak, injenieruak, arkitektoak, arotzak, nekazariak, kale-garbitzaileak... danak ziran berdinak arrigorrietarrentzat. Gizon bat ezta beste gizon bat baino handiagoa, danok gara gutxi gorabehera berdinak. Egi-egia esateko, autortu beharko dogu etzerala danak berdin-berdinak tratuan. Han ere ikusten ziran ezberdintasunak haurzarotik hasita. Bainan etziran Madridekoen antzekoak.

Ikusten zuan oroimenaren begiekin nola jeiki zan beste guztien gainetik mutiko bat Arrigorrietan. Mutikoak belarriak mugitzen zekian. Bainan etzan harrotu, danekin ibiltzen baitzan beste edozein mutiko bat bezela.¹⁴ Gero pelotaka hobekien jokatzen zuana, edo hormatatik edo zugaitzetatik gora arinen igotzen zana, edo xeibrekeririk onenak egiten edo esaten zituana izaten zan

¹⁴ Idazleak hemen eta beste obra batzuetan ere idazten ditu *edozein* eta *bat* sintagma berean duten egiturak, ohitura nagusiaren arabera *beste edozein mutiko* edota *beste mutiko bat* idatziko lirakekeenak.

osperik handieneko gizona. Bainan inor ere etzan harrotzen bere handiagotasunarekin *catedrático*ak bezela.

Huna zer eginen luken berak gobernuko lehendakaria balitz: lehenengo-lehenengoz atera On Bixente unibersidadetik eta jarri atezain bezela *ministerio* batean, handikiak azpitik ikusita nola-koak diran ikas dezan eta komunak garbituerazo. Egunoro agurtu beharko luken On Domingo hemendik, Agirre jauna hortik, eta Txomin, gobernuko lehendakaria, harro-harro igaro eta elioken jaramonik ere eginen.

Honelako oldozmenekin baketuta, exeri zan gizon handiak esan behar zuana entzuteko.

Etzuten hartzen dirurik ayudanteek euren lanagatik. Astean lau bider etorri behar ziran ikasleei problemak eginarazteko, eta ulertzen etzutena azaldu, etorri etziranen izenak hartu, bildu papearak bukatzen zutenean, eta gero aztertu danak ondo etxean, markatu bakoitzari merezi duena numeru batekin eta urteko ikastaroa bukatzen zanean eramanez *catedráticoari*, aginduta zegoan bezela, tokatu zitzaizkion ikasleen izen zerrenda luzea bakoitzak merezi zituan puntuekin. Anitz orduko lana eta Txominek arreta handiz egina, ezpaita ahuntzaren gaberdiko estula, problemak milaka aztertzea, bakoitzari merezi zuena ematen saiaturik, kontzientzi garbi batek eskatzen duan bezela. *Catedrático*ak orduan, hartu lan handiko paper hura ta otzarara botatzen zuan irakurri gabe.

Lan egiten duenak, asko edo gutxi, beti gura izaten du dirua irabaztea, eta hau lortzeko ayudanteek gauza bat egitea asmatu zuten: Joan egunoro On Bixenteren klasera, idatzi esaten zuan guztia, atera cyclostilez, eta saldu ikasleei.

Idatzita zeukatzen lehenengo hilabeteko guztia cyclostilez atarateko prest, Txomin beste ayudanteekin exeri zanean Moises bigarrenak esan behar zuana entzuteko. Ayudante bati otu zitzaion orduan cyclostilekin hasi baino lehen baimena eskatu behar zitzaiola On Bixenteri.

—Bai —esan zuan Moisesek—, ondo deritzat, bainan eztuzue eskatu behar xentimo bat ere gehiago, papera eta cyclostilean

gastatzen duzuen baina, hortik pasatzen dan diru guztia nereada ta.

On Bixentek etzeukan eskubiderik *derechos de autor* (egileari zor zaiona) eskatzeko, ezpaitzegoan ezer bere klaseetan besteek egindako liburuetan agertzen etzanik.

Apunteak ardoa bezain errez salduko ziran. Liburu askotan sakabanatuta arkitzen dana orri pilo batean eukitzea bentaja handia zalako eta gainera On Bixentek azterketetan huraxe bakar-bakarririk eskatuko zualako.

Eztira *catedrático* guztiak On Bixente lakoak, badagoz edozein gizonen antzekoak ere, “nor zera zu?” galdetzen zaienean izena ematen dutenak, José Perez, edo Benito Lekuona, edo hone-lakoen bat. Bainan izena eman beharrean beste batzuk “Zaragozako Unibersidadeko Anatomia Patologicako *catedrático*” edo honelako ihardespren bat ematen dute.

II

Hasi zan autobusa *Universitariaruntz*. Eskumako goi aldetik, urruti xamar, tranvia urdin bat zoan zarata handiarekin pare-parean, eta albotik arin-arin bi ikasle moto baten gainean eta gero automobil bat, eta gero beste bat, eta gero beste bat... denek uzten zuten atzean autobus astun zaharra, tranviak izan ezik.

Ayudanteak gogogabeko barre algarazka hasi ziran. *Catedrático* batek zozokeriren bat esan zuan noski far eragiteko asmoz eta ayudanteen zereginen artean zegoan honelako zozokeriak entzuten zituzten bakoitzean far egitea. Eta pentsatu hau dana ayudante gaixuek duan, ezer kobratu gabe egin behar zutela!...

Universitariako eliza berri gorria atzean ikusten zan eskumako aldetik, eta han urrun, jendearen buruen gainetik Arkitekturako Eskola Nagusi zuriaren goiko partea. Tranviaa bere geltokian utzirik orain eskumara jotzen du autobusak. Leihoak zabalik dagoz eta pinuen usaina sentitzen da. Medizina Fakultatea atzean utzi ostean, laster gelditzen da autobusa eta, banan bana, danak jeisten dira.

Madridekoak izateko *Universitariako* lurrak berdeak dira, batez ere urrunetik ikusita, baina *Facultad de Ciencias* delakoaren etxe gorrien aurreko enparantzan, lur leihorra eta hautsa baino ezta zapaltzen. Eztakigu Atilaren zaldiak zapaldu ote zuan, baina han ezta inoiz belarrik jaiotzen.

*Catedrático*ekin orain neskazahar batzuk doaz, ayudanteak dira eurak ere. Besteek orain atsedenaldua daukate eta lasai-lasai doaz eskuma ta ezkerreko alboetatik erretzen. *Catedrático*oen hitzak eztira heltzen euren belarrietaraino eta eztira ahalegindu behar entzuteko, euren nagusiek orain nahikoa daukate neskeen farrekin eta.

Aitortu behar da, mutilak baino askoz trebeagoak dirala neskek honelako zereginak behar dan moduan betetzeko. Benetan egoten dira *catedrático*oen ezpainetatik dingilizka eta eztute egiten noizik behin bakarrik ja! ja! ja! mutilek bezela. Ez, baldin *catedrático*ak esaten duena barrea eragiteko asmoz esana dala susmatzen badute, denbora luze-luzean egoten dira jijijiji jajajaja egiten nekatu gabe, eta gauza serioak entzuten dizkietenean, mutilek baino egi kutsu handiagorekin ateratzen dituzte euren harrigarritasunezko soinuak. Honela egiteak arreta gehiago eskatzen du beti, barregarrikeriak harrigarritzko gauza seriotzat, eta gauza serioak barregarrikeritzat hartzeko arriskua askoz handiago baita. Ja! ja! egiteko denpora nahikoa hartzen baduzu *catedrático*ari begira zagozala, beti daukazu denbora nahikoa ixiltzeko, baina jijijiji eta jajajaja hasiz gero neskeen moduan gerritik okertzen zarala, nola gelditu garaian *catedrático*aren arpegia ikusten eztuzala?

*Catedrático*ak eta euren jarraitzaileak *Pabellón de Químicas* delakora buruz zoaztela, Txomin ezkereruntz joan zan, *Pabellón de Físicas y Matemáticas* delakoan sartzeko asmoz.

INSTITUTO NACIONAL DE ELECTRÓNICA DELAKOAN

I

Atartea igaro eta eskumara jo zuan. Kanpotik etorri berria ta eguzkiaren argia begietan, ilun zegoan dana beretzat oraindik. Bidea ondo ezagutzen duan itsu baten moduan ibili zan ate baten bila. Aurkitu ta sakatu zuanean inaaa egin zuan kurrinkadäa.

—*Qué hay, Rodríguez. Buenos días* —esan zuan.

—*Hola, buenos días.*

Han etziran sartzen eguzkiaren dizdira bizi-biziak, bere begientzat biziagiak eta ia mingarriak, baina leiho handi-handi bat zegoan eta orain nahiko ondo ikusten zituan ohiturazko gauzak.

Joan ezkerreko bazterrera, kendu txakea, jantzi kakotik hartutako bizar-kentzaileen moduko burtza zuri bat, hartu liburu bat eta paper zurizko orri batzuk eta beste mahai ondoan exertzen da, Rodriguez dagoen lekutik beste puntan. Zabaldu liburua eta irakurten hasten da.

Gela hartan agertzen diran antzeko elektrizidade tresnak eztira sarri ikusten: mikro ondetako bankua, klystrona eta magnetrona elikatzeke elektrizidade iturri berezia, ispiluzko voltmetroa, eta abar... Idazmahai handi bi dagoz eta gainean liburu berri eder asko, gehienak ingelesez, batzuk alemanez... bat ere ez espainolez.

Sartzerakoan eskumako aldean Rodriguez dago, Txominenaren antzeko burtza zuri batez jantzia horma ondoan exerita, mahaia aurrean duala. Bi liburu handi dauzka zabalik, bata numeruz beterik eta bestea erdi hutsik. Eskumako aldean multiplikatzeako makina elektrikua. Irakurri numeru batzuk liburuan eta klikli klakla kloklo markatzen du. Tramankulua (ez ahaztu 1950garren urtean gagozela) berez hasten da kriski kraska kraust gurpiltxoak mugitzen, eta gero tipuski gelditu eta ixil-ixilik geratzen da. Begitu orduan ondo makinäak diona eta Rodriguez liburuan idazten jartzen da. Berriz klikli klakla kloko, eta berriz kriski kraska kraust... eta hola.

Jeiki eta berriz doa Txomin txakea eskegi zuan tokira. Burtza zuriaren goiko sakel txikian letra gorriekin “D. Arregui” dauka idatzita eta azpian “INF” letra handiagorekin. Sakelean bilatu eta lumäa, zigarrotxoak eta mixtoak hartu ostean, berriz exertzen da bere tokian, dana mahai gainean utzirik. Tramankulua ixiltzen danean, jaso zigarrotxo bat eta,

—Pxxxxxxx! —egiten du Rodriguezegana so.

Beronek eskuak juntatu eta Txominek sast botatzen diola, aidean hartzen du.

—*No ha venido el jefe?* —galdetzen dio Txominek zigarrotxoa expainetan, mixto bat biztutzen duala.

Rodriguezek, su-pizlea biztuta arpegi aurrean, mosu batzuk eman zigarrotxoari, sudurziloetatik ke xirrist bana bota erensugeak bezela ta,

—*No, todavía no* —erraiten dio erlojura so—, *es temprano todavía* —gaineraturik.

Zabaldu liburua paper punta batekin markatuta dagoen tokitik eta Txomin irakurtzen, aztertzen eta oldozten hasten da.

Hartu lumäa eta honela idazten du:

$$E_x = \sqrt{\frac{\mu}{\epsilon}} e^{j\omega(t - \sqrt{\epsilon\mu}y \text{ sen } \theta)} (A e^{-j\omega\sqrt{\epsilon\mu}z \text{ cos } \theta} - B e^{j\omega\sqrt{\epsilon\mu}z \text{ cos } \theta})$$

Multiplikatzeko tramankuluaren soinuak beste lelo luzeago batekin hasten dirala, ihes egiten dio oharmenak elektrizidatezko kalkuluetatik... Lumäa utzi, ukondoa mahaian eta matela eskuan ezarri, ta hartu zigarrotxoa ezkeraz, utzi gehiegizko errautsa hautsontzian eta ke txirristada bat botatzen du. Orain, begiak zabalik eta geldi-geldi eduki arren, eztu ohartzen han ikusten edo entzuten duan gauzarik. Urrun dauka irudimena...

Zeozter dago noski bera ta Iziartxuren arte. Ezin pentsatu ajolik ere etzaiola Iziartxuri beragaitik. Senargaia uzteko eskatu zionean neskäaren hitzak latzak izan ziran benetan, bainan bai ta arras samurrak etxetik alde egin zuanean bota zizkion begitadak ere... Eta Iziartxu etzan gizonai begiekin gezurrak erraiten dizkio ten moduko neskäa...

Ikaslea, bera baino lehenago heldu ezpalitz!... Eta baldin ikasleak Iziartxuz nekatu ta uzten bazuan?... Hau elitzake izango inor harrizteko gauzäa. Erdeldunek emaztegai asko izaten dituzte...

Baaa... bainan andregeia Iziartxu bezelakoa duanak eztu errezkiz utziko... Iziartxu bezelako neska gutxi topatu diteke...

Halan ta guztiz ere, berak etzuan galduko itxaropena Iziartxu beste batekin ezkondu ta ikusi arte.

Hamar minutu igaro zitzaizkion honela ohartu gabe, bainan gero,

—Arraiua! —esan zuan bere kolkorako—.

Zer da hau? Ahaleginak egiten ezpaditut, eztut jakinen behar dan garaian nagusiak agindu zidana! Eta arreta handiarekin saiatu ta honela jarraitu zan idazten:

$$H_y = \cos \theta e^{j\omega(t-\sqrt{\epsilon}\mu y \text{ sen } \theta)} (Ae^{-j\omega\sqrt{\epsilon}\mu z \cos \theta} - Be^{j\omega\sqrt{\epsilon}\mu z \cos \theta})$$

$$H_z = \text{sen } \theta e^{j\omega(t-\sqrt{\epsilon}\mu y \text{ sen } \theta)} (-Ae^{-j\omega\sqrt{\epsilon}\mu z \cos \theta} + Be^{j\omega\sqrt{\epsilon}\mu z \cos \theta})$$

.....

II

Oraindaino egiteko zegoan *Instituto Nacional de Electrónica*-ren etxea, eta artean laboratorio asko zeuzkan *Facultad de Ciencias* eta *Escuela de Ingenieros Industriales* deitzen ziran ikastetxe-etan sakabanatuta.

Ordubatetan lana utzi eta bazkaltzera joaten ziran danak, eta Txomin bezela, *Facultad de Ciencias*en zauden laboratorietako kolaboradore eta investigatorerik gehien-gehienak, Melquiades *bedelaren* etxera joaten ziran bazkari arin bat hartzera.

Han biltzen ziran mahai luze batean INEko fisiko ta injenieroak, ez luzarorako baina, jateko ordu erdi baino ezpaitzieten ematen.

Jende gaztea ta alaia, ia denbora guztian txantxetan ibiltzen ziran, bainan txantxak bukatzen ziranean (noizik behin bazkaria amaitu orduko bukatzen baitziran txantxak), entzuten ziran hizketa serioak ere mahai hartan. Badakigu eztigula sinestuko irakurleak, bainan egia esatea erabagi dugu, eta irakurleak sinestu edo ez sinestu, eztugu idatziko hemen egia baizik. Badirudi halako hizketa serioetan erabilitako izenak oso arrotzak izan behar zitzatekela: Einstein, Fermi, Oppenheimer, Dirac, Maxwell eta honelakoak... bainan ez, gehienak euskaldunak ziran: Zarra, Gainza, Panizo... eta beste honelako asko⁽¹⁾.

Behin, ia danak betiko gai serioz mintzatzen zirala, beste gai bat agertu zan mahai luzearen bazter batean. Txominek liburu txiki bat eta egunorokoen antzeko paper bat zeramazkian sakelean. Lizardiren *Itz Lauz*, egilearen fotografiarekin, eta *Herria*, Baionako asterokoa. Puich, kolaboradore katalana, zeukan ondolan ezkerrean. Aurrean Lizarraga, napar investigadore bat.

Puichek hustu du bere platera, Txomin oraindik zuku beroa koilarakadaka hartzen dagoela, eta ezer esan gabe, hartu *Herria*

⁽¹⁾ Denbora hartan, oraindik, euskaldunak ziran nagusiak Espainan football jokoan eta ekiporik haundienetan euskaldun ostikolari asko arkitzen ziran.

eta *Hitz Lauz* Txominen sakeletik eta irakurtzen hasten da. Uler-tzen du *Herriak* frantsesez dakarrena eta galde egiten dio Txomi-ni ea hemengo eta Frantziko euskaldunak ongi konpontzen ziran elkarrekin euskaraz. Txominek baietz.

Bainan Lizarragak ezetz, oso diferenteak dirala Espainako *euskeldunen euskera* eta Frantziko *eskualdunen eskuara*, eta hiz-kuntzaren izena bera diferentea dala ikustea nahikoa ezpalitz, ohartzeko zelan agertzen dan oso sarri *h* letra *Herrian*, Frantzian egindako asterokoan, ohartzeko *ch*, *tch*, *th*, *lh* eta honelako letra elkartuak, eta Espainan egindako liburutxoan ordea inun ere etzala agertzen honelakorik. Catalanak behintzat baduela bere nortasuna, bainan euskara, hain diferentea iruditu arren, espai-nolaren dialektu bat baino ez-tala jakintzaren gaindegitik ikusita. Ohartzeko zelan agertzen diran liburutxoan *ñ*, *ç*, eta *j*; euskaraz izan ezik mundu guztian espainolez bakarrik erabiltzen diranak, danok dakigun bezela.

Galde egin zion gero Puichek Lizarragari ea berak euskaraz ote zekian, eta ezetz, etzekiela eta jakiterik ere elukela nahi. Txo-minek Lizarragari, elukela arbuaiatu behar euskeräa, Lizarraga deituräak dioskun bezela, bere asabeen hizkeräa izan zan ezkerro.

Lizarragak etziela entzun inoiz bere aiton-amonei erderaz baizik, eta gizon modernua izanik etzuala berak nahi euskararik ezertarako. Nahi lukela ahalik arinen hil zedila, espainolen arteko elkar ezin ulertzeko gauza baino etzalako. Puichek ea nola izan daiteken naparra izatea eta euskaraz ez jakitea. Lizarragak ezta-la ia egiten euskaraz Nafarroan eta Lizarraga ez-tala Euskal Herri-ko deitura bat, Nafarroakoa baizik.

Eta investigadore baten ezpainenatik Nafarroa Euskal Herrian eztagoela entzuteak zera adierazten digu: RADARean lan egiteko *scientifik* hutsezko jakituria baino ez-tala behar.

Amaitzeko zegoan bazkaria. Joan ziran ia danak eta Lizarra-ga euren artean. Puich eta Txomin sagar bana zuritzen ari dira, aiztoetatik zintzilikako azalak, gero ta luzeagoak, zinta bihurri pare baten gisan, gutxika-gutxika plateretan gelditzen dirala.

Benetan uste duala, dio Puichek, hil eginen dala euskaräa, mugaz bestaldean “h”z beterik eta hunaindian batere “h”rik gabe idazten dala ikusirik. Diferentegiak dirala batasuna lortzeko.

Etzaio atsegin Txomini euskaräa hil eginen dala entzutea, ondo jakin arren honelako esamesak gora behera, eztala laburtuko ez ta luzetuko ere euskararen bizitza. Igarle beltzari ihardeste-ko, oraindik egiteko egon arren, esaten dio, eginen dala batasuna, eta hemengoek ere “h” letra dontsua mututzat harturik, hangoek bezela idatziko dutela.

Puichek: hori hola bada, eztuala garrantzirik diferentzi horrek; ortografia berdina izan ezker ezala ajola ahozkatzerakoan apur bat diferentea izatea, hori hizkuntza guztietan gertatzen baita.

Utzi muskilak plateretan, biztu zigarrotxoak, eta kanpora at-
ra ziran biak. Bazkaltzeko ematen zieten ordu erdia igarota zego-
ala, bakoitza bere aldetik joan zan lanarekin jarraitzeko.

III

Facultad de Ciencias delakoaren liburutegia oso aberatsa da izan, baina libururik atera berrienak eta jakingarrienak *catedrático*ek dauzkate eurentzat gordeta.

Behin Txominek liburu batzuk behar izan zituan, eta liburu-
tegiko bilabideetako txarteletan idatzita egon arren, ezin arkitu
izan zituan inun ere. Galdetu liburuzainari, eta On Bixentek era-
man zituala lehendabiziko egunetik.

Liburu garestiak ziran eta begitada labor bat botatzeko baka-
rrik behar zituan. Halan ba, On Bixenterengana joan eta eskatzea
erabagi zuan.

Ondo ezagutzen zituan bere nagusia izandakoaren ohiturak.
Despachoa etxe hartan bertan zeukan, Txominen lantegitik hur-
bil. Bazekian ze orduetan egoten zan han sartuta. Garaia heldu
zanean, utzi zabalik liburua mahaian eta lumäa ta tabakoa ondo-
an eta atera egin zan.

Zurubiak igon eta klaustrotik ibili ostean, ayudanteak kanpoan itxaroten ikusi zituan, bera aspaldi egoten zan bezela. Orain etzan ayudante bat, beste kategori bat zeukan, etzuan makurtu behar burua On Bixenten aurrean. Bainan oztu zitzaion kemena gizon handiaren hurbiltasunera heldu zanean eta atea jotzerakokan bildurrez gelditu zan.

Zer egiten zuan On Bixentek gela hartan ayudanteak itxaroten zaudela? Hau inork ere eztaki, On Bixentek berak izan ezik. Bainan guk, uste duguna idatziko dugu eta guk uste duguna egitzat hartu beharko du irakurleak, baldin On Bixentek oker gaudela erakusten ezpadio.

Ayudanteak kanpoan itxaroten zaudela, On Bixente euliak hiltzen ari zan. Mahaiaren gainean, alki batean, edo hormaren kontra eulia gelditzen zanean, joan ixil-ixilik jeikiko ote zan bildurrarekin, hurbildu eskua poliki-poliki, eta zast! eskua gainetik igaroerazoten zuan. Eulia egaz hasten zala, aidean arrapatzen zuan On Bixenteren eskuak. Kendu egak, bota lurrera, eta zapaldu egiten zuan. Anitz euli hil zituan goiz hartan Txomin ate aurrera heldu orduko. Atea jotzeko dudan zegoala, On Bixente euli baten atzetik zebilen. Bi aldiz egin zion ihes, bainan oraingoan etzitzaion joanen. Liburu baten gainean zegoan geldituta. On Bixentek astiro-astiro urreratu zuan eskua euli ondora. Euliak atzeko anka biak igurtzitzen zituan egapetik, eta eskua hurbilagotzen zitzaiola, hasi zan burua igurtzitzen aurreko anekin burua edozelan okerturik alde guztietara, On Bixenteri adarra jotzeko eta bildurrik etziola adierazteko. “Orain eztuzu gehiago nere lepotik barrerik eginen!” erraiten zuan bere baitan On Bixentek erlojuaren orratzak baino astiroago eskua hurbiltzen zuala.

Orduantxe ausartu zan azkenez eta,

—Tan tan! —jo zuan atea Txominek.

Eta lehendabiziko zartadäa entzun baino ez ta euliak ihes egin zuan.

—*Adelante!* —esan zuan orduan On Bixentek hasarretuta.

Eta Txomin abots bildurti batekin liburuak eskatzen ausartu zanean, ezetz!!! liburuak berak behar zituala eta kanpora joateko mesedez, lan asko zeukala ta.

OSTIRALE BATEAN

I

Bostetan kanpora, egunoro bezela.

Ostirala zan. Larunbatetan etzan egoten lanera joaterik...
Hau poza... Libre zegoan beraz astelehen arte.

Indar asko zeukan oraindik eguzkiak Rodriguezekin kanpora atera zanean.

Han ikusten zan tranvia bere geltokian irtetzeko prest.

Okertu besoak, jaso eskuak bularreraino, eta atzetik orpoak xast xast xast ipurdi pareraino, igaro zehharka enparantza leihorra segundu batzutan, utzi erregebidea atzean lau edo bost oinkadakin, heldu tranvia ondora, oratu esku-burdina, eta oinkada batekin gora, Txomin tranvian sartu zan.

Erabiltzailea eta txartel-saltzailea, biak zauden adiskideen zain, burua atzeruntz okertuta eta lehendabizik heldu zanak esku-burdina ukutu baino ez, eta klin! jo zuan kanpaitxo txartel-saltzaileak. Berehala zuzendu zuan burua aurreruntz tranvia-erabiltzaileak, eta xxxaaasssssss hasi zan tranvia aurrera. Orduantxe heldu zan Rodriguez, eta oratu esku-burdina eta barrura bera ere.

Lasterketa hontan bestetan egon ohi eztana dago: galtzen duan eramaten du saria. Txominek txartela ematen dio Rodriguezi. Berak atera ditu bientzako, eta diru-batzailearen ondoan dago oraindano, gehiegizko diruaren zain.

Hartuta dagoz exertzeko toki guztiak eta jende asko dago zutik, esku bat jasota, buru gaineko esku-burdina oratzeko. Lau edo bost kenduz gero, gazteak dira tranvia hontan doazen guztiak. Tranviaren beste puntan dago Txominek eta Rodriguezek egoteko hautatu duten tokia, aurre-aurrean, ezkerreko aldean eta tranvia-erabiltzailearen atzean. Han dagoz neskarik politenak, hau da, eurek beti hautatzen duten tokia. Apur-apurka aurreraturik, laister heltzen dira neskeen parera.

Egia esateko, orain etzaizkio ajola Txomini neska haiek, gehiegi sartu baitzaio Iziartxuren irudia pentsamenduan. Rodriguez da gehien ahalegintzen dana nahi duan tokira heltzeko eta bere kontura doa neskeen begiak eurenganatzeko ergelkeriak esatea ere. Txominek eztu besterik egiten atzetik etorri eta ikustea baino.

Neskek azkenez albokera begiratu eta adiskide biak ikusten dituztenean, jijijiji hasten dira, gero txuku-txuku belarrira hitz egin eta berriz jijijiji.

Nahikoa du hau Rodriguezek hitz egiten hasteko eta ezkerretara makurtzen da berak hautatu duan neskarenganantz, beronen bizkar osteko esku-burdina oraturik. Txominek eztu entzuten zer esaten duen.

Neskäak soineko gorri-gorria eta gari helduaren kolorezko ileak dauzka. Rodriguez hizketan hasten zaiola bestaldera begira jartzen da adi-adi. Alde hartan pinuak ikusten dira, eta tranvi ondoko argi tantaiak atzeruntz pasatzen.

Serio-serio dago neskäa eta badirudi etzaiola atsegin berak ezagutzen eztuaz gazte hura hain ausarta izatea, bainan laister jartzen da aurrera begira eta azkenean erantzun ere zerbait erantzuten dio.

Honela hasten da Rodriguez eta neskäaren arteko senar-emaztegei aldi xamurra, eta bata bestearen ezpainetatik zintzilik, han doaz biak munduko gauza guztiak ahaztuta.

Hau dana Moncloa deritzan enparantzara heldu arte. Han tranvia gelditu, jendea zutitu, eta astiro-astiro jeisten dira

danak banan bana lurrera. Txomin atzeratuta gelditu da apropos, eta Rodriguezen andregeiarekin doazten neskak jeisten diranean, senar-emaztegei berriak jeisten dira atzetik, eta gero Txomin.

Han, Moncloako enparantzan, beste neskak aurrera doazala, Rodriguezek agur esaten dio bere emaztegei liluragarriari. Eta hala bukatu zan euren arteko senar-emaztegei aldi laburra.

Ez zaite harritu, irakurle, denbora hartan Madriden, Erdel Herri guztian, hau egunoro ikusten zan.

II

Calle de la Princesatik hasi eta eskumako aldean zegoen bar batean sartu ziran Rodriguez eta Txomin.

Baztar batean erretzen ziran kiskil handien usainarekin, jateko gogoia esnatu zitzaaien. Txominek kiskil handiak eta garagardoa bientzat eskatzen du:

—*Una de gambas a la plancha y dos cañas.*

Ohituraz bezela, abots ozen batekin eskatzen dizkio barmanak, kiskilak bazterrean erretzen dagoenari, Txominek esandakoa, eta laister arkitzen dira bar gainean kiskil bero-beroak eta garagardo betetako baso hotz-hotzak.

Oratu azkazal puntekin, hatzak erre gabe, oraindik kiskilari kea dariola, kendu azala kontuz-kontuz, eta sartu ahoan.

Ufaaa!... oraindik beroegia!...

Itxi ahoa haginak juntatu gabe, arpegia luzeturik, eta eragin barruan mihiaz, toki batean geldituta utzi gabe, eta azkenean, erretzen eztuenean, ukutu haginekin eta jan. Orduan garagardo hotz txurrutada bat, eta beste kiskil bat hartu, beroa oraindaino, bainan ez hain mingarria aho barnean.

Txominek ordaindu zuanean Rodriguezek berriz eskatu zuan. Bukatu zutenean eskuturreko erlojuari begitada bat bota, ta Rodriguezek urrun joan behar zuala ta berandu egin zitzaiola. Astelehen arte ta bakoitza bere aldetik joan zan.

III

Gutxi iruditu zitzaizkion Txomini hartutako kiskilak. Hurrengo kalera heldu ta Rodriguez inundik ikusten etzala ohar-tu zuanean, bira egin eta berriz joan zan lehengo lekura.

Etzan lagun txarra Rodriguez egunoroko lanetan berekin ibiltzeko, eta gainera adiskide ontzat zeukan. Ondo konpontzen ziran beti biak elkarrekin. Bainan lana bukatzen zanean, adiskide mamiekin izan ezik, nahiago zuan bakarrik ibiltzea.

Pozik sartu zan toki alai hartan eta garagardoa eta kiskilak eskatu zituan lehen bezela. Beretzat orain hasten zan benetako lan osteko atsedenaldea.

Prisik gabe jango zituan kiskilak. Artean garagardo txurruta-da txiki bat hartu zuan...

—Bainan zer da hau?...— Ezin du sinestu ispilutik ikusten duana!... Rodriguez sartu da barrean!... Hau lotsa!... Txomin gorri-gorri jarri da, beste alde batera so. Rodriguezek ere ikusi du noski, bera zegoan tokira zetorrela ezkerretara okertu ta beste bar puntara joan baita.

Ongi pentsatuz gero eramangarriagoa da biren arte erdibitu behar dan ahalgea. Bakoitzak berak nahi duan bezela, kiskilak jaten dagoz orain biak lasai-lasai.

IV

Atera zanean goiz zan oraindik, ezpaitziran orainan seirak baino.

Beste egunetan pelotaka jokatzera joaten zan beste kolaboradore batzuekin *Universitariako* pelotatoki batera, bainan ostirale-tan eta larunbatetan etzuan arkitzen etsairik. Ez bestetan baino hobeto jokaten zualako, besteak beste tokiren batzuetara joaten ziralako baizik.

Ia ohartu gabe metroan arkitu zan, eta iman batek tiratua bezela, Jaime Ostos kalean.

Iziartxuren etxetik hogeit hamar metro gorago, Jaime Ostos kalean bertan bainan beste aldean, *cafeteria* bat zegoan, oso toki onean Fernando ta Inasiren etxeko atartea ikusteko. Han leiho ondoko mahai bat hartu eta garagardo *caña* bat eskatu zuan. Zabaldur *Itz Lauz*, Lizardiren liburua, eta irakurtzen hasi zan.

Noizik behin txurrutada bat hartu eta Iziartxuren atartera so jartzen zan. Ez orduan sartu edo aterako zalakoan, begi bazterraz ikusten baitzuan, irakurtzen egon arren, liburuak eta atarteak arreta guztia erdibitzen ziotelako baizik.

Kolore biziko soineko bat (neska batena, alegia) handik igarotzen zan bakoitzean, burua jasotzen zuan. Noizik behin zigarrorotxo bat erre, ta honela sei ta erdiak heldu zitzaizkion. Orduan bihotz taupada handiak sentitu zituan Iziartxu etxean sartzen ikusirik.

Segundu batzuk baino etzuan iraun bista pozgarriak, bainan nahikoa zuan hau arratsaldea alperrik galdu etzuala pentsatzeko. Segundu batzuetan ikusitakoa luzaro ikusiko zuan gero oroimenaren begiekin.

Zazpirak ingurutan, irtetzeko prest zegoala, sartu liburua sakelean eta morroiari deitzen ziola, Iziartxuren senargeia ikusi zuan *cafeterian* sartu eta barr'a zijoala. Urtu zion poz guztia oraingo ikustaldiak eta kopet ilunekin irten ta metrora joan zan.

V

Calle de la Victoriako bar batean, ohiturazko orduan eta ohiturazko tokian, Etxeberria, Garmendia, eta Apalategi arkitu zituan.

Hizketan zauden hirurak, ardo baso bana aurrean zeukatela, eta Koreako gerratea zan solasaren gaia.

Garmendiak,

—Eztuten uste amerikanoak Korean arriskuan zeudenik txi-
nuak aldamenian eukita —erran zuan, okotza jaso, eta hatz bat
alkondararen lepoan sarturik—, uste zuten nahikua izango zala

beren aideplanuak ateratzia txinuak zapaltzeko, eta horregatik, lau soldadu baizik etzuten utzi Korean.

Apalategik hatz lodi bat jaso eta,

—Pa'itte (pa'itte = pareta = horma) baten kontra txixe e'itten zaela —erran zuan—, etortzen zazu bat atzetik, eta plast! belarondokoa emate'izu. Eztakitt entendittu ote di'azun.

Hau entzuten duala Garmendiak, eraman basua ezpainetara, hartu txurrutada bat, eta gangar izugarria sudur punta luzearen bila gora ta behera erabilirik, sartu berriz hatza lepoan, tiratu ezkereruntz okotza jasorik eta,

—Uste zuten etzirala komunistak beren kontra atrebituko —erran zuan.

Apalategik, bere betiko hatz lodia jaso ta,

—Gorriik makilaakin eto'iko zi'ela uste zoen, etortzekootan. Eztakitt entendittu ote di'azun —gaineratu zuan.

Gero Garmendia komuna joan zan eta Apalategik,

—Go'aitsu e'itten nau Garmendiak, beti behatza alkandorako lepoan sartuuz daillelako, ittotzeko zoriin. Eztakitt entendittu ote di'azun —esan zuan hatz lodia jasorik. Gero zotz batekin sardin bat hartu, eta gorputza makurturik olioaren tantak jantzia zikindu eztezaioten, jan egin zuan.

Garmendia etorri zanean bera joan zan ixuritegira.

—Amorratu e'iten nau Apalategik, —erran zuan orduan Garmendiak—, beti bere koplara horrekin: eztakit entenditu ote dirazun... Zer uste du? Txoruak gerala ez entenditzeko?... ala berak gaizki hitzegiten dula?

Beste ardandegi batzutara joan ostean apalordua heldu zitzaizen.

Txominek etzuan inoiz ikusi zirurji operaziorik eta beste zereginik etzuala, ta Ettxeberriarekin gelditu zan biharamun arratsaldean bostetan *San Carlos* gexotegira joatekotan bere adiskidea lanean ikustera. Operazioa bukatu ta handik Apalategi ta Garmendiarekin joanen ziran betiko lekuetara.

BIHARAMONEAN

I

Biharamonean, bostetan, zintzo-zintzo joan zan *San Carlota*.

Igon bere adiskideak aurreko arratsaldean esan zion mailara, eta moja batek erakutsi zion *Doctor Echeverri*aren kirofanoa.

Gexozainen soineko, burkopainelo ta mandar zuriekin jantzitako neska batek zabaldu zion atea (denbora hartan etzan agertu oraindik gexozainen eta osagileen lanerako arropetan kolore berdea).

—*Buenas*—hasi zan Txomin—, *está el doc... ?* eta,

—Aurrera Txomin!—ebagi zuan bere adiskideak euskaraz neskäaren atzetik.

Gexozainak atea isten zuala sartu zan gelan. Bere adiskidea eta gexozaina ezeze, beste gizon bi eta moja bat zauden han, danak zuriz jantzita.

Etxeberria oraindainsu burtza zuria jantzi gabe zegoan, txamarra ta atorra erantzita; besoak, hasi eskuetatik eta ukondoetaraino apar zuri-zuriz estalduak, horman kontrako garbiontzi iturridun baten aurrean, esku eta besoetako larrua zepillo ta jaboiaz igurtzitzen. Ondoan beste garbiontzi berdin bat zegoan eta

—Kendu txamarra ta jarri zazu hor—esan zion Txomini—, hartu jaboia ta garbitu eskuak hor.

Txominek, txakea kakoan ipini ta bira egiten duenean, horra non ikusten duan lziartxuren senargeia, burtza eta buru-estalki zuriekin jantzita.

Joan Etxeberriaren ondora eta,
—Zu! Bakizu nor dan hori?... Zure eskoian da'uená? —gal-
detzen dio.

Etxeberriak burua okertzen du ikusteko, eta,
—Bai motell, ba'kit zer esan nahi dezun. Hori Iziartxuren
noviyua dezu.

—Koino!... harrituta gelditu naz!... Ta zer e'itten deu horrek
hemen?

—Zer egiten dun? Ba neri operatzen lagundu, erremintak
ematen. *Alumno internoa* da. Mutil ona. Behin Fernando ta Inaxi-
ne'a, ne'ekin jun tzan eta hala iza'utu zun Iziartxu.

Hartu jaboia ta hasi zan Txomin ere eskuak garbitzen apar
askorekin.

Halan ari izan ziran hogei minutu gutxienez.

Azkenean mojak eskuzapi goxo bana ekarri zien, eta ondo
ondo txukatu ziranean, alkoholez erdi betetako ontzi handi bat
ekarri zuan. Han hiru edo lau bider sartu zituan eskuak eta beso-
ak ukondoraino Etxeberriak, larrutik irrist egin osteko alkohola
ontzian erortzen utzirik.

Txominek ere, sartu eskuak alkoholean eta elkarrekin igurtzi
zituan leihortu arte.

—*Dele una bata a este señor* —erran zion gexozainari Etxe-
berriak, beso biak atzamarrez gora jasota, mojak berari burtza
zuria janzten ziola.

Gexozainak metalezko kutxa biribil eta diztiratsu bat ekarri
zuan, eta handik barrutik burza zuri bat atera eta esku biekin hel-
du, ta janzten lagundu zion, bai ta gibeletik lotu ere.

Gero danak alboko gelara, han bazterrean zegoan ate txiki
batetik zeihar.

II

Han, mahai batean etzanda, gizon makal ta argal bat zegoan,
begiak zabal-zabalik, bildur izugarriarekin, bildusik, dana age-
rian, eta gorputzeko ile guztiak kenduta.

Aa! Gixajo gixajo!... Hona *ayudante interino gratuitoak* baino gutxiago dan koitadu bat! Ayudante batek behinik behin, ikasleak ditu azpian, eta bera ondo zapaldu dutenean, berak ere zapal ditzake ikasleak nahi badu. Eta batzuk halan egiten dute. Bainan nor dago honelako eri baten azpian?

Alde batetik lotsatuta dago bere gorputzeko zatirik ezkutue-nak moja baten eta neska baten aurrean erakutsi behar ditualako, bainan bere ahalgea baino askoz handiagoa da bere bildurra. Bere bildurra!... Beste arrazoi bat lotsatzeko! Emakumeak bildur tantarik ez, eta bera dardaraz ikaratuta!

Gela hartan sartu baino ez, eta danak hasi ziran gizagaxoa-ren lepotik far egiten, danak Txomin kentzen bada, batez ere mojää ta gexozaina. Nahi ta nahi ez tresna bat arpegian ipini eta kontatzen hasteko esan zioten. Etzan heldu hamabira lo gelditu orduko.

Orduan izara zuriekin estaldu zuten, tripää agirian utzirik, eta Etxeberriak —sudurra eta ahoa trapu zuri batekin estalduta, besteak bezela— kotoi zati batez iodozko laualdeko, edo kuadrilateru bat markatu zion tripaan, eta hasi zan haragia ebagitzen bisturi batez. Odola irtetzen hasten zanean, garbitu kotoiaz eta guraizen itxurazko pintzekin klisk lotu zaina, eta segi ebagitzen. Zast zast zast ebagi ta ebagi ibili arren, etzan egiten zauri sako-nik, bakarrik zauriaren bi hegiak elkarrengandik urrutiratu larruak tiratuak, eta dana lau-lau gelditzen zan hutsunea agertu arte.

Artean hizketan eta irribarrezka zauden, etzanda zegoan gizagaixoaren inguruko zomorro zuriak.

Etxeberriak gomazko eskuetakoeekin hatzak ziloan sartu eta kliklikli klokloklo atera zizkion tripak eriarri.

Badirudi adiskide xeble bat zeukatela denek, sendagilea bera, bainan oso sendagile txarra, sendagile baino erahile esatea mereziago lukena, eta haren gauzen kontatzeak ematen zien barregureaz, bazirudian tripak botako zituztela eria-aren inguruko-ek, eriak farrik egin gabe bereak han utzi zituan bezela.

Urli edo Berendi jaun osagile hura (kontatzen zuan Etxeberriaren aurrean zegoenak) bere adiskideekin *casinoan* zegoala partida bat jokatzeko, neska bat etorri zitzaion bila bere aita oso gaizki zegoala ta, mesedez arin-arin etortzeko esanaz.

Utzi jokoa eta joan zan neskaarekin gexoaren etxera.

Etzuan ulertu ondo Txominek zelan izan zan gauzää, bainan bai sendagilea, edo... parkatu... erahilea heldu orduko eriak litro bi odol inguru galdu zuala.

Gaixoa ikusi ta hau entzun zuanean, —Oo!— esan zuan sasi-osagileak—, litro bi odol inguru? Orduan transfusio bat egin behar zaio... Bueno, laister etorriko naiz. Gero arte.

Hau entzun, eta Etxeberriak, gomazko eskuetako gorriak goruntz jasota, odolez bustitako kotoi zatia ezkerrean eta bisturí zorrotza eskubian, dardaraz hasi zan jajajajaja! barrezka, gerritik okertua, ia eria ganean.

Besteak, denek bezela arpegi-trapu azpitik hitz egiten, beranduegi zala gaineratu zuan, etxe hartara berriz joan zanean, hilda zegoan eria. Eta arpegia estalduta eduki arren, igartzen zitzaion barrezka zegoala.

Txomini etzioten barregararik ematen sendagileen ipuinek. Ezin zien ulertu umorea, misteriozko umorea zan beretzat. Sendagileen ipuinen gatzari gustoa ateratzeko beharrezkoa omen da zazpi urte egotea Medizineko Fakultadean ikasten.

Noizik behin klik egiten zuten pintzek zainen bat itxirik.

Minutu batzuk iraun zuten berriketa ta irri-karkailek, eta gela hartan zegoan azido fenikoaren usaina ta berotasunarekin, hasi zitzaion burua biraka Txomini, eta aste hartan jandako gutzia gutxika-gutxika eztarrira igoten. Bekokia izerdiz beterik zuala heldu zion hormari, eroriko ote zan bildurrarekin, beti osagileen irribarreak belarrietan.

Gexozainak, ohartu zuanean, oratu besotik eta kanpora atera zuan. Leiho bat zabaldu eta arnasa hartzeko esan zion. Gutxika-gutxika, kendu zitzaion larritasuna, eta han gelditu zan operazioa bukatu arte.

III

Gogoetatsu zegoan. Ezin zuan ulertu nola far egin diteken gizon gaixo baten zoritzarreko heriotzaz. Eta ulertu ez arren, oso gaizki iduritzen zitzaion.

Oraindaino ez, beste egun batean lortuko zuan zerbait uler-
tzea. Etzion entzun oraindaino Etxeberriari ipuinaren umore
ezkutuaren azalpena.

Eriak bi litro odol inguru galdu duala jakin eta transfusioa
geroko uztea, kirtenkeri izugarri bat da edozein sendagilerentzat.
Doctor hori ospetsu bilakatu zan beste sendagileen artean, ahoz
aho zabaltzen dira bere astakeriak, eta barrez itotzekoak dira.

Gizon baten bizitza kostatzen duan astakeria barregarritzat
hartzea baino kirtenkeri handiagorik nekez topatu leikela? Bainan
gizona, egunoroko lanean ikusten diran gauzei alde tristea baino
ezpazae arkitzen, ezin diteke bizi; eritasuna eta heriotzaren arte-
an egonda bihotza gogortzen etzaiona ezta osagile izateko gauza.

Oo! zoritxarraren handia bere eskuetan erortzen diran gizajo-
ena! Bainan berak eraman behar duen gurutza ere astuna da.
Halako osagile batengana jende gutxi joanen da, bizimodu eskasa
berea Madril bezelako hiri batean.

Eskasa bere bizimodua?... Bai zera!... Beste sendagilerik
gehien-gehienek baino askoz jende gehiago dauka bere zain. Bete-
beterik dagoz egunoro bere etxeko itxarongela guztiak, eta abe-
rastuta bizi da. Harrigarria dala? Sendagilerik onenak bakarrik
edukitzen dituztela itxarongelak jendez beterik? Ez gizona, ez.

Hara: Behin Parisko Medizineko Fakultade ospetsuan, Urli
izeneko ikasle kokolo ta alper bat zegoan. Urte asko klasetara joa-
naz igaro arren, ezin zituan azterketak pasatu. Han hiru azterke-
ta baino ez omen dira pasatu behar *licencié* izateko, bainan, jaki-
na, azterketa estu-estuak, gogorak, eta zailak benetan. Azkene-
koa pasatu baino lehen zahartzaroa iritxiko zuala ematen zuan.
Bainan, nahiz bere arpegia gehiago ez ikustearren, nahiz erruki-
tuta beste lan-modu bat ikasteko denbora gehiegi galdu zualako,

azkenean eman zioten tituloa. Doctor Sendi eta doctor Berendi ziran bere arpegiz asetuen zauden irakasleak.

Denbora asko igaro baino lehen, badiotsa doctor Berendik doctor Sendiri, ea ba ote zekian doctor Urli edo doctor Kirten dontsu hura klinika izugarri eder baten jabe zana eta nola joaten ziran gexoak milaka beregana.

—Ezin dut sinestu!

—Ez ee?... Ba joan zaitez *avenue des Champs Elysées*a honen bestegarren numerura eta ikusiko duzu. Han dauka bere klinikaa.

—Holakorik!

Lehenbiziko okasioan joan hara eta harrituta gelditu zan. Egia zan, *avenue* ospetsuan, esandako numeruan, doctor Urliren izena zegoan.

Jo kanpai txikia eta zuriz jantzitako neska eder batek, ea zer nahi zuan? eta doctor Urli ikustea.

Zoritzarrez, hilabete baino gehiago itxaron beharko zuala, bainan apuntatuko ziola izena nahi bazuan, beste izen asko ere aurretik apuntau ta zeuzkala ta.

Doctor Sendik, atera bere izenekiko txarteltxu bat eta doctor Urliri berari emateko.

Peorian sartzeko eta mesedez apur batean itxaroteko.

Aho zabalik aztertu zuan inguratzen zion aberastasuna, errege baten jauregian sartu bailitzan.

Berriz agertu zan zuriz jantzitako neskaa. Mesedez etortzeko.

Jendez betetako areto izugarri handi ta aberats batetik zeihar igaro ostean, ate bat zabaldu zion, eta beste areto bat agertu zan, lehengo lakoa, eta lehen beste jendez betea.

Azkeneko atea beste gexozain gazte polit batek zabaldu zion, eta hara doctor Urli, andre bati eskuan musu bat ematen eta atera laguntzen!

—Bueno, zer da hau? Biok dakigu eztakizula medizineko tanta bat ere... Ezkaitez an ibili aikomaikotan gu bion arte... Zer egi ten duzu hainbeste jende ekartzeko zure klinika dontsu hontara,

zuk, medizinaa zer dan e're eztakizun horrek; neuk, zure aldean jakitun handi bat izanik, gehien-gehienez hogeï edo hogeï ta bost eri baino ezin ditudanean bildu nere itxarongelan, eta hori baka-rrik epidemiako egun zoriontsuetan?

Orduan doctor Kirten... edo, parkatu, doctor Urli jakintsuak, leihoa zabaldu ta mesedez etortzeko esan zion.

—Ikusten duzu zenbat jende dabilen hor behean harat-hunataka?

Ederra zan handik nagusitzen zan ikuskizuna:

Avenue des Champs Elysées ospetsu ta ederra eta *L'Arc de Triomphe* inguratzen duan *Place de l'Etoile* biribila, izar baten distiren antzera zentrurutzen zaizkion *avenue* ederrekin.

Automobilak gora ta behera ta jendeak milaka ta milaka txin-
durriak bezela.

—Hemendik ikusten dan jende guztiaren arte —esan zuan doctor Urlik—, zenbat gizakume benetan argiak, adimendunak, benetan intelijenteak dagozala deritzazu?

—Psss... benetan intelijenteak?... hogeï... hamabost... balite-
ke gutxiago.

—Ba horrexek dira zure gexoak eta beste guztiak nereak.

.....

Burtza zuria utzi, txamarra hartu, eta operazioa bukatu zane-
an Patxi, Etxeberriarekin batu zan.

Beronek Iziartxuren senargeia ezagutarazi zion. Txominek eta biek elkarren eskuak estutu zituzten, eta hirurak joan ziran beti-
ko *calle de la Victoriara*.

IZIARTXUREN SENARGEIA

I

Luis Martinez, Iziartxuren senargeia, canarioa zan, eta amerikana ematen zuan bere izkera moduz. Berak ere bazeukan euskal odola zainetan, esan zion Txomini, bere amaren aita zana giputza izan zala ta.

Oso demokratikua izanik, zion berak, ikurdiak edo eskudoak ajolik ere etzitzaizkion, baina bere aitona odol garbiko handiki bat zan, bere apelleduak eskudoa zeukala ta.

Munduko herri guztien arte, esan zion orduan Txominek, eztago Euskal Herria baino demokratikuagorik. Han, kale-garbitzaileek ere, herriko semeak izan ezker, denek daukate ikurdia ta.

Martinezi hau etzitzaion batere atsegin izan. Honela bere demokratikotasunaren meritu guztia galdu egiten zan. Ze meritua dauka aitona eskudoagatik ez harrotzeak, kale-garbitzaileek ere eskudoa daukatenean?... Harrotzen ez tala esaten dizuna, seguru harrotzen dala. Bestela, zer dala ta eskudoen gaiaz hitzegitea harira ez tatorrela?

Ohartu gabe Txominek ankäa sartu zuan, baina laister ahaztu erazo zion hau, Canari Ugarteak ezagutzea bere aspaldiko ilusioa zala esan zionean, fotografietan eta zinean ikusitakoa hainbeste gustatu zitzaiola ta.

Bar batean sartu eta Martinezek,
ea zer edaten zuten? Eta ardo zuria.

Aitaren sakeletik bizi, eta oso diru gutxi edukitzen zuten orduan ikaslerik gehienek. Txomin eta Etxeberria ordean etzebiltzen hain eskas, eurek irabazitako dirua gastatzen zuten; honegaitik edo, etziran lotsatzen Valdepeñasko ardo arrunta, hau da, merkeena eta eurei gehien gustatzen zitzaiena edaten. Bainan ia dirurik eztaukanak irabazten dutenekin biltzen danean ezin du eskatu hau, antza.

Luisek montilla eskatu zuan, askoz garestiagoa eta indartsuagoa.

Bai ta arin edan ere.

Tipuski agertu ziran basobeteak bar gainean bigarrenez, eta Martinez mostradore gaineko bendejetatik banderilla bat zotzetik oratzera zoiala ikusirik, Txominek:

Ez hartzeko, berak aterako zuala hirurentzako makailau kaxuelatxo bat, etxe hartan oso ondo ipintzen zutela Bizkai modura ta. Bainan horretarako hobe zala mahai baten inguruan exertztea.

Egin zan ba Txominek ziona, eta joan ziran hirurak jesartzera.

Atzeratuta ez gelditzearren, Martinezek montillazko botila bat eskatu zuan bere sakel meharraren kontura.

Makailauak ardo beltza eskatzen du eta ez montilla, bainan montillarekin hasi ziran, eta tira aurrera montillarekin.

Makailaua min-mina zegoan, eta eztarran erre ez zezan, sarri bota behar izaten zitzaizkion ardo txurrutada galantak.

Etxeberriak beste botila bat atera zuan.

Begiak diz-diz jarri zitzaizkien hirurei eta orduan heldu zitzaien adiskidetasun sakonaren garaia.

Alboko mahai batean asturiano batzuk,

“Asturias patria queridaa, Asturias de mis amoorees...” kantatzen zuten. Hirurak hasi ziran asturianoekin kantatzen.

Txominek, Martinezi basua hustutzen zitzaion bakoitzean, berehala betetzen zion, askotan berea eta Etxeberriarena bete gabe. Martinezek arinago edaten zuan besteak baino. Ardoa bukatu zanean Txominek beste botila bat eskatu zuan.

Martinez orain Txominen adiskide mamia zan. Zazpi ta erdie-tan emaztegeiarengana joatekotan gelditu zala, esan zion, bainan etzitzaiola ajola, oso ondo pasatzen zegoala ta. —Oraintxe dira zazpi ta erdiak —gaineratu zuan.

Txominek, arin joateko esan zion, bestela hasarretu egingo zitzaiola ta. Bainan Martinezek bete-beterik zeukan basua eta trago galanta kendu zion. Gero ere, beste trago asko edan eta bazi-rudian sekula etzitzaiola hustutzen basua.

Joan zan azkenean erlojua zortzirak jotzen zegoala, eta etze-bilen oso zuzen, atea igaro orduko beste edale batekin topo egin eta ardo guztia bota baitzion lurrera. Zabuka joan zan kaletik.

—Maltzurra zera zu, maltzurra! —erran zion Etxeberriak—, ze ‘in yiozu Martinez gixajuari?

—Nik? Ba’p’ez. Zer ba?

—Ezer ez? Berandu ta mozkortuta dijua o’ain Iziartxurengana. Nahikua da hau edozein neskeentzat betiko aserretzeko. Eta esan nizun nik zuri mozkorra zala Iziartxontzako munduko gauzarik nazkagarriena.

—Aa!... Iziartxugaz hasarratu e’ingo dala?... Baleitteke... Akaso uste dozu Iziartxugaz pentsetan egon nazela?

—Ez etorri hona gezurrekin. Ni enazu engañatuko. Ikusi dizut nola betetzen zeniyon basua zuria eran gabe.

—Aa!... basoa bete? Hori bai. Berari gustetan jako montille ta. Neuk Valdepeñas edaten dot beti. Montilleko baso batzuk edan ezkeru beteta geldituten naz. Etxat kabituten gehija’o.

II

Goizeko argi bizitan Txomin ohean zetzan. “Ay Lily, ay Lily, ay Lou...” Oo! Bartko soinu madarikatua! Bart Etxeberriarekin ibili zan berandu arte Martinez joan ostean eta oraindik askoz gehiago edan zuten.

Aratinik zetzan, begiak bero-bero, mihia ahoan lodi-lodi, garratza eta beroa. Atera oinak izara azpitik eta ohe gainean ipi-

ni zituan. Oin handi zuriak, gorrixkak behatzetan. Bajatu zituan alfonbra gorriaren gainera eta jagi egin zan. Burukomin bizi-bizia sentitzen zuan. Argiak min egiten zion.

Narraz joan zan leihora. Burua atera zuan. Patioan neskame bat arropa bustiak eskegitzen ari zan. Txori baten kantua entzuten zan. Goian zeru urdin garbi-garbia. Argiak min egiten zion. Leihoa itxi ta garbiontzira joan zan. Arpegia ta lepoa ur hotzez busti zituan. Urak larrua gorritu zion.

Hasi zan hotz eta larri sentitzen. Atzera ohera. Ohe-arropaz estaldu zan. Izarak oraindano epelak zauden. Berriz “Ay Lily, ay Lily, ai Lou”. Oo! soinu madarikatua! Ezin kendu belarrietatik.

Bat-batean xalto egin zuan. Burua ta sabela batera zoazkion orain. Atera pitz-ontzia ohe azpitik eta botatzen ahalegindu zan; ur berde pixkat atera zan. “Ez, eztaukat botatzeko gogorik”.

Azpiko arropak eta prakak jantzi zituan. Arpegia aparreztatu zuan bizarrak kentzeko. Bizarrak kentzen zituala tristetu egin zan. Etxekoandreak deitu eta cognac kopa bat eskatu zion.

Lotu artoski alkondaräa, ta korbataren korapiloa egin zuan. Berriz sentitzen zan larri. Atean tan tan jo zuten. Etxekoandrea zan cognacarekin.

—Eztuzu hartuko gosaria? —ta,

—Bai, segituan.

Hodei berdeak dantzatzen zioten begietan gelatik atera zanean.

Komedorean egunorokoa irakurtzen hasi zan. Koreako gerra-tearen berriak. Berri txarrak bere gustorako.

Gosaria hartu ta zigarrotxo bat biztu zuan. Egunorokoa irakurtzen egon zan, geläa garbitu arte. Gero eskutitz batzuk idatzi behar zituala ta, gelaan sartu zan. Kendu egin zitzaion burukomina gosariarekin.

Garaia heldu zanean mezatara joan zan, XX elizara, ordu batetako mezatara, Iziartxuk entzuten duan mezara.

Bukatu zanean ia topo egin zuan Iziartxurekin.

—Txomin, aspaldiko! Zelan zabiz?

—Ondo Iziartxu, zu be ondo, ezta? Zelan dabiz gurasoak?

—Danok ondo. Ta zure bierra? Konpontzen zara o' in ondo autobusa hartzeko?

—Bai, oso ondo. Etxetik autobusera bost minuto tardetan dot.

—O' in eztozu gure eze' b' e gugaz. Ezara etorri inoz gu bisitetan.

—Etor' ko naz. Lan asko euki dot.

—Etxeberria ikusten dozu?

—Bai, egunero.

—Ha be ezta etorten. Len sarri etorten zan. O' in eztakit zer pasetan jatzuen danori.

Elkarrekin hizketan, Txominek etxeraino lagundu zion. Gero, “gorantziak eta ikusi arte”, ta Txomin metroruntz abiatu zan.

Metroko estaziora heldu baino lehen Martinez ikusi zuan eski-leratetik kanpora irtetzen.

Nork pentsatuko zuan han arkituko zirala?, esan zuan Martinezek, eta prisekin zoala XXko elizara mezäa bukatu ta jendea irtetzen hasi baino lehen Iziarrekin hitz egiteko.

Txominek berandu zala, oraintxe sartu dala etxean ta.

—Zer egingo diogu ba? —Martinezek. Biharamon izugarri bat zeukala, ta ea norantz zoan.

—Solera—, ta,

Tira, lagundu egingo ziola.

Solean atera ziran. Txominek bazkaltzen konbidatu zuan. Ta euskaldunen jatetxe batean sartu ziran.

Martinezek etzituan ezagutzen euskal sukaldeko platerik gehienak. Kokotxak eta arkume errea jan zuten. Bukatzeko gatzatua edo mamia. Edateko Erriojako ardo beltza.

Martinezen buruan Iziartxuk betetzen zuan ia toki guztia. Iziartxu izan ezik ia ezer ere ez zitzaion ajola. Hitz egitekotan berak eluke erabiliko beste gairik. Baina edozeinentzat, honelako gai bateko berbaldi luzeak entzutea aspergarria izango litzake. Eskerrak Txominengan, bilatu diteken entzulerik onena aurkitu zuala. Txomin ez zan gogaituten, adi-adi entzuten zion dana interes handienarekin.

Esan zion ba Txomini nola hasarretu zitzaion andregeia moz-
kortuta ikusi zuanean. Nola elkarrekiko tratu guztiak apurtzeko
zorian egon ziran eta nola berak agindu behar izan zion ez zuala
gehiago inoiz mozkorrik arrapatuko. Iziartxuren antzeko neskarik
ez zegoala munduan. Izena bera ere, ez al zan inoiz eta inun ere
entzun eztan izen bat?... Ez al zeukan izen honek musika-soinu
berezi bat beste neska-izenetan aurkitzen eztana?... Baina hurren-
goan kontuz ibili beharko eban. Berriz mozkortuta ikusi ezkeru,
Iziartxuk ez zion parkatuko. Betiko galduko zuan.

KOREAKO GUDUA

I

Etzan denbora luzea munduko bigarren gudua edo gerräa bukatu zala eta ipar-amerikanuen ospea militar bezela handia zan Koreako gudua hasi zanean. Komunistek euren burdinazko oina Europako nazio askotan ipinita zeukaten eta euren gobernua ezartzen zutenean bertan gelditzeko ezartzen zuten. Honekin bildurtuta zauden antikomunistak milioika mundu guztian. Baina bazirudian gorrien aurrerakada izugarriak amaitu zirala, berriz Asian, Koreako erdi-ugartean, hasten zirala ikusi zanean. Honek zera zirudian: aurrerakada baten hasieräa sortalde azkenean, *extremo orienten*, sortaldeko European izandakoen antzekoa. Beti aurrera, komunismoak etzuan arkitzen eragozpenik bere bidean. Komunisten eta komunismozaleen poza ta alaitasuna! Gutxi falta zan mundu guztiko erreboluzioaren ametsa egia izateko!

Gabilondo, Fernandoren adiskidea (Iziartxuren aitaren adiskidea), bera ere biajantea, Jaime Ostos kaletik urrun bizi zan. Honegatik eta gizon bakartia zalako, denbora luzea zan etzuala ikusi bere adiskidea. Komunista porrokatua, bihotzetiko alaitasunik sakonena sentitu zuan Koreako berriekin, bainan bere ogibi-deak galazo egiten zion alaitasun hau erakustea berarekin hartue-manak zeuzkateneekin. Honegatik sentitzen zuan beharrezkoa zitzaiola norbaitekin hitzegitea, bihotz barruko alaitasuna agerian ipini eta bularra zabaltzeko, eta hala erabagi zuan Fernando bisi-

tatzea, aspalditik ikusi ez arren, komunismozale handitzat zeukalako.

Gabilondoren hizketaldiek eta laguntasunak indar handia zeukaten Fernando atzetik eramateko eta berau ados-ados egoten zan beti berarekin politikaa ikusteko modu guztietan.

Baina Koreako guduak bira egin zuanean —sortarazi zituan arrazoiak aienatu zirala— bat-batean amaitu ziran Gabilondoren agerraldiak, eta Fernandok tipuski sentitu zuan lehen sarri etorzen zan bihotzetiko adiskide baten faltaa.

Gabilondok utzitako hutsuneak eta Koreatik zetozten okerretarako berriek, bere orduko egokera tristearekin batera, desilusio handi bat sortu zuten Fernandorengan eta eritzi guztiak aldatu zitzaizkion.

II

Goizeko hamaikak inguru ziran Gabilondo XXXren ferreterian sartu zanean. Eskuan larruzko maletatxo berri ta eder bat zeraman.

Morroi bati erderaz, egunon esan ostean, ea ugazaba dendan zegoan galdetu zion. Morroiak ezetz uste zuala baina anaia ofizinan egunorokoa irakurtzen ikusi zuala.

Kristelazko atetik argi bizia sartzan zan, baina ferreteri barruan ilun zegoan. Sal-mahai luzez bestaldean kolore ilunezko kutxak sabairaino eta ibilbide estu-estuak argi elektriku eskasarekin. Sal-mahaiz hunaindian hamar edo hamabi erosle, batzuk langileen tailerreko lan-jantzi ilun eta zikinekin.

Joan ofizinara, dendan bertan zegoan leiho gabeko eta elektrizidatez argitutako gela batera, eta atea jo zuan.

—*Adelante!* —esan zutenean Gabilondo sartu egin zan.

—*Buenos días. Qué tal?* —ta

—*Bien, y usted?* —ta anaia bankura joan zala ta laister etorriko zala. Artean exertzeko. Anaiak zeramazkian errepresentanteekiko hartuemanak. Bera zan han nagusia.

—Koreako berriak irakurtzen ari naiz— esan zion Gabilondori ugazabaren anaiak.

—Berri txarrak, ezta? (Gabilondok erderaz)

—Bai gizona, bai, oso txarrak. Amerikanuak inperialista batzuk dirala esaten dutenek amorrua ematen didate. Bake denboretan amerikanuek eztituzte bidaltzen soldaduak inora bertako gobernuak deitu ezik. Komunisten bildurrak eraginda, gobernu batzuk egoteko indarrak eskatzen dizkiete, eta orduan bakarrik bidaltzen dituzte. Politika itsua ta ergela egiten dutela? Bai, hori ezin ukatu diteke. Diruarekin gauza onak eta oso txarrak egiten dituztela? Egia da. Baina rusoak dira benetako inperialistak. Etziran rusoak Japonen kontrako gudua irabazi zutenak, amerikanoak baizik, baina amerikanuek ez tute irabazi lur metro bat ere. Rusoak bai, ordea: hor dagoz Sakhalin ugartea eta herri sateliteak. Iparraldeko Korean munduko bigarren gudua amaitu zanean, egoteko indarrak utzi zituzten japonarrak desarmatzeko eta Koreari askatasuna emateko. Orduko, japonarrak errenditu egin ziran. Baina gudua amaitu ostean ez tira joan handik eta ez tute nahi izan UNOko nazioekin hartuemanetan hastea Korearen batasuna ta askatasuna aurrera eramateko. Hegoaldeko Korean hauteskunde edo eleksio libreak egin ziran UNOren zaintza ta ardurapean, baina Iparraldeko Korean, gezurrezko hauteskundeetan, etzegoan hautatzeko sovietek emandako izenak baino. Satelite berri bat egin dute Iparraldeko Korearekin. Ekarri RSSBko komunisten alderdiko koreatarrak herria kontrolatzeko (Koreako erdi-ugartean ezeze, RSSBko lurretan ere, koreatar asko bizi dira, eta hauek Rusiko nazionalidadea daukate), eraman koreatar gazteak RSSBra avioiak eta tankeak erabiltzen ikas dezaten, gudu-materiala ekarri eta Korea osoa eurentzat hartzea erabagi dute.

Etorri da azkenean ugazaba bankutik.

—*Qué tal, señor Gabilondo, usted por aquí? Precisamente iba a llamarle para hacerle un pedido.* (Deitzeko asmoa zeukala orniketak eskatzeko).

Anaiak:

—Ba gu hemen ibili gara, ez Gabilondo jauna?, komunisten zatarkeriak agerian ipintzen.

Gabilondok:

—Bai bai, halaxe da.

Ugazabak:

—Komunisten zatarkeriak? Hara, milioi asko menpeko dagoz komunisteen nazioetan, bainan euren arte %3 baino ez tira komunisteen alderdikoak, besteak, eurek maite ez tuten edo gorrotatzen duten gobernupean bizi behar dira bildurrez. Ez al da hau lotsagarria?

Anaiak:

—Komunismopean bizi izan diran gizakume guztiak, baldin euren buruak zerbaitzat badaukate, baldin gizonaren errespetagarritasuna galdu behar ez tala pentsatzen badute, komunismoaren aurka egongo dira beti. Komunismoaren areriorik handiena gizonaren izakeräa bera da, gizonaren izakeräa, bere askatasunzaletasuna ta zintzotasunarekin.

Ugazabak:

—Komunismoak borrokatu dituan gudu guztien bukaeraan, hasi Rusiko erreboluziotik eta munduko bigarren guduraino, fenomeno bat ikusi da, lehen inoiz ere sortzen etzana. Beste gudu guztietan prisioneruak, herri-minez ezin egon, ta larri sentitu ohi ziran etxera noiz bidalduko zuten itxaroten. Herri komunisteen prisioneruekin ordea, gauza harrigarriagorik ez tago, ezta hau gertatu dana. Herri hoietako prisioneru atzemandako soldaduak ez tute pentsatu etxera joatea pozgarria danik, ez joateko ahaleginak egin behar zituztela baizik. Euren herria komunismopean zegoala etzuten nahi etxera joaterik. Komunismoa ondoegi eza gutzen zuten.

Anaiak:

—Bigarren munduko gudua bukatu zanean ehun milaka askatu zituzten inglessek, amerikanuek eta, nazionalsozialisten prisioneru-batza-tokietatik herri komunistetako soldaduak, eta gehien-gehienek etxera joaterik inundik inora nahi ez arren, batez

ere Estonia, Latvia, Lituania, Polonia, Rusi Zuria, Ukraina eta beste nazio askotakoek, RSSBko agintariek nahi-ta-nahiezko etxeratzea eskatu zuten, sovieten menpekoak zirala ta. Askok, batza-tokietatik ihes egin ostean, sartalderuntz zoaztela, jendearen laguntza arkitu zuten eta sartaldean gelditu ziran, baina beste asko, milaka ta milaka, etziran izan hain zoriontsuak eta sovieten agintariek, indarrez eramane, ganadu trenetan sartu, ta nahi-ta-nahi-ezko-lantokietara bidaldu zituzten. Eztute uzten herri komunistetatik jendea irtetzen. Komunismoa gauza ona balitz, irtetzea galerazo beharrean sartzea galerazo beharko zuketen.

Luzaro egon ziran honelako gauzak esaten eta Gabilondok, hitz gutxi esan arren, anai bieri ados zegoala adierazten zien.

Azkenean esan zion ugazabak zer ta zenbat eskatu behar zuan. Gabilondok bere paperetan idatzi zuan dana, XXX ferreteria ta ugazabaren izenak, kalea ta numerua ahaztu gabe.

Etxean fabrikarako eskutitza idatzi eta kontuari %15 kendu, bere partea zenbatekoa zan jakiteko, ta korreora eramane zuan. Pozik zegoan. Etzuan galdu eguna alperrik.

GUDUTOKIKO BERRIAK

I

1950gneko uztailak 7, ostiralea.

Egunorokoa zabaldu ta Fernando irakurtzen hasten da:

Ipar-amerikanuen indarrek Korean atzerakada bat egiten dute gudutoki osoan, larogei kilometro gibelaturik.¹⁵ Komunisten aurrerakada handiak Fusango kaitik gudutokirako burdinbideak arriskuan ipini ditu. Amerikanuek ahalik arinen bidaltzen dituzte indar berriak gorrien tanke ta oinezko gudulariak geldiarazteko.

Irakurtzen duala, Fernandok eskuak igurtzitzen ditu.

Goizeko zortzi ta erdiak dira. Fernando sukaldean dago, mahai aurrean exerita. Botila bat ardo eta basu bat aintzinean, sardexka eta ogia ezkerrean, eta aiztoa eskubian, esku biekin oratzen dio egunorokoari. Inasik gosaria ekartzen dio, platerari kea dariola.

Begiak egunorotik kendu gabe, hartu ogia ezkerrez eta aiztoa eskubiaz, eta zati bat ebagitzen du. Orduan, egunorokoa alde batean utzirik, hartu botilea, kendu tapoia, eta basua betetzen du. Hau egin ostean, ogi atal txiki bat gorringoan busti, eta jaten hasten da.

¹⁵ *Gudutoki*, edota idazten duen erara, *gudu-toki*, gazt. ‘frente de batalla’ aidarazteko darabil.

Inasi sukaldea garbitzen ari da, eta baztar guztiak txukun-
txukun utzi ostean, sutan berotzen daukan pitxer batetik katilu
bete kafe-esne hartu, eta mahaira eramaten dio Fernandori.

Mezatatik liburua ta mantalinarekin Iziartxu datorrenean,
Fernando oraindaino egunorokoa irakurtzen ari da.

—Egun on, aita —ta,

—Egun on, Iziartxu.

Egunorokoa irakurri duanean, kartera lodi bat hartu eta kalera.

Emakume biek etxe guztia ondo garbitu dutenean, Inasik
lapikoak eta eltzeak janariekin sutan ipintzen ditu eta Iziartxu ta
biak josten hasten dira. Prakagileak dira. *Galerías Preciadosen*
ematen diete lana, ta diru nahikoa irabazten dute.

—Ia Iziartxu —erraiten dio Inasik bere alabäari, jostorrazari
begira, hari puntäa ahoan busti ta jostorraz-zuloan sartzen saia-
tzen dala—, ia ahaleginak e'itten doguzen —eta haria haginekin
ebagi ta korapiloa egiten diola—; gaur praka pare bana amaittu
bi'ogu —gaineratzen du. (bi'ogu = behar dugu)

Arradioa biztu eta Iziartxu makinäaz josten hasten da.

Hamaika ta erdi ingurutan Zubiri agertzen da bainurako
albornoza jantzita.

—E'un on, e'un on. Beti lanien? Emakume materialistek beti
diru bile! —erraiten du txantxetan bainuko atetik sartzen dala.

Eta minutu batzutan Zubiriri gosaria izan ezik, etziran geldi-
tu euren lanean bazkalordurarte. Eta bazkal ostean ere, platerak,
eltzeak, eta enparauak garbitu ta, berriz apalordurarte saiatu
ziran denbora guztian.

Apaldu ta, ostera ere josten ta gero plantxan ta etziran ohera-
tu esandako bi pare praka amaitu arte.

II

Uztailak 8, larunbata

*RSSBk USAri ihardesten dio: Korea inguratzea UNOren esku-
tützean ezarritako lege guztien aurka doa, bai ta amerikanuen
indarrak Korean sartzeara ere.*

Mac Arthurek, nola ta zergatik atzeratu ziran Osandik amerikauen indarrak azaltzen du, Koreako gudutokiaren egokera guztia argi ta garbi jakinarazirik. Taejondik 64 kilometro iparralderuntz, Seul-Fusaneko erregebidean erabagi du gorriak geldiaraztea.

Gabilondo Fernando ikustera etorri da Madrileko beste puntatik.

—Zelan za'oz aspaldiko, bizi zara? —esaten dio Fernandok—. Zenbat urte diren alkar ikusi eztogula!

—Hiru urte izengo dire. Asau e'itten dat zure etsee (asau = urrun). Ie ordubete tarda dot onaino etorten, autobusen begire emon doten denporea kontau ezkeru. Halan ta guzti bere, akabuen neu etorri naz zugana, ez zu nigana.

—Zeu sikieran libre za'oz, bakarrik bizi zara, erreza'o jatzu etortie niri joatie baino, ni familijagaz bizi naz.

—Ba'kitt, ba'kitt —erraiten du Gabilondok.

—Itxerain apur baten —diotsa Fernandok—, txakie hartu bi'ot (behar dot) eta buelta bat emoten joango gara.

Larunbatetan biak eukitzen dute arratsaldea libre eta badoaz elkarrekin.

—Fernando! —esaten dio Gabilondok lepoko bat emanez—, euki dot ganea⁽¹⁾ zapatua heldu ditten zugana etorteko... Zugez 'in leiki berba, Fernando. Eztakizu zelako jente modugez nabilen, zelako astokeriik entzun behar dotezen. Danak tire burgesak ta amorrotute dabiltz Koreako gorabeherakaz.

Eta bi adiskideak apalordu arte ibili ziran elkarrekin mundua konpontzen.

Uztailak 15, larunbata.

Komunisten indar handi batzuk, Taejon ondoan Kum ibaia igaro eta amerikauen gudutokia hausten dute ibaiaren hegoaldean.

(1) Gogoa.

Beste tropa gorri asko iparramerikanuen ezker aldearen aurka Taejondik ipar-sartaldean.

Mac Arthuren agiriak dionez, komunisten indarrek amerikanguen zerrendak zenbeit tokitan probatu eta zubi-buru bat hegoaldean ezartzea lortu dute.

Gabilondo Fernandoren bila etorri da joan dan larunbatean bezela.

—Hau ie akabata dau, Fernando —erraiten dio Gabilondok, Madrideko kale batetik *Ventas* alderuntz doaztela—, kapitalistek ezteke zer ‘inik munduen komunisten aurreen. Usteldute da’uz. Diruu izen ezik ba’pere eztotze ardure... Hainbeste urtetan itxaroten egon nazena allega da akabuun.

—Egixe da. Milla bider entzun dogu amerikanguiek zirela munduen indderrik gehixen euketak... eta hara nun botetan dabezen itsasora koreanguiek ezkeragaz eta ankapetik... Harrokeri gitxi bi’ da ‘men (behar da hemen). E’inek e’in! —ihardesten dio Fernandok.

—Amerikanguen propagandako guzur guztiek agiriin dauz... eurek irabazi eudela gerrea, je je je! Oingo non egongo ete ziren rusoagaitik izen ezpazan!... Alemanak inder guztie Rusiun euki euden artean fasille izen zan European sartzie atzetik —erran zuan Gabilondok.

—Hau dana Jose Estalini zor jako —esan zuan Fernandok—, berak lagundu eutsen txinoei komunismoa ekarten. Eta o’in be, bera da’u gauze guztixen atzien. Jesukristoren denporatik hona ezta inoz egon munduen gizon handixa’urik.

—Lagun! —hasi zan Gabilondo tipuski geldituta—, ez aitte-tu nii Jesukristoren izenik. Batez bere Estalinen ondoan!

—Koino! Kostunbriegaz urten e’in ddeust jakin barik. Arrazoie dekozu. Ankie sartu dot —ihardetsi zion Fernandok.

—Bai... Estalin munduen izen dan gizonik handiina da, eta denporegaz gerora’o eta handiago izengo da bere izena. Lenin bera baino handiago da.

—Badakixe hau ondo kapitalistek! —gaineratu zuan Fernandok—, Estalinen kontra e’itten daben propagandie... Jesus Maria ta Jose!

Hau entzun, ta Gabilondo harrituta gelditu da, berriz Fernandori begira. Berau gorri-gorri jarri da.

—Zu Fernando, abade baten modukoo zara. Ezin dozuz berba bi ‘in Jesukristo, Amabirjine ta santu guztiik atara barik. Posture ‘ingo neuke egun guztitan errosarioa erresaten dozula —erraiten dio begi-begira jarten zaiola.

—Bai zera!... errosarixoa nik?... Baaa baaa... tire tire...

—Zuk ezpadozu erresaten bere... zure andriek eta zure alabak erresako dee... eta zuk entzun. Ni neure etseen andriegaz bizitzen nintzanean, ez zan erresaten errosariorik ez ta mezara yon bere... eta nire andrie baino okerra’urik eztozu ikusiko. Hamar urte dire etsetik yoon zala semeegaz, eta bientzat bere ixerdiigez dirue irebasi behar izen arren, badeko denporea, esan deusten lez, semeegaz elizera yooteko.

Hau esan eta gogoetatsu gelditu zan Gabilondo emaztearen gaiztakeriei buruan birak ematen, eta adiskide biak ixilik joan ziran une batean. Gero berriz hartu zuan hitza Gabilondok.

—Egii esan dozu. Ahaleginek ‘in dabez beti kapitalistek Estalinen kontrako guzurrek asmetako: berak hil dittuzela komunisterik zintzoenak, eta holako gauzek. Eztotzazu inoz entzungo benetako komunista bati berba ba’pere (bat ere) Estalinen kontra. Hara Fernando, munduko langile guztiok aite dogu Estalin.

Harrezkero Stalinek egindako “purga” izugarriaren berriak ezagunak ziran denbora hartan, baina komunistek etzuten sines-tu nahi.

Minutu batzutan ixilik egon ziran Stalinen omenez. Gero,

—Bai, Estalin aite bat izengo da beti langileentzat —gainerratu zuan Gabilondok—, eta gero ta fama handiago eukiko dau komunisten artean.

Pozik igaro zituan Fernandok Gabilondorekin ibilitako orduak. Pentsatu zuan asko ikasten zuala beragandik. Hura zan bai gizona! Halakoak ziran etorkizuna ondo ta garbi ikusten zutenak, gero aginduko zuten gizonak.

Zoritxarrez goiz joan behar izan zuan Gabilondok, zakurra etxean lotuta utzi zualako. Joandako larunbatean oihuka eta negarrez egon zan jabea etorri arte.

III

Orain Txomin eztabil Apalategi, Garmendia ta Etxeberriarekin. Luis Martinez, Iziartxuren senargeia, da orain bere adiskide mamia.

Martinezek eztu susmatzen Txominek Iziartxu maite duenik. Edanda zegoala, Iziartxuz mintzatzen hasi zitzaion, ta orain, edan gabe ta buru hotzean ere, emaztegeiarekin gertatzen zaion guztia, ixilpeko gauzak eta dana, Txomini esaten dio. Eluke idoroko inun ere berau baino entzule adikorrakorik.

La Castellana deritzan pasilekuko *café* batean, kanpoko mahai baten inguruan exerita, erdiraino betetako garagardo baso bana aurrean dabela, biek zaintzen dituzte jendearen harat-hunatak. Noizik behin tranviren bat igaroten zaie aurretik zarata handiarekin. Tranvi luze horiak euren aurreko bidetik, ezkerretik eskumara. Haratxuago arbolak eta jendea oinez. Urruntxuago, pasileku zabalaren erdiko bidean, automobilak alde bietarantz, eta urrunago, berriz arbolak eta jendea oinez, eta pasilekuaren azkeneko bidetik tranviak eskumatik ezkerredera eta azkenez pasilekuz beste aldeko etxe handi ederrak.

Eguraldia ona da. Eguzki ditziratsuak dana alaitzen du bere argi biziarekin. Martinezek inoanez, Iziartxu eskuetatik ihes eginen hasi zitzaion. Zerbait egin beharko zuan. Berak utzi beharko zuan andregeia, beronek bera utzi baino lehen.

Adiskide biak zeukaten adimena neska berarengan. Bietatik Txomin zan alaiena eta arratsaldea hobetoen igaroten zuena.

Martinezek, atera Canariaseko neska baten argazkia, erakutsi, ta ea zer eritzon itaundu eutson. Txominek gezur handi bat esan zion: asko gustatzen zitzaiola. Martinezek haurtzarotik eza gutzen ebala ta bere herrian bizi zala esan eutson.

Txominentzat ezer balio ezuan neska itsusi baten argazkia zan.

Hurrengo eguna igandea zan. Martinezek, pelota jokuan, bere ikastetxean, txapelduna izan zala, kopa asko zeuzkala pelotaka irabazita, ta ea pelotaka jokutzen ote zekian galdetu zion Txomini. Honek baietz. Halan ba, hurrengo goizean, hamarretan, *Universitariako* frontoian aurkituko ziran partidu bat jokatzeko. Martinezek bentajäa emongo eutson, eskoia gaz jokatu eutson. Txominek eramango zuan pelotäa. Arrigorrietatik ekarritako pelota bat zeukan.¹⁶

Igande hartan Txomin zortziretan jagi zan. Bainua hartu, bizarrak kendu, jantzi, gosaldü, ta bederatzitako mezatara joan zan. Elizatik urten ta oinez Moncloarantz. Ia beti bezala, eguraldia oso ona zan Madrilen.

Frontoira hamarretan heldu zan. Martinez ezan etorri oraindik.

Atara pelotäa sakeletik eta tiki-taka tiki-taka hasi zan eskuak berotzeko.

Hamarrak eta hogeï ziran Martinez heldu zanean.

—¿*Has esperado mucho?*— itaundu eutson—. *Ya perdonaräs. He tenido que esperar al tranvia* —esan eutson.

Atera hogەرleko bat eta pil edo kutx egin zuten. Martinezï tokatu zitzaion sakea ateratzea.

Lehenengo tantoa Txominek irabazi zuan. Tanto laburra izan zan. Atzera bota eta gero dejadatxu bat baino ez.

Beste hemeretzi tantoak sakez irabazi zizkion. Martinezek tanto bakar bat ere ez zuan irabazi. Partidua oso laburra izan zan. Martinezek eskuak oraindains berotu barik euko zan.

¹⁶ Ohar bedi irakurlea, ohartzeko bizkaierazko adizki eta formak lerratu zaizkiola idazleari: *inoanez* (goratxoago), *eritzon* (bik. *eritzon*), *eutson*, *ebala*. Testuan zehar beste gehiagotan ere ikusten dira halako batzuk, batez ere *eban* adizkia.

Beste partidu bat jokatu zuten, baina orain Martinezek ez zion emango bentajarik.

Bigarren partiduan Martinezek subertea euki zuan. Bost tanto egin zituan, bost tanto hogeira. Baina izerdiz blai-blai eginda eta guztiz nekatuta zegoan. Denpora guztian arrapaladan ibili zan frontoiaren punta batetik bestera. Txomin ordea, ia mugitu be ez zan egiten. Eman hiru edo lau pausu trankil-trankil, ta pelota guztiak eskura etorten zitzaizkion.

Hurrengo igandean ere goizean *Universitariako* frontoira joan ziran. Txominek eman zion orduan bentajäa Martinezi. Eskumarekin jokatu zion. Eta Martinezek hiru tanto baino ez zituan egin.

Orduan beste partidu bat jokatu zuten, Txominek ezkerragaz, eta Martinezek zazpi tanto egin zituan. Baina amaitu zuanean ia itota zegoan eta arkondaräa uretara erori balitz bezala zeukan izerdiaren izerdiz.

Pelota hura gogorregia ta astunegia zala, berari min egiten ziola eskuetan, eta Martinezek berak ekarriko zuala artilezko pelota bigun bat, esan zuan.

Baina artilezko pelota bigunagaz be bardin-bardin irabazten eutson Txominek. Bardin-bardin ibili erazoten eutson bazterrik bazter, bera trankil-trankil, ia mugitu gabe zegoala.

Martinez lotsatuta zegoan. Bere ikastetxeko txapelduna, hainbeste koparekin... Txomini adarra jotzen ibili zitzaiola esan zion (“me has estado tomando el pelo”).

Eta ia hasarretu egin zan Txominekin.

IV

Bederatzirak ziran Fernando etxera heldu zanean. Inasi ta Iziartxu otoitz egiten zauden, errosarioa esaten. Joan mahaira, exeri kopet ilunez, atera egunorokoa sakeletik eta irakurten hasi zan.

.....
Mater Creatoris

Ora pr nobis

Mater Salvatoris

Ora pr nobis

Virgo prudentissima

Plast! Fernandok eskuaz mahaia jo eta,

—Ixilik! Ezto'kure (eztot gura) gehixa'u etse honetan errosarixorik! —erran zuan garraisika, Inasi ta Iziartxu kilometro bat baino urrunago bailegozen.

Batera ixildu ziran emakume biak. Begiak zabal-zabalik, Inasi ta Iziartxu Fernandori so egon ziran segundu batzuetan, biak oraindik aho bete haginekin. Alabarekin begitada bat trukatu eta Inasik,

—Zer esan dozu ereje horrek?... Etse honetan eztozula gure gehixa'õ errosarixorik?... Aitaren eta semiaren!... Eztakitt zelan etxatzun jeusten arpeixe lotsiegaz, holako gauzak alabaren aurrien esaten... Ez e'izu errezeu zeuk gure ezp'ozu. Ibili zara askotan ni konbentsiduten komulgetan ez joateko... E'zaitetz joan zu, ez e'izu erreseu gure ezp'ozu. Guk gure dogun guztixen erre-seuko dogu!... Holakorik esatie be!... —erantzun zion sututa.

—Etse honetan ezta e'ingo besterik neuk gure dotena baino!... Bestela... —erran zuan Fernandok ukabilak tinkaturik.

—Bestela zer? —eta hau erraiten duala Inasik negar-malkoz beterik dauzka begiak—, bestela zer? Ia, esan!...

Iziartxuk besotik xamurki oratu ta,

—Ama, egon zaittez ixilik —erraiten dio ahopetik.

—Ixilik zeu, neuk ba'kitt zer esaten doten da —eta berriz Fernandori—, ia, esan!... bestela zer?

—Bestela belarrondoko bat emongo'tsut.

Orduan Inasik, garraisika eta negar egiten hasteko zorian,

—Entzuteko faltetan yatena! —esaten du—, egon zaittez egun guztixen josten dirua etsera ekarteko, garbitu e'izu etsie, garbitu e'izuz izerak eta etseko arropa guztixak, imini e'ixozu senarrari lau bider astien arkondara garbi-garbixe, ondo ondo plantxeuta, tximurrik txikiena be itxi barik, ekarri e'ixozu beti gehixen gustetan jakona jateko, e'izuz bazkarixe ta aparixe, eta

gero hartu e'izu saritzat belarrondoko bat —eta zotinka ta auhenka hasten da negarrez.

V

Hurrengo igandean, uztaileko igande batean, goizean, Ventasko bar batean, barruko iluntasun freskuan, Fernando ta Gabilondo, beronen adiskide batekin hizketan zegozten. Kanpoan sargori zegoan. Fernando joan zan bere adiskidearen bila, ta bar hura Gabilondoren etxe ondoan zegoan.

Hirurak erderaz mintzatzen ziran. Gabilondoren adiskidea hagin-sendagilea zan eta handik hurbil zeukan bere hagin-senda-giltegia. Noizik behin hirurak isiltzen ziran urrak jateko ta garagardo hotz-hotz txurrutada bana edateko.

Gazte luze bat sartzen da astiro jendeen artetik. Burua danen gainetik ikusten zaio. Ile hori, begi urdin, gizon-itxurarik ederrena dauka. Azkenean gorputz osoa ikusten zaionean, bere sorbalda zabalekin, apain-apain jantzia eta zuzen-zuzena, zineko artista bat ematen du.

Hagin-sendagilearen semea da. Joan aitarengana ta dirua eskatzen dio. Ematen dio honek igandeko saria ta berak aitari mosu bat arpegian eta badoa atzera etorri dan bezela.

Hogei urteko gizon handia, Paquito (hala dauka izena), seme bakarra da ta aitari buruhauste gogorrek ekarten dizkio. Hagin-sendagileak ez zekian zer egin semearekin. Fernando ta Gabilondori esan zien ozta-oztan bukatu zuala bachilleratoa bere hogei urtekin, beretzako irakasle bereziak bilatu ta diru asko gastatu ostean. Orain unibersidadean sartu behar zuala, medizinako facultadean. Euren etxean berak irabazten zuan gutzia gastatzen zala eta ez ziola utziko besterik hil ostean, hagin-sendagile-tresnak baino. Asko balio dutela tresna hauek erosten joaten bazara eta gutxi, saltzen badituzu.

Ea zenbat urte egin beharko zituan unibersidadean? eta zazpi, behingoan dana pasatu ezkerero.

Ea zergaitik ez zuan sartzten ofizina batean edo saltzaile beze-la? eta, ez zualako balio. Tabakoa erosten bidaltzen zuanean, dirua justu-justo eman behar ziola beti, kanbioaren kontua ezin zuala atera ta.

Paquito ez zala ezertarako gauza, eta ezertarako balio ez zualako, hagin-sendagile egin beharko zuala. Ez zegoala beste urteie-rarik.

Arrazoiarekin indartu zan adiskide bien komunismozaletasu-na hagin-sendagilearen hitzekin.

Alde egin zuanean Fernandok,

—Paquito dentiste izen? —esan zuan—, ta zer, okerreko hagina ataraten badeutsu?

Eta Gabilondok,

—Kale-garbitzale izeteko balio dau Paquitok —esan zuan—. Askotan beher izeten dire kale-garbitzaleek, ta nok dauke Pakitok baino meritu handiago kale-garbitzale izeteko?

Harrigarria benetan izan zan hagin-sendagile batengandik, ezertarako balio eztuena hagin-sendagile izateko balio duela entzutea (eta hagin-sendagile hau eztut nik asmatu, irakurle, aspal-dian ezagutu nuan). Bachilleratoa egitea hainbeste kostatu zi-tzaionean, ez zegoan dudarik Paquitok ez zuala pasatuko ikasur-te bat ere unibersidadean, aítak baietz pentsatu arren. Zer zan aitari bildurra ematen ziona? Semea beste clase social batera bajatzeak.

Komunismo guztia ezta beltza. Hagin-sendagilearen hitzak baino gauza askoz handiagoak atera ditezke bere alde. Lastimaa askatasuna galera zoten duala.

SENAR-EMAZTEGEIAK

I

Benetan maitagarria iduritzen zuan Iziartxuk bere sedazko soinekoarekin eta bere ile beltz diztiratsuekin.

Martinezek bere kontra estutu zuan haren gorputz epela. Birak eta birak egin ostean, orain pausu luzeak ematen hasi ziran ta poz handia eman zion neskäaren perfumea usaintzeak.

— Musika hau asko gustatzen zait —esan zion—, eta zuri?⁽¹⁾¹⁷

— Bai. Neri be bai.

— Poztuten naiz dantzalekuan hain jende gutxi egoteaz.

— Bai, nahi aina leku daukagu mugitzeko. Inork ez tigu sakatzen.

Beste dantzari pare bat eurenganantz zetorren ta tope ez egi-teko eskua Iziartxuren bizkarretik kendu zuan.

— Barruan baino askoz pozgarriagoa da kanpoan dantzatzea. Ez, Iziartxu?

— Bai, barruan aide txarra dago.

— Honelako gau batean pentsa leike Venecian edo munduko lekurik romantikuenean gagozala.

— Baina, dana dala, Madrilen gagoz.

(1) Eztitugu ipiniko komilen artean erderaz esandako ta euskaraz idatzitako hitzak.

¹⁷ Elkarrizketa 'euskara osotu' horretan egotea, jatorrizko gaztelaniakotik idazleak euskaratu izanari zor zaio.

Neskäären erantzuerarekin tonto samarra sentitu zan

— Zeozer esatearren esan dut. Asmodeoren esakera bat da
—esan zuan ajolagabe-itxurak harturik.

Neskääk ez zuan farrik egin. Berak ez zion sinestuerazo behar
Iziartxuri sentimentala zanik.

— Eta Madrilen baino ezpagagoz ere ezta ajola. Zurekin ego-
tea nahikoa da.

— Hori be Asmodeoren esakera bat da?

Mutilak far egin zuan. Albokerazko pausuak emanaz, dantza-
lekuaren ertzetik eraman zuan neskää.

—Pozgarria da zurekin dantzatzea, Iziartxu.

Eta biraka ta biraka hasi zan arin-arin dantzalekuaren ertzetik.

Dantzalekuaren inguruak mahaiez beterik zegozten, gainean
argiontzi txinoekin.

—Ez zazu dantzatu hain arin. Arnasa kentzen didazu.

Astiroago hasi zan.

Musikää amaitu egin zan.

—Eztago txarto leku hau —esan zuan Martinezek txaloka
orkestari begira—. Baina edozein leku dago ondo zurelako neska
batekin.

—Minutu bat baino ezta, haxe bera esan didazula.

—Uste nuan ahaztu zitzaizkizula Asmodeoren hitzak. Horre-
gaitik esan dizut.

Ez ote zuan joko orkestak beste pieza bat? Neskääk zauritu
egin zuan. Ez zegoan seguru haren sendimentuz. Bere zentzun
gabeko hitzek estaltzen zuten sendimentu sakona Iziartxuk sus-
matuko balu... Haizea leuna zan. Ilargia argi-argia agertzen zan.
Izarrek zerua betetzen zuten. Gauza hauek guztiak Iziartxurekin
batuta zaudela zirudian. Gau hartan bertan jakinarazi ahal izan-
go balio...

Orkestää tango bat joten hasi zan.

Biak dantzalekutik zeihar irristatu ziran. Martinezek danak
euren begira zaudela pentsatu zuan. Iziartxuk eta berak beste
edozein dantzari pare batek baino hobeto dantzatzen zuten.

Mi caballo murió, mi alegría se fué y con él se perdió mi cariño más fiel...

—Asko gustatzen zait, Iziartxu, zure kantua entzutea.

II

Atartean egon zan itxaroten Iziartxu jantzi arte. Gurako leu-ke berak, neskäa berehalaxe agertzea. Goiz luze bat igaro zuan. Klaseak bukatu ziranean joan frontoira ta pelota partidu bat jokatu zuan beste ikasle batekin. Denbora guztian egon zan, nahiz klasean, nahiz frontoian, Iziartxuren irudia burutik kendu ezinik. Eta poztu zan azkenean elkarrekin egoteko ordua heldu zanean.

Dantzalekuan gertatutakoa ahaztuta zeukan ia. Iziartxuk ez zion ihes egingo eskuetatik. Bere bildurrak, bere irudimenak sinestarazi zion Iziartxuk ez zuala maite. Baina maite zuan. Begiak itxi ta pentsatzen hasi zan.

—Parkatu luzaro itxaroten euki bazaitut.

Begiak zabaldu ta,

—Ezta ezer. Pentsatzen egon naiz.

Autobusaren geltokirantz joan ziran. Iziartxuren etxe ondo-ondoan hartzen zuten autobusa beti Red de San Luisa joateko.

—Zeregin ona da pentsatzea... baldin gustatzen bazaizu.

—Pentsatzea ezta tontokeri bat.

—Ez, egia da. Nik ezin dut pentsatu. Gustatuko litzakit hain tontäa ez izatea.

—Zu ez zara tontäa.

Heldu zan autobusa. Jende gutxi zegoan euren aurrean itxaroten. Eurei be tokatzen zitzaien sartzea. Bazegoan lekua autobusaren atzeko partean. Aurrez aurre exeri ziran. Luisek, apur bat ezkerretara mugiturik toki libre nahikoa utzi zuan.

— Exeri zaitez nere ondoan —esan zion Iziartxuri—. Eztaukazu zetan egon hain urrun.

— O! Hemen oso ondo nago.

Halan ba destaina egin zion. Ez zuan erakutsi behar minduta zegoanik. Bere buruari engainetan ibili ote zan? Zabaldtu zan bere tokian alboetara begiraturik. Baina hau ganora barik egin zuan. Konturatu egin zan. Zuzen-zuzen jarri zan. Zegatik erakutsi behar zuan beti bere baldartasuna Iziartxuren aurrean?

Red de San Luis deritzan geltokira heldu ziranean autobuse-tik jeitxi ziran.

Gran Viatik zebilzten orain.

—Iziartxu, zer deritzazu zuk alerjiari?

—Zelako galderäa! Ardurik ere ez zait.

—Facultadean estudiatzen dugu ta oso interesantea aurkitu dut.

Lortuko balu Iziartxurekin edozelako gai batean biak jakingura berdina sentitzea...

Café Iruñako terrazan exeri ziran.

Eskatutako gauzak ekarri ta dirua hartu ostean morroiak alde egin zuanean, Martinezek, besoa atzetik sartu, bereganantz tiratu, ta mosu bat eman zion Iziartxuri.

—Eztugu egin behar hau, —esan zion neskäak bere burua Luisen besotik askatzen zuala.

—Zergaitik ez?

—Eztuzu ikusten jendeak ikusten gaituela? Eguneko argi bizitan gagozala?

—Hoba zure begien sakontasuna neurtzeko.

—Ezagunen bat agertu diteke.

—Hurrengo egunean zinera joan behar dugu.

—Zuk nahi duzun bezela.

Odola berotu zitzaion. Atera ereztuna atzetik eta eskeini egin zion.

—Zer? Zer da hori?

—Nere ereztuna. Har ezazu zurearen truk.

Hartzen bazuan konpromisoz lotuta geldituko ziran, oraindik urte askotan ezkondu ezin izango baziran ere.

—Eutsi!—, esan zion, eztarrian korapilo bat egiten zitzaiola.

Iziartxu harrituta geratu zitzaion begira geldi-geldi.

Berak tonto baten itxurarekin ikusten zuan bere burua, eskua luzetuta zeukala ereztuna eskeintzen.

—Badakizu Iziartxu, asko maite zaitut.

—Zu ere gustatzen zatzaizkit.

—Orduan har ezazu ereztun hau mesedez.

—Ezin dut.

—Zergatik, zergatik ezin duzu?

Orain klaru-klaru ikusten zan dana amaituta zegoela bien artean. Zegaitik egin zuan hau? Zergatik ez zuan neurtu gertatu zitekeana? Pentsatu gabe egin zuan.

—Ezin dut, ezin dut.

—Baina Iziartxu, hori ezta arrazoi bat. Zergatik ezin duzu?

—Gauza serioegia da.

—Zergatik?

Neskää jendeari begira jarri zan. Luisek albotik begiratu zion arpegira bihotzetiko seinale baten bila. Baina hotz-hotz zegoan. Ez zitzaion igarten bihotza zeukanik ere. Ezpainak geldi-geldi zeuzkan ezer adierazten ez zuan irrino batekin.

Berotasunez beterik oratu zion eskumaz gerritik eta ezkeraz belaunetatik.

—Ez hasi orain tontokeriak egiten.

Orduan, urrunegi joan zala pentsatu ta pakean utzi beharko zuken. Baina itsututa zegoan.

—Beste gizon bat dago? —itaundu zion sututa.

—Ez.

—Egia diokidazu?

—Nola eztizut esango egia? —esan zion Iziartxuk kopeta ilundurik.

—Orduan eztago beste gizonik?

—Ezetz esan dizut.

—Orduan hartu ezazu ereztuna—, esan zion nahi ta ez har-tuerazo nahirik.

—Ez. Tontokeri bat izango litzake.

Isildu ziran orduan biak eta gehiago ezer esan gabe egon ziran etxerako ordua heldu arte. Gutxi faltatu zitzaien betiko hasarrazteko, baina ez batak eta ez besteak, ez zuten nahi betiko hasarrazterik.

ADISKIDE MAMIAK

I

Bestetan bezela, larunbat hartan, uztailaren hogeita bigarrenean, Gabilondo Fernandoren bila etorri zan. Bidea oinez egiteko, goizago atera zan etxetik txakurrarekin.

—Karta bat hartu dogu gaur herritik —hasi zan Fernando—, Inasiren aiztiek eskribidu deusku. Santixagoetan joateko ta joateko. Baina aurten ezkara joango.¹⁸

—Nire herriko yaiyek —erran zuan Gabilondok—, San Bartolometan eta San Markosetan dire. Hogeita urte izengo dire yon enazela.¹⁹

—Badozu han familirik?

—Bai... zoritxarrez... anaia ba'pai. (bat bai)

¹⁸ Santixagoak ez dira berez Gernikako —elaberrian Arrigorrieta — jaiak, baina bai alboerri batzuetakoak. Denetan ospetsuenak Busturikoak izango ziren orduan. Gernikatik hur dagoen Kortezubin ere ospatzen dira jaiok, eta urrunago dagoen Morgan ere bai. Halaere, idazleak Fernando eta Inasi Mendiuri herrikoztat aurkeztu dizkigu aurrerago, baina Mendatako jai nagusiak udaren ondarran ospatzen dira, San Migelak eleizaldean eta Errosarioko Domekea beheko Zarrako auzoan.

¹⁹ Zehaztasun interesgarria damaigu idazleak Gabilondoren ahoz, Fernandoren lagun hori Bizkaiko zein herritakoa zatekeen garbi erakusten duena, lehenetik berbaikerak salatzen bazuen ere Mungiatik Plentzia edo Sopela bitarte horretakoa izan behar zuela. Gatikako herrian ospatzen dira San Markosak eta San Bartolomeak.

—Familixe zuri gitxi gustetan yatzu ee? —esan zion Fernandok.

—Familiï gusteu?... Familiï... Hara, gizona fastidiatzeko asmeu diren gauze guztietati familiï da inportanteena —ihardetsi zion Gabilondok, kateari oratzen ziola txakurrari bere beharrak egiten uzteko geldituta.

—Aa! —esan zuan Fernandok—, zelako egixe esan dozun. Neu'pe (neuk ere) horixe pentseu dot behin baino gehixagotan. Jakingo bazendu jakin, zelako buruhaustek, zelako atsekabek emoten deustezan familixek!... Eta hori emaztie ta alaba bakarra baino eztaukatezela...

Egin du zakurrak lan askorekin egin behar zuana arbolatxo baten ondoan, eta bere zain geldituta egon diran adiskide biak aurrera doaz orain bere atzetik, Gabilondoren besoa aurreruntz luzetuta, zakurrak katea tinkatzen duala, abelgorriek idi-demetan harria narreztuten duten bezela.

—Ba'kizu zer 'in ieusten niri anaieek? —erran zuan Gabilondok burua Fernandoganantz bihurturik. Gero aurrera begitu ta, —¡Quieto Lau! —esan zion erderaz txakurrari, eta berriz burua okertu ta—: Gure aittek ontasun guztiik imini zituun bere ixeneen, neure anaie zaharreneen ixeneen esan gur'ot, bere partee ta neuree, nik konbentotik urten ezkeru nirea neuri emotekotan. Orduan ni konbentoean egon nintzen oinekarren. Eneuken amik, yayo nintzenean hil yaten ta. Hamabi urtegaz aitte bere hil yaten, ni oinekarren konbentoean na'ola. Frailerako enintzela yaio igerri ordureko, hamasei urte euki neuzen. Orduen etsera yon nintzen. Enekiin ezer bere, bizi modue topateko. Enekiin ondo zer 'ittea konbenitu yaten. Baiya anaiek etsetik kanpora bota nenduun, bere partee ta nirea beretzat hartute. Ezeusten emon txakur txiker ba'pere (txakur txiker bat = bost zentimo). Itzelak pasau neuzen.

Une labur batean bi adiskideak isilik joan ziran zakurraren atzetik.

—Ez pentseu —gaineratu zuan gero Gabilondok—, nire anaiea handiki bet da, gizon aberatsa da. Ez 'izu 'in berba bere

kontra herriin. Lotsabakoa egun guztittan yoaten da mezara, komulgetan...

—Aberats guztiek lapur batzuk baino eztire. Badakitt nik eztakarrela komunismoak danentzat aberastasunik, eta pobreak gero bere pobreak izengo garena. Baina pobreak izen behar ezke-ro, danok pobreak eta kittu.

II

Hilaren hogeitau bederatzigarrenean, larunbata izanik, bostetan Gabilondo Fernandoren bila etorri zan eta biak joan ziran elkarrekin.

—Ikusi dozu ze txikerra dan o'in amerikanuek dauken zatia? —erran zion, egunorokoak zekarren mapatxoa erakutsirik.

Ordu biko bidea egin ostean, Cuatro Caminosen zeudela, ardanegi batean sartu ziran. Zazpirak ziran eta oraindik eguzkia beste ordu bi egongo zan zeruan ezkutatu gabe.

Ardanegian emakume bat baino etzegoan eta bera mostradore atzean. Gabilondok galde egin zion ea esne-txerririk zeukaten.²⁰ Emakumeak baietz, baina uste zuala sua itzalita zeukala. Denbora hartan sukaldetik gehien-gehienetan ikatza erretzen zan eta sua piztea etzan gaur bezain erreza. Joan barrura eta bazegoala sua ta ea zenbat nahi zuten. Gabilondok arrazio handi bi eskatu zituan. Esne-txerriki errea zan etxeke espezialidadea. Botila bete ardo beltzekin pasatuko zuten denboraa txerrikoa erretzen zan artean.

Emakumeak, mahaia garbitu eta botiläa ta basuak utzi ostean, barrura joan eta minutu batzutan han egon zan. Gero atzera etorri ta plater bi, aitzo bi ta tenedore bi ipini zituan mahaian. Orduan mostradorera joan eta baso bat ardo beltzez bete zuan beretzat. Zigarrotxo bat biztu eta trago bat hartu zuan. Gero berriz joan zan barrura.

²⁰ *Esne-txerri*, gazt. 'lechón' adierazteko darabil.

Agertu zan azkenean kea zerion kazola batekin eta mahaian utzi zuan.

Ardandegia pixkaka-pixkaka jendez bete zan.

Fernando ta Gabilondo zortzi ta erdiak arte egon ziran jan ta edan botila hustu ta beste bat erdiraino edan arte. Gero bakoitza berera joan zan.

III

Beste larunbatetan bezela, Gabilondo, Fernandorekin Ventaserantz bira bat oinez eta hizketan emoteko asmotan etorri da.

—Zer, —erraten dio Fernandori— beher asko aste honetan?

—Baa! Asko edo... e'in ddogu e'in bi'gendune. (bi'gendune = behar genduna).

Gabilondo zakurrarekin etorri da. Katetik eusten diola, zakurrak, beti bezela, indar handiz tiratzen du. Gabilondok aurreruntz luzetuta dauka besoa, eta badirudi berak zakurra eraman beharrean zakurrak eramaten duala bera.

Fernandonetik hirurehun bat metro, etxe bat egiten ari dira. Langileek txindurriak bezela diardute lanean. Holtza ondoan letra handiekin arkitektoaren izena eta bere laguntzailearena ikusten dira. Arkitektoaren abizena euskalduna da.

—Aittu noraino heltzen dan burgesan harrokerii —dio Gabilondok, geldituta zakurrak zugaitz baten enberrari usaina hartzen diola—, arkitektoo da etse horretan beharrik gitxien 'itten deuna, eta aittu bere izena letra handiakaz, bera'pakarrik (berak bakarrik) dana eitten daula pentsa da'in.

—Bai, burgesek eurentzat hartzen dabez bizitzako gauza on guztixek —ihardesten dio Fernandok—, bestientzat lana bakarrik; isten deutse bai jaten da lo e'itten, biharrezkoa yakelako lan gehiago e'itteko. Besterik ez. Astoari emoten yakona. Jan ta lo e'in bi'deu (behar du), bestela eleuke gehixago lanik e'ingo ta.

—Arrazoie dekozu —erantzun zion Gabilondok, zakurrak nahi zuan tokiruntz joaten zala—, baya laster akabako da hori,

—zakurrak, beste enbor bati usaina hartu ostean, gelditu ta piz egiten ziola.

Artean Inasik etxean makinarekin josten ari dala,

—Bai, —erraiten dio Iziartxuri, berau ere, bera bezela lanean ari dala—, zure aittek beretzat hartzen dittuz bizitzako gauza on guztixek. Bestientzat lana bakarrik. Isten deusku bai jaten da lo e'itten, biharrezkoa yakulako lan gehixago e'itteko. Besterik ez. Ezertarako satisfazinorik ez. Astoari emoten yakona. E'in bi'deu jan ta lo, bestela eleuke gehixago lanik e'ingo ta.

EZKONGAI-ALDI BATEN AZKENA

I

Inasi eta Fernandoren arteko haserrea gero ta handiagoa da. Garrazki mintzatzea nahikoa iruditu ezik, Fernandok bere emaztea jo zuanetik (azkenean Fernandok jo egin zuan) etxe hartan ezta egon alaitasunik. Aldapaz behera hasiz gero, berez egiten ziztaizkien hitzak gero ta latzagoak. Lehendabiziko belarrondokok emanez gero, errez etorri ziran besteak, gero ta ugariagoak, gero ta sendoagoak.

Bestetan bezela, aste hartako ostiralean Iziartxu ta Inasi josten ari ziran.

Iziartxuk begitada asko botatzen zizkion erlojuari. Zazpi ta erdietan etortzekotan gelditu zan Luis, bere senargeia, eta bera zazpiretan inguru hasiko zan janzten.²¹

Bazeukan gogoia Luisekin egoteko. Egun guztian egon zan etxeko goibeltasunak eta negarrak burutik kendu ezinik. Zazpi ta erdietatik bederatzi ta erdiak edo hamarrak jo arte Luisekin egongo zan, eta denbora guzti hartan etzan oroituko etxeko negargarrikeriz.

Bai, bazeukan Luisekin egoteko gogoia. Negar-malkoz betetako ibar bat bada ere, badagoz mundu hontan beste gauza asko, Luisek bere hitzekin erakatsiko zion bezela.

²¹ *zazpiretan inguru*: idazleak hala darabil, euskal hiztunek nagusiro beste honetara darabiltena: *zazpirak inguruan*.

Azkenean erlojuak zazpirak jo zituan eta Iziartxu bere gelara abiatu zan, erdi jositako praka pare bat aulkiaren gainean utzirik.

Inasi bakarrik gelditu zan, josten eta arradioa entzuten.

Orain arradioa salgeien propagandaa ematen ari da. Inasik eztio jaramonik egiten, bainan nahi ta nahi ez, entzun egiten du:

El supertorrefacto Columba supera al mejor café... Contra el dolor quitadolores Kital...

Iziartxu prest dago irtetzeko eta oraindik sei minutu falta dira zazpi ta erdietarako. Zintzo-zintzo etortzen da beti Luis zazpi ta erdietan. Eztaki berak nolako abegi ona egingo dion gaur bere emaztegeiak, zelako alaitasun-egarria sentitzen duan, etxean hain triste egon ostean. Luisekin berehalaxe ahaztuten zaizkio beti etxeko goibeltasun guztiak.

Iziartxuk leihotik zaintzen du kalea.

Eguzkiak, aurreko etxeetan, oraindik goiko azkeneko egoitze-tan jotzen du. Behean, aurreko etxeko atarteetan, neska bat dago senargeiarekin hizketan. Beribil asko karrikan (gaur orduan baino askoz gehiago), danak eskumatik ezkerreara. Emakume batek haur txiki bat darama eskorga beltz batean. Haizeak gonak altxatzen dizkiola, berak eskuaz beheratzen ditu belaunen kontra.

Automobil eder bat gelditzen da aurreko dendaren ondoan eta txoferrak, kapelaa kenduta, atea zabaltzen du. Andre apain bi ateratzen dira kotxetik. Ate gaineko numerua irakurri ta etxean sartzen dira ezkongeeien ondotik. Txoferra gero, automobilaren atea itxi ostean, dendako leihoak aztertzen hasten da.

Senargeiari itxaroten astia aurrera doa. Eguzkiak eztu gehiago jotzen aurreko etxeetan. Hortik eta hemendik argiak piztutzen hasten dira. Aurreko dendetako leihoen argiak piztuta dagoz. Ezkerreko aldean hogeï edo hogeï ta hamar bat metro kaletik gora, cafeteria baten argiak ikusten dira. Argi urdinezko letrek *Cafetería Nápoles* diote. Eskuman, alboko etxean, letra gorri batzuk biztu ta itzali, biztu ta itzali, *Muebles Decoración* diote, baina Iziartxu dagoen tokitik eztira ikusten letra osoak, argi gorria biztu ta itzali, biztu ta itzali ikusten bada ere. Eskumatik datoze-

la automobilek argi zuriak edo horiak erakusten dituzte, igaro ostean berriz argi gorri biziak.

Zer gertatu ote zaio Luisi?... Zortzirak jo ta oraindaino agertu ez!... Inoiz ere ezta etorri hain berandu. Badirudi ezta eta etorriko gaur.

Aurreko etxetik lehendabiziko bi emakumak irten, igaro berriz ezkongeeien ondotik, eta automobilean sartzen dira.

Hara non datorren Luis!... Iziartxuk hatsez lainotutako kristala eskuaz garbitzen du. Luisek jeisteko keinua egiten dio.

Azkeneko ukitu txiki bat ileei ispilu aurrean, joan amarengana, eman musutxo bat eta,

—Gero arte, ama.

Atea klausk itxi eta zurubietatik behera arin-arin hasten da.

Atarteon Luisi:

—Zer gertatu zaizu? —eta,

—Lagunekin pasatu zait ordua jakin gabe.

Honelako okasioetan gezur bat esatea ezta pekatu izaten. Kaltegarriagoa da egia, eta Iziartxuri kopeta iluntzen zaio.

Baina... zer da hau? puah!... ardo usain higuingarria!... Sinets ote diteke? Luis erdi mozkortuta dago!... Nola erdi mozkortuta?... mozkor izugarri bat darama gainean!...

Berriz edanda? Berriz mozkortuta?

Haserretzen da Iziartxu, eta begi aurretik kentzeko esanik, bira egin eta etxean sartzen da.

Igo-tramankuluaren atea zabaldu, krask! krask! itxi, ukutu botoia, eta gora.

Amak atea zabaltzen dionean, sartu arin-arin, eta bere gelara doa zuzen-zuzen, ezer esan gabe. Atea klausk isten duanean amak, begira geldituta, burua mugitzen du astiro-astiro ezetz esateko bezela.

Apalorduan, aita ta Zubiri mahaieratu diranean, joaten zaio Inasi eta atea zabaldu nahirik barrutik itxita arkitzen du.

Tan tan jo eta,

—Tire Iziartxu, tire! —esaten dio—, zatoz mahaira, aparria prest dago ta.

—Ez ama, eztekot gogorik. Burukomina dekot —ihardesten du Iziartxuk barrutik.

II

Iziartxu Arrigorrietan gurasoekin bizi zanean, alboko famili batean ia etxekotzat zeukaten. Atea jo gabe sartzen zan auzoenean nahi zuan bakoitzean, eta txikitatik ohitu zan ezkaratzean, komedorean, edo etxe hartako edozein tokitan ibiltzen familiko alaba biekin, beste alaba bat bailitzan. Zaharrena bere adinekoa eta bere adiskide mamia zan. Etxeko jauna ta danak oso onak ziran eta zoriontasun handian bizi zan famili guztia, gurasoak eta alaba biak.

Baina behin aita lausotutako begiekin, zabuka eta arnasari ardo usain higuigarria zeriola etorri zan etxera. Mozkortuta, beste gizon modu bat zan. Edozegaitik hasarratzen zan eta laster hasi zan emaztea ta alaba biak erruki gabe jotzen. Iziartxuk ere, ederrak hartuko zituzken, baldin ikaratuta, handik arin-arin alde egin ezpalu.

Mozkorra joaten zitzaionean berriz izaten zan lehengo gizon ona eta ez zan oroitzen ardoaren agintzapean egindakoaz. Baina laster bukatu zan famili haren zoriontasuna. Aita gero ta sarriago mozkortzen zan eta lehen famili zoriontsu bat izan zana, gero munduko familirik zoritxarrenekoa²², errukarriena, behartsuena ta pobreena bilakatu zan.

Hau betiko tinkatuta geratu zan Iziartxuren irudimenean eta beretzat ez zegoan munduan mozkorti bat baino izaki nazkagarriagorik.

Beste alde batetik, Martinez ez zan inoiz izan benetako gizon bat beretzat. Askotan ume bat iduritzen zitzaion. Berekin ezkontzeak ez zion betetzen bihotza amets pozgarriekin. Ez zan berak

²² *zoritxarrenekoa*: adjektiboa denez *-en* atzizkiuz graduatu beharrekoa, *zoritxarrekoena* legokioke hor hobeto.

ezkontzeko nahi luken gizon modua. Ibili ta ibili berekin eta ondo ezagutzen zuala pentsatzen hasi zanean, mutil ona baina tonto samarra zala pentsatzen zuan. Ez zuan maite ezkontzeko beste eta askotan iduritzen zitzaion ez zitzaiola komeni berekin ibiltzea. Dana dala, atsekabe handia sentitu zuan berriz mozkortuta ikusi zuanean eta ohe gainean etzanda negar egin ostean, negar-malkoak legortu ta bertanbera betiko uztea erabagi zuan.

III

Telefonoaren aurrean Martinez minutu batzutan pentsatzen egon zan. Zer esango ote zion Iziartxuri galdutako ospe ona berriz irabazteko? Bera izan zan bai, astoa, ereztuna nahi ta nahi ez hartuerazo nahi izan zionean... Eta gero berandu ta mozkortuta bila joan zitzaionean gauzak konpontzeko... Baina dana azalduko zion garbi-garbi, eta Iziartxuk ulertuko zuan. Ez zion eskeindu ereztuna neskäaren zintzotasuna neurtzeko baino. Eta harrotuta zegoa-lala hartu nahi izan ez zualako, indar handiko izakeräa erakutsi zualako... Beste aitzaki bat bilatu beharko zuan... honek ezeukan indarririk... Mozkorraren errua Txomini botako zion. Txominen errua izan zan dudarik gabe. Txominek betetzen zion beti basua ta Txomin ibili zitzaion denpora guztian gehiago edateko ta gehiago edateko... Ez zan gehiago inoiz Txominekin ibiliko. Orain Iziarrekin hitz egin behar zuan. Etxetik urtetako eskatuko zion, ardu-ra handiko gauzak esan behar zizkiola, eta gaur bertan urtetako.

Hartu telefonua ta Iziartxuren numerua markatu zuan. Entzun ziran tinbrearen deiak. Azkenean Inasiren abotsak,

—Halo! Nor da? —itaundu eban.

—Iziartxurekin hitz egitea nahi nuke —esan zion berak.

Urrutiko hitzak entzun ziran. Ez zuan ulertu. Euskaraz mintzatzen ziran, baina Iziartxuren abotsa ezagutu zuala iruditu zitzaion.

—Eztago etxean —esan zion Inasiren abotsak.

—Noiz etorriko da?

—Eztakit. El Escoriala joan da adiskide batzuekin eguna igaroten.

—Eskerrik asko.

Ta telefonua eskegi zuan.

Hau azkena zan. Dana galduta zegoan. Honek ez zeukan konpontzerik.

Dana dala, Iziartxurekin urtetako garaia heldu zanean, zintzo-zintzo joan zan zazpi ta erdietan bere bila. Jo atarteko tinbrea ta itxaroten geratu zan. Ordu lauren igarota, berriz jo zuan tinbrea. Beste hamar minuto ta barrero jo zuan.

Azkenean Inasi jeitxi zan.

—Iziartxu eztago etxean —esan zion.

—Nora joan da?

—Arrigorrietara hilabete igarotzera.

—Eztu utzi neretzako errekadurik?

—Ez.

Martinez etsituta zegoan. Joan etxera ta liburuekin hasi zan. Baina letrak ez zioten esaten ezer.

Gero ikasten saiatu zan Iziartxuren irudia burutik kentzeko ta urte hartan inoiz baino nota hobek ateratu zituan.

MISIOAK EMATEN

I

Fernandok, Inasiri erlijinozko lekzioak ematen dizkiola,

—Hara Inasi —erraiten dio—, nik beti maite izan zaittut bixotzez. Zu ta biok iritxi batekoak izen bi'ogu (behar dogu) derrigor. Bixok bat izen bi'ogu beti... Sinestu e'iztazu: erlijinoko kontu guzti hórrek guzurrek dire. Nik zu'paino (zuk baino) mundu gehixa'o ikusi dot eta sinestu e'in bi'ostazu (behar deustazu): abadiak engaineu e'itten zaittuez zuek emakumok... baina kasu e'iztazu berba e'itten dotzutenien!

Katua altzoan daukala Inasik, burutik buztanaren puntaren puntaraino igurtzitzen du, eskua legun-legunki igarorik. Begi ta belarrien gainetik eskua dabilela, katuak makur-makur jartzen du burua, begiak erdi itxita, lo egiten hasteko bezela, eskua gutxika-gutxika atzeruntz doala, gero ta gehiago jaso burua, eta Inasiren esku leguna buztan puntara heldu orduko, burua izugarriki goratzeko, nagiak ateratzeko bezela luzatzen du gorputza, eta gomazkoa bailitzan, doble luzeagoa egiten dala dirudi. Katuaren ron-rona denpora guztian entzuten da, Fernando hizketan dagoela Inasik arreta handiaz igurtzitzen dio bizkarra.

—Eitte'o'tsut (egiten deutsut) —ihardesten dio Fernandori katua pakean utzi gabe.

—Jaungoikoa, gizonak imenteutako guzur ba'paino (bat baino) ezta —jarraitzen du Fernandok patxadäa galdu gabe—. Hara,

zeuk ikusi dozu inoz?... Zeuri irakatsi dotsuenak ikusi dabe inoz?... Baina itxi (utzi) e'izu katu madarikatu hori bakien neuk berba e'itten deutzutenien!

—E'in berba! Aittute'o'tzut! (aituten deutsut) —eta katuari eskua pasatzen gelditu ta, Inasik hartu besoetan haur bat bailitzan, eta maiteki-maiteki ipintzen dio burua bere arpegiaren ondoan.

—Zelan sinestu leike zerua eta inpernua da'uela? Zulako emakume zoli batek ho... —eta bat-batean haserreak leher egiten dio, emakumeak katuari gero ta laztan xamurragoak egiten dizkiola ikusirik. Jo plastada bat eta aberetxo gaixoak fu! egin eta derrepente joan zan handik tximistak botatzen.

—Zer e'in dotzu katu gaixoak holan joteko! —esaten dio emazteak.

—Katuak eztost e'in ezebe (ezer ere), zeupai (zeuk bai) katuegaz kopletan ibiltten berba e'itten dotsutenien, esaten dotena ez entzuteko!

—Esaten dozuna ez entzuteko? Entzun dot nik esan dostazun guztixe, eta beste gauza barri bat ataraten ezpozu (ezpadozu), eztekot zetan entzun be, hori dana lehendik entzunda dekot eta.

—Inasi, ahaleginak e'itten nabil zu ta bixok alkarregaz ondo konpondu gaitezen. Zuk eztozu inoz guzurrik maite izen. Neuk egixe baino eztotsut esaten. Baldin Jaungoikorik badago, etorri daittela o'in hona! E'in deixela milagro bat, ia ikusi daigun. Badi-noie milagroak e'itten dittuzela. Nok ikusi deu inoz milagro bat? Neuk ez... E'in deixela bat o'in ia!

Inasi orain azkazalak ebagitzen hasi da. Eztu erraiten ezer ere, eta Fernandori, jaramonik ere egiten eztiola iduritzen zaio.

—Itxi bakien artazixorrek! —diotsa garrisika munduko beste puntan bailegoan—, itxi artazixorrek eta entzun berba e'itte'otsutenien!

—Entzute'otsut, enaz gorra! —ihardesten dio Inasik harrিতa eta kopeta ilundurik.

—Ba ez hasi katuagaz edo artazixekaz edo beste edozegaz, gauza serixoak esaten dotzutezenien!

—Gauza serixoak? Halako astokerixe! gauza serixoak esaten dotzazuz?... Zu e'in zara bai hereje handixe!... Lehen ezinian honelakoa! Gixajoa! Lastimie emoten dostazu! Inpernura joatiek eztotzu bildurrik emoten?... Ikusten da ezetz. Eta zeugaz neu joatie gureko zeunke. Baina hortan alperrik zabiz. Iziartxuk eta bixok errezeuko dogu zure arimie salbetako. Esan dozuzen herejiek Jaungoikoak parkatu deizuzen. Eguneroko mezie eskeinduko dotsagu.

—Eztzue errezeuko neugaitik! Ez ta mezetara joango be, etxeko biher guztixek itxita!

—Eztogula errezeuko zeugaitik hereje hori?... Eta nok galazoko dosku mezetara joatie?

—Neuk!... Eta enabil txantxetan gero!... Ia ondo aittute'ostazun! (aditzen didazun) —eta hatz bat jasota—, ezarie gehixa'o mezetara joango!

—Ezkarala gehixa'o mezetara joango? Bixer goizien beluenez. (beranduenez)

—Hori ondino ikusteko da'o.

—Jaungoiko maitie! —dio Inasik eskuak estuturik—, parkatu e'ixozu, eztaki zer dinoen da!

—Ez esan eztakitela zer dinoten! Ia gero errespeto gehixa'o gordeta'ostazun!...

—Zu, Fernando, ezabiz ondo burutik. Bestela ezin leike aittu zelan esan zeinkezan horrenbeste astokeri.

—Ia Inasi, ia, kontuz gero belarrondoko bat hartutie gure ezb'ozu!

—Jo gure b'ozu! —diotsa Inasik negarrez—, iiii! jo hereje handi horrek! iiii! eztakit zelan ezaran lotsatuten emakume gixajo bat joten!... Eztinozu jo e'ingo nozule?... Zeren bildur zara valiente hori! Jo naizu ba!

Fernandok plist! plast! ematen dizkio bi belarrondoko.

Inasik "Ai ene! ai ene!..." ta negarrez doa ohe gainean arpegia estaltzera.

II

—Zer... ondo? —itaundu zion Gabilondok Fernandori larunbat hartan.

—Ondo ez... oso txarto! —ihardetsi zuan Fernandok.

—Txarto?... zegaiti'pa? (zergatik ba?)

—Betikoa... Familixie... Disgusto itzelak andriegaz.

—Zer, abadeek buruu berotu detso ela?

—Seguru!... Intensinorik onenagaz hasi naz beragaz berbaka, gauzak bixon arte astiro-astiro pentsetako, baina ezin leike.

—Aa! Abadeegaz berba 'itten badau galdute dau. Eztakizu zelan engainaten dauzen abadeek andra inusenteek.

Gabilondoren zakurra tratuetan dabil beste zakur batekin. Zain dagoz Fernando ta Gabilondo zakur biek elkarren ipurdiak ongi usaindu arte. Gero Gabilondok,

—Neuk ie konbensidute neuken andrea —esan zuan—, gexorik geunkeen semetxuu. Medikuek ezeuskun emoten itxerapenik. Jaungoikoaren eskutan egoala esan doskun. Nire andrea zoratute lez egon zan. Nik orduen ikusi nendun okasinorik onena. Erresaten ta negarrez pasten eban egune. Orduen tratu bet 'in gendun. Medikuuk esaun lez, Jaungoikoaren eskutan egoon gure umee. Neupere (neuk ere) erresako naun eta osatuten bazan neu bere yongo nintzen elizara... fedee eukiko naun. Hiltten bazan biok itxiko gendun eleizii. Holan 'in gendun tratuu. Gero hil 'in zan umee. Agiriin egon zan alperrik zala Jaungoikoari erresatee. Negar asko 'in zeun eta eneutsen esan ezer bere egun batzutan. Gero gure tratue aittetu neutzen, baya ezeun 'in kasuri'pere (kasurik bere). Jaungoikoaren borondatee zala eta hau ta bestee... hil enuanean!... (hil enuanean).

ZERUA GOIBELTZEN HASTEN DA

I

Inasi ta Iziartxu josten ari dira egunoro bezela. Fernando Gabilondorekin joan da Ventaseruntz itzuli bat emoten.

—Zer dekozu, Iziartxu? —itauntzen deutso amak jostorratza ehunean sartuta utzirik—, aspalditik ikusten zaitut triste-triste. Esaiozu amari zer pasetan yatzun, laztana. Damututa za'uz Lui-segaz hasarratu zinielako?

—Ez, ama, ena'u damututa. Betiko hasarratu nintzen beragaz eta ezto'kure (eztot gura) gehixa'u nire bizitze guztixen bere arpe'ixe ikusterik.

—Orduen zer dekozu hain triste egoteko?

—Ama, akaso da'u etxe honetan ezer alaitasuna sentiduteko? Zelan gur'uzu ni alai egotie?

—Arrazoie dekozu—, eta jostorratza hartu ta josten hasten da berriz.

Iziartxu ere josten ari da, ta biek diardute lanean, burua esandako gauzetan daukatela.

Orain Iziartxu da jostorratza ehunean sartuta uzten duena.

—Ama —erraiten dio Inasiri—, honelako bizimodua eroateko, aitten hasarreaz eta danagaz, gura'u neuke hilttie.

Inasik ere lana uzten du.

—Neu be zeugaz na'u laztana. Aitte ezta lehengoa. Hau ezin leike aguanteu.

Gaur eztute lan askorik egingo, antza. Pentsatzen pentsatzen, geldi dagoz biak. Inasik, alabari begira,

—Gauze bat esan bi'otzut —erraiten dio—, bart konfeseu ta dana espliketu neuntsen abadieri. Ba'kizu zer esa'usten?... separasinoa eskatuteko... Eta ba'kizu zer pentseu doten e'ittie?... habitasino bat billetu, habitasinoa *con derecho a cocina*, eta joan etxetik zeugaz... bueno, baldin zuk nigaz etortie gure b'ozu, —eta Iziartxuk eskua xamurki oratu eta maitetasunez betetako irrino gozo batekin baietz esaten diola—, eta gehixa'u barik egon... egon zure aitte damututa gure bila etorri arte. Makinie eroan eta atarako'gu bixontzat nehikoa bizitteko.

Berriz hasi ziran lanean bi emakumak, eta minutu batzutan etzan entzuten han kaleko automobilen zaratak baino.

Gero Inasik,

—Nik ondo eza'utzen dot aitte eta jakin dakitt ona dala izatez eta maite nabela o'ndino bere modure —esan zuan, berriz geldituta—; ikusten dabendien joan e'in gariena, eztot uste asko tardeuko dabениk gugana damututa etorten.

Ixildu berriz, eta lanean hasi ziran ostera ere. Inasik, noizik behin Iziartxuri begira jarri, eta azkenean:

—Iziartxu! —erraiten dio—. Ba'kizu nor ikusi doten kafeteriaren?... Txomin... Bai, arratsalde guztixetan egoten da bentanien ondoan jesarritte, geure etsie ikusten dan lekuen, liburu bategaz... Ha zeure atzetik dator... ezteukazu gauze seguruagorik.

Iziartxuk begiratu, eta barre egiten du begi-ezpaineekin.

II

—Eta... Fernando... Fameligez ondo?

—Baa... tire... Lehen baino hobeto bai behintzat. Badirudi zeozer aurreratu dogule. O'in eztabe errosarixorik erresetan, ta mezetara be eztira joaten... edo ez behintzat neure aurrien.

—Zorionak, Fernando! Asko da hori! Zure atzeta nozonoz yooten badire bere, asko 'in dozu! Apurke-apurke 'itten dire gau-

zek. Gaur zure aurreen ezpadaude erresaten, gero atzean bere ez...
pozik egoteko da.

—Bai, baina... Eztakitt... poz-pozik be ena'u.

—Zer ba?... Zer gure dozu gehiya'o?

—Eztakitt, Gabilondo, eztakitt. Pozik na'u, egixe da zeuk
dinozuna, pozik egoteko da... Baina... eztakitt... batzuetan zeozer
susmetan dot... Eztabe gehixa'u negarrik e'itten, eztabe inoz ezetz
esaten... arpegi iluna be kendu e'in yake... Hau ezta naturala.

—Gizon bildurti ta larrü! Zer gure zeun? Ondino negarrez ta
arpegi ilunegaz ikustee?... Astuko yaken o'ingo! Gaur arpegi illu-
ne itxi, biher gauza guztiik ahaztute!

—Bai... holan izengo da... baina batzuetan zeozetan dabizela
alkarregaz susmetan dot... zeozer e'itteko konpondute dagozela...

—Itxi'zu hori bakeen Fernando eta ez e'izu giha'u buelta-
rik emon. Entzun zendun zer esan zaun atzo gaubeen Radio Mos-
kuk?

III

—Komunismoak ezteu inoz atzerantza 'itten oinek imintten
daun lekutik —esan zion larunbat arratsalde hartan Fernandori
Gabilondok, zakurrak katetik tiratzen ziola—. Korean hartu
du'uzen lurrak hogeï urte barru bere gureek izengo dire.

—Gitxi falta da —erantzun zion Fernandok—, mundu guzti-
xen erdixe komuniste izeteko. Erdixe komuniste e'itten bada, bes-
te erdixe galdute da'u, ezteko zereginik. Kapitalistek eztire alkar-
tuten. Eta alkartu ezkerro be zer? Nun da'u komunisten arteko
alkartasune lakorik?... Nun topeu komunistek lako soldaduek?...
Komunistek eztabe galdu inoz gerra bat, eta eztabe inoz galduko.

Fernando pozik dago. Etxeko gauzek eztiote gehiago
buruhausterik ematen. Aienatu zaizkio susmo guztiak. Etxean
ezer ere ezta gertatzen. Inasi ta Iziartxu eztira joaten goizero
meza entzutera eta eztute gehiago errosariorik esaten bere aurre-
an. Oraindaino aintzinan baino hotzagoak ziran bere hartuema-

nak eurekin, egia zan, baina hau ere konponduko zan denbora-
rekin.

—Danak ikesi biher leukie komunismoagaz bizitten, mundu
honetan na'usi laster izengo dana garbi-garbi ikusten da ta. Neu-
re etxien be ahalegin guztixek e'in dodaz eta kosteu yat, baina
badoaz ikesten.

FERNANDO BAKARRIK GELDITZEN DA

I

Fernando etxera heldu zanean Zubiri zegoan bere zain maletekin, irtetzeko prest.

—Bueno, Fernando —erran zion, eskua luzaturik—, banijoa! Esan dit zure andriek nola juun biher duan denbo'a pixkateko, eta beste etxe batera juuteko. Denbo'a asko e'on naiz zure etxien eta sentitzen det juun biher izetie. Suberte asko, eta ikusi arte.

—Bai, Zubiri, ikusi arte —ihardesten du Fernandok pozgarri antzeko irrino batekin, ortz zuriak agerian—, neupe (neuk ere) sentiduten dot, baina... ze'ingo'tsagu ba?... Agur Zubiri.

—Agur, Fernando.

Klausk! itxi zan atea.

Fernando harrituta zegoan. Ondo disimulatu zuan Zubirirekin, baina benetan harrituta zegoan. Gutxien pentsatzen zuana gertatu zan.

Joan sukaldera eta inor ere ez. Joan bera ta Inasiren logelara, ta inor ere ez. Jangela hutsa igaro ta Iziartxuren gelan ere inor ere ez.

Bakar-bakarrik zegoan etxe hartan.

Bilatu sukaldean eta aparirik ez. Orduan sartagina hartu, bota olio pixkat eta rast piztu zuan mixto bat eta flap agertu zan gar urdina gasezko sutegian. Olio berotu zanean, hartu arrautza bat eta klausk hautsi ta gainera bota zion, oskola sutegi ondoko haitz zurian utzirik. Hartu gero plater bat iturri gaineko plater-

tokitik, atera arrautza, ipini platerean eta mahaira joan zan. Ogia, ardoa eta enparauak ekarri ostean, exeri ta jaten hasi zan. Baina etzeukan jateko gogorik.

Mahai ondotik jeiki, zerbaitekin topo egin eta danba! ematen dio ostikada bat, eta krausk! hormaren kontra hausten da sukaldeko aulki txikia, bai ta berehala, ezkerreko oinaren gainean saltoka, beste oinari oratu ere, begiak itxita, ortzak agerian, sudurra ta begien arteko larrua tximur-tximur minaren minaz.

Gero erren egiten doa senar-emazte gelara. Jesarri ohean, kendu zapatak, oratu eskumako oinari eta behatzak igurtzitzen ditu. Gero, hartu egunorokoa eta irakurtzen hasten da. Kolumna bat bukatu duanean eztaki zer irakurri ote duan.

Ohe gainean etzanda, eskumako oina igurtzi ta igurtzi, sapaira begira dago minutu batzutan. Gero bira ezkerrean, eta eskutitz bat ikusten du ohe ondoko mahaitxoan. Hartu ta irakurtzen hasten da.

Erderaz idatzita zegoan, haina guk euskaraz emanen dugu:

“Etxeko gertakariekin ezin dugu gehiago elkarrekin bizi, eta alde egitea erabagi dugu. Hona non arki gaitzakezun, baldin oraingo eritziak aldatu eta inoiz nahi baduzu.”

Eta azpian zuzenbidea. Gero beste letra-modu batez idatzita:

“Agur aita. Asko otoitztuko dut, danok berriz elkarrekin bizi gaitezen, lehen bezela.

Besarkada bat

Iziartxu”

Ordu lauren egon zan ohean exerita, ukondoak belaunetan, burua eskuetan, geldi-geldi.

Gero kalera, *Casa Ariasa*, edo, beste hitzekin esateko, auzoko bar batera.

II

Biharamon goizean esnatu zanean, ikusi etzegoala emaztea ohiturazko tokian, eta kopeta ilundu zitzaion. Igandea zan eta goizegi zan jeikitzeke. Bira ohean beste aldera.

Hamaikak inguru ziran azkenean jeiki zanean. Gasezko urberotzailea piztu eta bainura. Gero bizarra kendu, kalerako jantzi, ta sukaldean sartu zan.

Etzauden han Inasi ta Iziartxu ohituraz bezela. Ezin kendu hau burutik. Etzegoan egunorokorik mahai gainean. Ardo botiläa, basua, ogia, ta arrautza bai. Bezperako arrautz hotza. Bai ta aulki txikia horma ondoan hautsita ere.

Jan arrautza hotza ogi apur batekin, hartu ardo txurrutada batzuk, eta kalera.

Auzoko bar eta ardantegiak jendez mukurru zauden. Vermoutha eta garagardoa hartzeko ordua zan.

—*Eh! Aguirre!* —deitzen diote bar batetik.

Cezurrezko irrino zorionsu batekin, hortzak agerian, Fernando barrura doa.

Tokia jendez beterik, danak igandetako janzki berri dotorekin, berriketak eta farrak bazterretatik. Bar gainean karramarro, txangurro eta kiskilen kolore gorria, beste itsas janari mota askorekin, eta beste aldean morroien txamarreta zuriak harat-hunataka gelditu gabe, garagardoa, vermoutha, ta jendeak eskatzen zuana eramaten, bakoitzak nahi luken bezain laister eman ezinik, eta Fernandori deitu diona, beste sei lagunekin, txipiroi prijitz betetako plater baten inguruetan. Zazpi arpegiak —batzuk ahoa beterik matrailei eragiten, beste batzuk txipiroi zati beroa hatzetan, beste batzuk basua eskuan— Fernandori begira dagoz danak irribarrez.

Deitu zionak,

—*Vermut? Cerveza?...* —itauntzen dio, eta Fernandok garagardoa hautatzen duenean,

—*A ver aquí!* —erraiten du garraisika burua bar'eruntz bihurturik—. *Una caña!*

Gero, han dagozen lagunen izenak, Urli, Berendi eta abar, banan-bana esan ostean,

—*Aquí, Fernando Aguirre.*

—*Mucho gusto* —eta eskuak estutu, ta hartu txipiroi zati bat eskeintzen zioten erretilutik—, *muchas gracias* —esanik,

eta pozik egon zan ordubete ta erdi lagunekin erderaz hitz egiten.

Gero jatetxe on batera joan zan bazkaltzera. Mahai batean bera bakarrik, hors d'oeuvreekin markazko ardo botila bat eskatu zuan.

Orain ezta oroitzen Inasiz edo Iziartxuz. Aa! gauza onak dauzka bizitzak!

Gero arroza Valenciako modura, gero otarraina eta bukatzeko heladua.

Eskupeko bezela hamar pezeta utzi zituan. Nahikoa denbora hartan.

Cafeteria batean hartu zuan kafe beltza cognac kopatxo batekin, eta gero etxera joan zan loaldi laburtxo bat egitera.

Seiretan frontoira, Recoletosa. Han adiskide batzuekin batu zan, eta apalorduraino ibili zan eurekin.

Gabaz, etxera heldu orduko, amorratuta bezela zegoan. Ohean sartuta lokartu ezinik, biraka ta biraka ibili zan, oso berandu arte.

III

Biharamon goizean berriz ilundu zitzaion kopeta Inasiren ohea hutsik ikusi zuanean. Nola bizi familirik gabe! Tristeia zan bizitza familia maite zuan gizon bakarti batentzat!

Jeiki, bizarrak kendu, eskuak eta arpegia garbitu, jantzi kale-rako, ta sukaldera joan zan.

Etzegoan han Inasi ohituraz bezela. “Zer egin duzu, Inasi?... Egin duzunak eztauka erremediorik... Nahi nuke zu etortzea... edozer emango nuke... baina zuri eztizut inoiz esango. Enaiz inoiz zure bila joango. Burua makurtu? Zuri aitortu zu gabe ezin naitzela bizi? Ez Inasi, ez, sekula ez holakorik...”

Sukaldean, Inasiren faltaa izan ezik, etzegoan gauza ohargarriarik, ardo botilaa, basua, ogi gogortua, zartagina, plater zikin-dua, ta aulki hautsia baino. Beste gauza guztiak beti bezela.

Egun guztian ibili zan kopet ilunekin. Dendara heldu, esku-titzak hartu, estalkiak hautsi, irakurri, ta *pedido* handi bat arkitu zuan, eskutitzez salgai asko eskatzen zizkiotela irakurri zuan. Honelako berriekin asko poztutzen zan bestetan. Orduan ez. Orduan ajolik ere etzitzai.

Bazkalorduan, etxera joan beharrean, berriz joan zan jatetxe batera.

Sartzerakoan begitadatxo igeskor bat bota zion bere irudiari ateko kristeletan. Gizon zahar eta triste baten irudia zan.

Mahairatu eta hasi zan menua irakurtzen. Bazegoan han nahikoa betekada bat egiteko. Baina etzuan nahi gehiago betekadarik. Noizik behin ondo zegoan betekada bat egitea, baina egunoro ez. Etzuan eskatu ez otarraina, ez angulak, ez bizkaierazko makailaua, ez bildots erreka, ez ta markazko ardorik ere. Baburrun zuriak edo, berak esango luken bezela, indixaba zurixek, eta okela patata prijiduekin. Edateko ardo beltz arrunta. Etxean jango lukena bakarrik.

Etzauden baburrunak Inasik ipintzen zituan bezela, ez ta hurrik eman ere. Erdiak utzi zituan. Indixaba zurixek!... berari atseginen zitzaiona!... “Aa Inasi, Inasi, zuk dakizu zer dan neri atsegin zaidana. Sinestu ere ezin leike nola ikasi duzun gauzak nere gustora egiten... Nahiago nuke zuk egindako baburrun plater bat errestaurantetako platerik onena baino.”

Okela ona zan, baina etzegoan berari laket zitzaion bezela.

Apalorduan etzuan jan kanpoan. Etxeko giltza zulotik sartu ta atea zabaldu zuanean, hilerri batean sartzan zala iruditu zitzaion. Apari arin bat etxean egiteko, opil bat zekarren papertxo batean. Tximurtu ta bota papera, eta mahai ganean ipini zuan ogia. Gero arrautza pare bat prijitu ta jan zuan. Gazta ogia ta ardoarekin jaten bukatu orduko alaitu zan pixkat eta arradioa piztu zuan. Bazirudian etzegoala etxea hain hutsik arradioarekin.

Egunorokoa hartu ta logelara joan zan gero. Janzkiak erantzi, buru ondoko argia piztu, bestea itzali, eta irakurtzen hasi zan.

Iparramerikanuen indarrek berriz hartu dituzte ostiraleko jazarraldietan galdutako egonleku guztiak.

IV

Irailak 4, astelena.

Hegoaldeko gudutoki osoan, atzera hartu dute iparramerikanuek kontra-oldarraldi batez, gorrien azkeneko oldarraldian galdutako lur guztia.

Gorriek sendotu egin dituzte euren egonlekuak.

Inoiz baino bonba gehiago erorrarazi dira atzo iparkoreatarren gainean.

Fernandoren sukaldea egun hontan:

Hiru plater eta katilu bat garbitu gabe askan; bost arrautzen oskolak sutondoko haitz zurian; ogi apurrak, botila bat eta basu bat mahai gainean; paper tximurtua, ogi gogor zati bat eta apurtutako aulkitxoa behean.

Irailak 5, asteartea.

Amerikanuek irabazi dute Masango jazarraldia.

Egokoreatarrek berriz hartu dute Angang, Pohangko eskualdean.

Gorriek kontra-jazarraldi gogorak jaurtitzen dituzte gudutoki osoan.

Iparramerikanuak Taegutik 15gn kilometroraino heldu dira.

Fernandoren sukaldeko partea egun hontan:

Lau plater eta bi katilu zikin askan; zortzi arrautzen oskolak sutondoko haitz zurian eta behean; bi platanuen azalak, lau ogi zati, apurrak, botila bat eta basu bat mahai gainean; gaztae azalak, ogi gogor zatiak, paper tximurtua, botila huts bat eta aulkitxoaren zatiak zolan.

Irailak 6, asteazkena.

Bimotor errusitar batek su egin du UNOren itsas indarren aurka Korean. Bimotorra avioi ihiztariek lurreratua izan ostean, RSSBko gudu-taldeko lieutenant baten gorpua arkitu da barnean.

*Iparramerikanuek alde egin dute Pohangdik.
Komunisten artilleri astunak Fusango kaia bonbardatu du.
Arrisku handian dago iparramerikanuen egokeräa Kigyeko
gudutokian.*

Fernandoren sukaldeko partea:

Bost plater eta bi katilu zikin askan; hamaika arrautzen osko-
lak sutondoko haitz zurian eta zolan sakabanatuta; bi platanu eta
laranja baten azalak, ogi zati ta apurrak, paper tximurtua, botila
hutsa, gazta azalak, arrautz oskol zapalduak eta aulkitxoaren
zatiak zolan; egunoroko bat, ogi apurrak, plater zikin bat, sar-
dexka eta aiztoarekin, botiläa eta basua mahai gainean.

Irailak 7, osteguna.

*Egokera guztia Korean oso nahasia ta txarra UNOren inda-
rrentzat.*

*Indar askoz bultzatzen dute gorriek Taeguko hiria inguratzeko.
Badirudi laster etorriko dala iparramerikanuen oldarraldi
bat.*

Fernandoren sukaldea egun hontan:

Sei plater eta hiru katilu zikin askan; hamahiru arrautzen
oskolak, paper zatiak, bi platanuen azal beltz ustelak, laranja
baten azalak, ogi zatiak, apurrak, botila huts bi eta aulkitxoaren
zatiak zolan; egunoroko bat, ogi zatiak eta apurrak, botiläa,
basua, aiztoa, sardexkäa eta gatzontzia mahai gainean.

Fernandoren logelako partea:

Ohe bat nahas-mahas, bi ator eta igandean erantzitako bar-
ne-janzki zikinak aulki batean; galtzerdi pare bat, hiru eskuzapi
tximur eta lau egunoroko zolan; arasaren ateak zabalik eta bertako
irrist-kutxa bat sartu gabe eta barneak sakabanatuta.

Irailak 8, ostiralea.

*Taeguko sarbideak gordetzen dituan divisioak (lehendabiziko
zaldi-divisioak) atzera egin du gorrien oldarraldi berri baten
aintzinean.*

Gorriek beste oldarraldi bat jaurtiki dute hego-koreatarren kontra Tyongjutik 19 kilometro iparraldean.

Berri harrigarriak Fernandoren sukaldean:

Ezer ere ez askan! Ezer ere ez sutondoko haitz zurian! Ezer ere ez mahaian! Pilo handi batean hormaren kontra, aulkitxo hautsiaren ondoan, arrautz-oskolak, paper zatiak, laranja ta platanu azalak, eta abar; ondoan isats bat.

Irailak 9, larunbata.

Taejon, gorrien eskuetan erortzeko arriskuan.

Hegoaldeko koreatarren atzerakadaak arrisku handi bat sortu du.

Gorrien parteak dio amerikanuek gogor eusten dutela.

Gabilondo zakurrarekin etorri zanean, Ventas alderuntz joan ziran bestetan bezela.

—Ta... (Gabilondok) ondo?... Familizez ondo?

—Familiexegaz? Eztekot gehixa'u familirik. Joan yataz danak etxetik.

—Zer!... andreek separasinoa eskatu gurutsu ela?

—Ez. Eztost eskatu ezebe. Joan e'in dde.

—Joino! Yon 'in da, yon 'in da... separasinorik eskatuten ezpadotzu, zorionak emon berdatzuz...

—Zorixonak?... Zer ba!

—Joino zer ba!... nireek eskapa eustenean ezan yoon zuree lez, esku hutsekaz. Separasino eskatu eta... laskittu (fastidiatu) 'in nendun... ezin nendun kobra jornalaren erdii baino. Esa'ustean ba ze... eztakitt zer ta badakitt zer... eta beste erdii juzgaduek kentzen eustela berari emoteko.

Metro batzutan, kopetak ilun-ilun, biak ibili ziran ixil-ixilik zakurraren atzetik. Gero berriz hasi zan Gabilondo:

—Orduun zer 'in?... yoon 'in beher fabriketik, hogeï urteko asensook eta deretxo guztiik galdute... Jornal seguruu itxi, eta handik eta hortik urteten dauenagaz bizi beher, juzgaduuri ezer ez emoteko. Nik neutzako bere asko ezpadekot... ezteust ardure ze... zorionez eee... ezteuste kentzen dirurik andreri botateko ta.

V

Irailak 10, 11, 12, 13, 14.

Iparramerikanuak geldi Taegun gorrien oldarraldi sutsuak jasanik.

*Gorriek zoratuta bezela gudukatzen dute Taegu hartzeko aha-
leginetan, amaigabeko tropa-olatuak jaurtirik lehendabiziko zal-
di-divisioaren kontra, Taegutik hamaika kilometro iparraldean.*

*Hamabi kilometro galdu dituzte gorriek Taeguko gudutokian.
Ipar-sortaldetik ere, aurrera doaz amerikanuak.*

Berriz zikindu zitzaion sukaldea eta Fernandok bidea oinekin garbitu behar izan zuan han sartzeko.

Piztu gazezko sua, ipini zartagina gainean, hartu beste plater garbi bat iturri gainetik, hautsi arrautze bi eta bota oliora, eta haitz zuriaren gainean utzi zituan oskolak. Prijitu ostean, atera platerera eta mahaira eraman zituan.

Exeri baino lehen, bota mahai gaineko ogi puskak, ekarri ogia, eta basua ardoz bete zuan. Exeri zanean, begitu ingurueta-
ra, eta “emakume bat ekarri bi”ot (behar dut) etsia garbituteko”
erran zuan bere kolkorako.

Gero kalera irten eta bere zereginetan ibili zan ohituraz beze-
la. Jatetxe merke baten hartu zuan bazkaria. Etzeukan jateko
gogo handirik.

Apal orduan etxera joan zan. Pakete bat zekarren eta giltza sar-
tu ta atea zabaltzeko ezkerrean besapean ipini zuan. Gero sukalde-
ko mahai gainean utzi zuan, txakea erantzi ta alki baten bizkarre-
koan ipintzeko. Mahai gaineko aiztoaz ebagi zion lokarria, eta
papera zabaldu zuanean, han agertu ziran beste pakete batzutan,
ogi opil bat, okela gordin zati bat, urraza bat eta sagar batzuk.

Paperak eta lokarriak, ogi apurrak eta puskak eta sagar aza-
lak eta muskilak, sukaldearen zikintasuna gehitzera etorri ziran
aparia bukatu zanean.

Logeläa sukaldea baino zikinago zegoan. Ohe biak zauden
nahas-mahas. Berea nahaspildu zuanean Fernandok Inasirena har-

tu zuan beretzat. Berriz esan zuan bere kolkorako: “derrigor ekarri bi’ot emakume bat etsie garbittuteko. Ahaztu barik... beluenez (beranduenenez) bixer...” alkondara eta barruko janzki zikinak aulkietan, galtzerdiak zolan eta arasa-barneak sakabanatuta ikusirik.

Irailak 15, ostiralea.

Amerikanuek tximista berri bat atera dute. Edozer zulotu eta zehar-igarotzen duan tximista honek, aidean salto eginarazi ta apurtu ta desintegratu egiten ditu tankeak. Hamazortzi tanke gorri apurtu dituzte honela.

Inpernuko burrukak Masango inguruetan.

Egun hartako arratsaldean, apaltzera ez joatearren, jendez betetako bar batean tripakiak jan zituan, ardo beltzarekin, eta gero, beste bar batera sartu eta erretilo bete kiskil handi hartu zuan, olio ta baratxuriek (gambas al ajillo) eta asetuta gelditu zan.

Etxean sartu zanean zuzen-zuzen joan zan gelara. Sukaldea ikustea iguingarria zitzaion.

Inasiren ohe gainean exeri zan. Ukondoak belaunetan, ileak esku biekin oratzen zituala, minutu batzutan egon zan geldi-geldirik, burua ia sorbalden arte sartuta, eta okotza bularraren kontra.

“Aa Inasi Inasi, zuk ematen zenion epeltasuna gela honi bertan egonez, besterik gabe. Zu bertan ezagozala hau munduko lekurik hotzeta ta bakartieta egin zait. Denbora zoriontsuak amaitu zerate neretzat...”

Gero ohe ondoko mahaitxoaren gaineko arradioa piztu, arropak erantzi ta ohean sartu zan.

Hamaiketan inguru, aldika lo ta aldika arradioa entzuten zegoala, logureak garaitzen zuala ikusirik, arradioa ta argia itzali zituan.

VI

Urduri-urduri esnatu zan gau ilunaren erdian tripakominekin eta izerdiz busti-busti eginda. Tripakomina gero ta biziagoa egi-

ten zitzaiola biraka ta biraka hasi zan. Esnatuta egon arren ametsetan zegoan oraindik, eta ez zan eramangarriagoa ametsak ematen zion atsekabea tripakominak ematen ziona baino.

Leize sakon batera erortzen zala ikusten zuan. Haitz zorrotzen puntak eta zugaitzen adarrak zast zast zast igarotzen zitzaizkion ondotik eta oratu ezinik, bera gero ta arinago sartzen zan gelditu gabe lur azpitik munduaren bihotzera buruz. Alde batetik bazekian berak dana gezurra zana, hantxe bertan oratzen baizituan izarak eta ohea, baina ezin zuan kendu burutik leize saketik behera erortzeak ematen zion bildurra, eta etsituta saiatzen zan adarren bati oratzen.

Artean etzitzaion kentzen tripakomina, aitzitik gero ta biziagoa egiten zitzaion. Ezin egon geldi tripakominaz eta izarak busti-busti eginda izerdiaz, larruan inkatzen zitzaizkion eta etzioten uzten adarrei oratzen.

Etsituta zegoan eta bildur handi bat sartu zitzaion hezurretan: heriotzaren bildurra.

—Ai eneeee! —egiten zuan larri larri—, ai neure Jaungoiko maitie! Ai neure bixotzeko Ama Birjina maitie, enaizu itxi hiltten!

—Agur Maria graziaz betia, Jauna zeugaz dago, bedeinkatua zara... —egiten zuan Fernandok.

Zenbat denbora egon zan gau hartan leizetik behera erortzen eta otoitz egiten tripakomin izugarritz? Urteak esango luke berak.

Halako batean izugarri bizia egin zitzaion tripakomina.

—Aiii!... aiii!... aiii!... —egiten zuan arnasa botatzen zuan bakoitzean. Noizik behin— Ai Ama Birjina maitia! aiii!... aiii!...

Luzaro egon zan aieneka, halako tripakomina jasan ezin zualakoan. Baina hura etzan ezer. Tipuski mila bider biziagoa egin zitzaion.

—Aiiiiiiiiiiii!!!!... —egin zuan gizagaixoak orduan.

Izerdiz busti-busti zegoala soka batek inguratzen zion samäa eta beste soka batek bizkarra mintzen zion azpitik. Etziran sokak, izarak ziran, izerdiz bustiak eta bira-biraka bilduak.

Ezkerreko ankaan eta besoetan sentitzen zuan artilaren ikutze latza eta oinetan eta eskuma aldeko ankaan haizearen hotza izerdiz bustitako larruan, toki batzutan estalduta eta beste toki askotan estaldu gabe baitzuan haragia.

Ankak gelditu ezinik, zast zast zast, txirrindulariek bezela erabiltzen zituan. Ordu asko ibili zan pedalei eragiten. Gero tripakomina motelduagotzen hasi zitzaion.

Azkenean Londonen arkitu zan, lainoaren erdian eta bildusik. Erdi lotsatuta zebilen hiri handi hartan, larrugorritan joan behar zualako, eta policeman bi idoro zituan.

Arraiua! Policeman biak bere herrikoak ziran! Babalasto eta Matxin.

—Koino! Zeuek Londresen? Ze'itte'ozue ba halako arropakaz?... —eta Babalastok,

—Geu ee... polizixek sartu gozak eta hemetik gabiltzoazak.

Fernando berriketan hasi zitzaien. Eta bildusik zegoala disimulatzeko, jendeen artetik sartu zan. Bere gorputza besteen gorputzekin estu-estu eginda etzan igertzen arropak jantzi gabe zegoala. Beste gorputzekin estalduta gelditzen zan.

Orduan Iziartxu etorri zitzaion ondora etxeko arropakin jantzita.

Fernando etzan harritu. London etxe ondo-ondoan egiten zitzaion...

VII

Esnatu zanean egun argia zan.

Dana itxita egon arren, eguzkiaren dizditzerek, leihoko zulo txikietatik zeihar igaro ta hiru orban zuri egiten zituzten zolan; argi-argitsuak eta biribil-biribilak. Nahikoa zan orban zurietatik hedatzen zan argia, iluntasunean ohitutako begientzat, gelako lau bazterretarainoko gauza guztiak ondo-ondo ikusteko.

Fernando arras ongi sentitzen zan. Tripakomina eta sukarra joan zitzaizkion, arrastorik ere utzi gabe.

Oroitu zan orduan nola ibili zan otoitz egiten, Jaungoikoari ta Ama Birjinari laguntza eskatzen ta lotsatu egin zan. Eskerrak inork etziola entzun...

Piztu zuan argia ta hasi zan oheko oihalak konpontzen. Artilezko estalkiaren ertza okotzpean ipini zuanean bularrean bukatzen zitzaion. Tolestuta zegoan. Zabaldu ahal bezain ondo eta orduan belaunetaraino. Luzerazko ertza barik zabalerazkoa zan okotzpean ipini zuana. Azkenean, lan askorekin, ia bere tokian ipintzea lortu zuan.

Soka baten moduan bihur-bihur eginda zauden izarak ondo ipinten hastea alperrik izango litzake. Burusia ondo ipintek eman zion nekea nahikoa izan zan.

Begiratu alboko oheruntz eta hara joatea erabagi zuan. Oso nahaspilduta egon arren, askoz hobeto baitzegoan. Baina geroko utzi zuan, orduan makalegi sentitzen zan ta.

Txarrena igarota zegoan. Larunbata zan eta, ohituraz bezela, Gabilondo etorriko zan arratsaldeko lauretan. Bere adiskide onari eskerrak etzan hilgo txakur baten moduan, inoren laguntzarik gabe. Gabilondok deituko zion atezainaren emazteari oheak atondu eta geläa garbitu zezan eta berak ekarriko zuan sendagilea ere. Laurak arte itxarotea baino etzegoan.

Orduan alboko ohera aldatu zan. Oinak estaldu gabe gelditu zitzaizkion. Beko partean izarak eta burusia askatuta zauden. Baina artilaren laztasuna barik izeren gozotasuna sentitzen zuan larruan, eta hau nahikoa zan hobeto egoteko.

Erlojuari begiratu zion. Hurbil zegoan arradioaren berriak entzuteko ordua. Behar dan numeruan ipini, piztu, ta argia itzali.

Musikäa ta propagandazko berriketak amaitu ziranean *correo hablado* delakoa hasi zan Koreako berriekin:

Amerikanuak Inchonen leihorreratu dira, Seultik hogei ta bederatzi kilometro!!!... Yongdoken eta Pohangen ere bai!!!!... Bai ta Wolmi ugartean ere!!!!...

Mac Arthurek berak zaintzen ditu operazioak ontzi-insigniatik.

Seuleruntz abiatu eta Kimpo deritxan aerodromua hartu dute UNOren soldaduek.

Berri hauek gorrien hondamendia adierazten zuten. Koreako guduak bira egin zuan egun hartan eta agerian zegoan etzirala komunistak irabaziko zutenak.

Arradioa itzali ta aho bete haginekin gelditu zan Fernando. Minuto batean entzundako berriekin, Gabilondok eta berak esaten zuten guztia lurrera erortzen zan kartakin egindako gaztelu bat bezela.

Estaldu ondo agerian zauden oinak artilezko burusiarekin, ipini ondo okotzpean ere, ta geldi-geldi geratu zan.

—Arraixua!... —esan zuan—, hamaika ikusteko jaixo ginien!...

Laister lokartu zan, ezkerreko aldearen gainean, zegoan bezela.

VIII

Hiruretan edo, berriz esnatu zan izerdiz beterik. Berriz hasi zan:

—Aiii!... aiii! Aiii!... —tripakominaz, eta ankak mugitzen txirindularien modura.

Oso luzea egin zitzaion denboräa laurak jo arte igurikitzen, baina heldu ziran laurak azkenean, bai ta bostak ere, baina ez Gabilondo.

Etzan etorri larunbat hartan, ez ta hurrengo larunbatetan ere. Koreako guduak beste itxura bat hartu zuanetik, etzuan sentitzen antza, lehengo lako gogoa Fernandorekin ibiltzeko. Fernandok etzuan gehiago ikusi urte askotan.

Ilun xamar zegoan gela hura, batez ere arratsaldean, eguzkiaren dizdirak zuloetatik sartzen etzirala, goizean bezela. Erdi iluntasun hartan, ohi ez bezelako itxurekin agertzen ziran gelako gauza ezagun guztiak, tokia mamuen batzarleku bilakatu bailitzan.

Berriz sentitzen zan oso gaizki bostetan eta tripakomina gero ta handiagoa, gero ta biziagoa, egiten hasi zitzaion.

Orduan heriotza ikusi zuan gela bazterrean, alki batean exerita, bere sega handia hormaren kontra.

Fernando larri larri, ia negarrez hasi zan:

—Ai Ama Birjine maitie!... aiii!... aiii!... aiii!... parkatu e'ix-tazu, parkatuuuu!... aiii!... aiii!... aiii!... okerra izen naz!... geiz-toa izen naz!... aiiii! Parkatuu!... parkatuuuu!... aiii!... arren enaizu itxi hiltten!... aiii!... aiii!... ona izengo naz!... parkatuuuu!...

Orduan joan egin zan heriotza handik, beste batengana.

Gero, zeruko Ama Birjinari bihotz bihotzetiko eskerrak emanik, han heriotzik gehiago ikusten etzalako, berriz hasi zan:

—Aiii!... aiii!... aiii!... —hatsa botatzen zuan bakoitzean, eta ordu erdi barru edo—, grrr... grrr... grrr... —lo gelditu zan.

Inork ere etzion ekarri sendagilerik, inork ere etzion eman katilu bete salda bero behar izan zuanean, inork ere etzion konpondu ohea, inork ere etzion lagundu komunera, bakarrik joan ezin zanean. Etzuan jan ezer ere, etzuan edan ur tanta bat ere. Behin komunera zoala burua biraka hasi zitzaion eta erori egin zan konorte gabe ta zolan egon zan etzanda luzaroan.

Inoiz baino gehiago sentitu zuan Inasiren faltäa...

Sei egun egon zan heriotzaren besoetan, eta azkenean, berez sendatu zan.

AMAIA

I

Honezkero ilun dago. Erlojua begiratu ta bederatzita ta hamarrak.²³

Hiruretatik dago han exerita Txomin, elektronikazko liburu bat mahai gainean zabaldua.

Kafe batekin hasi, eta gero, denbora luze hartan handik mugitu gabe egoteko garagardoa eskatu zuan. Hirugarrena da mahai gainean daukan botilatxoa.

Cogoetatsu dago, Iziartxuneko leihoei begira. Argitutako rektangulu bat zaintzen du. Ezta Iziartxuren leihokoa, badaki berak eztagoena alde hartan bere maitearen geläa. Leiho hau Fernando ta Inasiren gelakoa da.

Irailaren bigarrena da. Egun joan dira etxetik Inasi ta Iziartxu, Txomin etorri baino minutu batzuk goizago.

Hain zuzen ere, egun etorri da bera Iziartxurekin hitz egiteko asmoz, eta harrituta dago, halako eguraldi bero batekin arratsalde guztian kanpora irten gabe egon dala ikusirik, ezpaitaki amarekin etxetik alde egin duenik.

Etzion nahi ezer esatea berotan, Martinezekiko haserraldia berriegia zala. Orain ustegabe itxurazko buruz buru bat konpontzea

²³ *bederatzi ta hamarrak*. Ordu-esakera hau hiztunek beste era honetara esaten dute sarriago: *bederatzia eta hamar*.

nahi zuan, elkarrekin topo egin, eta hitz batzuk erraiteko. Baina berandu arte itxaroten egon arren, oraindaino agertu ere etzan egin.

Bi bider joan zan hurrengo astean, eta bietan ere alperrik.

Denbora hartan Txominek elektronika asko ikasi behar zuan, eta ezin egon zitekean luzaro, liburuekin sakonki saiatu gabe.

Irailaren bederatzigarrean, larunbata berriz orduan, lauretan joan eta arratsalde guztian egon zan cafeterian betiko liburuarekin, Iziartxuren atartea begitik kendu gabe, baina alperrik orduan ere. Etzuan ikasi behar zuana, eta bakarrik Fernando ikustea lortu zuan, adiskide batekin irten, eta zortziretan etxeratzten zala.

Irailaren hamaseigarrean, lauretan zintzo-zintzo leiho ondoan exeri eta apalorduraino mugitu gabe egon arren, etzuan ikusi, ez Iziartxu, ez Inasi, ez ta Fernando ere.

Gauza harrigarriagorik?... Zer gertatzen ote zan etxe hartan?

Hurrengo ostiralean, lanetik irten eta zuzen-zuzen joan zan bost eta erdietan, eta zortziretan Fernando etxean sartzen zala ikusi zuan.

Bizi ziran beraz oraindik etxe hartan... gutxi faltatu zitzaion atezainarengana joan eta galde egiteko. Zorionez etzuan egin hau, bestela berehala jakingo luketen Fernandoneko guztiek Txomin galdetzen egon zala. Etzan hau berak nahi zuana.

Biharamonean ere han egon zan. Arraiua!... etzuan ikusi Fernando irten ta sartzen baizik... bi emakumeen arrastorik ez!

Igande goizean mezäa entzuterakoan, Iziartxuk entzun ohi zuan mezara joan zan. Bainan han etzauden, ez Iziartxu, ez Inasi. Gauza harrigarriagorik!...

Txomin kanpoan egon zan elizatik ateratzen ziran arpegi guztiak banan bana aztertzen. Azkenekoa joan zanean, egunorokoa erosi ta irakurtzen hasi zan.

Amerikanuek aurrerakada izugarri bat egin dute. Seulen inguruetan dagoz. Gorriak atzeruntz doaz hegoaldeko gudotokian atzerakadäa egiteko bideak ebagiko dizkioten bildurrarekin.

Mac Arthurek gorriei: errendi edo hil.

Hurrengo mezäa bukatzeko dagoenean, sartu egunorokoa sakelean eta elizara berriz.

Aztertu jende guztia banan-bana, eta eztu inundik ikusten ez Iziartxu, ez Inasi, baina baliteke kolumnen baten osteko jendeen artean egotea.

Mezäa bukatzen danean, berriz zaintzen ditu kaletik ateratzen diran guztien arpegiak. Eta dana alperrik.

Bira bat eguzkitatik denbora egiteko hurrengo mezaraino. Goizearen ederra! Eguraldiaren diztiratsua!... Danak dotore-dotore, aa!... Iziartxurekin balego!... Hau egun zorionsua andregeiarekin doaztenentzat!

Jende asko dago eliza aurrean sartzeko ordua igurikitzen.

Zabaldu egunorokoa eta irakurtzen hasi baino lehen, hara non ikusten duan Fernando elizako atetik barrura.

Zer gertatu ote zaio? Geixorik egon da noski, papera baino zurbilago eta guztiz argalduta baitago... Arraiua! Alde guztietatik sobratzen zaizkio arropak!

Itxaron eta itxaron, eta azkenean, mezäa bukatzen danean Fernando jendearekin irtetzen ikusten duala, beregana doa.

II

—Zelan zabiz, Fernando?

—Txomin! Ondo ta zu, lagun zaharra!

Guztiz argalduta eta zurbil-zurbil egon arren, Fernandok munduko gizonik zorionsuena dirudi, haginak irriz erakusten dituala.

—Zer... geixorik egon zara ala?

—Bai... larri ibili naz, baina paseu yat dana Jaungoikoari eskerrak. Ta zure biherra zer, pozik za'uz? gustetan yatzu?

—Baaa... tira, enabil txarto. Ta... Inasi ta Iziartxu?.. Zelan da'uz? Eztotez ikusi aspalditik —galdetu zuan Txominek, jakin-gura izugarria disimulaturik.

—Hárek ondo da'uz. Ba'kizu... beti prakak e'itten.

Egon zan galdetzeko ea nola etziran ateratzen etxetik, baina etzan ausartu. Nola autortu hainbeste denboran egon zala zain

hau jakiteko? Hurrengo arte eta goraintziak esan, eta eskuak estutu ostean, bakoitza bere aldetik joan zanean, Txominek sentitzen zuan jakingurea lehenago baino handiagoa zan.

Bazkalostean, jokatu zituan musean partida batzuk lagunekin kafean, bai ta frontoira eta gero Victoria karrikako ardantegietera joan ere, baina ezin zuan kendu burutik Iziartxu eta bere amaren misterioa.

Eskuak sakeletan sartuta, burua beherutz begira, bira asko eman zizkion arazo honi, adiskideen berriketei arreta gutxi emanetz. Elizan izan ezik, non idoro Iziartxu?...

Fernando idoro beharrean Inasi idoro izan balu, ez zitzaken geldituko ezer jakin gabe orain bezela. Gauza guztiak zehatz-zehatz jakiteko, ez zitzaion tiratu behar asko mihitik Inasiri. Haren mihia ez zan Fernandonaren antzekoa, olioiz igurtzitako gurpilak baino errezago zebilen, apurtxu bat sakatu ezkerero.

Ibili ta ibili, oroitu zan azkenean Txomin, nola joan ohi zan Inasi ostegun guztietan *Galerías Preciadosa* (Madrilgo denda handi batera) astean egindako prakak eraman eta dirua hartzera.

Fernandok erran zionez, orain ere halako janzkiak egiten ari ziran. Gauza ziur-ziurra zan beraz, nahiz Inasi, naiz Iziartxu, hurrengo ostegun goizean ere denda hartara joango zala.

Korapiloa askatzeko beste modurik aurkitu ezinik, hurrengo ostegunean bera be hara joatea erabagi zuan. Azteazken arratsaldean, ostegun goizean ez etorteko baimena eskatu zion bere nagusiarri, eta biharamonean *calle Preciadosa* joan zan, esandako dendara.

Bilatu aurrentzako janzkiak saltzen ziran bazterra, eta hango gizonari, ea egun hartan ekarten ote ziran egindako prakak galdetu zion, eta beronek baietz, baina hamaiketan, ihardetsi zion.

Joan zan ba herriz hamaiketan, eta berak igurikitzen zuan bezela, han idoro zuan Inasi.

III

—Txoomin!... Aspaldiko! Nundik zabiz? Zelan doa zure *Radar* edo traste hori?

—Ondo, ta zu Inasi?... Ta zu zelan zabiz zeure biherrakaz?

—Tira... defendiduten gara. Hain zuzen be, asteko lana ekar-
ten etorri naz. Ta zeuk eee... eztekozu gaur biherrik ala?

—Ez. Gaur eee... ugezabaren jaixotegune da taaa... jai emon
doskue.

—Eta zek ekarri zaittuz ba denda honetara?

—Baaa... kaltzerdixek erosi biher nebazan daaa! hona etorri
naz.

—Baina pisu honetan umientzako arropa'paino (arropak bai-
no) eztaukozuz. Ai zuek gizonok, zeuek zarie bai despistauek!
Itxerain e'iztazu apur baten, eta neuk lagunduko dotzut gizonen-
tzako arropak saltzen diran pisura.

Txomin itxaroten zegoala, Inasi hizketan hasi zan hango
nagusiarekin.

Inasiren euskal kutsuzko erdera mordoiloa ta gizonaren erde-
ra garbia barre algarekin nahastatuta belarri bazterrekin eta arre-
tarik eman gabe entzuten zuala, bira batzuk egin zituan salgeien
arte aurrentzako arropak eta gauzak aztertzen denbora pasatzeko
Inasirekin hitz egiteko ordua heldu arte.

Etorri zan Inasi azkenean eta,

—Erdu! —deitu zion—, neuk eroango zaittut galtzerdixek
saltzen diran lekura —eta biak abiatu ziran zurubietaruntz.

—Daaa... Fernando zelan da'u?... Osatu da ondo? —galdetu
zion Txominek zerbait esatearren.

Inasi aho bete haginekin gelditu zan bere begira.

—Zer ba?... Geixorik egon da ala?... —galdetu zion.

—Geixorik egon ete dan itauntzen dozu?... Eztakizu zeuk
ino'paino (inork baino) hobeto ala?... —galdetu zion harrituta.

—Ai Txomin, Txomin!... Zuk eztakizu bape bape... gauza
asko paseu dira gure etxien zu joan zineanetik. Eeeee!... nora
zoaz? Ez bajatu hortik, hementxe daukazuz kaltzerdixek eta gizo-
nentzako barruko arropak.

—Iziartxu ta bixok joan e'in gara etxetik —esaten du emaku-
meak.

Txomin gelditu egin da.

—Zer... Harrituta izten nozu!... Ezariela bizi Fernandogaz zu ta Iziartxu?... Eta hori zelan izan leike ba, Inasi?

—Bai, halantxe da —berriz ibiltzen hasten dirala—, urten biher izen gendun etsetik. Fernandok ezeuskun izten (uzten) elizara joaten. Hereje itzela da. Ezteu sinestuten ba'pe (bat ere), eta ezteu gure geuk, sinesten doguno'pe (dogunok ere) elizara joan gaittezenik... Eta holan bizitteko... hoba da... askozaz hoba da, bakotxa bere aldetik joatie —ihardetsi zion Inasik arpegia goibeltzen zitzaiola.

—Zelan esan zeinke hori, neuk domekan mezetan ikusi neban da! —erantzun zion Txominek, begiak zabal-zabalik.

—Mezetan ikusi zendula?... Ezin leike. Beste bategaz konfundiduko zendun.

—Beste bategaz konfundidu, beragaz berba e'in nebanien?

—Beragaz e'in zendula berba elizien?

—Elizien ez, elizetik urten ebanien.

—Eta zeuk ikusi zendun elizien?

—Baietz ba... neuk ikusi neban... bai andrie bai, sinestu zeinke!

—Ia ia... zelan izen zan hori?

—Baaa... pentseu barik eee... zeuen auzoko eliza ondolik paseu nintzan... etaaa... o'ndino mezie entzun barik negoalez eee... barrure sartun nintzen. Gero han ikusi naben Fernando. Kalera urten gendunien, berba e'in naben beragaz. Hazurra'paino (hazurrak baino) etxakozan ikusten. Makal-makal eta papela baino zurixa'ua egoan. Ia geixorik egon ete zan pregunteu notzaniien, baietz esa'usten (esan zidan), baina paseu yakola dana. Ia zuek zelan zengozen pregunteu notzan eta ondo esa'usten. Zeuei neure partez goraintzixek emoteko taaa... joan ginien gero, bakotxa alde batetik. Eta hor dekozu dana espliketa...

Inasi adi-adi egon zitzaion, denbora guztian ixil-ixilik, eta Txominek bukatu zuanean, oraindik minutu batean edo, harrituta jarraitu zan, ezer erran gabe. Azkenean,

—Txomin! —erran zion gure adiskideari—, nik ba’kitt (badakit) guzurrik esaten eztozula, baina Fernando elizara joaten hasi dala sinestuteko, ikusi e’in bi’ot neure begixekaz.

Biak kopet ilunekin oldoztu ta oldoztu, jakin gabe irten dira ate nagusitik kalera, eta eztituzte ohartzen jendearen harat-hunatak, askotan topo egin arren arin-arin doaztenekin.

Azkenean berriz hasten da Inasi hizketan.

—Etsien Fernandogaz geixa’u ezin egon, eta alde e’in nebanién, nozonoz dana konponduko zalako esperantziegaz joan nintzen, azkenien damututa gure billa etorriko zalakoan. Baina... Ba’kitt alperrik dana itxeraittie —dio negar-malko bat eskuaz kendurik—, ezta etor’ko sekula, mille bider damututen bayako be. Orgulloak galazoten dotzo.

—Ez esan orgulloa, ba’kizu hori euskeraz esaten, orgulloa barik, harrokerixe esa’izu.

—Ez, harrokerixe ez, harrokerixe orgulloa baino itsusixa’ua da.

—Egixe da. Harrokerixe barik, harrotasuna esan bi’ko gendun euskeraz honelako kasuetan.

—Geuze bat e’ingo’t (egingo dot) —erraiten du orain Txominek—, neuk ikus’kot ia elizera joaten dan, eta sartzen ikusten b’ot (badot) entsegida deittuko’tzut. Ba’kozu telefonorik?

—Bai, ba’ukot. Ba’kitt alperrik dana. Fernando elizien billatzie... sardinak mendixen edo eperrak itxasoan billatzie lez da. Baina apunte’izu gure b’ozu.

Eta Txominek sakelak banan-bana alperrik aztertzen zituala, Inasik, zabaldu bere esku-poltsäa, atera berehalaxe handik lapitza eta paper zati bat, eta eman zizkion. Inasik esandako numerua idatzi, eta Txominek atzera ematen dio lapitza. Gero, elkarri agur esan ostean, bakoitza bere bidetik hasi zan: Inasi metrotik behera eta Txomin Gran Viatik gora.

Ozta-oztan ibili zan hamar bat metro,

—Eeeeeee!! Txomin!! —atzera deitzen ziola entzun zuanean.

—Kaltzerdixek ahaztu yatsuz!... Zelako buruak!...

Txominek, bekokia ukaturik,
—Egixe!... —eta dendaruntz bira eginik, agur egiten dio Inasiri eskuaz.

Txominek, Inasi jendearekin nahastu eta metroan sartu dala uste duanean, bira egiten du berriz, Gran Viatik gora joateko.

Inasik ere, Txomin nahiko urrutiratu dala uste duanean, bira egiten du, eta metroko zurubi guztiak igon gabe, burua kalearen parean duala, atzetik begira jartzen zaio. Dendan sartu beharrean atzera datorrela ikusten duanean, bira berriz, eta metrotik sartzen da irrinoa ezpainetan.

IV

Larunbat goizean Txomin, zortziretako mezatara joan zan, Iziartxuren auzoko elizara, eta handik mugitu gabe, zortzi ta erditakoa ere entzun zuan.

Bederatzitakoa hasi zanean ere, bertan gelditu zan.

Hau ikusirik, alboko konfesonarioan zegoan apaizak, “honen moduko gazte gutxi ikusten dira gaur”, esan zuan bere kolkorako.

Larunbat guztietan bezela libre egonik, bada ezpadan, elizara etorri zan.

Etzeukan Fernando ikusteko itxaropen handirik, baina benebenetan sinesten zuan igandean, biharamonean, zintzo-zintzo etorriko zala.

Honelako gogoetak oldozten zegoala, etzan harritu gutxi, ebanjelioa hasi baino apur bat lehenago, Fernando sartzen ikusi zuanean.

Aitaren egin eta arrapaladan joan zan betiko cafeteriara.

Eskatu ficha bat (denbora hartan guztientzako telefonuetatik hitz egiteko fichak erabiltzen ziran) eta telefonura joan zan arinarin. Eskuan zeukan Inasik emandako numerua, eta berehala markatu zuan.

Oraingoan subertea bere alde zegoan: abots batek *diga* erran zionean, klik erresortea sakatu, ta ea Inasi etxean ote zegoan? eta baietz.

—*Quien es?* —galdetu zuan Inasiren abotsak.

—Egun on, Inasi —esan zion berak euskaraz. Besteak igarri nor zan eta,

—Egun on, Txomin. Zer da?

—Hontxe dozu Fernando elizien. Taxi baten arin-arin etorten bazara, mezetan tope'ko'zu.

—Hontxe-hontxe noa. Bai, taxi bat hartuko't.

Txomin komuna joan zan piz egitera. Urduri-urduri zegoan. Handik berriz elizara.

Barruan sartu gabe, harat-hunataka hasi zan atartean. Hamaika bider minutuko begiratzen zuan eskuturrean zeukan erlojua.

Txomin dotore jantzita zegoan, eta handik igarotzen ziran bidezti batzuk, bere urduritasuna oharturik, ageri-agerian zegoe-la esan zuten, emaztegeiaren zain zegoela ezkontzeko.

Azkenean, Inasi ta Iziartxu taxi batean agertu ziranean, beranduegi heldu zirala esango zukean, baina erlojua ez zan ibili berak uste izan zuan beste. Ez zegoan geldituta. Ordubete barik, ordu lauren baino ez zan igaro.

Inasik gertu zeukan dirua, eta jeitxi ta segundu bat ere galdu gabe ordaindu taxizainari ta berehala sartu zan elizan Iziartxu ta Txominekin. Inasik beste biei ur bedeinkatua eman zien. Parrokia berria zan, eta aurreko aulkietan izan ezik, hutsik zegoan.

Jendearen atzean, aulki luze batean, hirurak belaunikatu ziranean, begiratu Txominek apuntatzen zuan tokirantz, eta han ikusi zuten Fernando, belauniko bera be. Hain zuzen ere, orduantxe ematen zuan apaizak komunioa.

Kliiin... kliiin... kliiin... egin zuan meza-mutilaren joareak (konzilio aurreko denboretan hala egiten zan. Eta hemen gertatzen dana hobeto uler dezagun, zera gomutaerazo behar da: arratsaldeetan ez zala egoten mezarik denbora hartan eta komunioa mezäa bukatu ostean ematen zala).

Apaiza, jendeari begira, ostia eskuan zeukala kopoi ganean, zurubiak bajatzen hasi zan eta Jauna hartzera zoazten emakume-

en arte, gizon bakar bat ikusten zan: Fernando. Inasik, atera eskuzapia poltsatik eta negar-malkoak txukatu zituan.

Bost edo hamar minutu, eta mezäa bukatuta, jendea oraino irtetzen amaitu gabe dagoela, bere tokia utzi, senarra dagoen lekura joan, eta bere ondoan belaunikatu baino lehen, Inasik mosu bat ematen dio elizan bertan.

Une hartako samurtasuna sentitzen duala, ahaztu zaio ia Txomini nor daukan alboan. Eta orduan, esku batek ukutzen dio besoa.

Begiratu ezkerretara eta munduko begirik politenak bere begira dagozala ta munduko neskarik ederrenak far egiten diola ikusten du.